

Hitzaurrea:
Hartzea eta Joana (Ostiako kideak)

Itzulpena:
Eider Beobide Urkizar

LEHEN ASTINDUAK

IRAULTZA EKOLOGISTA BAT

LURRAREN ALTXAMENDUAK



Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturearen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Lurraren Altxamenduak

LEHEN ASTINDUAK

Lurraren Altxamenduak

LEHEN ASTINDUAK

Itzulpena: Eider Beobide Urkizar

Hitzaurrea: Hartzea eta Joana (Ostiako kideak)

Jatorrizko izenburua (2024): *Premières secousses*

Egilea: Les Soulèvements de la terre

Jatorrizko lizentzia: © La Fabrique éditions, 2024

Itzulpena: Eider Beobide Urkizar

Hitzaurrea: Hartzea eta Joana (Ostiako kideak)

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2025eko abendua

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argialetxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopianu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-10316-20-1

ISNI: 0000 0005 1330 6065

Lege gordailua: NA 2512-2025

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
HITZAURREA: ALTXA MAKILAK	15
SARRERA	19
LURRERATU EKOLOGIA:	
OINAK LURREAN DITUEN BORROKAREN ALDE (IRITZIA)	27
BAT	
DESARMATU HORMIGOIA	35
Grand Péril Express	36
Hormigoi armatua: ikerketa existentziala	45
Gelditu makinak: desarmatzearen hipotesia	60
Eraiki hormigoiaren aurkako frontea	74
Hondamendia eta jarduteko gaitasuna.....	80
Aktibismoaren paradoxak.....	86
Saint-Colomban: hondar alearen politika.....	96
BI	
DEUSEZTATU AGROINDUSTRIA	103
<i>Rage against the bassines</i>	104
Alderantzikatu joera: deuseztatzearen hipotesia.....	131
<i>Bye-bye Bayer, ciao Monsanto!</i>	148
Konfrontazioaren paradoxa.....	152
Iraupenaren ikuspegia.....	165

HIRU

BERRESKURATU LURRAK	177
Zer da defenditzen den «natura»?	178
Suminaren mahatsak	188
Mahukak jaso: lurak berreskuratzearen hipotesia	193
Berrarmatu basoa	223
Lurak berreskuratzearen paradoxak	226
Glaziarren atzerakada	237
<i>All power to the people!</i> Lurralde borroken ekologia	243

LAU

SORTU ANTOLAKUNDE BAT URRATSEZ URRATS	259
Antolatzekeo beharra antolakunde politikoek porrot egin duten mundu batean	260
Zeharkako antolakundea	269
Osaketaren apustua	283
Zoritxarraren aurka irautea eta eraldatzea	290

LURRIKARAK	301
-------------------------	-----

KRONOLOGIA	305
-------------------------	-----

LURRAREN ALTXAMENDUAK MUGIMENDUAREN

GAUR EGUNGO EGITURA	311
----------------------------------	-----





PAS DE PA
SANS PAYSAN

TRACTE

ARGITALETXEAREN OHARRA HORMIGOIARI SABOTAJEA, ASFALTOARI ERASO

Edo zuk ezagutzen ez dituzun arren,
hemendik urrun lurmentzen ari diren
izebergena azaldu ahal banizu.

Nuklearrak, fosilak, eguzki-plakak,
haize-errotak, abiadura handiegiko trenak.
Behin abiatu eta geratzen ez dakigun
txikizio hau dena.

Ederra zara, zaharra zara,
baina zu inork ez zaitu maite.

Ederra zara, zaharra zara,
baina jendeak dirua maite du.

Anari, Txikizio hau dena

Ustekabeko hondamendi naturala Valentzian; kakaoaren eta kafearen prezioaren neurririk gabeko igoerak supermerkatuetan; AEBen eraso militarrek petrolioa duen Venezuelari; ustelkeria zantzuak eta Belateko portuari enegarren zulaketa jokalari berean; Abiadura Handiko Trenaren sarraskia Castejon eta Iruñerriaren arteko 65 kilometroetan; Lurraren ardatza mugitu dute Txinako urtegi erraldoiek; Katrina urakanaren hamargarren urteurrena; benetakoa ematen duen Holobiontea irrati nobelaren hirugarren denboraldia ekoiztu du Ulu Mediak eta EiTbk plataformetan entzungai jarri du; Bakaikun, Ataunen eta Idiazabalaren AHTaren trenbidearentzako zazpi zundaketen albistea, hidrogeologo bat prentsaurrean azaltzen ekarriko dituen kalteak; meategi berrien proiektuak Zangoza inguruan eta Baztanen; Ibaizabal urpetik zeharkatzeko tunela Bilboaldeko itsasadarrean

eta Araba osoko muinoak haize-errotez betetzeko proiektu sarea eta landak plakekin betetzeko diseinu berdeak.

Gertatu da apokalipsia Srecko Horvatek dioen bezala? Aurki izango da baina ez dago atzera bueltarik? Artikula daiteke politikoki erresistentziarik, ala nihilismoa da irtenbide bakarra? Ezertarako balio du gertuko nekazariei erosten diegun saskiak? Gure kontsumoa eraldatzen dugunean eraldatzen ari al gara mundua? Baina, funtsean, ba ote da inor, natura suntsitzen duten proiektuei aurre egin eta garaipenen bat erdietsi duena azken bi hamarkadetan Europan? Bai!

Lurraren Altxamenduak deitzen da, sare bat da, Frantziako Errepublikako txoko askotan aritzen da eta Covid 19aren pandemiaren ostean hasi zen sortzen. Hain zuzen, 2010etako ZAD (Zone à Défendre, Babestu beharreko gun) mugimenduaren oinordekoa da: determinatua, irudimentsua, anbizio ekologista handikoa eta 1990etatik, akaso, letra larriz suertatu den eskala handiko zuztarreko politika autonomoa egiteko gai izan den sare bakarra. Notre-Dame-des-Landes-eko aireportuaren aurka hasi zen 2009tik aurrera eta Sivens-era (Tarn) zabaldu zen gero, urtegi baten kontra, eta Roybon-era (Isere) proiektu turistiko baten kontra. Pandemiaren ostean eman zuen ZADak Lurraren Altxamenduenganako jauzia eta, horren ostean, 150.000 jarraitzaile baino gehiagoko mugimendu bilakatu da. Liburuan irakurriko duzunez, lurraldea zuzen irakurtzeaz gain, militantzia ereduari buruzko gogoetak egiten dituzte, fisikaz eta kimikaz aritzen dira, geologiaz eta ekonomiaz.

ZE SARERA DATORREN LIBURUA

Beste eremu askotan bezala, hutsunea presentzia baino handiagoa da euskaraz ekologiari eta desobedientzia zibilari buruzko liburuei dagokionean. Baina har ditzagun aintzat ekarri direnetako batzuk, sare horretan txertatzen delako lan hau ere, justizia sozial erradikalaren, lurraren defentsaren eta desobedientzia askatzailearen markoan: Iñaki Petxarromanen *Lurra, zorua bailitzan* (Txalaparta 2010) eta *Su haietatik ke hauek*. Gipuzkoa: *errausketatik zero zaborrerantz* (Txalaparta 2012); Iñaki Etxelekuren *ZAD bizi dutenen ahotik* (Gatuzain 2018); Urko Apao-lazaren *Zuloan. Bidaia bat AHT eta lan-esplotazioan barrena* (Argia 2018); Nick Estes-en *Gure historia da etorkizuna* (2020 Katakarak);

2021ean argitaratu zen *Mundua eraldatuz gozatzeko errezeta* liburua misteriotsua, Henry David Thorearen *Walden* (Katakarak 2021), Vera Zasulitx eta Karl Marxen *Errusiako gutunak*. Azken Marx, *landa-komuna eta ezinezko iraultzak* (Katakarak 2025) edota Onintza Enbeitaren *Bizitza baten txatalak* (Argia 2025).

Ezinbestekoa iruditzen zaigu, bidenabar, egunero suntsitzen ari den gure lurraldearen salbazioa martxan jartzeko, gure eremuetatik kanpo egiten diren praktikak eta diskurtsoak ekartzea.

Iruñea
2025eko azaroa



HITZAURREA ALTXA MAKILAK

Nantes hiritik gertu, 2018an nazioarteko aireportuaren eraikitze proiektuaren aurka, berrogei urteko bataila tematsuak ezusteko bukaera izan zuen. ZAD izenaz ezagutu okupazioak azpiegitura kapitalista handiak geldiaraztea posible dela nabarmen utzi zuen, indarren bateratzeari eta taktiken aniztasunari esker. Lekuko laborari eta biztanleekin batera, lurra zaintzeko bertan finkatu eta lan egitearen balioa ere agertu zen orduan eta garaipen honek irudimen zabalak ireki zituen. Ikasgai horietatik abiatu zen Lurraren Altxamenduen ekimena, ekologia politikoari hats berria emateko xedea.

Frantziar Estatuan pizten diren errebolten altzoan katzan da azken dinamika hau. Tradizio luzeari jarraikiz, mobilizazio sozial eta politikoak bata bestearen gibeletik jalgi dira. Gehienak, Jaka Horien edo pentsioen erreformaren kontrako mugimenduen gisara, errepresioaren ondorioz deuseztatu dira, hurrengo oldarraldia arte. Eredu bereziak bereganatuz, epe luzera irauteko eta garatzeko osagaiak jarri nahi izan dituzte Lurraren Altxamendukoek. Osagai horietan bada mezuarena (errealista eta erradikala, lirikoa eta neurritzkoa), baita egituraketarena (lekuko taldeen eta koordinazio orokorraren arteko lotura trinkoa, ekintzen eta festen artekoa, lehen lerroa eta zaintza, bizimoldeak eta logistika...). Eta bidean topatu aukeren eta zailtasunen aitzinean, egindakoak formalki berrikusteko nahikaria.

«Izan ura», zioen Bruce Lee aktoreak. Hala tanta, nola izotz, hodei, euri, itsaso edo laku. Testuinguruaren arabera hoberen jarduteko moldatzen jakin. Zuhurtasunezko hitz hauek

munduko leku askotan herri mugimenduen bidelagun dira eta malgutasuna lantzen irakasten digute, diskurtso zein praktika zurrunetatik harago. Horra beste ezaugarri bat. Horiek eta askoz gehiago azaltzen ditu eskutan duzun liburua.

Euskal Herrian, mila eta bat borroka luzeen lurraldean, kanpoko esperientzien onurak gureganatzea ez zaigu eroso. Etxean eta etxerako atondu bide orriei eusten diegu lehentasunez, ohituraz. Alta, duela ez hain denbora gutxi, Kurdistango askapen mugimenduak estatubatuar pentsalari anarkista bati egin zion kasu: euren sinesteak errotik aldarazi zituzten ekin molde berrituak abiarazteko.

Gurean tankera honetako eraldatzeen gauzatzeko baldintzak ba ote dira, eta nola jarri? Katalunian, esate baterako, *Revoltas de la terra* sortu dute eta badirudi funtzio eraginkorra betetzen duela.

Hasteko, garenarekin, dugunarekin jorratu behar: saiake-ra franko gauzaturik ere, ekologismoak eta lurraren defentsak ez dituzte euskal plazak betetzen ez eta kargudun politikoak eta enpresariak beldurtzen. Lemoizen gelditu zen gure azken garaipen esanguratsua eta geroztik arrastaka gabiltza. Herrigintzaren ispilu gara, lokalki gihartsu baina osotasunean maingu, batzen gaituenaren inguruan adostu eta artikulatzeko zailtasun handiekin. Badira lurralde mailan elkarrekin gauden une azkar zenbait, baina kapitalismoaren desmasiak gelditzeko ezgai. Zenbat salaketa, helegite, ekintza eta manifestazio sinboliko, galdegindakoa erdietsi gabe? Ipar Euskal Herrian, Estatuaren eta dirudunen jokamoldeek ingurugiroa ia osoki jan digute, kostaldea arrunt urbanizatuz, barnealdea jostaleku bilakaraziz. Espekulazioa gora, hazlurra behera. Elkarte zein instituzioek bultzatu proposamenak beharrezko baina motz gelditzen dira norabide orokorren iraultzeko.

Halere dena ez da ilun. Aroztegitik, Urdaibaitik edo Marienetik inizatiba batzuk ari dira saiatzen, sostengu zabalarekin. Ipar Euskal Herriari dagokionez, aurrekari txiki baina garrantzitsu batzuk ditugu poltsikotan, gelditzea lortu diren proiektuak: Garazi eta Iruñea arteko autobidea, Itsasu inguruko urre meategiak, Larrungo tontorrean handitze plana, Donibane Lohitzuneko surf parkea, Mugerreko plataforma logistikoaren zabalpena, han-hemenka lur edo etxe salmenta batzuk, AHTa bera... Denek bukatu dute estudio txostenetan, herritarren oposizioari esker.

Kasu guztietan aniztasunak egin du indar, laborari, abertzale, ezkertiar, hautetsiz eta beste kategoriaz osatu topaguneetan.

Zerbaiten pizkunde garaia ote da? Talde antolatuetan gutxi izanik ere, badakigu koadro eta zerumuga argietan kokatu desmar-txa batek interesa pizten duela, garatzeko potentzialak biderkatzen. Tokian tokiko kasua arin bilaka liteke Euskal Herri guziraoko erronka. Indarberritzeko, logika hori bultzatu behar genuke.

2021ean, Arbonako okupazioaren ostean eratu OSTIA sarearekin, ekintza zuzena formalki gaineratu genion ekuazioari. Aurrera jotzeko badira euskarri desberdinak, denek balio dute eta haietarik bat etsaia jotzea da, egokiro. Batzuetan zingira, besteetan ekaitz. Saiakera hau bururaino eramateko, Mariene-ko aktibazioa dugu adibide: elkarrekin arituz arlo guzietan ekin, bakoitzaren hautuen eta ahalmenen aniztasunean. Zehazkiago, egun batean hautetsiekin Euskal Elkargoari eztabaida galdegin, biharamunean eremua barazki landaketekin okupatu.

Lurraren Altxamenduek konposaketa deitzen diote eskema honi eta azkarki inspiratu gaituzte gurea muntatzeko. 2024ko maiatzean, beste hogeitalderekin batera sinatu Mariene-ko adierazpenean, artifizializazio proiektua osoki gelditu arte denek mugitzeko engaiamendua hartu genuen, taktika ezberdinak konbinatuz. Urte bat berantago, ELB sindikatuarekin eta Lurzaindiarekin adostu makilen zinak posizionamendu hau egonkortu du: «Orduan, guk elkartu behar dugu, beste norabide bat hartzeko. Lurra lanjerrean den tokian, gure makilen kantua entzunarazi behar dugu. Bidea abiatu behar dugu, baturik ibiltzeko. Elkar lagundu behar dugu, garaipen konkretuak ospatzeko. Asmo argiak izan behar ditugu, tema militanteak herritarrentzat eta bizidunentzat onuragarriak diren lorpenak eragin ditzan. Ez zaitezte beha egon, denek inplikatu behar dugu oldar horretan, tokian toki eta mundu zabalean».

Agian, zuek ere zaudeten lekutik, liburu honetako proposamen edo ideien bat barneratzen ahalko duzue, pauso lagungarriak emateko. Perspektiba horietatik ireki daitezke elkarketak. Etorkizunean bizidunen eta herrien suntsitzaileei mezu irmoa igortzeko: ez ezazue halakorik errepika, parean izanen gaituzue!

Hartzea eta Joana (Ostiako kideak)
Marienea, 2025eko iraila

SARRERA

Inork ez daki gauzek nola amaituko duten. Hainbat hondamendiren beldur izan behar gara. Baina inolako beldurrak ez du ezabatzen, beti, definizioz, burua makurtzen duten horiek, burua zuzentzen ikustearen poza. [...] Gaur egun, inork ezin du ez ikusiarena egin zerari, lur honetan soilik makurtzeko, men egiteko eta isilik egoteko rola esleitu zaienek, soilik men egiten dutela eta isiltzen direla zehazki beste ezer egin ezin duten neurrian. Egongo ote da beste ezer? [...] Etorkizunak esango du; baina etorkizun horri ez diogu itxaron behar, eraiki egin behar dugu.

Simone Weil, *La vie et la grève des ouvriers métallo*, 1936

Konfinamendutik ateratzean, isolamenduak eta etxean bakartzeak aurreko urteetako mugimenduek irekitako arrakalak itxiko zituztela zirudien. Nolabait —Jaka Horien altxamenduaren ostean—, gatazka politikoak berpizteko aukera itzali izan balitz bezala. Ez da hala izan.

Azken hilabeteetan, pentsioen erreformaren aurkako borroka amorratuak «*start-up nazioa*»ren aurkako etsaitasun soziala zabaldu du nonahi. Bat-batean, Deux-Sèvres departamenduak Frantzia osoa ikusi du ura metatzearen aurka protestan. Ur-biltegi handiak gotorleku setiatuak bihurtu dira, hondamendi ekologikoaren aurkako ofentsibak gainezka egin izanaren ikur adierazgarri. Poliziak burututako Nahel-en eraiketa arrazistak hainbat herri frantses suminez piztu zituen. Istiluak, arpilatzeak eta suteak ez ziren amaitu gazte matxinoak masiboki kartzelatu arte. 2024. urtea nekazari suminduen blokeo zalapartatsuekin

eta matxinada geldiarazteko FNSEaren¹ azpijokoekin hasi zen. Amorru ozen horiek ez zuten baretzeko inongo arrazoirik. Gobernuak, bere neurriekin, sua gasolinaz itzal zezakeela uste zuen.

Lurraren Altxamenduak mugimendua gatazkak berpiztearen parte da. Lurraren eta uraren defentsan kontzentratuko den indar bat eraikitzea erabaki dugu. Baina gure ekintzak beste mugimenduen alboan soilik du erabateko zentzua: Polizia indarkeriaren eta faxismoaren gorakadaren, bizimoduaren garestitzearen eta lan-esplotazioaren, eta genero-indarkeriaren eta indarkeria neokolonialisten aurkako mugimenduen alboan, hain zuzen ere. Denak porrot egiten duenean —lortutako eskubide sozialetatik bizitzako inguruneetara— elkarrekin antolatzeko eta bat egiteko beharra nagusitzen da. Etorkizuna prekarioegia da bakarrik irauteko. Indar dibergenteak elkartu egiten dira. Taldeak aliatu eta antolatu egiten dira. Fronteak finkatu egiten dira: batzuetan korporatibistak izaten dira, beste batzuetan klasea klasearen kontra, ala lurralde mailakoak, ala polimorfoak.

Jarrera hartzea. Lurralde borrokak indartzea. Ekintza zuzen masiboak asumitzea. Gure harremanak lantzea eta bir-lantzea. Esleitzen zaizkigun identitateetara inoiz murrizten ez uztea. Gure indarrak beren kabuz nahikoa direla inoiz ez sinestea. Horiek dira Lurraren Altxamenduak mugimenduaren jatorrian dauden intuizioak.

Zerk eratzen gaitu

Lurraren Altxamenduak 2021eko urtarrilean sortu zen Notre-Dame-des-Landeseko BBG-an², 200 pertsona elkartu zirenean.

Larrialdi klimatikoagatik matxinatzen diren talde gazteak gara —gehienbat Extinction Rebellion eta Youth For Climate—. Ehundaka mila izan gara. Gure mugimenduak atxikimendurako eta formakuntzarako modu masiboak sortu ditu. Baina gure ekintza aldarrikatzaile edo ikusgarrien moduak onespén pater-

1 [Itzultzailearen oharra] FNSEA Frantziako nekazarien sindikatua da, «Departamenduetako Nekazari Hustiatzaileen Sindikatuen Federakuntza» (frantsesez: *Fédération nationale des syndicats d'exploitants agricoles*).

2 [I.o.] BBG: Babestu Beharreko Gunea, frantsesez ZAD: *Zone à Défendre*. Helburu politikoa duten okupazio guneak izendatzeko erabiltzen den neologismo militantea da.

nalista besterik ez du eragin agintariengan, bost axola izan die. Bultzatzen gaitu, alde batetik, etorkizunik gabe uzten gaituzten azpiegituren aurka borrokan jarraitzeko erraietako aginduak, eta, bestalde, gure parekoekin lurra ukitu ahal izateko nonbait kokatzeko gogoak.

Lantzen ditugun lurrak zaintzen ditugun bitartean, era kontsekuentean janaria ekoizten dugun nekazariak gara. Uko egiten diogu suizidio ekonomikoaren eta pestiziden suizidioaren artean itotzeari. Mundu guztiak jan nahi dituen haragia, fruituak, barazkiak eta zerealak ekoizten ditugu. Hala eta guztiz ere, gure baserriek gutxiengoa izaten jarraitzen dute industriako jauntxoek menderatutako laborantza munduan. Gure sektorealdarrikapenak gainditzen dituen eta gure kausa barne-hartzen duen masa mugimendurik gabe, epe laburreko neurrien tranpolina izatera behartuta gaude, neurri horiek agroindustria sustatzen duten bitartean, guri soldata duin bat bermatu ordez.

Talde autonomoetatik datozen pertsonak gara eta urteetan zehar gure esku-hartzeko gaitasuna findu dugu. CPE³ mugimenduak, lizeoetako eta ikasleen borrokak, lanaren legegaren aurkako gatazkak eta horiek dakarten guztia bizi izan dugu. Komunismoari loturiko esperientziak probatu ditugu defenditzeko guneetan eta beste inguruetan. Garaiko borrokekin bat egin dugu, garaipen batzuk lortzeko beharrezkoa den bizitasuna eta borrokarako grina emanez. Baina gure matxinada zenbaitetan sakabanatutako gatazka batean barreiatzen da. Gure sezesioek eta desertzioek kontrakultura apurtzaile batera mugatzen gaituzte, baina herriarekiko edozein sustraitzetik urrunda. Proposamenak aurkezteko eta agertzen diren kontraesanak asumitzeko gure errezeloak ikuspegi iraultzailetik urrundu gaitzake batzuetan.

Tokiko kolektiboak eta herritarrak gara eta gure bizilekuak suntsitzeko arriskuan jartzen dituzten obrak gelditzea erabakita gaude, baita gure auzoak eta herriak gorputzez eta arimaz defenditzea eta, hondamendiaren mehatxuaren aurka, baso txikiek,⁴

3 [I.o.] CPE: lehen lanpostuko kontratua (frantsesez: *contrat première embauche*) iraupen mugarik gabeko lan-kontratu mota bat zen, 26 urtetik beherakoentzat. Protesta ugari eragin zituen ikasleen eta gobernuaeren artean, eta azkenik, ikasle mugimenduak indargabetzea lortu zuten.

4 [I.o.] Frantzia mendebaldeko paisaia tipikoa da (frantsesez *bocage*); zuhaixkek, heskaiek edo harrizko harresi txikiek mugatutako lursail txiki eta irregularrek osatzen

basoekin edo mendiekin bat egitea ere. Maite ditugun lurraldeak babesteko jakintza, baliabide, gaitasun eta trebetasun ugari biltzen ditugu. Elkarrekin gainditu ditugu hainbat etapa, kateatu ditugu bilerak eta manifestazioak, baina sarri gure indarrak ez dira nahikoa lur horietan gailentzeko, eta lurraldeko garaipenak mugatuegiak dira hondamendia gelditzeko.

Praktika eta kultura politiko guzti horietatik indar komuna sortu zen, eta etengabe handitzen joan da mugimenduari jendea batzen zitzaion heinean. Hiru urteren ostean, egiaztatu dugu indarren antolaketa horrek aldaketak eta gainditzeak sus-tatzen dituela.

Zerk ematen digu adorea?

Gure ekintzak bi esparrutan banatzen dira eta aldi berean berariazkoak eta transbertsalak dira: lurzoruen artifizializazioa eta lurren eta uraren metaketa. *Ekintza zuzen* masiboaren alde egin dugu —herrialdea astintzen duten beste mugimenduen antzera—. Gogor jo eta zentzuz jo, milaka pertsonekin eta egun-argitan. Lurraren Altxamenduak sarearen mobilizazio orok gutxienez hiru esku-hartze hauetako bat du:

- Blokeoa, hau da, hondamendi ekologikoaren erantzule den azpiegitura baten etenaldi luze edo motza, baita hura menpe dagoen fluxuena ere. Industriagune bateko sarbide bat oztopatzea, obra bat geldiaraztea, autobidearen sarbide bat ixtea.
- Desarmatzea, hau da, gertatzen ari den hondamendia bizkortzen duten azpiegiturak edo obrak desegitea.
- Lurrak okupatzea, hau da, hezeguneak, belardiak, basoak edo mehatxatutako laborantza lurra hartzea. Modu askotan izan daiteke: laboreak landatuz edo bizitzeko, jolasteko, ekoizteko, antolatzeke, egoteko lekuak edo nekazari baserriak ezarri.

Altxamenduen bihotzean, ekintza horiek jende-talde ezberdinek egiteko nahia dago, bertan batu daitezten hainbat jatorritako gazte eta adinekoak, topa daitezten nekazariak, langileak, soldatapekoak eta langabeak, nahas daitezten bertako bizilagunak eta kanpokoak. Antolakunde baten poztasuna eta in-

duen landa mota.

darra daude hark posible egiten dituen elkartzeen aniztasunean, normalean banatzen gaituzten hesiak saltatzeko gaitasunean.

Eragin zehatz bat edukitzeko baliabideak dituzten mobilizazio publikoak babesten ditugu. Hori posible egiten duten ekintzak eta praktikak zabaltzen eta ezagutarazten ahalegintzen gara. Erantzunik gabeko protesta agerraldien ordez, zeinek etsipena handitzen duten, manifestazio bat zerbait aldatu delako sentimenduarekin amaitu nahi dugu: lur batzuk babestu direla, azpiegitura toxiko bat oztopatu dela.

Haien eragin materialetik haratago, gure blokeoek, okupazioek eta armagabetzeek kolektiboki jarduteko gaitasuna indartzea bilatzen dute. Helburu hau agintariak ohartarazteko edo iritzi publikoa sentsibilizatzeko nahiaren oso aurretik jartzen dugu. Jendea Lurraren Altxamenduen manifestazioetara etortzen eta itzultzen bada, zalantzarik gabe, bertan partekatzen dugun iritzia eta ekintza zuzenaren bidez gure lurraldeen hartzea dagoelako da.

Jokoan dagoenaren larritasuna eta arrisku legal eta fisiokoak gorabehera, gure ekintzak ospakizunak ere izatea nahi dugu. Erabil dezaten hitzen artea jositako edo *grafiteatutako* pankartetan. Eraman ditzaten dortoka puzgarriak eta xehetasunez apaindutako luxuzko karrozak. Buka daitezten karaokeekin, kontzertuekin eta esku-hartze bitxiekin. Etsaia barregarri uztea eta poztasunaz batera gozatzea funtsezkoak dira elkarrekin denbora luzez irauteko.

Lurraren Altxamenduen ekintzek, lurralde bati errotutako borroka baten alde, muga batzuk gainditzearen beharrari erantzuten diote. Beti topaketa batekin hasten dira, historia batekin: gure gaitasunak elkartzeak ekintzaren moduak finkatzen ditu, gatazkaren ikusgaitasuna eta parte hartzen duten indarren bateratzea handitzen ditu. Orokorrean, ekintza burutzen da palanka multzo bati eragin zaionean, eta haratago joateko unea iritsi denean.

Lehen hiru urte hauetan, berehalako hondamendiak eragozten saiatu gara elkarrekin. Nonbait egon garen aldiro, zin egin dugu beharrezkoa balitz, itzuli eta berriz egingo genuela. Alderantziz, tokiko erresistentziak bizi izan dituzten pertsonak beste nonbaiteko Altxamenduen ekintzak babesteko bertara mugitzeko ohitura hartu dute. Bidean, garaipen handiagoak lor-

tzeko ikuspegia finkatu dugu, sektore edo proiektu mota baten mailan.

Lehen astinduak

Liburu honen helburua gure historia partekatzea da, ekin-tzei hitzak jartzea, era horretan, haien irismena handitzeko eta zehazteko. Ahalegindu gara gure hautu etiko eta estrategikoak azaltzen eta partekatzen, eta hobetzen jarraitzeko lehen ba-lantze bat egiten. Asko gara liburu hau osatzen duten testuak eztabaida eta hausnarketa kolektiboetatik abiatuta idatzi di-tugun pertsonak. Beste dozenaka aritu dira hilabeteetan zehar eztabaidatzen, iruzkintzen eta oharrak idazten. Guztiek hezur-mamitzen dute mugimendua Lurraren Altxamenduen batzorde ezberdinetan parte hartzen.

Orainaldian idazten dugu, ekintzak etengabeko erritmoan kateatu diren eta atxiloketei eta desegite-mehatxuei aurre egin diegun urte honetako frenesian harrapatuta. Idazten hasi gine-nean, liburu honek aukera asko zituen debekatua eta arbuiatua izateko. Idazketa ere askotan eten izan da ekintzarako premia eta beharragatik. Azkenean, hartu dugu denbora gure ekintzak oinarritzen diren historiak eta ondarea zabaltzeko, gure hiru urteko ibilbidea gogora ekartzeko, gure deialdi, eskuorri eta prentsa-oharretan baino gehiago esateko.

Poituko paduran, nekazariak zera esan ohi dute: «*Esana da erraz eta egina garratz*».⁵ Geure egin dugu lelo hori. Beti hasten gara egiten, errealitatearen arrasean. Horrenbestez, liburu bizi izan duguna adierazten duten kontakizunen inguruan eratuta dago, eta kontakizun horiek gure ekintzen eraginak eta mugak identifikatzea bilatzen dute, baita gure estrategiak eta taktikak hobetzeko irakaspenak ateratzea ere.

Ekintzen kontakizun horietatik datoz hipotesi politikoak. Ekintza batek beste nonbait errepikatu, zabaldu eta oihartzu-na izan dezakeen keinu bat dakar. Esanahia barne hartzen du, norabidea markatzen eta ikuspegia marrazten. Ziurtasun ideolo-gikoak irmoki adierazi beharrean, hipotesiak azaltzeko eta haien hauskortasuna eta osatugabetasuna onartzeko hautua egin dugu. Hondamendiaren hedaduraren eta aurka egiten digun

5 [I.o.] Jatorrizkoa: «dans la vie, il y a les *disou* et les *faisou*».

indar nabarmenaren aurrean, gure etorkizun politikoak zirriborratzen eta bilatzen gabiltza.

Gure hipotesiak paradoxekin behaztopatzen dira. Errealitatearekin harremanetan jartzean zailtasunak eta kontraesanak azaleratzen dira. Gure helburua ez da horiek nahitaez presaka konpontzea, baizik eta identifikatutako arazoetan hobe ibiltzeko haiek hautematea eta adieraztea; izan ere, arazo horiek ez gaituzte geldiarazi behar eta ez ditugu ukatu behar, haien aurka porrot egiteko arriskua baitago.

Liburu hau iritiziz beterik dago. Ekologia politikoa banatzen duten fronte-lerroetan kokatu nahi izan dugu, bataila-eremu gisa ulertuta eta ez eremu homogeneo gisa. Alde edo kontra jartzea hautatu dugu beharrezkoa izan denean, erabakiak hartu ditugu gure aliantzak eta aurkakotasunak hobe mugatzeko, eta, aldi berean, gure mugimenduaren baitan askotariko iritziak daudela onartu dugu.

Ez du behin betiko ezer. Aldez aurretik barkamena eskatzen dugu liburuak dituen hanka-sartze eta hautemate-akats saihetsezinengatik. Ez da ez laburpen teoriko bat, ez militanteen gidaliburu bat, ez programa politiko bat. Proposatzen duena sinplea da: «egiten dugunaren inguruan pentsatzea besterik ez».⁶ Hamarnaka mila jarraitzaileekin, kuxkuxero edo eszeptikoekin, eta 200 tokiko batzordeekin, mugimenduaren barnean gertatzen dena partekatzea. Eskuz esku pasatzea, eztabaidak, objekzioak, proposamenak sorraraztea... Mugimendukougarra pizteko botatako egur bat izan dadila.

6 Hannah Arendt, *The Human Condition*, The University Of Chicago, 1958.



LURRERATU EKOLOGIA: OINAK LURREAN DITUEN BORROKAREN ALDE (IRITZIA)

Antzina, erraldoi bat zegoen: Anteo. Uraren eta lurraren semea. Gaiaren eta Poseidonen maitasunaren fruitua izan zen; lehena, gauza guztien umetokia da, zerua eta denbora erditu dituen eta, bigarrena, itsasoen, iturrien eta ozeanoen jainkoa, lurra astintzen duena. Anteo berbereen lurren eta Libiako erre-sumaren errege zen. Indar telurikoa du, bere amaren dohaina. Egun batean, Herkules haren bidean agertu eta gudu bat hasi zen. Herkulesek lurrera bota zuen erraldoia. Baina Anteok lurra ukituz gero, bere indarra hamarkoiztu eta bere etsaiarengandik askatzen zen. Beraz, hura garaitzeko, Herkulesek lurretik erauzi zuen, nekez airean eutsi, eta heriotzara arte ito zuen.

Mito horrek kontatzen diguna lurrarekiko erauzketa bortitz baten istorioa da, itotzerainoko erauzketa batena. Gure garaia Anteoren agoniaren antzekoa da. Herkulesen pareko bere indarraz itsuturiko Mendebaldean, lurretik at dagoen bizitzaren gatibuak gara, baita lurra, ura eta zerua merkantzia bihurtu diren munduarenak ere. Iragarritako itolarri horri bizirauteko, bada garaia lurrari sustraitu eta oinak lurrean ditugula borroka egiteko. Hori izan zen Lurraren Altxamenduak mugimendua sorrarazi zuen intuizioa.

2021eko urtarrileko deialdi fundatzailean «Ekologia berriro lurrera jaitsi» idatzi genuen. Ez da formula simple bat, ildo politiko bat baizik. Lurra zeruko objektu bat bada, auzia batez ere lurzorua eta laborantza dira. Ekologia berriro lurrera jaitea «planeta salbatu» nahi izateari uko egitea da. Superheroien ambizio hori handiegia da guretzat. Lurrak ez du gure beharrik. Gure aurretik zegoen eta gure ostean ere egongo da. Handinahi hori

hain da gehiegizkoa, bere ondorioak barregarriak direla. Sarri «munduko gobernu» hipotetiko batek klima aldaketaren aurka-ko «neurriak» har ditzan eskatzera murrizten da.

Zeruaren antzera, klima gure eskumenetik kanpo dagoela dirudi. Osotasun iritsezin baten antzera, gure gainean gailentzen da eta gainditu egiten gaitu. «Klima-mugimendua»ren lehen olatuaren ondorioz, ezintasunari aurre egin behar izan diogu. COPetatik martxa jendetsuetara, klimaren aldeko ekintza kanpaldietatik IPCCren txostenetara, ez dugu lortu martxan den hondamendia nabarmen aldatzea. Kale itsu horren aurrean, oinak lurtean dituen eta lurrraren eta lurraldearen aldeko borroketan sustraituta dagoen ekologiaren aldeko apustua egiten dugu.

Elon Musk zerua kolonizatzen dabilen honetan, lurra —bere erabilera eta banaketa, zaintzeko eta lantzeko moduak— kolokan dagoen kontu politiko erabakigarria da. Lurrak helduleku bat ematen digu munduan, eta lurrraren auzia auzi ekologikoaren, sozialaren eta kolonialaren intersekzioan kokatzen da.

1. Auzi ekologikoa, hau da, lurren, uraren eta mundu bizigarrien zaintza eta defentsa.

Lurrak defendatu egin behar dira. Hormigoiaz estali ohi dituen urbanizazioaren aurka, zeinak errepedeen, lineen eta zirkulazioaren garroak infinituki zabaldu ohi dituen, baita puntu nodalez eta biltegi logistikoez bete ere. Kapitalismoaren zerbitzura ezinbestean zulatzen, zeharkatzen eta kutsatzen dituen estraktibismoaren aurka. Bereganatzen eta pozoitzen dituen agroindustriaren aurka, zeinak nekazaritza lurren ordeztasun-mortua ezarri nahi duen. Era horretan, landa eremua hondatzen da. Era horretan, gehiegi ustiatutako basoak zuhaitz erretxinadunez betetzen dira. Era horretan, eremu basatiak murrizten dira, turismoaren azpiegiturek kolonizatzen baitituzte. Era horretan, herriak degradatzen dira, kalekka eta auzo biziak edota baratze-ingurabideak desagertzen doazen heinean. Era horretan, metropolia lurralde osora hedatzen da, hiper-erdiguneak zein periferien mugak itxuraldatuz. Mundua udamineko giroan erretzen bada, metropoliko azpiegiturek kontsumitzen dutelako da. Milaka animalia eta landare-espezie desagertzen ari badira, lehenik beren habitatak suntsitzen ari direlako da. Lurrak defendatu egin behar dira hondamendiaren aurka. Berreskuratu egin

behar ditugu, ez soilik zaintzeko, baita haiek bizitzeko eta bertan bizitzeko ere.

2. Auzi soziala, hau da, klase borroka, gure existentziaren eta iraupenaren baldintzen aldeko borroka.

Klase borrokak amorrua pizten du oraindik. Azken urteetako mugimenduak (lanaren legea, Jaka Horiak, pentsioak) horren adierazpen ozenak izan dira. Macronen perfilak inbertsio-banakaria gordinki adierazten du zer klasek duen boterea. Justu-justu hilabete amaierara iristeak eta gehiegizko alokairuek gogorazten digute zenbateraino kendu diguten lurren jabetza. Klase borrokak langile/nagusi aurkakotasunaren eta aberastasunaren banaketaren auzia gainditzen ditu. Funtsean, klase borroka lanaren moduari eta lurren jabetzari dagokio, baita gure beharrak asetzeko gaitasunari eta bizi desiragarri bateko lekuak eta baldintzak eraikitzeari ere.

Agroindustria oparotasun kapitalista faltsuaren oinarria da. Nekazari klasea desagertzearen arrazoia da. Mendebaldean, ia-ia desagertuta dago, eta, hala ere, munduko biztanleriaren % 40 familia-nekazaritza bizi da oraindik! Modernitate kapitalistak baserriarrak ezabatzen ditu eta lurraren langileak ikusezin bihurtu. Nekazariak gehiegizko zorpetzera eta suizidio-ra bultzatzen ditu. Frantzia, nekazarien % 30ak 350 euro baino gutxiago irabazten ditu hilabetero.⁷ Sasoikako langile prekarioek lehertu arte egiten dute lan negutegietan, baratzeetan eta mahastietan. Nekazari-langile horiek itsasoaren bestaldetik zein gizartearen bazterretatik datoz. Nazioarteko mailan zein Frantzia, ezinezkoa da klase borrokan pentsatzea haiek gabe, lur-, nekazaritza- eta elikadura-sistemetan pentsatu gabe.

Kapitalismoa ulertzea, sakonki elkarri lotuta dauden bi fenomeno historiko aditzea da: desjabetzea eta metaketa. Gure biziraupenerako baliabide materialak desjabetzeak erabateko mendekotasunean murgiltzen gaitu. «Gizartea kapitalista besterik ezin da izan masak lurrik gabe daudelako», idatzi zuen Gustav Landauer-ek. Lurrak metatzeak gure funtsezko beharrak kolektiboki asetzeko gaitasuna kentzen digu, hau da, lehenik eta

⁷ Pierre Le Roy, «30 % des agriculteurs gagnent moins de 350 euros par mois» *Le Monde*, 2017ko urriak 30.

behin, elikadura eta etxebizitza. Mendekotasun horretan oinarritzen da gure laneko esplotazioa.

Lurrak metatzea ebasketa da eta bide ematen dio gutxiengo oso txiki baten eskuetan lurra eta zorupea pilotzeari eta esplotatzeari. Gutxiengo horrek aberastasun gehiago metatzen du beti. Haren bizimoduaren gehiegikeriak hondamendia bizkortzen du. Metaketak izugarrizkoak bihurtzen diren desberdintasunak sortzen ditu. Ezinezkoa da haiei aurre egitea lurraren jabetza, erabilera eta banaketa erabat berrantolatu gabe.

Lurren beharra dugu lekuak eraikitzeko eta harremanak josteko, bertatik elkarrekin lana eta biziraupena, elkartasuna eta komunala berrasmatzeko. Mendebaldean, iruzurrezko operotasunaren idealizazioak eta luxu artifizialak lurreko lanaren eta bizitza sinplearen izena zikindu du. Hala eta guztiz ere, lurra birjabetzea beharrezko baldintza da beste bizimodu batzuk probatzeko eta denontzako luxu komunala lortzeko.

3. Auzi koloniala, hau da, espoliatutako lurrak itzultzea eta kolonizatutako herrien autodeterminazioa.

Carl Schmitt legelari naziak enpresa koloniala «lurrak eskuratze» gisa definitu zuen. Duela gutxi, Europako konkista inperialak funtsezkoak izan ziren kapitalismoaren hastapeneko hasierako metaketan. Zoritxarrez, nekez lotutako kolonia ohien independentziek ez zuten jarraitutasun koloniala eten. Egun, Mendebaldeko bizimodua inoiz baino gehiago dago kolonia «ohien» lurraren eta zorupearen metaketaren menpe. «Hektarea mamu»⁸ horien funtsean oinarritzen da, eta haietatik erauzten dira bizimodu mendebaldarraren baliabideak.

Hausnartu dezagun gure smartphonen jatorrizko lur arraroen edo Iparraldeko ganadutegi industrialak elikatzeo Amazoniako deforestazioaren inguruan. Hausnartu dezagun hemen erabiltzea debekatu ditugun baina enpresa europarrek oraindik beste norabait barra-barra esportatzen dituzten pestiziden inguruan. Hausnartu dezagun Bolloré-ren inguruan, zeinak bere inperio mediatiko neofaxista eraikitzen duen Afrikako eta Asiako hamar herrialdeetako olio-palmondoen eta kautxu zuhaitzen 400.000 hektarea kontrolatzeak bermatzen dion irabaziekin. Gaur egun, garai batean bezala,

8 David Harvey, *The new imperialism*, Oxford University Press, 2005.

kolonizazioak bioaniztasuna nahiz bizimoduen, hizkuntzen, erabile-
ren eta ohituren, arteen eta lanbideen aniztasuna agortzen du.

Kolonia «ohien» lurraldeak lehenak dira jasaten metropoli-
ko kapitalismoaren mundu mailako hedapenak eragiten dituen
gorabehera ekologiko gogorrek. Klase ertain mendebaldarren
oskoletik soilik irudikatu daiteke «kolapsoa» datorren apokalip-
si gisa. Ikuspuntu hori gaintitzeko, *dagoeneko* nonahi gertatzen
ari diren benetako kolapsoei parez pare begiratzen ikasi behar

LURRA AUZI SOZIALAREN, AUZI KOLONIALAREN ETA AUZI EKOLOGIKOAREN INTERSEKZIOAN KOKATZEN DA



dugu: Pazifikoan Kiribati irlak irensteko zorian dagoen uraren igoera, Madagaskarreko lehortea eta gosete kronikoa, eta abar. Benetako kolapso horiek errefuxiatuekiko baldintzarik gabeko abegikortasuna eskatzen dute. Gauden lekuan gaudela, borroka egitera bultzatzen gaituzte kolonizatutako lurraldeak berehala itzul ditzaten. Parte hartzeko modu bat lurak metatzen dituzten eta munduko nekazariekin lehiatzen diren Frantziako enpresak jazartzea da.



Halaber, lurra borroka sozialen mugan kokatzen da produkzio-tresnak eta bizibideak berreskuratzeko, lurralde borrokan mugan bizi garen mundu hauskorra defendatzeko, eta askapenerako borroka anticolonialen mugan Inperioaren aurka egiteko. Horrexegatik hautatu dugu gure politikaren ardatz gisa. Arkimedesek irakasten zuen moduan: «Eman euste-puntu bat eta palanka bat, eta mundua altxatuko dut».

Bistan da, lurraren defentsarako borroka ez da ustezko «fronte nagusia». Ez da beste borroka fronteen *ganean* kokatzen den borroka bat: lan-esplotazioaren, arrazismoaren, patriarkatuaren, mugen, polizia indarkeriaren eta abarren kontra. Aldaketa erradikal baten ikuspegian gure neurrian parte hartzeko hautatu dugun ardatza eta palanka besterik ez da.

Mendeetan zehar, iparretik hegora, herri mugimenduek borroka egin izan dute ideia sinple bat defenditzeko eta egia bihurtzeko. Nekazarien sentsibilitatearen eta baieztapen iraultzailearen bidegurutzeko konbikzioa: lurra eta ura guztionak dira. Denonak dira edo, agian, inorenak. Ebidentzia hau bera defenditzen da edonon, XVII. mendeko Hondeatzaileetatik,⁹ gaur egungo Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduraino, 1970eko hamarkadako nekazari-langile mugimendutik, Chiapas zapatatiko lurralde autonomoetara, Erdi Aroko Jacquerie-tatik, Dhili Chalo-raino (Indian berriki gertatutako eta indar handiko nekazarien matxinada). Lurraren Altxamenduak mugimenduak ez du ezer asmatzen, edo oso gutxi. Inoiz alde batera utzi behar ez genuen mendeetako intuizio politikoa berpizten du.

9 [l.o.] Jatorrizkoan «*Diggers*»: Gerra zibil ingelesaren ostean sortu zen talde kristau erradikala zen, eta jabetza-eskubidea jarri zuten zalantzan.



BAT

DESARMATU HORMIGOIA

GRAND PÉRIL EXPRESS¹⁰

Obren amaiera

2009ko apirila: Nicolas Sarkozyk garraio-sare erraldoi bat eraikiko dela jakinarazi du, Grand Paris Express izenekoa, Europako azpiegitura-proiektu handiena izango litzateke, 200 kilometro trenbiderekin, 68 geltoki berrirekin eta dozenaka auzo berrirekin. 42 mila milioi euroko kostua estimatzen da, eta kendu beharreko obra-hondakinak 47 milioi tona lirateke. Nekazaritzalurren, baratze-komunitarioen eta naturaguneen 4.000 hektarea hondoratuko dituzte hormigoipean. Ekologiaren izenean, jakina —metroak CO2a aurrezten baitu—, eta gizartearen izenean —bazter auzoak isolamendutik atera behar baitira—. Egiaz, klase herritarra apur bat urrunago bultzatzean datza, baita Paris Handia munduko metropoli lehiakorren artean mantentzeko, arintasuna eta konektagarritasuna ziurtatzean ere.

Marea gris horren aurrean, Extinction Rebellion-ek (XR) *Hormigoia*ren eta *hormigoilarien aurka obren amaiera* kanpaina iragarri zuen 2020ko otsailean. Lehen ekintzaren jomuga Parisko Senaren kaietan dauden hormigoi-zentralak dira: lan-jantzi zuriz jantzitako 400 aktibistek industriagunea hartu zuten, ordu batzuez okupatu eta hormak berriz margotu zituzten. Ekintzarako eta antolaketarako moduek Ende Gelände mugimendu alemaniarra dakarte gogora, zeinak fosilen industriaren aurka egiten duen borroka.¹¹ *Obren amaierak* munizio berria sortzen laguntzen du hormigoia munduaren aurka. Ustekabeko intrusio horiek tokiko borroken osagarri dira; izan ere, sortzen diren tokietan proiektu inozoak eta alferrikakoak atzeratzea dute helburu. Ekoizpen fasetik hormigoilarien txikizioak oztopatzea dute jomuga, hezegune edo laborantza lurretan hormigoi metro karratu

10 [I.o.] Izenburu honek Grand Paris Express (GPE) Parisko garraio publikoaren sarea handitzeko proiektuari egiten dio erreferentzia, eta *péril* (arriak, mehatxua) terminoarekin egiten du hitz-jokoa. Gure testuingurura ekarrita, Abiadura Handiko Txikizioa (AHT) deitu lekiok.

11 Indarkeriarik gabeko desobediencia zibil mota hori Ende Geländeren webgunean azaltzen da: «Gure ekintzarako moduak publikoki jakinarazten diren azpiegitura fosilen eta neokolonialen blokeoak dira. [...] Gure gorputzak erabiliko ditugu krisi klimatikoa elikatzen duten eta esplotazio-harreman neokolonialak betikotzen dituzten azpiegiturak blokeatzeko. Ez gara geldiarazten utziko. Poliziaren edo lantegien segurtasun-hesiak zeharkatu edo saihestuko ditugu. Gure ekintzak aniztasunaren, sormenaren eta irekitasunaren irudia proiektatuko du».

bat bera ere isuri aurretik. Ekintza honen talka-uhinari esker, otsailean Lafarge Mirabeau hormigoizentrala handitzea deuseztatu zen; izan ere, haren aurka mobilizatzen zen Javel portuko auzo-elkartea. Justu segidan, zentralen bideoak zabaldu ziren hondakin-urak isurtzen eta hormigoia fabrikazioari dagokion kutsadura dokumentatzen.¹² Lehen kolpe horren ostean, XRek taktika aldatu zuen. *Obren amaieraren* bigarren kanpaina neurri askoz txikiagoko ekintzen segida bat izan zen. Parisko eskualdeko zenbait puntutan, zentralak hondarrez hornitzen zituzten gabarrak okupatu zituzten, eta militanteak oragailuen azpian jarri ziren hormigoia kamioietako isuria oztotatzeko; hormigoia chantilly sifoi handi bat bezala gogortzen da. Operazio berri hauek are oharkabeago igarotzen diren arren, hormigoigintzari, haren antolakuntzari, materialaren fabrikazioari eta banaketari buruzko jakintzen inguruan sakontzea ahalbidetzen dute, baita eraso egiteko moduak probatzeko aukera eman ere.

«Gandalf, Mordor, ezkerretara edo eskuinetara dago?»¹³

Lehen eztabaidetatik, egiaztapen simple bat partekatzen dugu: gure indarrak elkartzen baditugu askoz gogorrago joko dugu. Sektorea ezagutzen ikasi dugu: nora daramate gero hondarra? Zer eginkizun du Sena ibaiak hondarraren garraioan? Nora iristen da? Nola fabrikatzen eta banatzen da hormigoia obretan? Mad Maxen antzeko dekorazioak dituzten industriaguneetan ibili gara urrats luzez, hondar artifizialeko dunek Seveso aztarnategiak ezkututzen dituzten lekuetan.

Hasieran, sakabanatutako hainbat kokaleku aldi berean blokeatzea irudikatzen genuen, hala, ekintzak hormigoia industriaren inguruak ezagutarazi zitzaizkion osotasunean. Gero, gure bilakaera periurbanoak Gennevillierseko portura eramanez ginetuen. Satellite-irudietatik ikusita, portu logistiko honek esku bat dirudi, eta hatz bakoitza Senarantz doa eskularri batean bezala; bertan, hainbat pustula industrialek kea botatzen dute, zein baino zein kaltegarriago. Hormigoia industriak soilik, hiru zentral, agregakinen biltegi bat eta zementu-terminal bat ditu.

12 Hondakin-ur horiek, besteak beste, zementuzko partikulak, tratamenduko likidoak eta plastikozko mikrozuntzak dituzte.

13 Frodo protagonistak *Eraztunen jauna: Eraztunen Elkartea* liburuak elkarrizketa batean.

Kaletik ikusita, portuak aho izugarri bat dirudi eta gasak bota, langileak xurgatu eta ibilgailu astunak botaka egiten dituela ematen du. Txiki sentitzen zara, ez zara inork zu ikusteko beldur, irentsia izateko beldur zara. Gennevillierseko portua materialen fluxuaren bidegurutzea da, Île-de-France osoko obren puntu nodala. Egunero tonaka lehengai jasotzen ditu, eta hormigoia edo zementua bihurtzen dituzte bertan. Ezinezkoa da zenbatzea Paris Handiko obrak hornitzeko, hondarra garraiatzen duten zenbat gabarra edo masadera-kamioi ateratzen diren. Zementu-fabrika ultramoderno batentzat berariaz trenbide bat eraiki dela ere jakin da, eta fabrika horren labe gris erraldoiek portua azpian hartzen dute, Barad-dûr dorre ilunaren antzera.

«Mordor industrial» hori hautu-jomuga gisa inposatzen zaigu. Hainbat hormigoi-enpresaren hainbat kokapen, askotarikoa sarbide aukerekin eta elkartzeko eta erronkari aurre egiteko leku ugariarekin batzen ditu. Bertara eskola-bidaia handi bat antolatzeke gogoia ia eutsi ezinezkoa da. Plan bat sortzen hasten da.

Elkartu eta zabaldu

Helburua aurkitu eta hautatzearekin batera, erronka, jaietarako aski pertsona izatea da. Masa efektua bilatzen dugu, parte-hartzaileak babestu eta, aldi berean, okupazioaren iraupea ahalbidetzeko. Apustua honakoa da: lekua ezagutzera eman gabe ekintzari buruzko ahalik eta gehiena iragartzea. XRen probatutako praktikak berrartuz, online inprimaki bat jarri genuen martxan. Edonork eman dezake izena. Ondoren, e-mailak bidaltzen ditugu erregulariki bakoitza bere ekintzarako prestatzeko, abenturaren iraupenaz eta beharrezko ekipamenduaz informatzeko, baina baita lerro artean, ekintzaren izaeraz eta izan litzakeen arrisku judizialez ere. Jakinarazten da abenturak egun batzuk iraungo dituela eta nola prestatu behar garen. Hari batean ibiliko gara: pertsona guztiak egoeraz jakitun etortzeko adina esaten dugu, baina ez gure planak agerian jartzeko bezain beste. Jarduteko modu honek Poliziari xehetasunak emateko eragozpena badu ere —mundu guztiak bezala izena eman dezakete eta—, jende ugari mobilizatu ahal izatearen abantaila du. Gainera, ekintzaz lehenago hitz egitea eta oihartzun handiagoa izatea ere ahalbidetzen du. Gogora dezagun garai hartan, Lurraren Al-

txamenduak jaio berri zegoela eta Poliziak ez zuela hainbeste ikertzen; eta horrek, ziurrenik, zabaltzea errazten zuen.

Zoriari ezer ez uzten saiatzen gara. Laurehun piratek bete zuten inprimakia oraindik ezezaguna zen ontzi baten abordatzean parte hartzeko. Hamarreko taldeak elkartzen ziren Parisko berrogei parkeetan, goizean goiz, eta talde txikiak sortu. Mundu guztiak otordua, lo egiteko zerbait eta ura izateaz ziurtatzen gara, baita mugikorra ez izateaz ere. Aipatutako orduan, SMS bat bidaltzen da erreferentziazko pertsona bakoitzaren telefono anonimora. Taldeek garraio publikora egiten dute jauzi, Gennevillierseko porturantz. Batzuek zelatatze potentzialak zapuzteko beren ibilbideak aldatu beharko dituzte, baina guztiak iristen dira gutxi gorabehera ordu berean. Jomugetara gerturatzen gara, taldeak ugariagoak egiten dira eta arinago ibiltzen dira. Ehun bat metrora korrika hasiko gara, ia esprintean. Iristen diren lehenek burdin hesiak eutsiko dizkiete gainerakoei. Abordatzea lortuta lau kokapenetan aldi berean: zementu-fabrikari, LafargeHolcim enpresaren zentral batean eta agregakinen biltegi batean, eta Egiom enpresaren hormigoi-zentral batean.

Jolas-parkea

Dena prest bertan, kamioiak burdin hesian geratzen dira eta pintura, mantal zuriak, maskarak, kateak eta giltzarrapoak, hariak eta eskalatzeko materiala, olanak, janaria eta megafonoa deskargatzen dituzte. Bat bestearen atzetik, kokapen bakoitza hornitzen da. Operazio hau gabe, blokeoek nekez irauko luke. Lan-jantzi zuriak eta koloretako maskarak janzten ditugu. Lau kokapenetan, ke-bonbak pizten dira oragailuen eta labeen gainean. Industriaguneak jolastoki handiak bihurtzen dira. Pintura eta arrabolak banatzen dira. Eraikinen teilatuetatik rappel egiten jaisten gara. Edozein grafiti talderen ametsa da. Kokapenak hain dira handiak, ezen grafiti erraldoiak portuaren alde batetik bestera erantzuten diren: «Hormigoia ereiten duena gosez hilko da laster», «Lafarge+Estatu Islamikoa=♥»,¹⁴

14 Frantziar, Lafarge gizateriaren aurkako gerrako krimenen konplizitateagatik eta terrorismoa finantzatzekoagatik ikertzen ari dira. Siriako gerra zibil betean, Jalabiyako fabrikako jarduera bortxaz jarraitu izana egozten zaio, Daesh-i eskuzabaltasunez ordainduz eta langile siriarren bizitza arriskuan jarritik. Estatu Batuetan, 778 milioi dolarreko isuna jaso dute delitu beragatik.

«Hil arte eraiki». Eta programatikoa den bat «Desarmatu hormigoia». Mezuak leku gutzietan uzten dira, sarrerako seinaleetako apaingarritxoetatik bandera erraldoietara, Lafarge eta Eqiom honezkerok ez daude etxean. Gainera, oraindik silo baten gorenean dagoen¹⁵ Lurraren Altxamenduen logo erraldoi batek agurtzen gaitu Gennevillierseko portu gaineko saihebidetik gidatzean. Azpian, lanean jarraitu dugu. Hondar eta zementu zakuek burdin hesian zehar barrikadak eraikitzeke balio dute ibilgailu guztiei sartzea eragozteko. Operazioa transpalet bategin armatutako langile batekin elkarlanean burutzen da. Zementuzko zakuak mugitzea izugarri eraginkorragoa izaten da. Bilera kokapeneko ohiko pertsonekin, hormigoia kargatze-
ra etorri diren kamioien ondoan jarraitu dugu. Gidariak jostari dirudite, irribarreak antzeman ditzakegu. Batzuk ez daude harrituta eta aurreko ekintzez hitz egiten digute. Blokeatu ordez, elkarriketari bide ematea erabakitzen dugu eta banatzen uztea. Jarrera horrek liskarra saihestea ahalbidetzen du eta elkarriketa abiatzea. Hasiera bat da eta, onar dezagun, aldi baterako hortxe geratuko da. Baina sakontzeko bide bat da, gainditzeko fase bat. Nola batu ditzakegu BTPko¹⁶ langileak eta mugimendu ekologistak, borroka sozialak eta makinak geratzeko premia? 2023ko urriaren 17an, Jaka Beltzek¹⁷ eta CNT-SO-k, Île-de-Francceko papergabeen kolektibo guztiekin batera, hamabost bat langile papergabe grebalari lagundu zituzten Porte de La Chapelle Arenaren eraikuntza-lana blokeatzen; izan ere, aurtengo udan Parisen aurreikusten diren Udako Olinpiar Jokoetarako eraikitzen ari diren obra erraldoietako bat da. Bouygues-en moduko talde handien azpikontratisten azpikontratistentzat lan egiten dute, obra batetik bestera mugiarazten dituzte, eta berehala kaleratzen dituzte erregularizazioa eskatzen badute. Egun horretan, grebalariak eta beren babesleak ez ziren bertatik mugitu erregularizazioa eskatzeko beharrezko paperak lortu zituzten arte!

15 Lerro hauek idazten ari garen uean.

16 [I.o.] Euskaraz eraikuntza eta herri-lanak. Frantsesetik datorren sigla da: *Bâtiments et Travaux Publics* (BTP).

17 [I.o.] *Gilet noirs* paperik gabeko etorkinek osatutako kolektiboa da eta helburu nagusizat Frantziako etorkin guztien administrazio-erregularizazioa, eta bizileku eta bizi baldintza duinak lortzea du.

Behin lekuko segurtasuna bermatuta, jabetzan zehar buelta bat emango dugu. Agregakinen biltegi alboan, bi guneen arteko burdin hesia moztuko dugu pasabidea uzteko. Zementu-fabrika alboan, txalupa batekin ibaia zeharkatuko dugu Vicat enpresaren bosgarren kokapena laburki okupatzeko. Edonora begiratuta, hondarra garraiatzeko eta hormigoia bihurtzeko hondeagailuak eta makineria guztia aurki daiteke. Hondarraren gainean, boleibol zelai bat egin dugu. Olanak zabaldu ditugu batzarrak eta otorduak babesteko. Beste kokapenetako berriak iristen zaizkigu. Zementu-fabrikaren giroa apur bat ezberdina dela ulertzen dugu. Kokapena ultramoderno da. Herdoildutako engranajearen xarmari komando elektronikoak eta ordenagailuak gehitzen zaizkio. Algéco-en¹⁸ ordez, zenbait pisuko dorre batean benetako bulegoak aurki ditzakegu. Berehala datorkigun euri eta gauaren ondorioz, ez du luze jo haiek ireki eta bertan babesa hartu dugun arte. Alaitasun handi horretan, ordenagailuek leihoetatik hegan egiten dute. Kokapenaren blokeoak hedadura berri bat hartu du, zementu-zakuei barrenak atera, urarekin nahastu eta trenbidean barreiatu dituzte.

Eguzkia sartzen den neurrian, ebakitzeko aliketen politika zabaltzen da. Kableak mozten dira, hodiak atera, andelak hondarrez bete, kamerak desmuntatu eta oragailuetara hondarra daramaten tapizak urratu. Elkarlanean dabiltzan talde txikiek helburu bera partekatzen dute: gu joandakoan fabrikak berriz martxan jartzea eragozte. Jakin badakigu ur tanta bat garela hormigoizko ozeanoan, eta, zeinahi ere den egindako kaltea, zentimoren bat izango dela LafargeHocim eta Eqiomentzat. Baina keinu horiek hainbat gauza garrantzitsu adierazten dituzte. Hasteko, hondamendi ekologikoaren arduradunek errealitate materiala dutela... eta helbide bat. Erasogarriak dira. Baina era berean, ekologia ez dela gobernuari neurri gehiago eskatzen dizkioten haur txintxoek kontu bat. Bihurkinaren kolpeek lehen okupazioetan parte hartu eta orain kaltegabeak izateari utzi nahi dioten horien mendekua dute beren barnean. Mailuaren kolpeak makina benetan gelditzearen poztasus-

18 [I.o.] Algéco enpresa bat izan arren («Alliance et gestion commerciale», Aliantza eta merkataritza-kudeaketaren akronimoa da), Frantzia eraikin modularrei erreferentzia egiteko erabiltzen da termino hau.

nez beteta daude. «Desarmatu hormigoia» jada ez da lelo bat bakarrik.

Hainbat lekutan grabatu genituen sabotajeak: eskularruak jantzita palankak eusten zituzten eskuak, Senara botatako hondar-zakuak. Irudi horiek desarmatzea erreibindikatzeko balio izan zuten interneten anonimoki publikatutako bideo batean.

Baina eraginkortasunaren, arriskuak hartzearen eta zirrara eragiten duten irudien arteko oreka sotilaren kontua Grand Péril Express operazioa hedabideetan nabarmena izan aurretik ere sortu zen. Eztabaida ekintzan bertan ere irekitzen da. Batzuk engainatuta sentitzen dira jardunbide horiek ez zirelako esplizituki aipatzen prestaketa argibideetan. Kontua korapilatsua da, guztiz zilegi diren bi premiak gatazkan baitaude. Norberak jakin behar du zer ekintza motan ematen duen izena, baina opakutasun maila bat beharrezkoa da arrakasta lortzeko. Batzuen ohiturak hankaz gora jartzen dira borroka egiteko bi modu topatzen baitira. Lehendabizikoan, taldeen autonomiak eta aurrea hartzeak leku handia egiten diote inprobisazioari; bigarrean, aurretiaz zorrotz definitutako ekintzaren adostasuna gailentzen da. Haien ekintzak aski adituak ez izateaz nekatuta, XRekin Lafargerren kokapenen blokeoa ezagutu zuten pertsona batzuek eragindako kalteen atalasea igaro nahi dute. Bestean, aldiz, partaideei arrisksutsua iruditzen zaie hainbesteko erabakitasuna okupazioa eustearekin uztartzea. Kalteen zenbaterainokoaren aurrean eta eztabaida amaigabeen ostean, egun gehiago geratzeko nahia indargabetu egiten da. Kokapenetako batean, kanpamentua jaso nahi dute. Okupatutako kokapen bakoitzean egindako bileren ostean, eta Egiomoko okupatzaileek luze jarraitzeko erabaki lasaia hartua duten arren, kolektiboki erabaki dugu biharamuneko ordu txikitari modu bateratuan bertatik joatea. Lau kokapenetako okupatzaileak berriz elkartu gara. Zutabe luze batek Paris hirigunerantz doan metrora jo du. Batzuek Alpha Wann abesten dute ahopeka, «Arrivederci, aire-sarreratik noa ni».¹⁹ Baina partida ez da amaitu, Mirabeau hormigoi-zentrala aboratu baitugu. Duela bi aste *Obren amaiera* kanpaina hasi zen lekua. Berriz okupatu eta margotu dugu. Nekearen eta ekintza sutsuz

19 [I.o.] Jatorrizkoan «Arrivederci, j'm'échappe par l'arrivée d'air».

betetako bi egunen ostean, konplitu izanaren sentimenduaren aurrean, blokeoa gelditu dugu eguerdi amaieran. Grand PÉril Express operazioa amaitzeaz da. Hurrengo bi egunetan, menderaezin gutxi batzuk ekintzekin jarraitu dute. Oragailuen azpian jarritako pertsonak beste hormigoi-zentral bat okupatu dute, eta Parisko Errepublikaren plazako eskultura XRen eta Lurraren Altxamenduen logoekin apaindutako jaka hori erraldoi batekin jantzi dute.

Gure akatsetatik ikastea

Arbeleko lehen puntu beltza: ekintza honek, bere garaian, hedapen txiki samarra izan zuen. Okupazio zeharo bisuala nahi genuen eta hala izan zen. Oihartzun handia izan zezakeen ahalmena izan arren, estaldura mediatiko oso txikia jaso genuen. Neutralizazio hau hein batean industrialariet gu «isilarazteko» duten nahien ondorioa da. Guk gure ekintzak dokumentatu nahi genituen etorkizunean errepikatzea posible izan dadin, haiek ito egin nahi zituzten inork ez dezan haiengandik edan. Ekintza honen kasuan, ez zuten salaketa ere jarri. Baina, nahiz eta hasieran haien estrategiak funtzionatu, gerora, Grand PÉril Expressek gero eta oihartzun handiagoa izan du, eta eztabaida piztu du borroka ekologisten inguruan egin daitekeen eta ezin daitekeenaren artean. Komunikazioa gudu-zelai bat da, eta hasierako porrot horrek beren kontrakoak ikusezin bihurtzeko industrialarien ahalmena erakutsi digu, baita arma hori perfektionatzeko gure premia ere, hala, parte hartzen dugun ekintza eta borrokei merezi duten ikusgaitasun guztia emateko.

Grand PÉril Expressek bihurtune bat ekarri zuen: blokeo-praktikei gaur egun «desarmatze» deitzen zaiona gehitu zien, materialki, kolektiboki eta publikoki hormigoia eta bestelakoan industriak erasotzea posible dela erakutsi zigun, eta politikoki azaldu zuen. Ekintzaren ostean, eztabaidek —batzuetan sutsuak diren eztabaidek jarraitu egin zuten—. Alabaina, sabotajea ondo edo gaizki egotearen kontuari bueltak eman beharrean, ondorengo kontuei buruz hausnartzen zuten: parte-hartzaileen arteko komunikazioari, izan ditzakeen arriskuei, marko hetsi baten premiari, ekintzan zehar hura ebaluatzeko gaitasunari eta hura gainditzean pozteari buruz. Behin betiko erabakita egon ez arren, kontu horiek ekintza bakoitzaren

inguruan oreka bilatzera bultzatzen gaituzte, ez bakarrik irizpide ideologikoen arabera, baita tokiko indarren osaketaren eta begiztatutako helburuen arabera ere. Ende Gelände eta XRen ekintza-moduak errepikatuz eta desarmatzearen praktikekin bizia emanez, atalase bat pasa da. Lehen zatitzaileak izan zitezkeen praktikak, kolektiboki eta politikoki egingarriak bihurtu dira. Lurraren Altxamenduen historia laburrean, Grand Péril Express ekintzak gertaera gogoangarria izatea lortu du izenari, ezustekoari, bertan zeuden pertsonen adonari eta makinaren aurka egindako ekintza zuzeneko praktikei esker.

HORMIGOI ARMATUA: IKERKETA EXISTENTZIALA

«2005ean Txinak Erromaren baliokidea litzatekeena eraiki zuen bi astero, edo 312 aldiz Paris litzatekeena urtebetean. Ameriketako Estatu Batuek XX. mende osoan ekoiztako hormigoia bider bat eta erdi gehiago ekoizti zuen Txinak 2011an. Denbora tarte horretan, Île-de-Francen, 20.000 etxebizitza soilik entregatu ziren 2020an». Erroma ez zen egun batean egin, dio atsotitzak. Bi aste nahikoa dira, edo hala maite du pentsatzea Thomas Hantz Acteurs du Grand Paris-ko lehendakariak, txinatar ereduaz duen irudiarekin hipnotizatuta. Ondoren, Parisko patxadaz kexatzen entzuteko, Grand Paris Expressek ez dirudi hormigoia ozeanoan tanta bat besterik. Segundoro 790 tonako fluxuaz etengabe elikatzen den munduko ozeano zabal bat da, alegia, urtero ekoizten diren 25 mila milioi tonaz.²⁰ Agian, Thomas, noizbehinka, Senaren ibai-ahoko kreta zuriaren labar goialdean eseriko da, eta estuarioa munduko hormigoia-fabrikarik handienetakoa dela amestu: haren emaria gutxi gorabehera antzekoa da. Thomas hormigoiairen militantea da. Haren bizitza eman du lur-globoaren gainazala estaltzen, munduko metropolietako haren kideen aldamenean. Eraginkortasun, higiene, modulazio, garapen kontua da: aurrerapen kontua. XX. mendeko gizaki gehienentzat gai prosaikoagoa da: hormigoia paisaiaren zati naturala da. Esan beharra dago agregakin-ur-zementu nahasketaren guztizko masak aurrerantzean, planetako zuhaitzen batura gainditu duela...²¹ Hori da gure abiapuntua: gure ingurumena hormigoiaz osatuta dago fauna eta floraz bezainbeste —edo gehiago, bizi garen lurraldearen arabera—. Bob Marleyren «Hormigoiairen oihana» (*Concrete jungle*) abestitik Akhenaton-en «Hormigoia darizu adurtzat, hormigoia botatzen txistutzat, hormigoia egiten kaka» (*IAM, Demain c'est loin*) esaldira, material horrekin dugun nahitaezko kondizio hibridoaz geroztik, askatu behar ditugu Laffargerren eta ezkontideen zementu-fabrikekin gutxi gorabehera zuzenean lotzen gaituzten kableak.

20 Urteko zementu ekoizpenean oinarritutako zenbatespena (4,2 mila milioi tona 2019an, eta igotzen).

21 «Ils réduisent le coût et l'impact environnemental du béton», Brut média, 2022ko abuztua.

Hormigoi etsaia

Hemen, Akhenaton eta Bob Marley bat datoz hiztegiarekin: «Hormigoa» modu figuratiboan «hiriko ingurune zapaltzaile»-ari lotuta dago (*Frantses hizkuntzaren hiztegi historikoa*). Zer du material honek beti etsaitasunezko zerbait helarazten diguna, gertuko ezagun izanagatik ere? Ziurrenik halako idortasun bat, basamortua oroitarazten duena, haren azalera lau horiekin, nabardura hits horien bariazioekin edo beroa irradiatzeko moduagatik. Behar bada diziplina-erakundeen arkitekturarekin lotzeagatik ere: kuartela, fabrika, eroetxea. Agian bi mundu gerran bidez izandako orokortzeagatik, hasteko, haren erabilpen militarragatik (blockhaus eta lehen eta bigarren lerroko beste eraikin militarrek) eta, jarraitzeko, berreraikitzean izan zuen funtzioagatik, hamarkada laburrean hiri osoak birmoldatuz. Edo baliteke haren berdintzeko ahalmena izana, mundu guztira hedatutako patente batzuek babestuta, unibertsaltasun modernistaren material idealaren mailara igo duena?

Hormigoiaren eta inguruan dituen gizakien arteko elkarrenganako etsaitasuna kudeatzeko, badirudi duela ia mende batetik hona arkitektoen funtsezko funtzioa izan dela materiala harlandu faltsuzko edozein estaldurak baino hobeto janzten duen diskurtsoa ekoiztea. Hormigoiaren militanteek beren ideologoak dituzte, eta bazter guztietako abangoardiek onetsi egin dute mundu zaharra bota eta berria eraikitzeko. Oscar Niemeyer-etik Le Corbusier-era, eraikuntzaren munduan hormigoiak izandako menderatze hasieran teknikoa indartu egin da kanon estetikoak birdefinitzearen asmoarekin. Bigarren Mundu Gerraren amaieran, ezusteko aldaketa ausart batean, zeinak instituzio errepublikar batzuk gogorarazten dituen, antifaxista bihurtu zen: nonahi zabaltzen zuen «nazioarteko estiloa»k nazionalismoen haraindian herrien kidetasuna bermatu behar zuen... Eta, gaur egun, jakina, deskarbonizatuta dago eta ezinbestekoa da trantsizio ekologikorako.

ECOPact, DECA, Vertua, Planet: ekoizle bakoitzak bere hormigoi berdea du. Baina oker geundeke ingurumenaren hondamendiari unibertsalki gehien lotuta dagoen industrietako baten *greenwashing* saiakerei barre egingo bagenie. Paradoxikoki, hondamendiaren kontzientzia zenbat eta gehiago zabaldu, orduan eta garrantzi handiagoa hartzen dute gure etsaien dis-

kurtsu ekologistek. Alde batetik, «ekoantsietate» ezagunaren aurkako defentsa-mekanismo psikiko baten eragina da: gure garaikideen zati esanguratsu bat guztiz prest dago ingurumen-erronkentzako erantzun teknologikoa duela esanez datorren lehen hitzontziari sinesteko.

Bestalde, talde handiak ulertzen hasi berri dira arazoari aurre egiteko modua ikerketan eta garapenean benetan inbertitzea dela, eta ez soilik marketinean. «Berdetasuna»ren adierazle nagusizat arreta CO2aren isurketetan jartzeak menderatzen duten eremu batean kokatzen ditu enpresak: kontabilitatearenean. Berrikuntza teknologiko apur bat, lobby-lan asko (arauak trantsizio energetikorako «ahaleginen» eskutik doazela bermatzeko), beharrezkoa balitz zenbakien zenbait faltsifikazio:²² etiketa berdea ez da hain erraz desitsasten. Batzuetan gure aldetik bada halako sineskortasun bat pentsatzeko etsaia, noski, defenda ezina dela. Ekologia ordea, hemendik aurrera eta inoiz baino gehiago, gudu-zelai bat da, Lurraren Altxamenduen ekin-tza bakoitzaren ostean, gobernuko komunikatzaileek, FNSEAK edo hormigoilariek piztutako kontrasu gutxi gorabehera eragin-korrek erakusten duten moduan. Hormigoia helarazten digun lehen etsaitasunetik haratago ulertu behar dugu.

Hormigoia eta bere mundua

Badakigu fisikoki zerk eusten duen hormigoia: zementuaren hidratazioak bere silikato faseak kaltzio silikato hidratatu bihurtzen ditu, eta haren egiturak agregakinen kohesioa eta materialaren erresistentzia bermatzen ditu. Baina zerk eusten du hormigoia ontologikoki?

Beste era batera esanda: zer da hormigoia mundua?

Estandarizatutako zementu arruntena, «Portland» izenekoa, XX. mendearen hasieran findu zen. Kapitalismo industrialaren maila gorenari lagundu dio. Izugarri moldagarria, merkea eta erraza harekin lan egiteko eta suntsitzeko; orduz geroztik, zementuzko hormigoia ezaugarriek politikariei eta planifikatzaileei askatasun handia eman die espazioa itxuratu eta birmoldatzeko. Eta birmoldaketa hori ez da eten gizakiok hi-

22 «"Le béton vert", arme de la transition écologique, fait chou blanc», Mediapart, 2022ko uztaila.

rietan pilatzen eta, funtsean, kapitalaren biltze-mugimenduak jarraitzen egon garenetik.

Hormigoia salgaien (izan informazioa, energia, fabrikatutako ondasunak edo langileak) fluxua azkartzean jarduten duten azpiegituren loturan hezurmamitzen da. Pleita, biltegiak, sailkatze-zentroak, garraiolariak, datu-zentroak, zuntz optikoa, plataforma «birtualak»: logistika- eta informazio-sare handiek metropoliak sinkronizatzen dituzte beren artean merkatuaren kadentzian. Lurraldeak marratuz, geruza horrek olagarro logistikoko bat trazatzen du, zeina biltegiak, portuak eta aireportuak lotzen dituzten errepideek, zubiek, tunelek osatzen duten. Bertatik igarotzen den lurraldeen berezitasunak kontuan hartu gabe, eta bertan bizi direnak ere aintzat hartu gabe, logistikak marra guztiz zuzena trazatzen du herrixketan, soroetan, naturaguneetan eta mendietan barrena. Landa eremua alde batetik, igarobide funtziora, eta, bestetik, elikagai eta energia iturri izatera gertzen da alboratuta.

Pilaketa horrek bultzatutako hirien birmoldaketak eragin zuen hiriok funtzio ekonomiko zehatzak dituzten eremuetan banatzea: bizileku-multzo handiak, industriaguneak, finantza-auzoa, merkataritza-kale nagusia, teknologia-guneak, merkataritza-guneak eta dibertimendua periferian... Azpiegituraren «modernizazio» honek ez du atsedenaldirik eta metropolizazioaren berezitasun adierazgarrietako bat da: aldi berean obra etengabea eta zaharkitua izatea. Hogeita hamar urte, eraitsi eta eraberritu.

Hormigoia eta haren lehengusu asfaltoa eraikuntzarentzat dira petrolioaren energiarentzat dena: ekonomiaren espektatibekin gehienbat egiten duen soluzio teknikoa. Gainera, hormigoiak, asfaltoak eta petrolioak sinbiosi ia perfektuan eboluzionatu dute, azkenak energia eta materia bermatuz aurrekoei, eta haiek, horren ordainetan, azpiegitura (gehienbat bideak) emanaz; horri esker, petrolioak bere ahalmen guztia zabaldu ahal izateko.

Lurraldearen eraketa azkar eta moldagarria kolonizazioaren gakoetako bat ere bada: Hennebique sozietatea ez zen okertu 1893an, Aljerian, hormigoia armatuaren bulego bat ireki zuenean («Habetaria oso arina eta erresistentzia handikoa sortzeko metal eta zementuaren berezi bat da») teknikarako lehen patenteetako bat erregistratu eta hilabete gutxira. Prozesu honek martxan

jarraitzen du oraindik, eta ez da ustekabekoa Siriako kaosean Lafargek bere jarduerak mantendu nahi izatea frantses diplomaziak gainbegiraturata: berreraikitzearen merkatua aldi berean da mamitsua enpresentzat eta estrategikoa neokolonialismoarentzat. Tragedia oro ona da hormigoia eragina zabaltzeko, ustezko konponbide hobeezina da, baina hurrengo tragedia prestatu besterik ez du egiten, Marokoko lurrikararen ostean²³ Mugarik Gabeko Arkitektoek salatu duten moduan. Kapitalismoaren jeinu gaiztoaren ikuspuntu orojakilea hartuko bagenu, aitortuko genuke hormigoia ez dela soilik material praktikoa, baita gure izatearen berezkoa ere.

Esplotazioa areagotzeko (metropolizazioa) eta hedatzeko (kolonizazioa) nahiak betetzeaz, zein aurreratzeaz gain, ugaritze hegemonikoak erabiltzen duen eredu bera jarraitu du: (lurren eta bizi-inguruneen) deserrotzearen eta suntsiketaren indarkeria, modu orokortuan (lurraldeak) parekatzea, merkatua saturatuz lehia-ereduak ezabatzea, (etxebizitza) krisia eta etengabeko berantolaketa, etab.

Baina kokatuago dagoen ikuspuntu batera itzultzen bagara, eta, guztiz zintzoak izateko, edo ez erabat etsiak, onartu beharra dago ere hormigoia eusten duena ez dela soilik hil-makina handi eta bihozgabe bat aurrerapenaren aurreranzko bilakaera handiaren esamesari sinesgarritasun handirik eman gabe, ezin dugu ukatu aurrerapen hark ahalbidetu zuela, XX. mendean zehar, nolabaiteko erosotasuna eskaintzea landa-exodotik zetozen klase herritarrei, zeinak ordurarte bizileku osasungaitzetan pilatuta zeuden. Gainera, ongi dakigu gure garaikideetako gutxi daudela, gu barne, zementuzko azpiegituren mendekotasun materialari berehala uko egiteko prest.

Eta, are gehiago, ezerk ez dizu galarazten hormigoia armatuzko zure etxeari edo haren hormigoizko eraikin-blokeari bene-benetan lotuta egotea yurtari edo zurezko egituradun etxeari adina. Nork daki, agian Renaud edo Ninho-k abesten duten moduan, hormigoiarekin «maiteminduta» (*Amoureux de Paname*), «love» (*C'était le rap*) egoteraino...

23 Mugarik Gabeko Arkitektoak, «Suite au séisme au Maroc», 2023ko iraila.



Fase horretan, ideia ez da hormigoiairen kostu/irabazi balantze bat ezartzea kontulari baten moduan, ezta ekintza politikoaekin ia bateraezina den erlatibismo batean erortzea ere. Kontua ere ez da hormigoiairen prozesuaren izapideak egitea ez dakit zein auzitegitan kondenatzeko asmoz. Burutzen ari garen ikerketa gure mendekotasunaren haria jarraitzean oinarritzen da, ez soilik elementu egozgarriak identifikatzeko, baita sektorearen maila guztietan ezagutzera ematen ari diren akats eta erresistentziak ere, Eraikuntza eta Herri-lanetatik hasita lehen-gaien ateratzera, zementuaren ekoizpen industrialetik igarota.

Materialaren ezaugarri fisikoen atzean ez dago aurkitu beharreko inolako muin sakonik. Ulertu behar dena da nola egiten duten bat esparru batean erlazionatzen diren arrain-espezie endemiko baten biziraupen baldintzek, munduko-klimak, 51 urteko Amara Dioumassy-ren heriotzak «2024ko Parisko Olinpiar Joko»-etako obretan, munduko paisaia gehienek, Grand-Lieu-ko (44) eta beste lekuetako geruza freatikoez, beste gauza askoren artean.

Eraikuntza-lanak

Obretan, hormigoia arkitektoa eta obra-zuzendaria da aldi berean. Hark finkatzen ditu bolumen eta testurak, hark erabakitzen kadentzia, hark definitzen langile kopurua eta kalifikazioa. Duela bi mende haren industrializaziora arte, morteroa egiteko eraikuntzako langileek trebetasun berezia behar zuten, eta nolabaiteko estatus bat ematen zien. Gaur gaurkoz, Eraikuntza eta Herri-lanen sektorea, zeinak munduko produktu gordinaren % 13 adierazten duen, bizirauteko edozein lan onartzeko beharraren «kualifikazioa» besterik ez duten giza-baliabideen erreserbaz baliatu daiteke; eta jende asko da hori, baina dirudienez ez da aski lanbideko ordezkariarentzat, hautagaiak falta zaizkiela kexatzen baitira... Frantzian, sektoreko soldatapekoen % 10 bitarteko langileak dira, eta % 25 etorkinak. Prezio baxuko esplotazio hori, hormigoi-magoen trukoa da, arrakasta-istorio progresistaren aurpegi ezkutua. Hesi-gortina altxatzen badugu, ez da hain distiratsua. Frantzian, urtero, Eraikuntza eta Herri-lanetako hemezortzi langiletik bat lan-istripu baten biktima da. Sektorea soldatapekoen % 8 da, baina lan-istripuen % 14,

gaixotasun profesionalen % 16 eta lanari loturiko (istripu edo gaixotasunagatiko) heriotzen % 19. Zenbakiak adierazgarriak dira, baina ikaragarri gutxietsiak; izan ere, enpresaburuek presioa egiten dute istripu eta gaixotasun profesionalak gaixoaldi sinpleko bajaren erregimenean sar daitezen. Ia sindikatuta ez dagoen sektore honetako indar-harremanen ondorioz, zaila da ez amore ematea, batez ere, egoera administratiboa enpresaburuaren borondate onaren esku dagoenean. Eta, hemen, Frantziak besterik ez gara ari, non soldatapeko langileek borroka sozialari esker lorturiko babes batzuez gozaten duten. Asiako langileen kasua Qatarreko 2022ko munduko txapelketarako obretan, tristetki dokumentatua izan zen, eta askoz gertuago dago segur aski mundu mailako batezbesteko baldintzengandik.

Hau da kapitalismoaren begietan hormigoia bertute nagusietako bat: petrolioak egin duen moduan, meatzari eta zamaketarien —ikatz hornikuntzaren nagusiak— kalte-ahalmena ahultzea lortu du, eta hormigoia ezaugarri fisikoek Eraikuntza eta Herri-lanetako langileak desjabetzen eta presiopean mantentzen lagundu dute, sektoreko multinazionalen etekin handienaren alde. Kontrako aldean, badirudi lan balditzak gako direla hormigoi frontearen aurrerakada geldotzeko. Zentzu horretan, papergabeekin batera haien erregularizazioaren eta ordainsari duinaren aldeko borroka, beste ezeren gainetik, garrantzitsua da gure helburuarentzat: etsai komun gisa ditugu ez soilik Bouygues, Eiffage, Vinci eta ezkontideak, baita zuzenean hormigoia ere, langileak azpiratzeko tresna gisa.

Hormigoia ezaugarri fisikoek kapitalarentzat modu eraginkorrean funtzionatzen badute, badakigu ekologiarri dagokionez bertute gutxiago dituztela. Materialaren erregulazio higratermikoa nahikoa ez denez, isolatzaileak eta klimatizazioa ezinbestekoak dira maiz zementuzko hormigoiarekin egindako obra bat bizigarria izan dadin. Gainera, eskaintzen dituen hiri-dentsitate formek bero-uharte efektua areagotzen dute, eguzkiaren erradiazioa xurgatuz eta autoen ihes-gasa eta airegirogaileak isurtzen duten aire beroa gordez.

Era berean, asko dago esateko lur bizigarritzko gainazalak (nekazaritza industrialaren birrinketaz libratzen direnak) esaltzeko duen erraztasunari eta haren abiadurari buruz (urtero 50.000 eta 60.000 hektarea), zeinak Macronen parlamentariak ere

arduratzten dituen. Gaurtik 2050erako «artifizializazio garbirik ez»²⁴ legegintza-helburuak anbiziotsua dirudi, egungo hamarkada honetan erdia murriztu nahiarekin. Baina atzerakadengatik, inertziagatik, zenbakien manipulazio txikiengatik eta tokiko hautetsiek berehala adierazten dutelako haiek ez dutela joko horretara jokatu, hala posible den edonon lurren suntsiketari amaiera emateko hobe da borrokan sinestea.

Leku guztietan herritar taldeak eraikin berriak eraikitzearen eta behartutako dentsitatea handitzearen aurka mobilizatzen dira; besteak beste, Aubervilliers-eko Lorategia Defendatu²⁵ borroka edo Besançon-eko Vaïtes-en eko-auzo berrriaren aurkakoa ditugu. Vaucluse-ko Pertuis-en, ZAP (Pataten Eremua)²⁶ merkataritza-gune baten aurka matxinatu zen. Beste leku batzuetan, Amazon plataformak eraikitzeo nekazaritza-eremuak hormigoitzearen aurka daude. Baita, A69aren, A50aren, N88aren, Lyon-Turin AHTaren aurka ere...

Borroka hauen indarra defenditu beharreko lekuarekiko atxikimenduan dago. Ahulezia berriz, hormigoia lehenean isurtzen direnean, amaieraren hasiera izan ohi dela. Aldez aurretik ekitea ezinbestekoa da.

54 kilometroko Lyon-Turin tunelaren gangak 4 tona hormigoia isurtzea behar du 200 metrora. Maurienne haranean zentralak eraikitzen ari dira, eta eskualdea bigarren mailan klase egokituak sortzen ari da ikasleak Eraikuntza eta Herri-lanetako lanbideetara bideratzeko eta behar diren langileak sortzeko. Borroka atzealdean has liteke, industriaguneetan eta ikastetxeetan.

Zentralak

Hormigoia zatirik handiena, lurralde osoan zehar dauden zentraletan, «erabiltzeko prest» ekoizten da. Frantzia 2.000 baino gehiago daude, eta haietako asko zuzenean zementu talde handienak dira. Lurralde-sare trinko honen bi arrazoi: garraioaren prezioa (hormigoia pisutsua da), eta nahasketa ekoizti ostean berehala isurtzeko premia (ezin du hondatu gabe ordubete baino askoz gehiago igaro hormigoia-kamioian).

24 [l.o.] Jatorrizkoan «zéro artificialisation nette».

25 [l.o.] Jatorrizkoan «Jardin à Défendre à Aubervillier».

26 [l.o.] Jatorrizkoan «ZAP (zone à patates)».

Apenas dago hormigoi zentralen aurkako borrokarik; zentral horiek enpresaguneetan egon ohi dira kokatuta eta ez dira bereizten ICPE (ingurumenaren babeserako sailkatutako instalazioak) lantegien edo biltegi logistikoen artean. Ingurumenari buruzko haien ahulgunea egiazki —stripuz edo arduragabekeriak— isurtzen dituzten zementu-esnezko uretan dago, Javel portuko (Paris XV.) zentralaren ibaiertzeko kolektiboek erregularri salatu duten moduan.

Aldiz, arretaz begiraten baldin baditugu desarmatzearen aukerak, ohartuko gara zentralek sarriago merezi dutela jomuga izatea: edonon eskura, ekoizpen doituari funtzionatzen, eragin bermatuarekin kamioiak dozenaka minutuz baino gehiago blokeatu arren... Kamioilarien sindikatuaren borroka sozialerako tradizioak bateratzeko aukera irudikatzen ere bultzatzen gaitu, Grand Péril Expressen ekintzetan kamioilarien aldetik jasotako aldeko erantzunak erakusten duten moduan.

Zementu-fabrika

Hormigoi zentralak ugari dira, zementu-fabrikak berriz, Frantzia ia monopolio egoeran dauden taldeetako bost zuzendari nagusien eskuetako hatzekin zenbatzen dira: 43 lantegi, eta gehienak LafargeHolcim, Equiom, Vicat, Heidelberg eta Imersys enpresenak dira. Kasu honetan ere, helburua fabrikak lurralde osoan zehar banatzea da garraio kostuen ondorioz.

Zementu-fabrika bat bisitatzeko aukerak eskasak dira. 2022ko abenduan Bouc-Bel-Air-eko Lafargerena desarmatu zuten 200 pertsonak barnealdeko irudi batzuk uzteko ideia ona izan zuten. Haietako batean, dunper-kamioien ilara bat ikus daiteke, fabrikaren aldameneko kareharri harrobia ustiatzeaz arduratzen diren iraulki-kamioi erraldoiak. Izatez, kareharria zementuaren lehengai da, eta zementu-fabrika gehienak hobi bati itsatsita daude. Xehetasun azpimarragarri bat: argazkian, kabinak eta pneumatikoak sutan daude...

Beste argazkietan, tximinia altuek labe ikaragarrien presentzia adierazten dute. Kareharriari buztina gehitzen diogu eta 1450 °C-tan berotzen da hainbat ordutan zehar, gero hoztu eta klinkerra sortzeko. Zementuaren oinarria da, eta hainbat gehigarri gehituko dizkiogu ezaugarriak hobetzeko.

Susmoa dugu labe horiek energiaz hornitu beharko direla, eta zementu tona bateko karbono-aztarna ez dela izango oso bateragarria «Parisko akordioa»ren ibilbidearekin. Baina, batez ere, jakin beharra dago labeak kontsumitzen duen energia ekoiztutako CO2aren % 30 besterik ez dela, gainerakoa klinkerra bera sortzeko erreakzio kimikoaren ondorioa da. Azken finean, tona bat zementu ekoizteak, batez beste, CO2 kantitate bera sortzen du! Halaber, zementu-fabrikak mundu mailan gas horren munduko isurpenen % 8aren erantzuleak dira.²⁷

Itxura txar samarra ematen duten zenbaki horiek murrizteko, zementu-lantegiak bide guztiez baliatzen dira. Petrolio eta ikatz gehiegi erabiltzea saihesteko, zeinak berotegi-efektuko gasak sortzen txapeldunak diren, industriak eskura duen edozer erretzen du: pneumatikoak, animalia-irina, eraispenetako zura, eta abar. «Erregai alternatibo» horiek labeetako errekuntza-ganberetara sartzen denaren erdia dira. Bouc-Bel-Airreko desarmatzeetako argazkietako batean ikus daitezkeen pneumatiko mendiak azaltzen ditu horrek.

Lafarge zementu-fabrikaren aurkako ekintzak instalazio mota horiek hurbiletik jarraitzen dituzten pertsonen pultsua hartzeko ere balio izan zuen. Alde «ofizialean», Lafargek eta tokiko hautetsiek «terrorismoa» oihukatzen dute eta zorigaiztoko istripu industrial posible bat argudiatu (berriz aipatu beharko zaie industriak batere arriskurik ez duela azaltzen dutenean...). Soldatapekoen aldean —4.000 inguruk egiten dute sektore horretan lan Frantzian—, langileen erreakzioak aztertzeke zailak dira, hedabideetan testigantza gutxi agertzen dira, eta, ondorioz, bertsio ofizialari bide ematen zaio langileak ikaratuta daudelarik, kokapenaren txoko batean euren hurrekin Gabonetako zuhaitza ospatzen dauden une berean. Bizilagunen aldean, aitzitik, *France Bleu Provençen* webgunean, ekintzaren biharamunean bertan, Dominique lantegiaren ibaiertzeko bizilagunaren ikuspuntua irakur zitezkeen: «Lantegi honek urteak daramatza kutsatzen, zementuzko hondakinak ditut nire terrazan eta auto gainean,

27 Karbono gutxiko zementuaren promesak klinkerarren ehuneko murriztean oinarritzen dira, baita zepa siderurgikoekin (labe garaietako hondakinak) ordezkatzean ere. Berrikuntza tekniko horien mugen azterketa zehatz baterako, ikus 10. oharrean aipatzen den Mediaparten artikulua.

ulertzen dut jendeak horrelako ekintzak egiten amaitzea azkenik zerbait mugi dadin».

Testigantza honetan ageri dira lantegiaren isuri atmosferikoen kontra Bouc-Bel-Airreko biztanleen protesta urteak (nor sentitzen da seguru pneumatikoen erraustegi baten alboan?), isuri-arauak (errautsarenak, sufre dioxidoarenak, eta abar) hautsi dituela estaltzeko Lafargerren era askotako azpijokoak, eta, 1958an lekua ireki zutenetik, prefekturak behin eta berriro emandako indargabetzeak. Gainera, desarmatzearen osteko Lafargerren komunikatua haien hormigoiaaren proiektua «karbono baxukoa» zela esatera mugatzen zen, airearen kutsadurari buruz txintik esan gabe. Geroztik, mirakuluz edo, lantegia legalki eguneratu dute. Ez dago argi horrek bizilagunak lasaituko dituen...

Estraktibismoa

Hormigoiaaren abantaila lehiakorra da haren osagaiak, zementuaz gain, gure planetako lehengai ugarienetakoak direla —baita gizakiarengandik gehien ustiatuak ere—: ura eta, bereziki, agregakinak (hondarra eta hartxintzarra). Zoritzarrez, aspaldi zirudiena baino mugatuagoak daudela ikusten ari gara.

Hormigoiak munduko ur industrialaren % 10 inguru kontsumitzen du. Kontua ez da itsasoko ura erabiltzea: hormigoia sarri gatza ondo jasaten ez duten egitura metalikoekin egoten da. Gaur-gaurkoz, ur gezaren erabilera gatazkaren menpe dago ia edonon, eta hormigoilariek hortzez eta haginez defendituko dute geruza freatikoetatik eta ibaietatik ateratzeko haien eskubidea, agroindustriako enpresariak, nukleokratek eta beste kontsumitzaile guztiek bezala. Industria munduan barneko tentsioak eragingo ditu horrek, eta botere publikoaren bulkadagatik nonahi sortzen ari diren uraren tokiko gobernuek horiek konpontzen saiatzeko ekimenak egiten dituzte.

Agregakinakinen, eta, zehazki hondarraren kasuan, zailagoa da. Horrek ez du esan nahi printzipioz baliabideak falta direnik: 200 bilioi tona inguruko stocka zenbatesten da. Guztiz ustiaezina dena alde batera utzita, bereziki itsas azpian dozenaka kilometrora dagoena, kontuan hartu beharreko 4 bilioi tonako²⁸ lastaira bat dago. Nahikoa planetaren gainontzekoa hor-

28 Iturria: Wikipediako frantsesezko «Extraction du sable» artikulua.

migoiez estaltzeko. Nahikoa da halaber, hormigoiaaren sektorea berehala erasotzeko hura agortzea patxadaz itxaron gabe... Baina madarikazio ekologikoa gupidagabea da, eta ez dago bermerik kapitalismoaren baliabide bakar bat ere stockaren amaieratik salbu geratuko denik.

Izan ere, hobi irisgarri guztiak ez dira era berean ustia-garriak. Sirokoak leundutako basamortuko hondarra biribilegia da: haren hondar aleek zementu onenaren eraginpean ere gatzatzeko zailtasunak dituzte. Dubai beste norabait joan behar izan zen, zehazki Australiaraino, munduko etxe orratz altuena, Burj Khalifa, eraikitzeko material baliotsuaren bila. Frantzia, itsas-bazterren eta ibaien zati batek, zeinak herrialdeko agregakinen % 10 eta % 15 inguru hornitzen duen, oraingoz presioari aurre egiten dion ingurumen-babesa du.

Eta hondarra ez da hormigoiaerentzat bakarrik. Urtero ateratzen denaren erdia besterik ez du hormigoiak irensten. Gainerakoaren zati handi batek proiektu faraonikoak eta/edo etsiak elikatzen ditu; besteak beste, polderizazioaz itsasoari lurraldea irabaztea, Bahraineko irla artifizialak azaleratzea edo Singapurren itsas mailaren igoeraren kontrako borrokan peoiak aurreratzea. Eraikuntza eta Herri-lanetan ere erabiltzen da beira edo beira-zuntz moduan. Eta nekazaritza industrialean, baratzezaintzarako substratu gisa edo lurra ongarritzeko erabiltzen da. Ondo dakite hori Saint-Colomban-eko hondar-harrobiaren itsasertzeko bizilagunek eta Côtes-d'Armor-eko Trégor-eko herri-tarrek, itsaspeko duna baten ustiapenaren aurka egin baitzuten borroka... Azkenik, ezin dugu ahaztu hondarretik ateratzen den silizioa gailu elektronikoko gehienen osieran erabiltzen dela. Jokoan dauden kopuruak ezin dira konparatu ere egin eraikuntzaren beharrekin, baina eskasia gorakorren testuinguruak eta dakartzan erabileraren gatazkek sektoreari presio apur bat gehiago egiten laguntzen dute.

Baliabideari presioa egiteak ingurumenean kalteak areagotzea esan nahi du. Zenbat eta arrarago, orduan eta garestiago, eta orduan eta arrazoi gehiago inguruan duena suntsitzeko. Lehorreko hondar- eta hartxintzar-harrobientzat, baita natura- eta nekazaritza-eremuen kontsumoarentzat ere, geruza freatikoetako eragina kezagarria da: zulatzen denean, lurpeko

urak drainatu egiten dira, zeinak ondoren ponpatu eta egotzi behar diren, eta, era horretan, haien zikloa asaldatzen da.

Ura ateratzeari dagokionez, arazo nagusia korronteen aldakuntza eta sedimentuen jarioa dira; izan ere, higadura handitzen dute eta beste kalte batzuen ondorioz jada hauskor dauden ekosistemak asaldatu. Tokiko baliabideak agortzeak gehienbat errepideetatik garraiatzen denaren distantzia eta bolumenak ere handitzea ekarriko du.

Azkenean, haien eginahal guztiak gorabehera, kapitalismo «ofizialak» eta multinazionalak ez dute beti lortzen lehiakorrenak izaten. Marokotik Indiara, Kanbodiatik igarota, hondarraren mafien kapitalismo basatiak handituz doan merkatuaren zati bat eskuratu du (Marokoko itsas-erazketen erdiraino), lanbaldintzetan, ingurumenean eta tokiko biztanlerian imajina ditzakegun ondorioekin.

NBE kezkatuta ageri zen 2019ko txosten batean planetan hondar ustiapenaren «iraunkortasunagatik». Klimaren kasuan bezala, gaia berehala da mundu mailakoa. Beti dago arriskua, maila horretan mugitzen bagara, adoregabetzeko edo gobernua-ren logikek harrapatzeko: zeinek erregulatu lezake merkatua mundu-gobernu eraginkor batek ez bada? Baina CO2ak ez bezala, hondarra ez da aise mugitzen lurrazaletik eta erronkak lurralde-kakoak dira, hau da, tokiko mailari ematen zaio bide. Bestalde, hondarraren erazketaren aurkako mundu mailako mugimendu bat jaio liteke, nazioarteko lurreko altxamenduen lanketa baten sostengu gehigarri moduan.

Borroken zementua

Haren ibilbideko geldialdi bakoitzak berresten du: hormigoia arma bat da. Haren erasoaldiak kapitalismopean bizitza gutxiagotzen, are gehiago, eragozten duten frente gehienetan daude. Ura, airea, lurrak, lan baldintzak, klima, desjabetze ekonomikoa, ingurunea.

Ezerk ez du adierazten geldituko denik. Alderantziz, munduan ekoizten den zementu kopurua hirukoiztu egin da azken hogeitun urteetan. Hormigoiak eragin azkarra du. Fluxutik erabat deskonektatzeko aukera ez da berehalakoa: petrolioarekin ez bezala, goitik ez dator «trantsizioaren» inongo promesik materiala

beste teknologia batekin ordezkatzeko. Ez dago zalantzarik, defenditzeko beharra dago.


Lurraren Altxamenduen ustez, hormigoia-aren aurka defenditzea ezer baino lehen lurren artifizializazioaren kontra borroka egitea da. Hormigoia-makina modu eraginkorrean geldotzeko, desarmatze ekintzak ugaritu egin behar dira eta haien irismena handitu, era horretan, industriei, bai eremu sinbolikoan, bai ekonomikoan, gero eta garestiago kostatuz: jomuga hormigoian jarri behar da, kontu tekniko bat kontu politiko bihurtzen lagunduz, indar nuklearraren kontrako mugimenduak energia atomikoarekin egin zuen bezala.

Metropoliaren erdigunean, handik 30 kilometrora dagoen baso txiki batean²⁹ edo lurralde antolaketaren eragin gutxieneko eremuetan bizitzeak mundua ikuspuntu ezberdinetik begiratzea eragiten du, eta zorigaiztoko utopia liberala intentsitate berarekin ez pairatzea. Gure pertzepzioak ez dira berberak, baina ekoizpen doitu logika industrial berberetan erortzen gara nahi eta nahi ez, hondamendi ekologiko berean. Metropolizazioaren sareetan harrapatuta, egoera ezberdin horietan elkarrekin aritu gaitezke.

Kontua azpiegituretan ibiltzea da, askotariko erresistentziak atzematea, elkarrekiko gure ikuspuntuak islatzea, eta gure errealitate ezberdinen artean zubiak eraikitzea logika suntsitzailer berberen aurka borroka egiteko. Hormigoia-aren munduaren ondorioek ere borrokak elkarrekin mantentzen dituzte.

Hormigoia desarmatzea guneko bakoitzeko borroka indartzea da, eta jendearengan oihartzuna izatea; besteak beste, zementu-fabriken inguruan bizi diren eta birrikak klinker hautsez beteta dituzten bizilagunengan, harrobiek karraskatutako herrietako biztanleengan, Eraikuntza eta Herri-lanetako langileengan, desjabetutako nekazariengan eta metropoli itogarrietako kaletarengan.

29 [I.o.] Lehen aipatu den moduan, frantseseko *bocage* hitzari egiten dio erreferentzia, eta maiz agertuko da hemendik aurrera.



KAPITULU HAU IRAKURTZEN IGAROTAKO DENBORAN,
LABORANTZA-LURREN 7 HEKTAREA ARTIFIZIALIZATU
DIRA FRANTZIAN.

GELDITU MAKINAK: DESARMATZEAREN HIPOTESIA

Nik ez dut ezer hainbeste maitatzen
Aldagarriaren aurrean atsekabea baino
Ezer ez zait hain gorrotagarria egiten
Aldaezinaren aurrean amorrua baino.

Bertolt Brecht

Bereizketan sinesten dugu. Hondamendiak izen asko eta helbide anitz ditu. Zementu-lantegiak, pestizidak barreatzeko makinak, geruza freatikoetako ura ebasten duten ur-biltegi handiak, baserri-fabrikak... Hondamendiaren armez inguratuta gaude eta gure lurraldeak haietaz bete dira, Poituko paduratik hasita, Lyoneko bazter auzoetaraino, Parisko hiri-periferiatik, Britainiako mugetaraino. Desarmatzearen hipotesia da azpiegitura horiek desagitea zilegi diren jomugak, borrokarako tokiak, erasoaldiari berriz ekiteko gatazka puntuak direla.

Gauzen bilakaeraren aurka bada posible den zerbait. 2022ko azaroan, Sainte-Solineko ur-biltegitik itzulerako bidean, sentimendu hori zebilen, baita «Grand Péril Express» ekintzaren ostean ere, eta, beraz, hala idatzi zuten egileek komunikatuan: «Lafargek eta haren konplizeek ez dute ulertzen haien txikizioak hondatutako munduan etorkizunik gabe uzten dituzten belaunaldien amorrua. Haien siloak eta hormigoi-kamioiak hiltzen gaituzten armak dira. Ez dira geldituko behartzen ez baditugu. Hortaz, hondamendiaren azpiegitura hauek guk geuk deuseztatzen jarraitu behar dugu». 2023ko abenduan Lafargereren aurkako ekintza kanpainaren ostean, hurrengo testigantza anonimoa jaso genuen: «Nire aihotz txikiarekin, hormigoia isurtzen duen makina handia elikatzen duten kableen aurrean, zeina behingoz zaurgarri dagoen nahiz eta sakralizazioa bermatzen duen eraikuntza sozial guztia egon (polizia, jabetza pribatua, ekonomia, etab.), nire eskuak jada ez du dar-dar egiten: “desarmatu” egiten dut». «Desarmatu egiten dut» esaldiak «pentsamendua eta ekintza mugatzen dituen hesi ikusezina» apurtzea esan nahi du.³⁰ Kontua ez da egin ezin den betebeharrak batengatik erabat arduratuta egotea, baizik eta hori lortzeko baliabideak metodikoki ematea. Desarmatzearen hi-

30 Mark Fisher, *Capitalist Realism: Is There No Alternative?*, Zero Books, 2009.

potesiak ezintasun sentimendua eta hura eragiten duen mundua desegiteko lan egiten du. Gainera, ez da soilik apustu bat, baizik eta egoera politikoaren eta azken urteetan mundua astindu duten borroken irakurketa arretatsu bat. Eskematikoki azaltzeko, desarmatzea metodo gisa berriki gertatutako ez tandem parte-hartzetik jaio da; izan ere, ez tanga horiek kontestazio sozialaren ezarritako moduak gaintzen zituzten, baina ez zuten mendebaldeko Estatu neoliberal eta kapitalaren gogortzearen aurka nagusitzea lortu, aurreranzko ihesaldi autoritario eta arrazista batean harrapatuta.

Bitartekaritzaren amaiera

1970eko hamarkadaren amaieraz geroztik, langile klasearen oldarraldien, iraultza anticolonialisten eta handitzen zihuan krisi ekonomikoaren kolpe bateratuz beteriko hamarkada batean, kapitalismoa berrantolatu egin zen. Neoliberalismoaren etorrera izan zen, bata bestearen segidako pribatizazio programekin, lorpen sozialen suntsiketa sistematikoarekin eta ondorengo prekarizazio orokorrarekin, langabeziaren leherketarekin eta aberastasunen desparekotasunen etengabeko areagotzearekin.³¹ Leku gutzietan, ordena ekonomikoaren eraldaketa hori «parlamentuaren garrantziaren gainbehera, botere betearazlearen indartzea eta administrazioaren politizazio handiagoa ezaugarritzat dituen estatismo autoritario»³² batekin batera doa. Zehazki, horrek zera esan nahi du: shock-terapia aplikatzen da biztanleria errebeldearen aurka borra kolpe bortitzak, gomazko piloten jaurtigailuak eta *sting* granadak erabiliz. Agintariak gero eta gutxiago kezkatzen dira leporaino armatutako indar polizialak babesten dituen onespeneraren orde, beste onarpen mota batzuk sortzen. Horren harira, mundu horretako bi erakundek beren eginkizuna zalantzan jarri dute: agintedun ezkerria eta kognestioa sindikatuak. Akordioaren, bitartekotzaren eta elkarriketa sozialaren unea amaituta, oraindik «lan munduko partzuerrak» mespretxatuta daude amore eman nahi ez duen elite batengandik. Gizateriaren etorkizunarentzat berotze globalak dakarren mehatxuaren aurrean ere, *there is no alternative*.

31 Oxfamen txostena «Multinationales et inégalités multiples» frantsesez eta «Desigualdad S.A.» gaztelaniaz, 2024ko urtarrila.

32 Paul Rocher, *Gazer, mutiler, soumettre*, La fabrique, 2019, frantsesez eta Paul Rocher, *Gasear, mutilar, someter*, Katakak, 2021, gaztelaniaz.

Ekintza zuzena berriro

Horren aurrean, protesta handitu egin da, lanaren legearen, pentsioen erreformen, polizia indarkeriaren eta islamofobiaren aurka, Jaka Horiek okupatutako biribilguneetan, Sivens-en eta Notre-Dame-des-Landes-en, Klimaren aldeko gazteen manifestazioetan. Ez da urtebete ere iragaten arrakala bat ireki gabe. Mugimendu guztiek komunean dute, leku desberdinetan eta maila diferentetan, ekintza zuzenera berriro itzultzea. Poliziaren eraso errepikakorren aurrean, segizioetan autodefentsa zabaldu da, non bigarren hezkuntzako ikasleak lehen lerroan ikus ditzakegun talde autonomoekin antolatzen eta sindikalista ausartak Polizia urrun mantentzen, baita oztopoei eta lehenago ezarritako ibilbideei aurre egiten ere. Poliziaren eskuetan Adamaren eta Nahelen heriotzen eta Théoren bortxaketaren ostean bortizki matxinatu da gazteria ez-zuria. Jaka Horiek biribilguneak blokeatzen dituzte eta Parisen bihotza eta boterea begiztatu larunbatetako manifestazio haserrean. Notre-Dame-des-Landesen, proiektuan inplikaturako enpresak jomugatzat hartzen dira, bitartean, aireportuaren aurka manifestazio masiboak egiten dira, eta jendea lurrean jartzen da, hura defenditzeko prest. 2023ko pentsioen mugimenduetan, langileek, gobernuaren inposizio gogorraz gogaiturik, sabotajeak ugaritu zituzten.

Identitate politiko finkatuak desafiatzeko, sektoreen banaketak ezabatzen eta ohiko borroka-praktiken eraginkortasuna aztertzen duen ibilbide emozionala abiatzen da. Liskarraren hedapenak zalantzan jartzen du gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko banaketa, adostasuna eta apurketa, erradikalizazioa eta masifikazioa. Erakundeekiko aurkakotasun zintzoak eta «entzunak izateko» nahiak bide ematen diote bereizteko gogoari, berehalako eragina izateari. Milaka pertsona ari dira esperimentatzen blokeo, greba eta manifestazio basatiak, bide mozketak militanteak errepide edo trenbide nagusi handietan, plazen eta saltoki handien okupazio eraginkor eta borrokalariak, sabotaje kanpainak... Atxikimendu herrikoia duten ekimenak isolatu gabe, Estatuak jasan ditzakeen ekintza marko guztiak gainezka egitea du puntu amankomun gisa borroka elikatze erabiltzen den errepertorio taktikoak. Black Lives Matter mugimenduaren zilegitasuna ez zen desagertu Atlantako komisariaren sutean,

Jaka Horien babesa hautsi ez zen bezala ministerio baten atea transpaletaren sardeen kolpeekin apurtzean.

Klimaren aldeko mugimenduko gazteek ibilbide hori berrabiarazten dute. Lehenik, bigarren hezkuntzako manifestazio masiboetan konprometituta, mugimenduak berehala egiazta- tu zuen haren ezintasuna *business as usual* hori aldatzeko, eta haren ekintzen errepertorioa zabaltzea erabaki zuen. Extinction Rebellion eta Youth For Climate Comité Adamarekin elkarla- nean ikusi ditugu Parisko merkataritza-gune baten blokeoa antolatzen eta Andreas Malm-en *How to blow up a pipeline* libu- rua komentatzen, zeinak jabetzak berriz erasotzeko deia egiten duen gobernuak behartzeko larrialdi klimatikoari erantzun bat ematera, eta liburu horren mundu mailako arrakastak thriller estatubatuar bat egitea ekarri zuen. Une berean, Ende Gelän- de mugimenduaren ekimenez, jantzi zurien segizio izugarri handien argazkiak zabaldu ziren Alemaniako ikatz-meatzeak erasotzen eta horrek iruditeriaren aldaketa iragartzen zuen. Han-hemenka aldi bereko ekintza zuzenen kanpaina berriak jartzen ziren martxan, munduaren hormigoitzearen eta intoxi- kazioaren aurka. Mugimenduak Estatuaren erradikalizazioaren mailan jarri nahi du eta ezezko gordin batekin kontrajarri, eta, horretarako, ahaztutako emantzipazio borroken errepertorioaz eta tradizioaz baliatu: luddismoarena, makinetako kalteena eta sabotajearena.

Historia ilun batekin bakeak egitea

XIX. mendearen hasieran lehen ehungailu industrialak sartzean, artisau ingelesak, mekanizazioaren esklabo bihurtuta, fabrika berrien aurkako erasoaldiak antolatzen hasi ziren, arma- tuta eta maskarak jantzita. Harrapaezinak bihurtzeko, alegiazko buruzagi baten inguruan bildu ziren: Ned Ludd delako bat, zeinak 1780 inguruan industriaurreko ehungailuak suntsitu omen zi- tuen. Luddismoa historiara sartu zen mekanizazioaren aurkako munduko lehen mugimendu gisa —industriaren aurkako tradizio luze bati hasiera emanez—, eta desarmatzea praktikatzen zuen kalte egiten diguten makinak zuzenean eta fisikoki erasotzen. Erresuma Batuan XVII. eta XIX. mendean egindako makinaren suntsiketegi buruzko ikerketa ederrean, Eric Hobsbawm-ek ha-

ren ustez «langile-borrokaren metodoak»³³ zirenetan jarduten zutenek gehienetan jasaten zuten mespretxuaz ohartarazten du. Halaber, salatzen ditu «ekonomiaren apologia egiten zutenen [...] aurreiritziak, baita langileei egia ekonomikoen kontra —ezatseginak izan arren— birritan pentsatu gabe joan behar ez zela irakatsi behar zitzaizela uste zutenenak ere», eta «laborategiko animaliek korrante elektrikoarekin erreakzionatzen duten moduan, lehen langile mugimenduak [...] erreakzionatu besterik egiten ez zuela [...] uste zutenak». Zaila da une horretan ez pentsatzea konponbidea teknologia dela uste duten pertsonengan eta horiek hondamendia eragozteko matxinatzen direnekiko duten mespretxuan, edo polizien bidegabekeriaren osteko istiluen jazarpen krudel sistematikoan.

Baina sabotajearen eta ekintza zuzenaren inguruko beste leku komun batzuk argi eta garbi gezurtatzen ditu Hobsbawmek. Lehenik, agerian ezartzen du makinak suntsitzea ekintza bakartuak edo abenturazaletasun modu bat izan ordez, kontrara, praktika zabaldu bat izan zela XVII. mendetik 1830eko hamarkadara arte. Izan ere, ez zen makinaren kritikariena soilik zen zerbait, baizik eta patronalarekin indar harremanetan jarduteko erabakia hartu zuten gizon eta emakumeen atxikimendua ere bazuten. Izara moztailiek, nekazaritza-langileek, meatzeetako langileek edo fabriketakoek ez zuten zalantzarik izaten makinak suntsitzerako orduan, «baina ezta lehengaiak, produktu amaituak, edo enpresarien jabetza pribatuak suntsitzerakoan ere, azken horiei min gehien egiten zien kalte motaren arabera». Garai oso horretan zehar, Hobsbawmek baieztatzen du «“matxinada bidezko negoziazio kolektibo” horren inposizioa ondo frogatuta dagoela». Praktikak dutenak ez bakartzeaz gain, haren ustez, «langileentzako elkartasuna bermatzeko ezinbesteko baliabidea» da. Langile klaseak greba bateratuak antolatzeko gai zen masa antolakuntza bat garatzeko gai izan baino askoz lehenago, meatzeko gindax igogailu bat edo ehungailu bat suntsitzea, lanari berriz ekitea eragozteko bitarteko seguruena zen. Iritzi orokorraren aurka, sabotajeak funtzionatzen du: «Bidezkoa deritzot esateari matxinada bidezko negoziazio kolektiboa sindi-

33 Eric J. Hobsbawm, «Les briseurs de machines», *Revue d'histoire moderne & contemporaine*, 53-4 liburukia, 5. zbk., 2006.

katuen presioa egiteko beste edozein modu bezain eraginkorra zela, gutxienez, eta, ziurrenik, bazela ere sindikatu nazionalen garaia baino lehen erabilgarri zegoen beste edozein modu baino eraginkorragoa».

Sindikalismo iraultzailea

Sabotajearen abentura ez zen amaitu sindikatu-erakunde handien eta industrializazioaren finketaren etorrerarekin. XX. mende hasieran, Émile Pouget-ek, zeinak CGT barneko joesira iraultzaileetako bat irudikatzen zuen, sabotajearen inguruan teorizatu zuen izen bereko eskuorri batean, eta hala zioen:

Tolosako azken Biltzar Korporatibora jende ugari bertaratu zen Frantzia osoko txokoetatik, Sindikatuek bidalita, eta SABOTAJEA izugarri txalotua izan zen. Sekulako arrakasta izan zuen! [...] Sabotajea kontzienteki dena pikutara botatzea da, lan bat zapuztea, makinak ez tul egiteko engranaje zehatzean azpikeriaz sartutako hondar alea, patrioaren jario sistematikoa... Dena isil-gordeka eginez, espanturik egin gabe. [...] Hona hemen sabotajea eder-eder definituta: soldata txarrari, lan txarra!

Orain gutxira arte, frantsesezko hitza argoteko termino polisemiko samarra zen. Besteak beste, eskalapoiek protesta gisa lurra jotzean egiten duten zarata gogorarazten du. Pougetek langile eskoziarren —eta aurrerago ingelesez— erresistentzia-teknikarekin lotzen du zuzenean, «*go canny*» izena zuen eta «hoa poliki» gisa itzul daiteke: alfer moduan jokatu, eskalapoi-kadaka lan egin. Mende hasieran, sabotajea hedatu egin zen: *La Guerre sociale* egunkariak adibidez, hainbat linea telefoniko eta telegrafiko modu koordinatuan apur tu zirela deskribatzen du, eta, 1909an, «Erakunde iraultzaile sekretu» batek aldarrikatu zituela, «errepresalia moduan, Frantziako posta-zerbitzuko 650 kaleratzeren mendekua hartzeko... eta gizarte burgesaren nerbio-sistema hondatzeko akrobazia iraultzaile baten moduan, kausa iraultzailearentzat, erabat hondatzea onuragarria izango den egunera arte». 1910eko urritik 1911ko ekainera, polizia-zerbitzuak langileen 3.000 sabotaje-ekintza baino gehiago kontatu zituen.

Atlantikoaren bestaldetik, garai berean, hamar milaka kide zituen Industrial Workers of the World (IWW)-eko «*wobblie*»ek beren estrategiaren erdi-erdian jarri zuten praktika. Gainera, ez zuten ezkutuan egiten; izan ere, 1912ko *The Indus-*

trial Worker astekariak larunbatero oparitzen zien bere irakurleei ekintza erdietsi baten kontakizuna.³⁴ Jaiotzen ari zen taylorismoaren kontrako estrategien analisisian, Mike Davisek «ekonomia politikoaren ikasgai estimaezina» antzematen du, eta ikasgai horren helburua da «jabetza desmitifikatzea eta langileei iraupen luzerako borroka-metodoak erakustea». IWWren barnean, sabotajea «masa taktika»tzat hartzen zen, fabrika handien edo greba gogorren mailan koordinatuta, eta langileak «sormena» erabiltzera bultzatzen zituen eta «borroka-kultura» agertzea sustatzen zuen. Esplotazio kapitalistan jarduten duten jabetzaren harremanak —eta beren izaera iragankorra— ikusgai jartzeaz gain, R.H. Lossin ikerlariak azpimarratzen du sabotajeak modernitatearen klixetako bat desegiteko balio duela: garapen industrialaren eta garapen sozialaren lotura. «Iradokitzean garapen soziala garapen industrialala etenez, ekoizpena nahasiz eta jabetza-eskubideak urratuz lortu zitekeela, sabotajeak modernitatearen sortze-mitoetako bat alderantzikatu zuen, zeinak ulertzen duen “industria-iraultzaren historia [...] teknika berrien garapen gisa eta garapenaren abiadura saihetsezin moduan”».³⁵

Biolentziaren kontra, kontrabiolentzia

Sabotajearen inguruko teoriariek ere biolentzia kritikatzan dute, eta kritika hori ez da alferrikakoa ingurumena aldatzen ari den garai honetan. Lossinek Lehen Mundu Gerrako lerroetatik zetozen abestien, eskuorrien, panfletoen eta poemien bilduma oso batean, zehaztasunez deskribatzen du nola egiten den bereizketa «langile sabotajea»ren, zeina zapalduen boterearen iturria den eta ondasun bizigabeei soilik dagokion, eta «sabotaje kapitalista»ren artean, non biolentzia langileen gorputzen eta bizitzen gain gauzatzen den. Pougetek, garai berean, gauza bera dio, eta haren hitzak zailtasunik gabe zabal ditzakegu bizidun guztietara eta kapitalismo estraktibistaren erasoen ondorioz desagertutako munduetara. «Langile sabotajearen aurkako horiek aldiz, ez dira beste sabotaje mota batekin

34 Mike Davis, «The Stop Watch and The Wooden Shoe Scientific Management and the Industrial Workers of the World», in Stanley Aronowitz, Michael J. Roberts (zuz.), *Class: The Anthology*, Wiley-Blackwell, 2017.

35 R.H. Lossin, *The Point of Destruction : Sabotage, Speech, and Progressive-Era Politics*, Tesia, Columbia University, 2020.

haserretzen, —eta honako hau zinez kriminala, ikaragarria eta gaitzesgarria da— gizarte kapitalistaren beraren muina baita. Sabotaje honek ez die sentipenik eragiten, nahiz eta ebasten dituen haren biktimak, erauzten dien haien osasuna, erasotzen dituen bizitzaren beraren iturriak... eta ezagutzen dugun guztia! Pasibotasun horrek badu arrazoi nagusia: sabotaje horretan, onuradunak dira!». Sabotajea, bere forma egunerokoen eta minimoenetan, biolentzia kapitalista desnaturalizatzeko baliabide gisa agertzen da, baita izugarrikeria hori izendatzeko bitarteko gisa ere haren erorketaren jomuga adierazten duen bitartean.

Gai horiek guztiek luzarotan iraungo dute sabotajea boroarren artean dabilen neurrian, bereziki ekologikoetan. «Puig Antich-Ulrike Meinhof komandoak» gauzatutako ekintza oroi dezakegu halaber, non Fessenheim-eko zentral nuklearraren proiektuaren aurka Françoise d'Eaubonne ekofeminismoaren aitzindaria batu zen, eta, 1975ean, zentralaren obrak leherrarazi ziren. Ekintza hori era honetan justifikatu zen: «Sabotajea erreibindikatzen dugu. Honela, zentralaren abiatzea ahalik eta gehien atzeratzea edo inoiz ez gertatzea espero dugu. Babes-neurri posible guztiak hartu ditugu gizabanakorik arriskuan egon ez dadin. [...] Kutsadura bera negozio bikaina da inoiz salgai egon ez den hori saltzen duten multinazionalentzat: oxigenoa eta ura merkantzia bihurtu dira. [...] Ez dugu energia nuklearraren beharrik, egun osoa gailuak ekoizten lanean aritzeko beharrik ez dugun moduan. Produktibitate zoroa mundu mailako etsaia bihurtu da. Eta herrialde garatuetao proletalgoaren borroka bat dator objektiboki hirugarren munduko herrialdeenarekin.³⁶ [...] Gurekin ados daudenak gauza bera egitera deitzen ditugu. P.D.: Ulrikeren izena hautatu da Wyhl³⁷ udalerrian, beste lekuetan bezala (nuklearraren ezezkoen % 70 emakumeenak dira), emakumeak direlako nuklearraren arbuioaren buruak, haiek gabe eta haien kontra eraikitako gizartearen azken ondorioa besterik ez delako».

Mende erdi batez baino gehiagoz zabaldu den ekosabotajea ez da zertan halako hedadura handia duten ekintzez ari. Ekosabotajeak, lehenik eta behin, praktika ezagun bezain maltzur batzuei

36 [I.o.] Gaur egun termino hau zaharkituta geratu da eta kutsu klasista eta arrazista ere badu, beraz, jatorrizkoan hala ageri den arren, ez da gomendatzen erabiltzea.

37 Alemaniako zentral nuklearraren proiektua, Baden-Wurtemberg-en.

egiten die erreferentzia, eta haren milaka teknika Ecodefense³⁸ gida ezagunean daude laburtuta. Besteak beste, 90eko hamarkadako Erresuma Batuko *Reclaim the streets* mugimenduaren jai basatiak —aktibistek errepideak zulatzen zituzten dantzarien erdian—, edo GEO soroetan eta ZADetan jarduten duten gaueko talde txikiak edo eguneko jendetzak; mobilizazio ekologista handiekin batera beti egon dira erazteak, desmuntatzeak, zulaketak eta bestelako suak. Os Cangaceiros talde autonomoak 1980ko hamarkadan 13.000 kartzela plaza berriren planifikazioari eraso egin zionean nabarmendu zuen irisgarritasun-printzipio hori erakusten dute, gehienbat obretako hormigoi-makinetan dozenaka azukre poltsa hustuz: «Beti goraiatu izan dugu ekintza-modu gisa edo-nork baliatu lezakeen hori, inolako ezagutza tekniko bereziren beharrik gabe, hau da, sabotajea eta sutea, zeinak beti izan diren behartsuen ekintza-moduak».³⁹ Era askotako ekintza horiek duten berehalako eraginkortasunaren ondorioz, kriminalizatuak eta ekintza «biolento» zein «terrorista»tzat joak izan dira. Frantziako mugimendu antinuklearrari dagokionez, Fassenheimen ostean, ekintza zehatzak gauzaten jarraitu zuen: batzuetan, zentralen obrak hartu zituzten, beste batzuetan, instituzio pronuklearrak, baita azpiegiturak ere (zutabeak, uraren hornikuntza-kanalak).⁴⁰ Dozenaka sabotaje horietako bakoitzak eztabaida sutua ireki zuen mugimendu barnean, non ez zegoen egiazki joera ezberdinen arteko osaketa-eremurik;⁴¹ bat etortzen ziren une handietan (Plogoff, Superphénix, etab.) eta argitalpen-ekintza dinamikoan izan ezik.

Etsaia izendatu

Gure gizarteak igarotzen ari dituen gatazka sakonak erakustez gain, sabotajea egoera politikoak edo hipotesiak argitzeko ere erabiltzen da. Hori izan zen Palestinaren Askapenerako Herri Frontearen apustua 1969an, petrolio-hodien kontrako sa-

38 Dave Foreman, *Ecodefense: A Field Guide to Monkeywrenching*, Ned Ludd Books, 1985.

39 Alessi Dell'Umbria, «*Du fric ou on vous tue*», Les mondes à faire, 2023.

40 Ikus eskuorri hau: «Actions directes contre le nucléaire 1973-1996», Infokiosques, 2004.

41 Azpimarratzekoa da mugimendu antinuklearraren zati garrantzitsu bat antimilitarismotik datorrela eta, horrenbestez, indarkeria eza asko agertzen zela, desarmatzea guretzat bezala edo ekintza zuzena sindikalista iraultzaileentzat bezala, bitarteko eta helburu gisa.

botaje-kanpaina abiaraztea erabaki zuenean, jomugatzat honako hauek zituen: Israelek okupatutako Golan-en dagoen Aramco-ren (enpresa nazional saudiarabiarra) oliobide transarabiarra, Haifa-ko petrolio-hodia eta Naqab⁴² desertuko linea elektriko bat. Ghassan Kanafani poetak zuzentzen zuen *al-Hadaf* egunkariko editoriala sinesten badugu, ekintza horiek begiz jotzen zituzten herri palestinarra bere lurretatik desjabetzea sostengatzen zuten azpiegiturak, eta, batez ere, desjabetze horretaz protexua ateratzen zuten indarrak. Petrolio-hodi horiek materialki irudikatzen zituzten Israelgo estatuaren, Ameriketako Estatu Batuak haren aliatuaren eta erregimen arabiar erreakzionarioen harremanak. Kasu horretan, sabotajea ekintza-kritika bat zen, ideiak komunikatzeko medio bat, Palestinako askapen nazionalaren borrokako etsai politikoak adierazteko eta praktika mota honen hedapena sustatzeko propaganda modu bat.⁴³

Desarmatzearen berezitasunak

Desarmatzearen hipotesiak borroka asimetrikoak, nekazarienak eta langileenak, anticolonialak eta ekologistak zeharkatzen dituen iruditeria dakar gogora. Desarmatzeak lurreko bizitza arriskuan jartzen duten armak suntsitzea esan nahi du: hormigoia-aren industriarenak zein agroindustriarenak, energia fosilen zein metatzearen azpiegiturak. Desarmatzea hizkuntza-operazio bat da eta bere helburua da ezarritako ordenarekin apurtzen duen ekintza baten zilegitasuna adieraztea (eta, aldi berean, eraikitzea). «Desarmatzeak» hitz bakar batean keinuaren garrantzia etikoa eta helburuen izaera adierazteko abantaila du. Horrek ekintzarako behin-behineko moral moduko bat osatzen du: hiltzen gaituen hori desegiteko eskubidea dugu. Oinarrizko autodefentsa da, eta baliabide guztiak helburu batera bideratuta

42 [I.o.] Euskaltzaindiak Negev basamortua izena onesten badu ere, Israelek okupatutako palestinar lurraldea da, eta, beraz, arabiarrez النقب edo an-Naqab izena duenez, eta jatorrizko liburuan frantsesez ere Naqab dionez, hori hobestea erabaki da. Naqab desertuko beduinoak Israelgo estatua bera sortu baino askoz lehenago bizi ziren lurralde horietan, eta, gaur egun, estatu kolono horrek hiru leku ezberdinetan banatzen ditu 300.000 beduino biztanleak: gobernuak planifikatutako udalerriak, herrixka aintzatetsiak edo aitortuak eta herrixka ez-aintzatetsiak. Azken horiek 35 baino gehiago dira, eta Israelek ilegaltzat ditu.

43 Ikus Zachary Davis Cuyler, «Toward the Target and the Goal: Infrastructure Sabotage and Palestinian Liberation in the Pages of al-Hadaf», *Historical Materialism*, 28, 4, 2020.

daude.⁴⁴ Desarmatzea errepresiotik eta isolamendutik babes-
teko bitarteko bat ere bada. Inguruan dugun tradizio guztiaren
erreakzio gisa, lege mordo bat agertu da, diskurtso ideologiko
alarmista batekin apainduta. Sabotajea nazioko «ezinbesteko
azpiegiturak» arriskuan jartzen dituen krimena litzateke. Eli-
teek diskurtso belizistekin demografikoki «berrarmatu» nahi
duten nazio hori. Desarmatzeak desplazamendu bat eragiten
du ekintza zuzena berriz legitimo bihurtzean, bere helburuen
kaltegarritasun nabarmenaren ondorioz. Gobernuen diskurtso
belizistari erantzun bat emateko modua da, trantsizio ekolo-
gikoa ulertzen baitute soilik menpeko populazioaren kontrako
gerrak luzatzeko bitarteko gisa. Horretan inspiratzen dira 1914-
1918ko sarraskiaren bezperan ahalegin patriotikoa saboteatzera
deitu zuten buru zuhur batzuk.

Masa ekintza zuzenerantz

Baina helburuen kaltegarritasuna nahikoa da ebidentzia
sentimendu bat sortzeko? Hitz bat nahikoa da jendetza beren
patua berreskuratzeaz konbentzitzeko? Ez da hain erraza. De-
sarmatzea ez da haren kabuz aski den ereduzko keinu bat. Horri
dagokionez, ur-biltegien adibidea erakusbide ona da. 2021ean,
Nicolas Girod-ek eta milaka konplizek Cram-Chabaneko ur-bilte-
giaren ponpari *rotaflex* batekin eraso egin ziotenean, edo 2022ko
urrian, Saint-Solineko milaka manifestarik bertaratutako milaka
jendarmeren muturren aurrean hoditeria suntsitzean eta ur-
biltegia zeharkatzen dutenean, egoera aldatu egiten da. Ekintza
horien oihartzuna kolektiboki hartzen dute beren gain milaka
lagunek, eta horrek ur-biltegien kontua eztabaida politiko nazio-
nalaren erdi-erdian jartzen du, haren promesak, egun, oraindik,
jendea erakartzen du hurrengo deialdietara. Operazio horien
eraginkortasun materialari esker, nabarmen handitzen da indar
harremanen maila. Desarmatzearen mehatxupean, ur-biltegien

44 Helburuen eta ondorioen auziak ere gogorarazten digu sabotajea kapitalistek
erabiltzen duten taktika dela. Bigarren Mundu Gerran praktika horrek erresistentzian
izan zuen gorakadaren ondoren, kontrainsurgentziako gidaliburu militar guztieta
sartu zuten, eta kolonietako kontrainsurgentzien edo kontrairaultzaileen hainbat
operazioetan erabili izan da. Halaber, Txilen, 1973an, Salvador Allenderen aurkako
estatu kolpea kamioilarien greba batekin hasi zen. Fluxu kutsatzaile baten blokeoak
dikadura kriminala iragartzen du.

segurtatze-prezioak izugarri igotzen dira eta azpiegituren bideragarritasunaren inguruko zalantza sortzen du horrek. Ebidentzia begien bistakoa bihurtzen da, hemen, Malm-ek laburbildua: «Jabetza ez dago lurraren gainetik: ez dago lege tekniko, natural edo jainkotiarrik egungo egoeran ukiezina bihurtzen duenik».

Indar harreman honen eraikuntza zor zaio bai desarmatzearen keinuari, bai gauzen bilakaerarekin ozen eta argi aldarrikatutako hausturari, bai bere gain hartzen duen osaketa luzeari ere. Desarmatzearen zilegitasun politikoak asko zor dio sustatzen duten aliantzen ahalmen eta aberastasunari. Ur-biltzeien kontrako mugimendua ez zen gauza bera izango Bassines *non merci*-ko asmamenik gabe, ezta Confédération paysanneko nekazarien asmamenik eta errekurtsio legaletatik martxa naturalistetara doazen praktika multzorik gabe ere. Elkarrekin kudeatutako ikerketetan, planak elaboratzean eta etsai komunentzako kartografia burutzean egiten du proba mugimenduak eta berpizten da. Desarmatu egin behar da? Zein jomuga? Nola egin hori? Zer egoeratan? Zer eraman dezakegu elkarrekin? Zer eramango da beste norabait? Lurraren Altxamenduak sortzean nagusitu zen ondorioetako bat izan zen mugimendu bateko hipotesi taktiko eta estrategikoak mugimendu barnean eta partaide bakoitzarekin eztabaidatu behar direla. Ez dago sistematiko-ki aplikatu daitekeen errezetarik, ezta ekintza batek arrakasta izatea eragiten duten osagaien artean dosi egokia ematen duenik ere, eta hemen «desarmagarria» dena, ez da nahitaez beste nonbait ere izan behar. Desarmatzea ez da kontraesankorra borrokaen beste plano batzuetako aurrerapenekin.

Desarmatzearen hipotesia are eraginkorragoa da ibilbide ezberdinetatik datozen partaideak biltzeko. Edo Kristin Ross-ek dioen moduan: «Osaketa garaikideko mugimenduek erakusten digutena da ekintza-modu politiko ezberdinak dituen jendearekin batera estrategiak garatzea ez dela soilik posible, baita desiragarria ere, beti ere argi adierazitako etsai komuna badugu eta elkartasuna kide ezberdin guztien onerako bada —elkertasuna ez taldeetan aniztasuna egon arren, baizik eta zehazki haren ondorioz—».⁴⁵ Osaketa mugimenduaren beste adarra da, eta de-

45 Kristin Ross, *La forme-Commune*, La fabrique, 2023.

sarmatze-keinuen hedapen zabalaren ikuspegia lantzen hasteko aukera ematen du.

Posible da, kasu horretan, sortu gabe suntsitzea? Ez.

Gramsci

Ez dugu uste Lurraren Altxamenduak partaide izandako koalizioek burutu dituzten desarmatzeak nahikoa direnik borrokatzen dugun harrapakaritzaren logikak erabat desegiteko. Kontziente gara zereginaren mugagabetasunaz. Ur-biltegien eraikuntza aurreikusita zegoena baino nabarmen mantsoago joan arren, azken garaipena ez dago hain gertu. Esaten denez, arpilatua izan eta egun gutxira, Gennevillierseko hormigoizentralek lasaitasunez berrartu zuten produkzioa.

Beraz, erronka dago alde batetik, kanpainen arrakastan, non desarmatzea era askotako praktiken *continuum* baten parte den, eta, bestetik, *desarmatze-kulturaren* hedapenean. Taktika hau armairutik ateratzean, hau da, legaltasun burgesak eta garaileen historiak gorde nahi izan zuten txokotik irtenaraztean, apustu egiten dugu eginkizun erabakigarria izan dezakeela gauzen ordenaren aldaketan. Maila mikropolitikoan, desarmatzea berrarmatzeko metodo eraginkorra da. Birtuosismoaren edo gauza bera errepikatzearen agindu militanteetatik urrun, desarmatzeak gure helburuak lortzeko asmatzaileak izatera behartzen gaitu. Maila makropolitikoan berriz, legaltasunarekin eta ezarritako ordenarekin dagoen harremana da zalantzan jartzen dena. Ikuspegi politikoa jada ez dago erabat joko instituzionalean kokatuta. Hori da zehazki desarmatzearen erronka handia. Neurri politiko baten egokitasuna ezin da murriztu haren berehalako eraginkortasunera: bere buruaz haratago ondorioak izateko gaitasunaren zein mugimenduak duen pertzepzio komunaren esku dago. Marx Parisko Komunaren parafraseatuz, esan dezakegu garrantzitsuena desarmatze hori gertatu izana dela eta haren oroitzenak gu adoretzen jarraitzea. Pertsona taldeek taktikamultzo hori bizitzean eta esperientzia hori lausotzean, «masa altxamendu» baten aukerak agertzen dira. Ez du inolako zentzurik kontu honekin jarrera dikotomiko bat planteatzeak, ezta jendeari lehen harria botatzeko egoera iraultzaile bati itzaroteko

eskatzeak ere. Geure burua ematen dugu *desarmatze-kultura* bat-batean gizartean sar dadin.

Objekzio bat agertzen da: nihilismoarena. Erronken he-
dadurak eta eraitsi beharreko munduko makineriaren mailak
gaindituta, militante garaikidea aktibismo neurrigabeen babestu
ohi da. Gure proposamena beste bat da, eta oso argia puntu horri
dagokionez. Desarmatzeak eraginkorra izan nahi badu ez du soi-
lik masa mailako altxamendu bat izan behar, baina, gainera, lan
politiko bukaezinaren alderdi negatiboa besterik ez da. Makinak
suntsitzeko erabaki presatua, eta, zalantzarik gabe, horietako
zenbait berreskuratzekoa,⁴⁶ beste mundu bat eraikitze bide lu-
zearen parte da, non lurra birjabetzea eta agro-industriagunea
deuseztatzea bizitza berri bat sortzeko alde aurretiko baldin-
tzak diren.

Taktika bat baino apur bat gehiago, estrategia bat baino
apur bat gutxiago, desarmatzea dimentsio guztietan zabaldu
beharreko hipotesia da, larrialdiaren mailara iritsi ahal izateko
eta erasoaldiaren zentzua berreskuratzeko. XIX. mendeko ma-
txinadei buruzko ikerketaren ondorioak ateratzean, Hobsbawm
ez da gai langile klaseak abiarazitako garaipenetan honelako
taktikari edo halako sentimendu baten indarrari dagozkien arra-
kastaren zatia neurtzeko. Hala ere, honako hau ondorioztatzen
du: «Erantzuna edozein dela ere, ekimena gizakiengandik abiatu
zen, eta, neurri horretan, arrakasta horien zati handi bat aldarri-
katu dezakete».

46 Ik. Comité invisible, *À nos amis*, La fabrique, 2014, 96 or.

ERAIKI HORMIGOIAREN AURKAKO FRONTEA

Obretatik lantegiraino doa, erdialdetik nire auzora [...] bihotzeko taupaden antzera.⁴⁷

Mafia k'1 Fry, C.B.R

Ekintza kanpaina baten autopsia

2023ko abenduan, LafargeHolcimen eta hormigoia- munduaren kontrako ekintza kanpaina deszentralizatu batek hormigoia- ren kontrako benetako borroka fronte baten agerpena eman zuen ezagutzera. Bost herrialdetan 56 ekintza kontatu genituen⁴⁸ eta erreperitorio zabala osatu zuten: kartelak itsastetik desarmatzeraino, pankartak zintzilikatuzetik hormigo- zentralen burdin hesiak giltzarrapoz kateatzeraino, are manifestatu eta harrobi batean bidegabe sartzea ere, ondoren bertako uretan bainu freskagarri bat hartuz.⁴⁹ Egun horietako irakaspenak ateratzeko, azter dezagun burututako erasoen neurria.

Hemeretzi intrusio egin ziren hormigo- edo zementu industriaguneetan, orokorrean, gauean talde txikietan, manifestazioetan zehar edo egun argiz ehundaka pertsonen ustekabeko intrusio bidez burutzen ziren desarmatzeak ere gehitzen zitzaizkien. Ekintza simple eta imitagarriak ziren nagusiki: makinan andeletan azukrea botatzea, edo kableak eta tutu malguak moztea. Batzuek, diskrezio osoz, nazioarteko oihartzuna eman zioten kanpainari Berlingo Cemex lantegi bati su emanez. Bestalde, hormigo- enpresei egindako beste bederatzi eraso zuzenetan, intrusiorik gabe blokeatu zituzten sarrerak gauean giltzarrapo bidez kateatzeari esker,⁵⁰ burdin hesiaren aurrean horma bat eraikitzeari esker, edo traktore eta oinezkoen arteko aliantza bidezko greba pikete bati esker. Guztira, abenduan burututako ekintzen erdiak hormigoia- ren eta zementua- ren zentro neuralgikoetan jarri zuten jomuga.

47 [I.o.] Jatorrizkoan «Ça va du chantier à l'usine du centre-ville à ma zone [...] comme des battements de cœur».

48 Ekintza bakoitza kontatu eta dokumentatu egiten da webgune honetan: <https://journeescontrelebeton.noblogs.org/> eta laburpen bat argitaratzen da Lurraren Altxamenduen webgunean.

49 «Primitivi» izeneko Marseillako bideo- kolektibo baten bideo maltzur eta ludiko batek eman zuen horren berri.

50 Talde batek gau bakar batean lau kokapenetan egindako ekintzak errebendikatu zituen.

Besteek modu ezberdinetan hartu zuten espazio publikoa: pankartak zubietan edo zentraletan, grafiti-sinadurak edo *tag*-ak, collageak Lafargerren egoitzan, elkarretaratzeak eta kantikak hirian, manifestazioak, *ekoauzo* baten proiektuak mehatxatutako lurak okupatzea...

Egoeraren gainbegiratu azkar honek erakusten du kanpaina honen ahalmena ekintza bakoitzaren osagarritasunean dagoela. Izan ere, parte hartu duen pertsona kopuruaz haratago, kanpainaren aberastasuna aurpegia agerian duten elkarretaratzeen eta gaueko desarmatzeen artean zubi bat eraikitzean datza, dinamika berean elkartu baitira. Akitania Berrian abiadura handiko trenbidearen aurka taldean sortutako komunikatua enblematikoa da. Testu berean lotzen dira lantegien gaueko itxierak eta elkarretaratze alaiak eta, zalantzarik gabe, hortxe eratzen da borrokarako komunitatea.

Oroitzapen batzuk hondakin suntsiezinak dira.
Zenbat eta zaharrago, orduan eta ageriagoa haien edertasuna.

Ousmane Sembène, *Le Docker noir*

Sei hilabete eskasetan egindako bideak erakusten du hormigoiauren aurkako azpijoko erasotzaileen parte izatearen sentimendu partekatua sortu dela.

2023ko ekaina: polizia antiterroristak hogeita hamar bat pertsona atxilotu eta prebentzioz giltzapetu ditu, Marseillatik gertu Bouc-Bel-Airreko zementu-fabrikaren aurkako ekintza anonimo batean parte hartu izana egotzita.⁵¹ Herrialdeko lantegi kutsagarrietako batean, lan-jantzi zuriak soinean zituztela, 150 pertsonak egindako intrusioaren eta desarmatze azkarraren berri, besteak beste, Lurraren Altxamenduak mugimenduak eman zuen. Atxiloketa-olatuari erantzuteko, Altxamenduetan sortu berri ziren batzordeek eta haien aliatuek elkarretaratze ugari antolatu zituzten. Bouc-Bel-Airreko ekintzarekiko babes handia adierazi zen, eta ekintza horiek erakutsitako adorea-gatik goraiapatu ziren.⁵² Haien zentzu sakona publikoki azaldu eta

51 Lurraren Altxamenduen webguneko artikulua ugari itzultzen dira ekintza honetara eta ondoren jasandako errepresiora.

52 Altxamenduen komunikatua «Appel à soutien suite à une vague d'arrestations en France en lien avec le désarmement d'une usine Lafarge», 2023ko ekaina.

asumitu zen, baita terrorismo akusazioak barrengarri utzi eta hormigoiei-enpresarien krimenak salatu ere. Argi dago industria toxikoak desarmatzearen ideia mugimendu barnean sustraitu dela.

2023ko urria: Lafarge-Holcimen eta hormigoiairen munduaren aurkako kanpaina-deia batera argitaratu eta sinatu zuten tokiko berrehun borroka baino gehiagoko koalizio batek, Altxamenduen batzordeek, antolakunde ekologista eta sozial nazionalak, sindikatuek eta nekazarien elkargoak. Antolakunde nazionalak eta sindikatuek, hala nola, Extinction Rebellion, Youth For Climate, Attac, Solidaires edo are FSU federazioak, ekintza zuzenari argi eta garbi irekitako testu bat elkarrekin sinatzeak⁵³ eta, hain zuzen ere, konpromisoa hartzeak ekintzen antolaketan eta zabalpen publikoan, baieztatzen dute desarmatze-praktikek gero eta sostengu handiagoa dutela.

2023ko abendua: babes handi hori ekintzetan islatu zen Bouc-Bel-Airreko ekintzaren urteurrenaren kandela itzaltzen genuen bitartean. Kanpaina hasi baino astebeite lehenago, auzi honen arduradun zen instrukzioko epaileak eta Zuzendariordetza antiterroristak presio kolpe bat gehiago ematea erabaki zuten, beste hiru pertsona atxilotuz. Ekintza olatu honetan engaiatzea, kartelak jartzen besterik ez bazen ere, elkartasuna adierazteko modu bat zen, ez soilik akusatuekin, baita desarmatzearen ekin-tzekin ere.

Estrategia mota honek errepresioaren uztarria lasaitzen laguntzen du. Praktikarekin gezurtatzen du ustez terroristak diren eta giltzapetu beharko lirartekeen gizabanakoen irudia, eta baieztatzen du oso desberdinak diren pertsona ugarik bere egiten duela ekintza hori. Mugimenduak ekaineko atxiloketei erantzuten jakin zuen 50 ekintza berri baino gehiagorekin, baita borrokaren nazioartekotzearekin ere: eragozpen pila bat Estatuaren errepresioari, zeinak harridura sortzea bilatzen zuen inor gehiago ez zedin ausartu hormigoiei-enpresarien aurka antolatzerara.

53 Ikus ekintza egunetarako nazioarteko deialdia Altxamenduen webgunean.

Batzordeen ekarpena

Ekintza kanpaina bat ez da dekretatzen. Are gehiago, maiz bi arrazoigatik egiten du huts. Kasu batzuetan, kanpaina ez da nahikoa jarraitua izaten; beste batzuetan, ezin konta ahalak ekintzari bide ematen die, zeinak elkarrekin ez duten zentzu gehiegirik. Kanpaina horrek halako oihartzuna izan badu, hein handi batean, Lurraren Altxamenduen tokiko batzordeei esker izan da, miresgarriki egin baitira kanpaina honen kargu.

Disoluzio mehatxuari erantzunez, zortzi hilabete lehenago mugimenduaren egoeran bat-batean sartu ostean, batzorde ugari egituratu egin ziren, eta horretarako, batzorde aitzindarien testuak, 5. denboraldiko zenbait ekintzetan izandako batzarrak eta udazken hasierako batzorde nazionalen arteko topaketa erabili zituzten. Testuinguru horretan sortu zen hormigoiaren inperioaren aurka ekintza deszentralizatuen kanpaina egiteko ideia. Laster, Frantzia osoan eskualdeko batzarrak sortu ziren, lurralde bereko batzordeak elkartuz eta lanketa eremuak irekiz. Aldi berean, prestakuntza ikastaroak jarri ziren abian, Lurraren Altxamenduen batzordeek (komiteek edo komisioek) bultzatuta. Denboraldietan zehar eta borrokekin harremanetan eskuratu diren askotariko irakasgaiak transmititzea ahalbidetzen dute: talde juridiko bat sortzea, ekintza baten logistika antolatzea, modu seguruan komunikatzea, mobilizazio batean hitzaldi publiko bat ematea edo hormigoi sektorearen funtzionamendua eta Lafarge helburutzat izatearen arrazoiak ulertzea. Azkenik, azaro erdialdean, Lurraren Altxamenduak mugimenduak Estatu Kontseiluan lortutako garaipenak batzordeen egiturazko eragina berretsi zuen, eta bidea ireki zien zetozen abenduko egunetan haren babes-indarra eraso-indarra bihurtzeari.


Ekintza deszentralizatuen lehen kanpaina horren ardur hartzean, non Altxamenduak ere inplikatu zen, batzordeek mobilizazio gehienak errebindikatu zituzten. Borroka moduak, etsaiaren ikuspegi komuna eta nahitaez elkar ezagutu gabe koordinatzeko gaitasuna partekatzeak aztarna utzi zuen egun horietan: hor datza batzordeen ekarpena hormigoiaren aurkako frontearen sorreran.

Hori da benetan mende honetako arima? [...] Suntsiketa zein sabotaje ekintza orok oihartzuna du nigan klase elkartasun keinu gisa.

Antonio Negri, *Domination et sabotage*

Grand Péril Express ekintzak lau hormigoi-kokapen blokeatzea lortu zuen Gennevillierseko portuan. Batzuek orduan ezinezkoa zirudien ideia bat izan zuten: jomugan hormigoi-zentralak jartzeaz gain, sektorearen gune garrantzitsuenak ere jartzea. Halako aldibereko abordatze batek, harrobitik eraikuntza-laneraino, industria honek nola funtzionatzen duen eta noraino den zaugarria erakusteko balioko zuen. Abenduko kanpaina hobeto joan zen: LafargeHolcim erasoen jomuga izan zen lurralde guztian.

Harrobia, zentrala, zementu-fabrika, kamioia, hondeamakina, egoitza soziala, baita hormigoiaren banatzaile automatikoa ere: puntu horietako bakoitzak sarearen mapa marrazten du.



Ekintzak elkarren osagarri dira, haietako bakoitzak katearen engranjeetako bat geldiarazten baitute.

Desarmatze bakoitzak, blokeo bakoitzak, elkarretaratze bakoitzak banaka baino gehiago balio du, eta, besteekin batera, hormigoiaren industriaren aurkako eraso koordinatua osatzen du. Hemen, hormigoiaren aurkako borrokan nagusitzeko puntu posibleetako bat zirriborratzen da. Ordura arte, keinu bakoitzak irismen sinbolikoa soilik izan zuen, hormigoiaren munduak ongi baitaki kolpeak eta kostuak xurgatzen. Mahai gainean milioi batzuk konponketetarako jarri eta egun batzuk itxaron fabrika bat berrabiarazteko, arazo mugatuak sortzen dituzte, baina ez dute sektorearen funtzionamendu orokorra eragozten. Baina, egun, industria honen sekretuak jende askok ezagutzen dituenek, gure irudimena pizten duten ekintza kolektiborako gaitasun berriak agertzen ari dira: zer eragin izan dezake, adibidez, ekintza deszentralizatuen eta tokiko borroka batek antolatutako mobilizazio masibo baten arteko koordinazio batek?



Aukera posible berri horiek eta josi beharreko aliantza berriak kontuan hartuz hausnartu behar da hormigoiaren kontrako azken borroka urteen inguruan. Aztertu behar diren aztarnen artean, hiru antzeman ziren abenduko kanpainan zehar. Kanpainan parte hartu zuten bost herrialdeetako kolektiboekin eta Rojavatik zetorren komunikatuarekin, borroka nazioarteko oihartzuna bilatzen zuen, munduan hormigoi-enpresariak duten presentziaren mailakoa. A69aren aurkakoek erakutsi ziguten moduan, indarra masiboki eskaintzen zaien tokiko borrokek aukera ematen dute ekintza publiko handiak eta ofentsibako oldarraldiak batera eusteko. Azkenik, zenbait blokeo lurralde berean koordinatzeak ahalbidetu dezake ez soilik puntu bat blokeatzea, baizik eta sektoreko hainbat gune gako blokeatzea.

Hormigoiaren aurkako fronteak ez du oraindik azken hitza esan!

HONDAMENDIA ETA JARDUTEKO GAITASUNA (IRITZIA)

1970eko hamarkadan, energia nuklearra ezartzeari zegokionez, aurkakotasun zibil eta militar oso handia egon zen Frantzian, baina baita Alemanian eta Ingalaterran ere. Manifestazio erraldoiak Plogoffetik Malvilleraino Frantzian; sabotajeak eta obren okupazioa Alemanian; misil nuklearrak zituzten biltegien okupazio feministak Ingalaterran: borroka bizi eta asmakor horiek ikaragarri zaildu zuten, batzuetan eragotzi ere, zentral nuklearrak Europan ezartzea. Nahiz eta Txernobyngo edo Fukushima hondamendiak, batzuk soilik aipatzearen, ez ziren oraindik gertatu. Garai hartan mugimendu antinuklear indartsu bat sortu ahal izan bazen Europan, urte horiek oraindik 1968ko munduko matxinaden arrastoez markatuta zeudelako izan zen. Garai hartako teorialari kontserbadoreek ziotenez,⁵⁴ *gobernarritasun-krisi* batek astintzen zuen mundua, bai generoen hierarkian, bai ordena kolonialean, bai familietan eta lantegietan. Jarraian egondako dramek ez zuten inoiz hainbesteko erresistentziarik sortu.

Gaur egun, atzo bezala, badakigu. Badakigu energia nuklearra arrisku hilgarria dela, jakintza errepikatua, dokumentatua eta bizi izandakoa da. Hori jakiteak ordea, ez du eragozten gaur egun energia «garbi eta seguru» gisa agertzea, behar-beharrezkoa baita gure buruzagien ahotan ekonomia frantsesaren funtzionamendu onerako. Egun, borroka antinuklear esanguratsu bakarra Frantziako ekialdean dago, Bure-n, hondakinak biltegitartzeko zentro bat eraikitzearen kontra matxinatzen ari baitira. Baina, garai hauetan, erreaktore nuklear berriak eraikitzearen iragarpenak ez du aurkakotasun handirik pizten. Halere, guk bezala, gure buruzagiek ere dar-dar egiten dute kontinenteko zentral handienetik —Zaporizhia (Ukrainia)— gertuegi leherketa bat dagoen bakoitzean.

Ekologia moralaren aurka

Matxinadak ezagutza sorrarazten du, alderantziz ordea, ez da beti egia. Askatasunaren gogoak eta injustiziaren sentimenduak ezagutza zabaltzera bultzarazten dute, ikertzera, itxuraz

54 Grégoire Chamayou, *La société ingouvernable*, La fabrique, 2018.

haratago sakontzera. Duela 60 urtetik egiten diren txostenek —Meadowsetik IPCCren txosten berrietaraino⁵⁵— aldarrikatzen dutenaren aurka, ez da nahikoa masak jakinaren gainean egotea gauzak aldatzeko. Garapen industrialak gure ingurunean duen degradazio atzeraezinaren, haren eragin metagarrien eta itzulerarik gabeko atalaseen inguruko txostenei buruz guztiok jakiteak —axolagabetasunean edo ukazioan soilik geratzen ez denean—, larritasun eta estutasun sentimendua zabaltzen du aribidean dagoen suntsipenaren hedaduraren aurrean. Larritasuna eta estutasuna alabaina, sorbatz biko afektuak dira.

Antsietatearen puntu altuek zerbait egitera bultzatzen gaituzte: zientzialarien zati batek eta belaunaldi gazteek, gertatzen ari den hondamendiari buruz gero eta zehaztuago dagoen dokumentazioak eraginda, hura gelditzeko konpromisoa hartu dute. Baina, maiz, larritasunak geldiarazi egiten du. Zorigaiztoko literatura honen aurrean, zaila da gauzen bilakera gelditzeko zeregina handiegi datorkigulako sentimenduaren aurka borrokatzea. Horrek ezintasun sentimendua eragin dezake, eta adostasuna onartzera eta antolatutako kolektibitatearen babesa bilatzera bultzatzen gaitu, hau da, kasu honetan, Estatu gogor eta zentralarena. Afektu horiek —ezintasuna eta nahasmendua— bikainak dira gobernatuak izaten uzteko, eta, gainera, bermerik onena dira zehazki hondamendi hori sortu duten horiengan, azkenean, fidatzeko. Aldez aurretik iragarritako hondamendiari erantzuteko, Frantziako Trantsizio Ekologikoaren ministroak bere estrategia aurkeztu du: +4 °C-ko berotzerako prestatzea.⁵⁶ «Erresilientzia» izenez ere ezaguna, gobernuak eta industriek bultzaturiko etsaitasunezko ingurunean bizirauteko modu ekonomiko hau ezin da argiagoa izan: ez da eustea, baizik eta egokitzea.

Ez da harritzekoa. Lurreko bizitzaren degradazioaren hedadurari buruzko ezagutza zientifikoak ekoizteko modua

55 Meadows txostena Erromako Klubak hazkundearen mugeri buruz egindako txostena da, MITeko (Massachusetts Institute of Technology) ikertzaileek idatzia eta 1972an argitaratua. IPCC (Klima aldaketari buruzko Gobernuarteko Adituen Taldea) gobernuarteko erakunde ofiziala da, eta sei txosten argitaratu ditu; lehenengoa 1988an, berotze globalaren ondorioei buruz.

56 Christophe Béchu Trantsizio Ekologiko eta Lurralde Kohesiorako ministroak klima aldaketara egokitzeko bost urteko plan nazionala aurkeztu zuen 2024ko urtarrilaren 23an: «Frantzia +4 °C-rako prestatzen ari da».

errealitate sozial batean errotuta dago. Estatuaren eta industrien egokitzeko aginduari erantzuten dio. Beren ekoizpen-testuinguruaren isla hutsetara mugatu ezin diren arren, egia da ezagutza horiek ez daudela eskala horretan kokatzen ez diren gizabanakoek edo taldeek erabiltzeko pentsatuta.

Hondamendia eta jarduteko gaitasuna

Zer egin ozeanoetako nitrogeno tasaren areagotzea zehazten duen neurketarekin ez badugu geoingeniaritzako gaitasunik edo ahalmenik mundu mailan agroindustria bere praktikak aldatzera behartzeko? Ezagutza abstraktua ez da automatikoki ekintza bihurtzen bertute moral hutsarekin. Ekologia moralizatzailea kasurik onenean, indargabea da, eta okerreanean, aldiz, kaltegarria. Jendea edo lagunak «mugitu» daitezen konbentzitzeko haiei gaizki esaka aritzeak, edota desagertutako espezieak edo zirkulazioan dauden substantzia kantzerigenoak errezitateak, ziurrenik sumindura besterik ez du sortuko.

Gure bizi baldintzen alde borrokatzeko larritasun sentimenduari erabat zilegi baderitzogu ere, bereizi egin behar da sentimendu hori bere egin eta gure agintarien bidez hedatzen ari den diskurtsotik. Larritasuna gobernatzeko modu bat da haientzat, eta beren tropak mobilizatzeke erabiltzen dute. *Ekoherritarraren eta kontsumitzaile aktiboaren* babes handiarekin, diskurtso larritzaileak guztiok mobilizatzerara deitzen gaitu klima eta planeta salbatzeko. Azken horren patuak objektiboki dirudi mundu osoari axola dion arazo bat, hau da, bertan bizi diren gizabanako guztiei dagokiena. Hala eta guztiz ere, giza espeziean ez dago batasunik. Horrek baldintzen eta interesen berdintasuna dagoela suposatzea ekarriko luke, eta ez dago halakorik ez gizartearen barnean ez haien artean. Fikziozko batasun hori Estatuak beti erabili izan duten tresna da, ustezko mehatxu komun bat, gatazka estaltzeko, dela klase, dela arraza edo dela generokoa. Ekologia ez da planetako hondamendia kudeatzeko lurtarrak modu sakratuan elkartzea eskatzen duen baldintza global berri bat, gobernuen trantsizio programek eta mundu biziaren pentsalari zehatz batzuek hala sinestarazi nahi diguten arren.⁵⁷ Ez

57 Bruno Latour-ek eta inspiratu dituen pertsonek, dirudienez, ez dute inolako antagonismo sozialaren zentzurik.

dugu klimagatik borroka egiten, bizi baldintzengatik egiten dugu borroka. Azken urteetan munduko ordena astindu duten matxinadetako bat bera ere —Libanotik Sudanera, Ameriketako Estatu Batuetatik Frantziara— ez da egin kontzientzia ekologiko globalaren izenean, maiz garapen ekonomiko basatiak eragindako bizi baldintzen degradazioaren kontra matxinatu badira ere.

Matxinadaren jakintza

Ingurunearen suntsipenarekiko gure sentikortasuna handitu egiten da degradazioak larriagotzen diren neurrian. Orain gutxi arte zifrak eta diagramak baino ez zirenek, gero eta gehiago eragiten digute. Frantzia iparraldeko uholde errepikakorrak, inoiz egin gabeko bero sapak, sute izugarriak behin eta berriz. Izan gaitezen argiak, askorentzat, batez ere hegoaldeko herrialdeetan, hondamendia jada gertatu da eta biztanleak erbestera bultzatu ditu. Mendebaldeko gizarteek beren oparoaldi ekonomikoa luzatu eta finkatzen dute munduko beste txokoetan eragiten dituzten hondamendien kontura. Esatea ordea, ez da nahikoa hori geldiarazteko. Non aurki dezakegu, beraz, ekiteko indarra?

Agian, ekiteko gaitasuna ekitean bertan datza, hein batean. Dena den, Altxamenduen saiakera tautologia hori asumitzean datza. Ez dugu kontuan hartzen zer egiteko gai garen hura egin aurretik. Ekintza kolektiboaren poztasun sakonak edo apartekoak bat-batean irekitzen diren posibleek dakartzate: bai, elkarrekin korri egin eta uniformeen lerro bat gainditu dezakegu. Zentralizazio autoritario baten beharrik gabe, hiru belaunaldi bildu ditzakegu lurralde batean, erabaki kolektiboak hartu eta haiek burutu kostatuta. Ekite hori ez da itsu-itsuan burutzen, noski, haren aurretik eta ostean gertatzen diren esperientzien eragin handia du. Baina uko egiten diogu ekintzaren aurretik hausnarketa ezin hobeki prestatu bat izan behar dela dioen eskema sinplistari. Borrokek, bestalde, erakusten digute matxinadek beren aukera propioak eta jakintza propioak sortzen dituztela.

Ur-biltegi handien kontrako borroka kontraikerketen pilaketa sortu du, eta haiek jakintzaren ekoizpen ofiziala desarmatzea ekarri dute: bai, kraterrek ponpak behar dituzte betetzeko, ez dira isurketaren fruitu naturala, eta, bai, geruza freatikoak lehortu egiten dira sistematikoki ura erauzten bal-

din bazaie teorian «gainditu» egiten direnean. Nozio tekniko eta zientifikoak ulertzeko eta geure egiteko beharra dugu, gure aurkariak saihesten dituzten datuak azaltzekoa, eta beren propagandaren puntu itsuak erasotzekoa⁵⁸. Are gehiago, maxinada ezagutza-faktore bat ere bada, lekuak eta pertsonak topatzeko katalizatzaile bat baita. Lurraldeko garapen proiektu baten aurka borroka egitea naturalista sutsuak topatzea da, Eraikuntza eta Herri-lanetako enpresa baten egoitza lokalizatzea eta langileekin hitz egitea. Eskualdeko hormigoi sektorea kartografiatzea ere bada arriskuan dauden basoak zeharkatzea espezie babestuen inbentarioa eginez, baina baita ezkututzen diren industrialdeak zeharkatzea ere, non ezjakinen begiradatik urrun, mundua fabrikatzen duten lantegiak ezkutatu ohi diren. Borroka mendekotasun loturak aztertzeke moduetako bat da; izan ere, lotura horiek Nigerreko uranio meategiekin lotzen dute gure etxea, EDFko⁵⁹ transformadoreetatik igaroz, gure gorputzeko ura geruza freatikoeekin lotzen duten bezala.

Agian nekazaria izan behar da guztiz ulertzeko txoriak eta polinizatzaileak desagertzeak gu ere desagertzea ekarriko duela halabeharrez; baina, tamalez, ikusten duenak ere ez du beti hartatik asaldatzeko luxua, biziraupen ekonomikoagatik dago eta borrokan. Txoriari lotzen gaituen mendekotasun katea azaldu arren, zerbaitek abstraktua izaten jarraitzen du gutako gehien-goarentzat. Zerbaitek hunkitu egin behar gaitu —topaketa batek, lanbide batek, gertaera batek— jakintza horrek gure ohiturak errotik aldatzea lor dezan. Eguzkiak erretako eremuak, zuhaitz horituak abuztuan eta ubide lehorrak ikusteak astintzen gaitu gure barneko uraren % 80 irakiten sentitzen dugulako? Hamar milaka pertsona elkartu dira ur-biltegi handien aurka egiteko haiek aldaketa klimatikoari eginiko egokitzapen kapitalistaren fronte berria direlako, eta, aldaketa klimatikoarengan, uraren zikloan baino errazagoa dirudielako aurre egitea?

58 BRGM (*Bureau de Recherches Géologiques et Minières*) baliabideak kudeatzeko lurraren zientziak aztertzen dituen Frantziako erakunde publikoa da, eta haren txosten baten kasuan, kontratxosten batek adierazi zuen modelizazioak ez zuela kontuan hartzen berotze globala, eta errore-marjina erabat faltsuak iragartzen zituela.

59 [I.o.] Électricité de France (EDF) Frantziako argindar ekoizle, hornitzaile eta banatzailea da; Frantziako Estatuak da jabe bakarra eta zentral nuklearretatik ateratzen du, batez ere, energia.

Jakintza zientifikoa josten gaituzten harreman-sareetarako sarbidea izan daiteke. Munduarekin dugun harremanean parte hartzen du. Biologiak ozeanoetan eta gure urdailetan bizi diren bakterioez jakin behar duguna irakasten digu, historiak, berriz, borrokez eta gure aitzindarien akatsez jakin behar duguna. Klima mugimenduaren baitan, Extinction Rebellion eta halako taldeek askotan ikerketa zientifikoak bildu dituzte haien ekintzak legitimatzeko. Baina, lehenik eta behin, agintarien eta hura finantzatzen duten industrien belarrietan xuxurlatzen duen zientzia horren «neutraltasuna» ameskeria besterik ez da maiz. Azken urteotan, gero eta aditu gehiagok antolatu dute beren kompetenzien ihesa ezagutza jakin batzuk eta ezagutza alderdikoiak berenganatzeko. Halaber, Zientzialarien Matxinadak⁶⁰ eta Naturalistes des terres taldeko ehun bat pertsonak beren lana eta ikerketa tresnak mugimenduen zerbitzura jarri zituzten.

Matxinatzen gara sinesten dugulako lurren, uraren edo denboraren metaketak aurrera egitea eragozteko ez dela nahikoa soilik ohartaraztea. Matxinatzen gara sinesten dugulako gure ekiteko gaitasunean. Gaitasun hori ekintzan bertan aurkitzen da, iragandako borroken memorian eta erresistentzien jakintzaren transmisioan: instituzio zientifikoetatik hanka egindako konplizeekin burututako gure ikerketak, partekatzeko argitaratutako eztabaidak. Jakintza horiek ez dira irakasten, kontatu eta esperimentatu egiten dira. Foucaultek «antizientzia» zeritzona osatzen dute: «Kontua ez da haiek erreibindikatzeko dutela ezjakintasunarekiko eta ezezagutzarekiko eskubide lirikoa, ezta ere jakiteari edo jokoan jartzeari uko egitea, jakintza oraindik eskuratu ez duen berehalako esperientzia baten xarma nabarmentzea. Ez da hori kontua. Kontua jakintzaren matxinada da».⁶¹

60 [I.o.] Jatorrizkoan *Scientifiques en Rébellion*, ingelesez *Scientist Rebellion*, Extinction Rebellion taldearen ahizpa da. Zientzialarien nazioarteko talde ekologista bat da, desazkundearen eta justizia klimatikoaren alde borrokatzen dute indarkeriarik gabeko desobediencia zibilarekin.

61 «Ez hainbeste zientzia baten edukien, metodoen edo kontzeptuen kontra, baizik eta matxinada bat, beste ezer baino lehen, gurea bezalako gizarte baten barnean eratutako diskurtso zientifikoaren funtzionamenduari eta instituzioei lotuta dauden botere zentralizatzaileen ondorioen kontra» Michel Foucault, «*Il faut défendre la société*». *Cours au Collège de France*, Seuil, 1976.

AKTIBISMOAREN PARADOXAK

«Itxura guztien arabera, ala oraintxe ala inoiz ez denez izango, elkarrekin ekitea erabaki dugu», zioen Lurraren Altxamenduen lehen deiak. «Gure indar guztiak borrokara bideratzea. Zeru-lurrak astintzea». Hitz horiekin, nolabaiteko boluntarismoa asumitzen dugu, gure ustez, sakabanatuta dauden indarrak biltzeko ezinbestekoa dena. Zenbaitetan, hondamendian nihilismoaren taularekin surfean aritzea errazagoa dirudien arren, gure mugimenduaren erdigunean premia bat jartzen dugu: ekintza. Presioa gero eta handiago da, nabaritzen dugu, eta, beraz, besteekin batera berresten dugu *ez dugula denbora gehiagorik*. Beranduegi izan baino lehen borroka egin, azkar jardun eta eragina edukitzeko moduan. Ekintza-mugimendu bat izatea erreibindikatzeko dugunez gero, ekintzaileak gabela diote gutaz, arrazoiarekin. Denborak estutzen gaitu, eta, hala ere, jarduteko larritasunak eragiten duen frenesiari loturiko *impasse* batzuk saihestu nahi ditugu. Ekologismoa lurrean sustraitzea nahi dugu, baita hazteko, adarkatzeko eta sakontasuna irabazteko beharrezko denbora eta gaitasunak izango dituen antolaketa politiko batean ere. Era horretan, aktibismoaren bereizgarri den ekintza iraunkorrak utz diezaion sakabanatzeari ezin konta ahala *mikro-happening*-etan eta gai aldakorren kanpainatan, zeinak gertatzen diren ekintzaren benetako eragileak aurkitu nahian sakontzeko eta ikertzeko beharrezko denborarik gabe. Ez gaitu soilik hondamendi ekologikoaz jabetzeak bultzatzen, baizik eta elkarrekin egindako apustuak, oreka sozial, politiko eta ekologikoak kolokan dauden garaian, eta gatazkak areagotzen ari diren honetan. Lurrak eta beren erabilerak askatzeko gure indarrak batzearen eta era kontsekuentean jardutearen apustuak. Egoera larri-gia da gure erradikaltasuna errepublikazaleen zuzentasunaren eremuan defendatu behar izateko. Nabigatzeko, hurbiltze pragmatiko bat hautatu dugu, gure praktika bidean aurrera egin ahala doitu ahal izateko. Hurbiltze honek ezin du alboratu bideratzen duena: gure ekintzen azterketari eta lanketari dagokion denbora. Baina denboraldiak iragan egiten dira, mugimendua handitu egiten da eta denbora asko eskatzen duen inplementazioa behar du. Gure akatsak ulertzen eta gure estrategiak hobetzen igarotako denbora, hain baliotsua, funtsezkoa izan beharko litzateke, bai-

na minutu horiek eskasak dira. Kili-kolo gaude egoera horretan. Alde batetik, denbora eskatzen duen herri mugimendu bat dago, etengabe moldatu eta itxuraldatzen. Beste aldetik, ekintzen eta haien antolaketari dagozkien eskakizunen ugalketa dago, haien erritmoa gu erabat xurgatzeko zorian beti. Hari batean egote hori erronka bat da antolaketa kolektiborako, betiere gure baitan dugun tentsio bat baita.

Tradizio anglo-saxoian, aktibismoak jarrera heterogeneoei egiten die erreferentzia, baita itxuraz antagonikoak diren esku-hartze politikoei ere. Aktibista ere izan daiteke basa-eremuen zaintzaren izenean makinak apurtzen dituen gaeko artisaua, edo alegatuen eta errekurso juridikoen ekintzak egiten dituen GKE hori, Kanadako multinazional baten aurka dagoelako heriotza-mehatxua jaso duen herri indigena bateko kide bat, baita «klimaren belaunaldia» islatzen duen eta *instagramagarria* den pertsona publiko ospetsu bat ere. Badirudi ekiteko larritasun premiak soilik lotzen dituela pertsonaia horiek. Haien ezaugarria den konpromisoak berekin dakar eraginkortasunaren moral bat: ongia ekintza da. Orogen gaisetarik mugimenduan egotean datza, inoiz ez geratzean, edozein direlarik ekintzen benetako ondorioak.

Aribidean dagoen obra bat geldiaraztea, lan batzuk etetea lortzea, agroindustriari ahalmen guztiak ematen dizkion ustezko elikaduraren burujabetasunarena ez den beste irakurketa bat ezartzea, edo are sektore toxiko bat deuseztatzea ere: lortu nahi ditugun helburuak dira horiek. Sistemak ahultzen dituzten eragin-puntuak bilatzen ditugu. Horiei aurka egiteak larritasuneari erreakzionatzeko gai izatea dakar, baita egiten ditugun ekintzetan eta edukietan modu eraginkorra bilatzea ere. Eraginkortasunaren anbizioak emaitzaren kultura dakar: arerioei aurka egiteko aldi oro egon behar da gerrarako prest, ikusgaitasun mediatiko handia izan behar da eta kontraeraso egin behar da etengabe. Gure aldeko indar harremana mantentzeak batzuetan erabateko konpromisoa eskatzen du. Noizik behin behar-beharrezkoa dela uste badugu ere, lur labainkorra da ezinbestez. Arriskua aurkariaren lehia-eremuan harrapatuta geratzea da, bereizten gaituena eskala-desberdintasun saihestezinak direnean, dela komunikabideen mailan, gerentziari dagokionean edo gatazka-bideenean. Aktibismoaren paradoxen muina jarduteko

gaitasunari emandako zentralitatearen eta asaldura frenetikoaren eragiteko arriskuaren artean dago; azken horrek, maiz, liberalismoaren formak hartzen ditu, haren aurka borroka egiten badu ere. Eraginkortasunaren bilaketak harreman utilitarista eta kuantitatiboa jartzen die burututako ekintzei eta espezializazioaren ondorioak areagotzen ditu (komunikazioa, gaitasuna, bitartekotza, etab.). Hemen, aktibismoari loturiko emaitzaren kultura horretatik eta ekintzarako exijentzia horretatik datozen jokaera indibidual eta kolektiboaren ezaugarri paradoxiko batzuk azaldu nahi genituen.

Ikusgaitasun mediatikoa bilatzearen paradoxa

Bataila mediatikoa besterik ez bada, badakigu erasotzen ditugun multinazionalen komunikatzeko ahalmena gai dela askoren begietan gure ekintzek duten egia ezabatzeko. Jasotzen den modua aldatzeko, gure kontra jartzeko. Taktika guztiak dira onak azpiegitura proiektu baten ondorio kaltegarriak ezkutatze, errepresioa justifikatzeko edo eskandaluen eta irainen laguntzarekin iritzia alienatzen saiatzeko. Begira FNSEAK aktiboki babesten dituen baratzezaintza industrialeko tokiko baroi horiek, negarrez beren lan hain errespetagarriaren fruituak hondatu omen ditugulako, hau da, letxuga batzuk erauzi ditugulako; haiek hamarkadak doazenean Nantes hegoaldeko lurraldea basamortutzen eta uniformatzen.⁶² Gure kontakizunaren arduraren hartzea eta komunikatzea ezinbestekoa da. Egunero egiten dugu, borrokak ezagutarazteko eta jendarteratzeko, eta gure etsaienak ez diren beste kontaeak ezartzeko. Behartuta sentitzen gara lotsagabekeria mediatikoak eta gobernuak gailurra jotzen duen honetan. Beraz, telebista platoetara joatea onartzen dugu, Sainte-Solineko 2023ko martxoko manifestazioaren ostean, esaterako. Konfigurazio honetan, borroka kulturean parte hartzea komunikatzaile profesionalen eremuan borrokatzea bihurtzen da. Espazio horietan diskurtsoa ulergarria egitea eta benetako intentzioak izatea mina-soro batean dantzan aritzea bezalakoa da. Gure pragmatismoak zailtasun horiek arakatzera garamatza, eta bi muturretan inoiz ez erortzeko eskatzen digu, hots, ikusgaitasunean bertan ala platoen eta sareen desertzioan.

62 Ikus Saint-Colombaneko hondar-harrobien aurkako borrokaren hurrengo kontakizuna.

Sare sozialen behin-behinekotasuna eremu politiko gehiengan gailendu denez, Barne-ministro bat gezurtatzeak hiru lanaldi izatea eskatzen du ia. Erritmo jasanezina gailendu da, salaketen eta kontratuen kateamendu batez osatua, denbora-tarte maiz estu eta gorabeheratsu batean. Eszenaratzea da garrantzitsuena. Mezua uler dadin, irudiak sor ditzatela bilatzen dugu. Ekintza ikusgarria izan behar da, xehetasun bakoitza argazkietan edo bideoetan ateratzeko pentsatzen da. Aktibismoak arreta gehiago jartzen du irudien eragina bilatzean bere ekintzetan baino. Hori erakusten dute Dernière Rénovation kolektiboko aktibista horren bideoek, zeinak Roland-Garroseko tenis partida bat eten zuen 13 minutuz «1.028 egun geratzen zaizkigu» zioen pankarta batekin. Argazkiek munduari bira eman zioten. Batzuetan, irudiek erakusten dute existitzen garela gure ekintzen zentzua ia entzuten ez den lekuan ere. Baina, zenbaitetan, gure ekintzek irudiek adierazi ezin duten zentzua ere badute. Irudiek «pantaila zeharkatu» eta aurrerapausoa ematera bultzatu gaitzaketen arren, ezin dute bizitako unea erabat islatu. Gure komunikazioek gure ekintzak zabaltzeko balio behar dute, beren zentzua transmititzeko. Baina beren kabuz ez dute inoiz balio.

Espezializazioaren paradoxa: boterea kontzentratzearen arriskuak

Proiektu bati aurka egitea, lurralde baten dinamikak ulertzea, batzuetan gure bizilagunak diren biztanleak ezagutzea, eta euren kontra borrokatzen garen mekanismoak ulertzeko formatzea, benetako gaitasun estrategikoak ematen dituzten esperientziak dira. Koordinazioetan⁶³ parte hartzeak erabakitzeo eta aurrean dauden botereekin eztabaidatzeko gaitasunak eskuratzeko laguntzen du. Era horretan, benetako erresistentziaren jakintza sortzen eta transmititzen da. Altxamenduek mugimendu bat sortzea lortu badute, beharbada, lehen desegiten ziren esperientziak borroka borroka mantentzea eta transmititzea lortu dugulako izan da. Egoera jakin batzuekiko sentikortasuna oinarri hartuta, benetako pasioak garatzen dira arlo tekniko eta espezializatuetan, besteak beste, zuzenbide penalean, muntaia

63 Borroka zehatz batean epe luzerako estrategiak eta taktikak lantzeko hainbat pertsona, kolektibo eta erakunde biltzen dituen espazioa. Adibidez: Poitun ur-biltegien aurkako koordinazioa.

juridikoetan edo kontabilitatean. Baina onartu beharra dago borrokari buruzko jakintza denbora libre gehien dutenengan eta jakintza hori eskuratzeko hoberen kokatuta daudenengan biltzen dela maiz: gizon zisgeneroak, zuriak, heziketa jaso ahal izan dutenak, osasuntsuak, umerik haien kargura ez dutenak. Hain zuzen ere, pertsona ospetsu publikoek eta bozeramaileek biltzen dute jakintza eta hura hedatzeko erraztasuna. Muturreko kasuetan, borroka batean konprometitzen garenean eta gure denbora guztia eskaintzen diogunean, eskuratzen dugun esperientzia kapital sozialaren forma bihur daiteke, egindako lanaren ordain gisa. Esperientziatik abileziara, konpromisotik profesionalizaziora aldatzeak ekintza politikoei sozialki baloratutako identitatea elikatzeko arriskua izateraino. Jakintza metatzeko mekanismo horretan aldi berean logikoa eta oso bidegabea den zerbait dago. Une oro adi ez bagaude, gauzak egiten jakitea erabakitzeko ahalmenaren kontzentrazio bihurtzen da, eta haren aurka borrokatzen garen munduko mekanismoen zati bat erreproduzitzen dugu. Mugimendua biziartzten dutenei boterea ematen dien printzipioaren mugetako bat da, izan ere, jarduteko gaitasuna beti desberdin banatuta dago. Horri aurre egiteak esan nahi du mugimendu bateko edozein zati bete-bete ekin behar diogun ikasketa eremua dela, eta horretarako, bertan gure helburu estrategikoak eta antolaketa moduak azaltzeko momentuak eta formakuntza espazioak sortu behar ditugula.⁶⁴

Paradoxa bat dago: gure eskakizun taktikoei espezializazio-modu bat onartzera bultzatzen gaituzte, borrokari buruzko ezagutzetan sakontzea eta erreakzio-gaitasun eraginkorragoa izatea ahalbidetzen dutelako, baina, hain zuzen ere, ez dugu aktibista profesional bihurtu nahi. Espezializazioa onartzen dugu, halaber, ahalbidetzen digulako leku guztietan ez egotea. Mendiak igo nahi ditugu, baina gure denbora guztia eskaini gabe, gure bizitzetan beste gauzek ere arreta eskatzen baitute. Bat etortzea bilatzen duten konpromiso maila ezberdinak garatzen uztea da ideia, gure koordinazio eremuak hezurramitzen dituzten horien artean ere gaixoaldi-baja hartu behar duten pertsonak baitaude, edo haien animalien eguneroko zainketa alde batera

64 Lan hau ere ahalegin bat da, *Ossature, enveloppe charnelle et actes des soulèvements de la terre* liburuxka bezala.

utzi behar dutenak bilera batera joateko, edo baita eztabaidatzen igarotako orduak erreumatismo okerrenak berriz sorrarazten dizkietenak ere. Aipatutako espazio horiei bizia ematea pertsona horiek bidean ez uzteko beharrezko baliabideak ematean datza. Ardura horiek gorabehera, onartu behar dugu mugimenduko antolakuntzaren exigentzia-mailari eutsi diezaiokegula zenbait pertsona lanaldi osoan dabiltzalako zeregin horretan.

Mobilizazioaren paradoxa

Etsaiak aurrez aurre soilik erasotzeak galtzaile egingo gintuen halabeharrez, horregatik bilatzen dugu gure agerraldi moduetan gatazka mailak dibertsifikatuko dituen aniztasuna. Hainbat jarraigo heterogeneo dituzten ekintza masiboko taldeak, aperitifak obretan, konboiak, martxak, edo elkartzeko eta lurraldea ezagutzeko jaitsierak baltsetan, gutxi batzuei edo ehundaka pertsonari obrak eragozte. Tentsio moduko bat dago, joko bat, eragin sinbolikoaren eta eman nahi ditugun benetako kolpeen artean. Egoeraren arabera, balantzak alde batera edo bestera egin dezake. Jomugatzat pestiziden industria hartzean adibidez, 2022ko martxoan Monsanto, esaterako, erregistro sinbolikoan kokatzen gara. Burututako jardunek zehazki lantegiak gelditzea lortzen ez badute ere beti, haien inpaktuak eragina du ere irudian, eta, batzuetan, burtsako kotizazioan, hau da, inperio horien maniobra politiko eta ekonomikoaren marjinan. Hori are egiazkoagoa izango da jardunak erregulari errepikatzen badira. Ekintza batzuk balio handiagoa dute antolaketa modu edo esperientzia kolektibo gisa zabaltzen dutenagatik kaltetutako enpresen aurkako eragin materialengatik baino. Erakusten dute nola den posible su txikian eta handian mundua setiatzen eta hiltzen duten enpresen aurka jardutea. Hala ere, gure ekintzen efektuaren zati bat beren botere sinbolikotik datorrenean, arriskutsua dena da, azkenean, mobilizatzea bera izatea axola duena. Klimaren aldeko martxan militanteek, adibidez, asumitzen dute momentu horiek, errepikatzearen poderioz, joera handiagoa zutela jendea biltzeko, egoeran bertan benetako efektu bat eragiteko baino. Ekintza baliabide bat, masa mobilizazioa adibidez, berez bakarrik existitzen denean, aktibismoaren akatsetako batean erortzen gara. Mobilizatzea ez da izan behar garaipen bat bere baitan, bestela, borroka egitea litzateke «mobilizazio bat

lortzea» eta haren arrakasta parte-hartze mailaren arabera neur-tuko litzateke, maiz ikuspegi kuantitatibo batetik. Gure lelotzat izan dugun arren blokeoak, okupazioak edo desarmeak egiteko gure elkarretaratzeetan pertsona asko biltzea, euren artean neu-tralizatzen diren mobilizazio-moduetan harrapatuta geratzeko arriskua bi gunetan agertzen da. Lehena, hitzemandakoari euste-ko zailtasuna da, indar errepresiboek gero eta modu basatiagoan beren indarra erabiltzeko duten joera dela eta. Bigarrena, gero eta manifestazio masiboagoak antolatzeak dakartzan arazoak dira, mugimenduaren maila aldatzearekin bat. 5.000 pertsonako manifestazio batek ez du zerikusirik 30.000 edo 50.000 pertsona-ko kontzentrazio batekin! Masa mobilizazio baterako behar den energia hain da handia, ezen oso zaila izan daitekeen mobiliza-zioa martxan jartzea bera lortu izana ez den zerbait proposatzea. Mobilizazioaren formak baldintza-agiri zorrotzak izatea eska-tzen dizkio. Ezingo da moldatu koordinaziorik, erakustaldirik, laguntza-baserik, argibide-bilerarik eta balorazio-bilerarik gabe, *de facto* harekin batera baitoaz. Nolabait ere, hori gertatu zen Sainte-Solinen 2023ko udaberrian: faktore askoren artean, kontzentrazioaren handitasunak eta eremuko betebeharrak zailak indar aktiboen zatirik handiena irentsi zuten eta ez genuen lor-tu manifestaziorako irtenbide taktiko egoki bat aurkitzea. Beste behin, 2023ko ekainean, Poliziaren blokeoek eta Maurienneko lurraldeko eragozpen geografikoek izugarri murriztu zuten tren transalpetarraren obren aurka burututako ekintzen irismena. Gure masa mobilizazioek inbestitze handia eta prestaketa asteak eskatzen dituzte ekintza egun edo asteburu bakarrerako. Era-kundeen interpelazioetatik haratago, borrokarako komunitate handi bat eratzekeo baliabidea dira, baita azpiegiturak eraikitze-ko eta tokiko kolektiboei bultzada emateko baliabidea ere. Baina beste esku-hartze motarik, presentziarik eta agerraldi publikorik gabeko artikulazio emankorrik gabe, ezintasun estrategikoa edu-kitzeko arriskuan jartzen da.

Erabateko prestasunaren paradoxa

Ekin edo hil. *Do or Die* zioen Earth First! mugimenduak eta izenburu hori jarri zion 1992ko aldizkariari. Mugimenduan egotea patologikoa bihurtzen da, gelditzea aldiz, ezinezkoa. Hon-damendiaren hedadurak edo borrokaren eskakizunek etengabe

bultzatzen gaituzte ekitera. Borrokatzea eguneroko bizitzatik bereizitako lana bihurtzen da, eta harremanak hondatu egiten dira denbora estuagatik. Harrigarria da ohartzea aro kapitalistaren berezko patologia hain sarri aurki ditzakegula gure borroka espazioetan.

Aktibismoak denborarekin akidura ekarri eta *burn-out* kate bat abiarazi dezakeen harremana inposatzen du, beste lanbide askotan jasaten den bezala. Izan ere, funtsean, ez dago arrazoirik patologia horiek gu gupidesteko, borroka komunitatearen zainketei esker haietaz askatzeko nahia izan arren. Barne-tentsio horrek —dela borrokari eskaintzeko denbora faltaz atsekabetzeagatik, dela haren zerbitzura jartzeko «sakrifikatzeagatik»— bi kasuetan, mugimenduaren muina bistatik galtzeko arriskua dakar: hau da, denboran zehar, borroka-komunitatea biziaraztea eta handitzea, kapitalismo estraktibistaren eta saltzailearen aurkako fronte moduan eutsiz. Hala ere, borroka bat eder egiten duen hori elkarrekin bizitzea bilatzen dugu: kausa bati erabat eskaintzea, helburu bat elkarrekin lortu izanaren zirrara berreskuratzea, eta inteligentzia taktikoak une batez ordena poliziala garaitzen duen une magikoen xarma. Une horien intentsitatearekiko eta plazerarekiko adikzioa dago. Hein batean, horregatik ez dute amore ematen borrokek. Baina hortik eztabaidatu behar dugu onarpen beharraz, eta garatu behar dugu deskonexiorako ezinbesteko gaitasuna, epe luzera irauteko eta matxinoen belaunaldiak aldizka ez ahitzeko.

Hazi nahi duen antolakunde batek denbora eskaini behar dio bere ikuspegi estrategikoa garatzeari. Aukeratu egin behar da, lehenetsi. Hormigoia ren industriari eraso egin, edo pestizidenari? Nazio-estatu bezain boteretsuak diren multinazionalak jarri jomugan edo metatze-proiektuen aurka dauden tokiko borroka mordoa lehenetsi? Alde guztietatik indar autonomoak agitzen ikustea gustatuko litzaiguke, leku guztietan egon nahi izatearen okerra egiteko arriskua egon arren. Baina arriskua da, azkenean, hara edo hona bidaliak izatea, plan batzuetan parte hartzeko; horiek, egia esan, ezer gutxi laguntzen dute lurraldeko leku ugaritan borrokagune indartsuak sortzeko behar diren aliantzak eraikitzen. Paradoxa bat dago topaketa pazienteetan oinarritzen diren borroka sustraituetan parte hartzean, eta, aldi berean, asumitzean herrialdea erregulariki zeharkatzea beste

nonbait laguntza emateko egun batez edo biz. Alde batetik ez dugu errealitateetik deskonektatutako zerbitzuen hornitzaile bihurtu nahi, eta, beste aldetik, joan-etorria onartzen dugu, eta une jakin batzuetan eta leku zehatz batzuetan gure indarrak batzeko apustua egiten dugu.

Gure sustraitzeak badu nomadatik, egitura osatzen duten konplizitateak denboraldiak pasa ahala eraikitzen dira, elkar ikusteko geldituz. Altxamenduetatik jaiotzen diren tokiko batzordeek joan-etorri hori biziagoa eta ez hain bat-batekoa izateko ahalbidea dute. Esperientzia indibidualen pilaketaren logikari, subjektiboki eta mugimendu gisa eraldatu gaituen fideltasuna kontrajartzen diogu: lekuak burututako topaketetatik hautatzea, eta behar den guztietan itzultzea.

Molto rubatorekin...

Aktibismoak denborarekin, komunikazioarekin, irudiarekin, espezializazioarekin, edo, bestela esanda, hasieran ezarritako eraginkortasunarekin duen harremanean, aurkariaren kopia bihurtu nahi du, haren zelaian gainditu nahi baitu. Ekintzak bata bestearen atzetik doaz, eta, zenbaitetan, aurreantz ihesean daudela dirudi. Garaipenak nahi ditugu, tokikoak badira ere, eta, beraz, azkenera arte iristera derrigortuta gaude, geure burua hurrengo kolpea behin betikoa izango dela sinetsarazten utziz. Baina, maiz, gure etsaia da epe luzeko bataila baten denborazkotasuna menderatzen eta definitzen duena. Erronka osoa indar harreman hori alderantzikatzean datza, mobilizazioen forma errepikakor eta zurrunetan akitu gabe. Oposizioko mugimendu bat handitzean eta punturik gorenera iristean, askotan haren muga propioak gainditzea kostatzen zaio. Forma batzuk nola erreproduzitzen eta erritualizatzen diren ikusi dugu mugimendu oso bat ahultzeraino.

Maiz, gure sinesgarritasun politikoa gure etsaien aurka egin ditzakegun erasoan kopuruarekin lotzen dugu. Argi dago geldituko ez bagenu, are azkarrago eta oztoporik gabe egingo luketela aurrera, beren estraktibismo eta metatze gosez armaturik. Baina guk ere geure burua gelditzen ez badugu, izan ohi da beldurra dugulako, alde batetik, arlo politikotik desagertzeko, eta, bestetik, ekintzei eta denboraldiei esker lortu dugun zilegitasuna galtzeko. Hala ere, hain zuzen ere, burututako kolpeei,

ulergarritasunari, eta parte-hartze mailari dagokienez aurrera-pauso bat eman dugunean, utzi diogu geure buruari apur bat desagertzen, indar gehiagorekin itzultzeko. Milagarren *shitstormari*⁶⁵ ez erantzuteko erabakia hartzea, adibidez. Zalantzarik gabe, aurkariak aurrera egiten duenean garaiz ibili, eta behar den guztietan presente egoteko aukera izan nahi badugu, ezinbestekoa izango da ekintzari emandako zentralitateak eta hortik datorren denborazkotasunak eragiten dituzten efektuak aldi oro zalantzan jartzea.

Beste denborazkotasun bat diseinatu behar da antolatzen ikasiko duen, kolpeak jasotzeko gai den, eta denboraren atzetik haren garaikide guztiek bezala korri egiten ez duen hondoko itsaso bat eratzeko. Baldintza egokiak ez daudenean uko egiteko aukera ematen duen denborazkotasuna, baina baita azelerazio jakin batzuk indar bihurtzeko gai dena ere, haiek gaindi deza-ten. Gure agerraldi moduak aldatzen dituen denborazkotasuna, baita existitzeko etengabe mobilizatzearen beharraz libratzen gaituena ere. *Rubato*⁶⁶ moduan jotzera bideratzen gaituen denborazkotasuna, *allegro prestoren ordez*; gure partitura, bere inplikazioen erritmoak *bariazioak* bezainbeste diren.

65 Sare sozialetako eskandalu bat adierazten duen anglizismoa, askotan izaera moralekoa. Berezi X sare sozialean (lehen Twitter) agertzen da eta *shitstorma* oso hedatuta dago eskuin muturraren artean, batez ere bere diskurtso arrazista gertakari dramatikoekin lotzeko (Lola, Crépol kasua). Halako polemika baten helburua aurkaria eta bere ideiak deskalifikatzea ere bada, bere burua justifikatzera edo esandako hitzak edo ekintzak gezurtatzera behartuz. Erredakzio batzuei asko gustatzen zaizkie horrelako polemikak, eta iritzi publikoa zeharkatzen duten eztabaiden isla zintzotzat jotzen dira oker; izan ere, *shitstorm*-ak artifizialki probokatu eta puztu ohi dira militante politikoen eta «eragin handiko» pertsonen operazio koordinatuetan, eta, gero, sare sozialetako algoritmoek nabarmendu egiten dituzte.

66 *Tempo rubato*: «denbora lapurtua». Musika jotzeko modua da eta erritmo-askatasun handiarekin jotzen da.

SAINT-COLOMBAN: HONDAR ALEAREN POLITIKA

Mundua hondar ale batean ikustea.

William Blake

Saint-Colomban, Nantes hegoaldetik kilometro batzuetara, baso txiki mehatxatu baten erdi-erdian dagoen landa-udalerrria da. Lurralde hau enblematikoa da lur guztiak hondatzeko puntuan dagoen arrisku bikoitzagatik: hormigoitze metropolitarra eta agroindustria. Hemen, bi gaitz horiek zehazki hondar-harrobietan eta ardi-mihi lantegietan irudikatzen dira.

Saint-Colomban elkargunea da Loira Atlantikoko lurralde borroketarako. Pays de Retz eskualdean erauzitako hondarra Nantes metropoliko azpiegitura-proiektu ugari eraikitzeke erabiltzen da. Harrobiak zentzuzko jomuga dira eskualdean aribidean dauden hormigoi-obra ugaritan erabiltzen den hondarraren hornikuntza errotik moztu nahi duten guztientzat. Baina, aldi berean, baserritarren nekazaritzaren alde eta agroindustriaren aurka borroka egiten duten horientzat ere zentzuzko jomuga dira. La tête dans le sable izeneko kolektiboak bultzatu duen borroka guztiok batzeko meritua handia izan du.

Udalerrian, bi hondar-harrobi daude jardunean: Lafarge, 49 hektarea ditu eta 350.000 tona hondar erauzten ditu urtean; eta, GSM, 65 hektarea ditu eta 400.000 tona hondar erauzten ditu urtean. Harrobien baliabideak agortzen ari dira eta, 2023tik aurrera, 70 hektareara zabaltzeko asmoa dute. Baina helburu horrek ez zuen kontuan hartzen tokiko kolektiboen borroketarako grina, Lurraren Altxamenduekin duten aliantza eta gure ekintzen osaketa zabala, non batzen garen CGT, Solidaires, nekazariak, Nantesko antifaxistak, eta abar. Saint-Colombaneko borrokaren gorakadarekin, pixkanaka koordinazio bat ezarri zen Loira Atlantikoko kolektibo ezberdinen artean, eta, departamendu-mailan, harrobien inguruko luzamendu bat eskatzeko elkartu ziren.

Ardi-mihia, beti bildots!⁶⁷

Metropoliak gerriko berde elikagarria hormigoiz bete du, bertan oinarritzen zen arren herriaren elikadura autonomia. Tokiko merkatura bideratutako baseritar baratzezaintza dibertsifikatuaren orde, esportaziora bideratutako agroindustria sektorea finkatu da, batez ere Loira hegoaldean kontzentratuta. Sektore hori ardi-mihia eta mugeta (ezkongai lore izenez ere ezaguna) ekoiztean espezializatuta dago. Pays de Retzeko baso txikiaren eta polilaborantza abeltzaintzaren paisaia pixkanaka hondar-itsaso batek, negutegi klimatizatuek eta plastikozko olanek ordezkatu dute, eta Andaluziako paisaia industrialak oroi-tarazten dituzte.

Nekazaritzako elikagaien industriako komunikatzaileek saldu nahi digutenaren aurka, Nantesen, ardi-mihiaren labore intentsiboak ez du inolako tradiziorik. Egiaz, ez zen kultura nagusi gisa inposatu 1990eko hamarkada hasierara arte, azenarioaren prezioa erortzearekin bat. 2006an, Nantesko arroak Frantziak ekoiztutako 36.000 tona ardi-mihien % 88 hornitzen zituen. Ardi-mihi horren erdia esportatu egiten zen.⁶⁸

Berez, ardi-mihia modu basatian hazten zen mahatsondo errenkaden artean. Gaur egun, ekoizpen industrialak da. Europako ardi-mihiaren % 50 Loira Atlantikoan ekoizten da. Zerbait zentzugabea eta erabat nekazarien aurkakoa dago mundu guztiari jateko entsalada bera eman nahi izatean, biztanleen beharrak asetzeko, maila lokalean, tokian tokiko milaka barietate landatu daitezkeenean.

Zer zerikusi dauka horrek hondar-harrobiak hedatzearekin? Lanen gehiegizko mekanizazioa errazteko, egun, industrietik hondar gainean landatzen dituzte estandarizatutako barazkien labore guztiak. Lurra hondarrez bete, lursailak drainatu, errenkadak berdindu... lurren —egiturazko— artifizializazio masiboa da. Benetako baratzezainek ez dute horrelako metodoen inongo beharrik barazkiak ekoizteko.

67 [I.o.] Jatorrizkoan «On mâche sur la tête!». Erokeria dela adierazten du, zentzuaren aurkako ekintza bat, buruaren gainean oinez ibiltzea. *Marcher* eta *mâche* hitzekin jolasten du, euskaraz *ardi txikia*, *beti bildots* atsotitzean *txikia* eta *ardi-mihia* hitzekin jolasten den moduan. Gaztelaniaz, «La mona aunque se vista de seda, mona se queda».

68 Valérie Jousseume eta Christine Margetic, «Autre légume, autres lieux. La mâche dans le bassin maraîcher nantais», *Méditerranée*, 109, 2007.

Nantesko baratzezaintzaren agroindustria zurrumbilo es-traktibista bat da. Ardi-mihiaren hektarea batek 30 tona hondar behar ditu urtean!⁶⁹ Nantesko arroko ardi-mihiaren 4.500 ha hazteko, halaber, 135.000 tona hondar erauzi behar dira urtean! GSMren harrobiko hondarraren % 30 agroindustriarako da. Hondarraren prezioa garraioaren kostuaren arabera erabakitzen da batik bat. Hondar-harrobi bat ezartzean, agroindustria inguruko lur guztien jabe egiten da kostuak murrizteko. Horrela, Lafarge-ren eta GSMren proiektuek eragindako artifizializazioak sobera gaintitzen du harrobien ingurua.⁷⁰

Nantesko baratzezainen agroindustriak lurra bereganatzen ditu. Okupatzen zuen eremua % 24 handitu da 2010 eta 2021 urteen artean. Kapital handia duenez, erretiroa hartzen duten nekazarien abeltzaintzako baserrien lur guztien jabe egiten da. Lursailen prezioak izugarri igotzen ditu eta lurra eskuraezina bihurtzen da baseritar nekazaritzan aritu nahi dutenentzat.⁷¹

Urabereganatzen du. Grand-Lieuko udalerri-komunitatean daude ustiategi gehienak, eta, bertan, urtebetean ureztatzeko erabilitako ur kopurua (2,6 milioi m³ gutxienez 2021ean), askoz handiagoa da lurraldeko biztanleek kontsumitutako ur kopurua baino.⁷² Geruza freatikoak nitratoz eta pestizidez kutsatzen ditu. 2019an, 79 egunez, uretako metolakloroaren maila —herbizida kantzerigeno bat— gaintu egin zen, erabilera murrizketarik gabe eta kontsumitzaileei informaziorik jakinarazi gabe.⁷³

Nekazaritza-langileak esplotatzen ditu. Anitz dira negutegietan jo eta su lanean aritzen direnak, haietako asko migratzaileak. Sasoikako langileen baldintzak tamalgarriak dira: kadentzia jasanezinak, produktu kimikoekiko esposizioa, arau ia esklabisten menpe egotea: «Hitz egiteko debekua, belauniko egoteko betebeharra...»⁷⁴ Hilabete amaieran, agroindustriako nagusiek migranteen soldatatik alokairuaren dirua hartzen dute,

69 «Près de Nantes et d'Angers, l'insatiable appétit de terres des maraîchers industriels», Mediapart, 2023ko maiatza.

70 «Manif contre les carrières et dégradations : la riposte des maraîchers aux salades sans sable», *Ouest-France*, 2023ko ekainak 27.

71 «La razzia sur les terres agricoles des maraîchers industriels nantais», Reporterre, 2023ko urria.

72 Iturriak: bnpe.eafrance.fr, cieau.com eta insee.fr.

73 «Loire-Atlantique : une trentaine de polluants insaisissables dans l'eau d'une nappe phréatique», *Actu*, 2023ko martxoak.

74 Migratzaileak laguntzen dituen elkarte batek jasotako testigantza anonimoa.

10-15 pertsonentzako logelak alokatzen baitzikiete, neurrigabe-ko alokatzaile arrunt bat balira bezala.

Hau da, Nantesko agroindustriak langileak pozoitzen ditu. 2023ko maiatzaren 23an, Pirmaloire enpresa kondenatu zuten 2018. urtean 18 pertsona metam sodioarekin intoxikatu izanagatik. Pestizida hori 2009tik debekatuta dago Europako herrialde batzuetan. Baina barazkien agroindustriak inpunitate osoz jarraitzen du erabiltzen. 2018ko irailaren 28an, 61 nekazaritza-langile intoxikatu behar izan ziren, eta, hiru egun geroago, lehen ezbehar horretatik kilometro batzuetara, beste 70, botere publikoen erantzuna sorrarazteko.⁷⁵ Estatuak gogoz kontra betearazten duenean gure biziraupenerako hain oinarritzakoa den debekua, zaila da imajinatzea pestizidak ezabatzea eta nekazaritza-eredua errotik aldatzea inposatu dezakeela.

Haien proiektuak ahultzea

Hondamendi horren aurrean, premiazkoa zen ekintzara igarotzea. La tête dans le sable herritarren kolektiboak bultzatuta-ko tokiko erresistentziak beste dimentsio bat hartu zuen Lurraren Altxamenduen dinamiketara batzean. Hondar-harrobiak eta baratzezaintza industrialak handitzearen aurkako indar harremana eraiki genuen, La tête dans le sable kolektiboak bi urtez burutu zuen tokiko lana babesteko eta sendotzeko egindako ekintzen bidez.

Lehen ekintzatik, hots, 2021eko ekainetik, Altxamenduen lehen aroan, 2023ko ekaineko hondar konboietara, indarra hartzen joan gara. Ehundaka izatetik milaka izatera igaro gara. Aldiro 50 bat traktore mobilizatu ditugu. Aldiro harrobien eta baratzezaintza industriaren aurkako keinu zehatzak egin ditugu, baita ekintza mota ugari gauzatu ere: kanpaldia, manifest-akzioa, hondar konboia (hondar ale batek harrobitik metropolira egiten duen ibilbidea adierazteko), Lafargerren harrobien intrusioak, baratzezaintza plataforma baten blokeoa, GSMren harrobi aurrean baratzezaintza industrialaren soberakinetik zetorren barazki ustel tona baten isurketa, sektoreko baratzezain industrial handienaren mesedetan Ruisseau du Redour ibaiko ura desbideratzen zuen uhate ilegalaren desmuntatzea, artobeltz biologikoa ereiteko mugetaren erauzketa, Nantesko baratzezainen negutegi esperimentalen desarmatzea,

75 «Un "poison", une "kalachnikov"... Inquiétudes autour du métam-sodium, le pesticide qui a intoxiqué 70 personnes dans le Maine-et-Loir.» France Info, 2018ko urriak 22.

hormigoi-zentral bat hornitzen zuen ur-sare baten mozketara, Nantes Métropole-n lokalak lurrez eta lastoz egindako hormez ixtea.

Era horretan, borrokak indarra eta ikusgaitasuna irabazi zuen. Loira Atlantikoko harrobi guztietara zabaldu zen, eta departamendu iparraldean borroka egiten duten kolektiboen sarera batu. Gure burugogorkeriak hasiera baten 2022rako aurreikusita zeuden harrobien hedatze-lanak hastea oztopatu du. Erakundeak harrobiei buruzko tokiko erreferendum bat antolatzen derrihortu ditu. Azkenik, LafargeHolcimek 2024ko urtarrilean iragarri zuen Saint-Colombaneko bere harrobia 37 hektarea handitzeko proiektua bertan behera uzten zuela behin betiko. Mehatxatutako nekazaritza-lurrek belardiak izaten jarraituko dute. Uko egite hori eskualdean berriki emandako beste bertan behera uzte batzuen ildotik doa: YellowPark estadioa, Carneteko tekno-portuko gunea, surf parkea, Amazonen Notre-Dame-des-Landeseko eta gero Montberteko plataforma logistikoa, Nantesen turistentzako Arbre aux hérons (Koartzen Zuhaitza), Temple-de-Bretagneko Total gasolindegia, Corcoué-sur-Logneko metanizatzailea. Dudarik gabe, Notre-Dame-des-Landeseko garaipenaren ostean, badirudi Loira Atlantikoak erabakita duela ez duela nahieran antolatua izan nahi.

Lafargerren harrobiaren aurkako garaipenak mugimendua sendotzen eta handitzen bultzatzen gaitu tokiko industriei presioa egiteko: Pigeon, Nantesko Baratzezainen Federazioa, Vignet, Océane Kooperatiba. Oraindik GSM menperatzea falta zaigu talde hark ere hedatze-proiektuari uko egin diezaion. Oraindik Loira Atlantikoan harrobiak hedatzearen eta sortzearen inguruko luzamendua lortzea falta zaigu. Oraindik falta zaigu gure kanpaina Nantesko baratzezainen agroindustriaren aurka zabaltzea, ahal dugun guztia egitea eragotzi diezaiegun lurra eta ura inpunitate osoz berenganatu eta pozoitu dezaten, eta lotsarik gabe nekazaritza-langileak esplotatzeari utz diezaieten.

Horretarako, aintzat hartu dezakegu sindikatuta ez dauden 50 nekazari baino gehiago agertuko direla beren traktoreekin erresistentzia dagoen edonon. Elkarrekin ginen Notre-Dame-des-Landeseko barrikaden atzean, pentsioen erreformaren aurkako blokeoetan, Nantesko manifen lehen lerroan eta ur-biltegien aurkako konboietan. Hondar aleek ez bezala, gure borroka-komunitatea ez da denborarekin leunduko ezta ahulduko, aldiz, mingarriagoa bihurtzeko zorrotzuko da.



BI

DEUSEZTATU AGROINDUSTRIA

RAGE AGAINST THE BASSINES

Jendea, sua eta ura indar menderakaitzak dira.

Phocylide de Milet

Ur-biltegi handien aurkako borrokak sakonki aldatu zuen Lurraren Altxamenduak, eta alderantziz. *Bassines Non Merci!*⁷⁶ kolektiboarekin elkartzeak leherketa bikoitza ekarri zuen. Alde batetik, ur-biltegi handien aurkako tokiko borrokari hedadura nazionala eta nazioartekoa eman zion. Beste aldetik, Lurraren Altxamenduak eraldatu zuen mugimendu dimentsioa emanez. Elkartze horren historia kontatzeak lurraldeko borroka batek eta Frantzia osoko dinamika batek ekologia politikoaren esparrua iraultzeraino oztupoak elkarrekin nola gaindi ditzaketen kontatzea esan nahi du.

Marais Bretoneko lurrustela

Deux-Sèvresen, Vendéen eta Itsas Charentean eraikitako ur-biltegi handiek sakon eragin dute lurralde bateko orekan: Poituko paduran, hain zuzen ere. Tokien historia interesatzen zaionarentzat, ez da harritzekoa ura guztien ondasun izateko borroka Marais Bretoneko lurrustelean errotu izana.

Poitu eskualde erdialdean, padura bustia dago: ertzean lizar inausiak dituzten kanal handi eta txikien sare zabala, lertxundi eta belardien mosaikoa. Bizitzaz gainezka dago. Purpura-koloreko koartzen, zangaluze zurien, zingira-mirotzen eta hegabera eurasiarren hegaldiaren xuxurla entzuten da. Baso-igel jauzkarien korrokarekin eta igaraba arruntaren isileko presentziarekin egiten du dardara. Kontinenteko hezegune garrantzitsuenetakoa da, geraleku pribilegiatua hegazti migra-tzaileentzat.

Urari beheiti, padura lehorra dago, ureztatze-kanalekin, Aiguilloneko badiarekin eta bere itsasbazterrearekin. Urari goiti, padura bustia elikatzen duten ibaien ibarrak: Niorteko Sèvre, Vendée, Autize, Mignon, etab. Ibar horietan basamortua hedatzen da: arto eta zerealen monolaborantza, ureztatze-aldapez zedarrituak, sakabanatutako metanizatzaileak eta ukuiluko

76 [l.o.] *Ur-biltegiak? Ez eskerrik asko!* euskaraz. Hemendik aurrera BNM.

oilategiak. Zaila zaigu irudikatzea —duela ez hainbeste denbora— baso txiki bat zirela.

Padura bustia hiltzorian dago. Lizar inausiak gaixo daude eta berehala desagertuko dira. Pestizidek *verdina* dilistak⁷⁷ gutxitzen dituzte. Jada ez dute ura beren jade eta esmeralda nabardurez estaltzen. Nekazarien azpiegitaririk gabe, baratze-zaintza, bertako behiak⁷⁸ eta *mogetteen*⁷⁹ kultura ia desagertu egin dira. 1980ko hamarkadatik aurrera, belardiak artoz ereinda zeuden edo landu gabe utzita, Nekazaritza Politika Bateratua- ren (NPB) eta desertifikazio landatarraren ondorio negargarria. Padura bustia, halaber, zeina elikagarria eta basatia zen aldi berean, agroindustriak setiatutako inguru turistikoa bihurtu zen. Eskualdeko Parke naturalak, guztion altxor hori babestu orde z, hondamendia azeleratzen du.

Suntsiketaren azkartasunak padura eraikitzekeo behar izan zen denbora luzearekin kontrastatzen du, herri-lurren nekazaritza historiaren eta Maillezais abadiako fraide eraikitzaileen lanen fruitua. Hamarkada batzuk besterik ez dira behar izan padura bustiaren, padura lehorraren eta baso txikizko ibarren oreka hausteko. Oreka hori bertako biztanleek uraren zikloaren inguruan zuten ulermen finean zetzan, eta aldaketa arineko hamar mende iraun zituen, bere ingurua zainduz. Askotariko obra hidraulikoez (kanalak, palak, ubideak eta uhateak) ahalbidetzen zuten erabakitzea noiz eutsi ura padura bustietan eta noiz utzi joaten itsasorantz. Erabilera gatazkak zeuden, baina inork ezin zuen ur guztia metatu gainerakoen eta ingurunearen kaltean.⁸⁰

Ur-biltegi handiak: metatze-tresnak

Ur-biltegiek Marais Bretoneko tradizio oparoa itotzen amaitu dute «kalkulu berekoiaren ur izoztuetan».⁸¹ Agroindustriak

77 [I.o.] Verdina dilista mota bat da eta Le Puy-en-Velay eskualdean du jatorria (Frantzia); horregatik, deitu ohi zaio «Lentille verte du Puy» (Puyko dilista berdea) frantsesez eta «lenteja francesa» gaztelaniaz.

78 [I.o.] *Maraichine* izeneko behia Frantziako behi-arraza bat da, Vendée hegoaldean sortua, Poituko padura inguruan.

79 *Phaseolus vulgaris* espezieko babarrun zuria da, jatorriz Vendée ingurukoa.

80 Yves Le Quellec (dir.), *Le Marais poitevin entre deux eaux*, Geste Éditions, 1993; Christian Errath, Jean-Loïc Le Quellec, Daniel Mar, *Le Marais poitevin, de l'eau et des hommes*, Geste Éditions, 1991.

81 Friedrich Engels eta Karl Marx, *Das Manifest der Kommunistischen Partei*, Workers' Educational Association, 1848.

uste zuen paduraren atxikitze-efektua kopiatu zezakeela, baina azpiegitura horiek gutxiengo oso txiki baten mesederako metatzen dute ura: zehazki, Deux-Sèvreseko nekazarien % 6arentzat. Ibaiak eta geruzak lehortzen dituzte. Denon ura ponpatzen dute gero pribatizatu eta plastikozko olana batzuekin estalitako krater erraldoietan edukitzeko, eta bertan geratu eta lurrundu egiten da. Stock pribatu hori ondoren udako murrizketak saihesteko erabiltzen da. Agroindustriarako erabiltzen den *ur ekonomikoak* duen nagusitasuna berresten dute gizakion kontsumorako *edateko uraren* eta ingurunearentzat ezinbestekoa den *ur biziaren* aldean.

Zenbait urte irauten ari den lehorte honen aurrean, ez itzazue sinetsi udan ureztatzeko, neguko uraren «soberakina» atera nahi dutenak. Ez gara atzo jaiotakoak! Borrokak jadanik irabazi badu eremuren batean, herri-heziketarenean eta kontraikerketarenean da. Adituen azterketa zorrotz bat⁸² behar izan da proiektuaren promotoreen txosten sasizientifikoak gezurtatzeko. Bataila bat egin behar izan da «ordezkapen atxikipena»⁸³ hitzaren aurka eta «ur-biltegi handi»⁸⁴ terminoa ezartzeko bai hizkera arruntean bai hiztegian. Ur-biltegien aldeko propaganda egon arren, badirudi iruditeriaren bataila irabazi dugula.

Ur-biltegi handiak arazo sakon baten adierazgarri dira: klima aldaketaren egokitzapen eskasa. Hari horretatik tira eginez gero, agroindustriaren haril osoa etorriko da. Funtsean, azpiegitura horiek ororen gainetik artoaren sektorea bizirik mantentzea bilatzen dute. Sektore horrek Frantzian kontsumitzen den uraren % 18 adierazten du! Bazka-artoak ukuiluko abeltzaintza intentsiboa elikatzen du. Arto-alearen % 45 esportaziora bideratuta dago. Arto haziaren kasuan, Pioneer eta Limagrain multinazionalen prozedura herbizidei eta fungizidei erresistenteak diren barietate berriak etengabe patentatzea da, eta horrek guztiak hondamendia birkortzen du eta nekazariei hazien autonomia kentzen die.

Sektore hau, gaur egun, anakronikoa da. Egoerak artoari eta azienda industrialari dagokien eremua drastikoki murriztea

82 Anne Morwenn Pastier, *Contre-argumentaire scientifique sur les méga-bassines, désarmement du rapport du BRGM*, Altxamenduen webgunean eskuragarri frantsesez.

83 [l.o.] Jatorrizkoan «retenue de substitution».

84 [l.o.] Jatorrizkoan «méga-bassines».

eskatzen du, belardien eta nekazarien abeltzaintzaren mesedetan. Ur-biltegi handien benetako funtzioa transformazio hori atzeratzea da eta agroindustria uraren estres orokorretik libratzea. Erabat agortzen ari den ingurunearen muga fisikoen aurka jotzen ari den sistema zonbi baten biziraupena luzatzen dute...

Tokiko borroka baten sustraiak

Proiektuaren hasieratik, biztanleak haren aurka borrokatzeko altxatu dira. Lehenik, elkarte eta sindikatuen baitan, eta, ondoren, BNM kolektiboaren bidez. Borroka honek bi oinarri ditu: autodefentsa administratiboa eta tokian tokiko erresistentzia.

Autodefentsa administratiboak errekurtsu juridikoak eta botere publikoekin norgehiagokak ugaritzen ditu, tokiko mailatik Europar Batasuneneraino. 2018an, bitartekotza abiatu zuen prefeturak. Aurkarien pertseberantzia amorraturik, prefeturak BNM negoziaketa-mahaitik kanporatzen amaitu zuen. Urrats hori «adostasun protokoloa» onartzeko baliatu zuen, Delphine Batho diputatu ekologistaren konplizitate errudunarekin. Protokolo horrek hiru ur-biltegi kendu zituen hasierako proiektutik eta nekazari onuradunei herabeki proposatutako berdatze neurritxo batzuk zehaztu zizkien. Confédération paysannek eta hainbat ingurumen-elkartek uko egin zioten sinatzeari.

Baina makina martxan zen jada: Deux-Sèvresen 16 ur-biltegi planifikatu ziren. Vienne ondoko udalerriak bideari segituzion, 41 ur-biltegi aurreikusi zituen. Bi proiektu horiek Frantziako dispositiboaren orokortzea aurreirudikatzen zuten. Vendéen eta Itsas Charentean jada ezarri ziren lehen ur-biltegietan inpiratzen ziren. 2020an, La Laigne-ko ur-biltegiak legez kanpokotzat jo ziren *a posteriori*. Mugimenduak lehen garaipen juridikoa eskuratu zuen... baina beranduegi zen! Ur-biltegi ilegalak jada eraikita eta erabilgarri zeuden. Porrot horrek indartu egin zuten lanen aurka lekuan bertan borrokatzeko premiazko beharra.

2017 eta 2021 artean, BNM gogotsu antolatuta zen: giza katea, *Pigouilleen*⁸⁵ martxa, Uraren jardunaldiak,⁸⁶ eta urteko *Waters-tock* jaialdia. Azken horrek 1.500 pertsona bildu zituen 2017an, eta 5.000 berriz 2020an. Ezkerreko sindikatu, alderdi eta organi-

85 *Pigouille*: padurako txanelak edo xalantak gidatzeko erabiltzen den haga.

86 [I.o.] Nekazaritza munduko ordezkarien, ingurumena babesteko elkarteen, tokiko kolektiboaren eta ur-agentzien arteko lan-bilerak, eztabaidak eta negoziazioak dira.

zazio guztiak biltzen amaitu zuen. Pixkanaka, 34 udalerrri agertu ziren proiektuaren aurka. 2019ko udan, kolektiboak «Mauz'zad» jarri zuen martxan, obrak hastea oztopatzeko «Erresistentzia eta Zaintza Kanpamentua». Pertsona batzuk etorkizuneko eraikuntza-lanen inguruetako lursailean jarri ziren bizitzen. Baina estrategia horrek ez zirudien proiektuaren egiturari egokitu. Jomuga hau ez da alboan dauden lur lau eta zabalak Notre-Dame-des-Landeseko aireportuaren 1.200 hektareen kasuan bezala. Departamendu oso baten mailan sakabanatutako 16 puntu dira. Leku bat okupatzen bada, lanak beste batean has daitezke, eta horrela behin eta berriro...

Nekazarien konboia: irmo eustea obren aurka

Borrokak kemena izan arren, finantzaketa publikoak isurtzen ari ziren, hondeamakinak iristen eta suntsiketak saihe-tsezina zirudien. Testuinguru horretan, BNMko ordezkari bat Lurraren Altxamenduekin bildu zen 2021eko udan. Indar harremana eta lurralde harremana ulertzen zituela transmititu zuen hark. Elkarrekin Deux-Sèvres departamenduko Mauzé-sur-le-Mignon udalerriko ur-biltegiaren lehen obren aurkako ekintza bat elaboratu genuen. Hondeamakinak lanari ekin eta sekula-ko kraterra zulatu zuten. Desobeditzeko garaia iritsi zen, lanen aurrerapenari materialki aurka egiteko. Gure helburua obrak geldiarazteko luzamendu bat eskuratzea bihurtu zen. Hitzordua 2021eko irailaren 22an zen.

Loira Atlantikoan, irailaren 21ean, traktore jarraigo bat Niorterantz irten da, hor ari baitira FNSEaren batzarra egiten. Nekazaritza ministroa bertan da ur-biltegi handien aldeko Estatuaren konpromisoa goraiatzeko. Baserritarren presentzia jakin batekin erakutsi nahi dugu uraren defentsa ezin dela nekazarien eta ekologisten arteko aurkakotasunera murriztu. Gauean, baserri batean eman digute ostatu. Baserritarren arteko topaketek ur-biltegien kontrako mugimenduaren eta Notre-Dame-des-Landesen artean informazioa transmititzeko balio dute.

Hortaz, batzar bat hasi da. Ekintza hiru astetan sortu da. Ehun bat soilik gara, esperientzia komunik gabe. Konfiantza eraikitzeke dago. Presak estuturik, bezperan hartu behar dugu biharamunerako erabaki estrategiko multzoa.

Ordenantza batek traktoreak Niorten egotea debekatzen du. Pertzepzio aldeak izugarriak dira. Batzuk pentsatzen dute ezinezkoa izango dela hirira iristea prebentzioz blokeatuak izan baino lehen. Beste batzuk arteगतु egiten dira: «Ez ditugu kilometro hauek guztiak alferrik egin!». Plana apala da, baina adoretsua: hirian kontzentrazio bat egitea, obretaraino konboi moduan joatea, ardiekin inbaditzea eta geldiaraztea. Ongi atera dadin sekretua izan behar du. FNSEAKo kongresuaren inguruan dispositibo poliziala bilduko delaren intuizioan oinarritzen da. Batzarrean erruz jalgi dira kontrako iritziak. Eztabaida berotzen doa. Gaua aitzinatzen. Batzarra ahoberokeria honekin amaitu da: «Tira, goazen, huts ala kausi!».

Biharamunean, traktoreak Niortera oztoporik gabe iritsi dira. Kontzentrazioan, hitzartze iheskor batek «ur-biltegi handien bira» bat iragarri du eskualdean proiektuaren zenbait eragile bisitatzeko. Kotxez! Konboi erraldoi bat abiatu da. Autobidean, traktoreek auto-ilara amaigabe bat eragin dute. Manifestariak ez dakite nora goazen, ezta motoan doazen poliziek ere. Errepide nazionala utzi eta sigi-saga egin dugu landako bideetan zehar. Konboia ur-biltegiaren obren aurrean gelditu da. Mundu guztia jaitsi da.

Hondeamakinak oraindik lanean ari dira. Burdin hesia erori egin da. Ilargi-kraterra inbaditu dute 400 pertsonak. Ardiak jauzika dabilta. Bulldozerrek jendetzaren aurka oлдartzeko imintziora egin dute, baina atzera egin dute jarraian. Makinak jendarmeengana batzen dira, haien babesean obretako izkinako inguru hesitu batean kantonatzeko. Haiak atzera-egin ostean, hondeamakina bat abandonatuta geratu da. Manifestarien esku, makina margotu eta desarmatu da. Hitzartze alaiak. BNMren bozeramaileak bota du, maltzur: «Ur-biltegi bat eraiki, hiru ur-biltegi desegin!». Gure arrakastak zapuztuta eta makinari gertatzen ari zaion *tuning*⁸⁷ saioagatik urduri, txakurrak karga absurdur bat egiten saiatu dira. Geldiarazi egin da. Eguna amaierara iristen ari da. Manifestariak joan egin dira eguzkia sartzean. Gau osoan zehar, padurako baserri batean, festa hotsa entzuten da. Aliantza suntsiezin bat finkatzen da. Hurrengo gertakari baten

87 [I.o.] Ibilgailu bati —errendimendua edo itxura aldatzeko— egin ohi zaion aldaketa multzoari egiten dio erreferentzia. Hegoaldean gaztelaniaren eraginez *tuneatu* hitza erabili ohi da.

nahia piztuta dago gure baitan. Biharamunean prentsaren lerroburuak: «Ur-biltegien aurkakoek protagonismoa lapurtu diote FNSEari».

Ur-biltegia hartzea: Cram-Chabanen desarmatzea

Manifestazio berri bat deitu genuen 2021eko azaroaren 6rako Mauzé-sur-le-Mignonen. Kasu honetan, mobilizazio orokorra izan zen, FNSEaren eta Coordination rurale («Nekazari-tza-koordinazioa») sindikatuaren aldetik. Errondak egin zituzten eta ur-biltegieta zelata puntuak jarri. Tokiko milizia giroa: gizon-anaitasuna, prisma-tikoak, garagardoak, freskagarriak eta eskopetak ibilgailuen maletategian. Jada ez dira prefeturaz fio beren azpiegiturak babesteko. E egunean, 200 inguru daude obretan, hortzak ahoan zain. Autobidearen beste aldean, 3.000 gara herrixkan, berrogei traktore inguruk lagunduta.

Prefeturak —hark ere— artilleria astuna atera du. Ur-biltegiaren ingurueta manifestatzea debekatu du. Milaka CRS⁸⁸ eta jendarme mugikor daude borrokarako prest. Autobideko zubiak poliziaz josita eta istiluen kontrako burdin hesiez itxita daude. Testuinguru horretan, konfrontazioak ez du etorkizunik. Dispositibo poliziala gainditzea lortuko bagenu ere, inork ez du liskarrik nahi nekazariekin... Baina ezta kontzentrazio soil bat ere ez!

Jendetza elkarretaratu da. Sekulako tripa-festa. Hitzar-tzeak. Jarraigoa abiatu egin da. Obretarantz jo du, baina azken momentuan, desbideratu egin da. Norabidea: Cram-Chaban ur-biltegia! Manifestazioaren prestaketetan, prefeturaren agiria adi irakurtzean dispositiboko akats bat aurkitu zen. Eremu gorri ba-tek mugatzen zuen debekatutako perimetroa. Eremua ezagutzen zuenarentzat begien bistan zegoen xehetasun bat: zona hori Deux-Sèvresen eta Itsas Charentearen mugan dago justu. Bi pre-feturak gaizki koordinatuta daude. Lege-hutsune bat dago: Itsas Charenteko ur-biltegi ilegal bat, manifaren eskueran eta debeku-eremutik kanpo. Bingo!


88 [l.o.] Frantziako Polizia Nazionalaren segurtasun-indarra da, eta *Compagnies républicaines de sécurité* esan nahi du akronimoak. Batez ere, segurtasun orokorrerako erabiltzen dira, hots, Estatuak beharrezko deritzon istiluak edo manifestazioak kontrolatzeko.

Jendetza aitzina doa. Zerutik, helikopteroak begien bistakoa egiaztatzen du: zuzen-zuzenean zaindu gabeko ur-biltegi horren aurka goaz. Dispositibo polizial astunak ezin du bere posizioa utzi. Unitate batzuk gu trenbidearen tunel azpitik pasatzea eragozten saiatu dira, alferrik. Erraz saihestu ditugu soroetatik barrena beste batzuk trenbideko hartxintxarra botaz hor eusten dituzten bitartean. Jarraigoak erreka zeharkatu du. Ur-biltegia begi-bistan dago, furgoi bakartu batzuek defendituta.

Talde bat beheko aldean gelditu da. Ponparen desarmatzea hasi da. Confédération paysanneko idazkari nazionalak —Nicolas Girod— *rotaflex* bat darabil aterkiaren azpian maskarekin eta lan-jantziekin doazen anonimoen alboan. Bihurgune bat erauzi da. Bat-batean... ura atera da! Ur-biltegitik ihes egin du urak Mignon ibaira isurtzeko.

Jendarme-lerroak amore eman du. Jendetza eta traktoreak aurrera doaz. Ur-biltegia zaintzen duten txakurrak atzera-egiten amaitzen dute. Bidea libre dago. Mundu guztia sartu da. Olanu urratu egin dute osorik eta su eman zaio. Traktore batek tiratako itsasontzi pirataren belak haizearekin dantzan dabilta. Nicolas Girodek ponparen hodiaren zati bat altxa du airean. Jendetza pozez zorutzen eta dantzan dago. Denok batera joan gara handik, olanetik ponparaino zerbitzuz kanpo utzitako ur-biltegi ilegala atzean utziz. Egun batzuk beranduago, Confédération paysanneko bozeramailea Nekazaritza Ministeriora joan zen ordezkaritza batekin. Gurpildun maletan: hodia. Sindikatuak audientzia bat nahi du, baina ate itxiarekin egin du topo...

Gure manifestazioak agroindustriaren azpiegitura bat erabat zerbitzuz kanpo utzi du. Gaur egun, oraindik, barre-nak atera zitzaizkion ur-biltegiaren hondakinak ikus litezke Cram-Chabanen.



Gaueko estalgabetzeak

Ur-biltegien aurkako borrokaren ardatz estrategikoetako bat masa ekintzak eta ekimen autonomoak antolatzea da. Egun-argiz egindako desarmatzeek gauez egindako estalgabetzeei erantzuten diete. 2021eko urrian, La Laigneko ur-biltegi ilegal bat erabat estalgabetu zen, hots, guztiz kendu zitzaion olana. Ekintza izen enigmatikoa duen talde batek erreibindikatu zuen: «Fremens du Marais poitevin» (Poituko padurako Fremenak⁸⁹). Haien erreibindikazio-komunikatua zaletasuna pizteko tutorial

89 [l.o.] Fremenak Frank Herbertek, *Dune* eleberriarren egileak, asmatu zituen hondarretako herria dira, euren planetaren askapenaren alde borroka egiten duen herria. Azpimarragarria hitza ingelesezko *free men*-etik badator ere, egilea Afrika iparraldeko (gaur egun zehatzagoak izateko Tamazgha izena erabili ohi da) Saharar desertuko amazigen tribu batean inspiratu zen; izan ere, *amazigh* hitzak «persona askea» esan nahi du.

batekin batera zihoan. Kuter batzuk, antolakuntza apur bat eta ausardia pitin bat besterik ez dira behar. Hortik aurrera, praktika zabaldu egingo da. Ekintza sinplea eta eraginkorra da aldi berean. Baliabide gutxi behar ditu eta kalte handiak eragiten ditu.

2022ko otsailean eta martxoan, «Uraren babeserako eskualdeko zuzendaritza» misteriotsu batek bi nekazaritza sozietate handirentzat (bata Viennen eta bestea Deux-Sèvresen) onuragarri ziren bi ur-biltegi estalgabetuko zituela iragarri zuen. 2022ko abuztuan, Vendéen, bi ur-biltegi handi estalgabetu zituzten «lorezainek, arrantzaleek eta ur-lasterraren maitaleek». Ekintza horiek borroka markatu zuten, erreibindikatuak izan edo ez. Hainbestearino markatu zuten, non obrak hasi zirenetik, eraikitako ur-biltegiak baino askoz ur-biltegi gehiago hondatu diren.

Borrokaren dimentsio hori estrategikoki funtsezkoa da. Ureztatzaileen morala akitzen duen ahultze lana da. Proiektuaren promotoreek obrak segurtatzeko betebeharra dute, baina baita jardunean diren ur-biltegiak ere. Kostuak itzelak dira eta uraren prezioa izugarri igotzen dute. Uraren Kooperatibako (*Coopérative de l'eau*) zuzendaria zalantzan jartzen hasi da proiektuaren errentagarritasun ekonomikoa bera ere.⁹⁰ Aseguratzailak izugarri erreta daude. Ur-biltegiak finantza-amildegia eta buruhaustea bihurtu dira ordena mantentzeari dagokionez. Desarmatze horiek borroka epe luzerakoa egiten dute. Ur-biltegi batzuk indarrez eraikiko balituzte ere, ez lirateke betirako zaurgarri izango eta beti neutralizatu litezke edozein unetan haiek betetzea eragozteko. Borrokaren aukerak ez dira obretara mugatzen.

Marais Bretoneko udaberria: maila igoaraztea?

Cram-Chabanen ostean, mugimenduaren koordinazio bat sortu zen. BNM, Confédération paysanne eta Lurraren Altxamenduak batzen zituen, baita Deux-Sèvreseko CGT eta Solidaires sindikatuak ere. Marais Bretoneko udaberrirako deia egin zuen, 2022ko martxoak 25, 26 eta 27 egunetan ur-biltegi handien aurka egiteko. Hamarnaka antolakunde, kolektibo eta alderdi batu zi-

90 Fabien Paillot, «Agriculture, l'exorbitant coût de gardiennage des "bassines"», *Le Figaro*, 2023ko urtarrilak 12.

ren deira. 7.000 pertsona elkartu ziren. Mobilizazio errekor hori gezurtapen mingarri bat da ekintza ausartenek mugimendua bakartzen dutela esaten duten horientzat. Ekintza harrigarriek, aldiz, borroka ezagutarazi eta jendarteratu egin dute.

Baina presioa handitzen ari da. Dispositibo poliziala modu neurrigabea handitzen ari da. Mauzéko obra benetako gotorleku bat bihurtu da. Confédération paysanne zakarki eraso dute. FNSEAk nekazaritza instantzietatik kanporatzea eskatu du. Batzuk mehatxuak jaso dituzte beren baserrietan. Aldi berean, BNM errepresio handia jasaten hasi da. Manifestazio bakoitzaren aurretik, zitazio berriak ateratzen dira, batez ere Julien Leguet BNMko bozeramailearen aurka. Inteligentzia zerbitzuen kamera bat ere aurkitu zuten haren aitaren etxe aurrean; bilera batzuka burutu izan ziren bertan.

Marais Bretoneko udaberriaren prestakuntzek gure desadostasunak atera dituzte. Talde barnean, ez dago elkarrekin obra horretara joateko adostasunik. Defendatzen duten 2.500 jendar-meekin gerta litezkeen konfrontazioek mugimenduaren zati bat beldurtzen dute. Nola partekatu mugimendu sozialetan gero eta handiagoa den gatazkaren esperientzia, Notre-Dame-des-Landeseko ZADetik Jaka Horietara? Nola zaindu egunerokotasunean lurralde honetan bizi direnak indar harremanaren igoeraren tesuinguruan? Galdera horiek korapilatsuegiak dira une honetan. Obrak babesten dituen dispositiboaren aurka ez jotzea erabaki dugu. Baina, orduan, zer egin? Ur-biltegiaren azpiegituraren zaurgarritasuna beste punta batetik ezagutarazten jarraitu.

Olanaren eta ponparen ostean, alde guzietara hedatzen den hoditeria-sarea ikusgai jartzean datza. Obren eremu txiki bat defenditzea erraza bada ere, askoz zailagoa da sare zabal bat babestea. 2022ko martxoaren 22ko prefeturaren ordenantzak berresten du: «Jomuga potentzial mordoa eta babestu beharreko lurraldearen hedadura kontuan hartuz, segurtasun-indarrek ezingo dituzte ordena publikoaren nahasmenduak eutsi».

Ehundaka pertsonak garatu eta partekatu dute desarmatzeko trebetasuna. Eta, horregatik, jendetzak txalo egiten du *rotaflexak* agertzean eta hodi zatiak erauztean, beste batzuek dispositibo poliziala urrun mantentzen duten bitartean. Gatibulan horren emaitza arindu egiten da. Orduak eta askoz tresna

gehiago beharko lirateke hoditeria bere luzera osoan lurretik ateratzeko.

Denbora horretan, ponpa bat desarmatzen dute manifestariak. Ekintzak Marais Bretoneko udaberriaren kontraesanak irudikatzen ditu. Ponpa etorkizuneko ur-biltegiaren onuradunarena da. Jomuga logikoa da. Baina erabaki estrategiko okerra da. Ureztatzaile hau komunikatzaile fina da. Haren etiketa ekologikoa eta behi apurak azpimarratzen ditu, ezkutu etiko gisa erabiltzeko zereal-esplotazio handiaren aurrean. Haren mainak biralak egin ziren Youtuben. Pasarte horrek azpimarratzen du zein beharrezkoa den ikerketa sakonak gauzatzea desarmatze ekintza bakoitzaren aurretik. Baina gatazkak gehiegi saihestu nahiak jomugan kale egiteko arriskua handitzen duela ere erakusten du.

Mauzé-sur-le-Mignoneko ur-biltegiaren obrak amaitzera doaz. Ur-biltegien aurkako herriaren indar harremana finkatu dugu, baina ezin izan dugu lehen eraikuntza eraikitzea eragozti. Badugu kezka bat: Marais Bretoneko udaberri hau alferreko lana izan da? Gaurko gure ekintza deus gutxi da Mauzé-sur-le-Mignoneko ur-biltegiaren deuseztatze kolektibo bat izan zitekeenarekin alderatuz gero, ordura arteko lanak zerotik berriz hastera behartuko baikenituen. Baina hori lortzeko, kolektiboki eremu gorriari aurre egitea erabaki beharko genuke eta dispositibo polizialaren aurka joan.

Sèvreren jaitsiera: gure almadia mimatzea

Zer egin desadostasunek konposizioa oztopatzen dutenean? Mugimendua ez erre ez so dago. Luze eztabaidatu dugu, BNMk antolatutako Niorteko Sèvreren udako jaitsieraren erritmoan. Aste batez, elkarrekin egin dugu arraun. Denbora hartu behar da, nabigatzeko lekua utzi, gure ontziek elkar jotzea saihestu, bistatik galtzen eta, aldi berean, bidegurutze bakoitzean itxoiten jakin. Jaitsiera galtzadaz beteta dago, baita errotetara gidatzeko, ibaiko ura desbideratzen eta eusten duten harresiez ere. Bakoitzak oztopoa gaingitzeko bere modua hobetzen du.

Sèvre ibaiaren ibileran zehar, taldeak oreka delikatua aurkitzen du guztien elkar laguntzaren eta bakoitzaren autonomiaren, erritmo indibidualen eta erritmo kolektiboaren artean. Gauean, mundu guztia bildu da kanpamentuan afariaren, film baten edo

bilera baten inguruan. Urarekin, arro hidrografikoekin, ibaiertzen, erroten eta hondatutako presen komunaltasunarekin, bidean aurkitzen ditugun zuhaitz eta txoriekin dugun harremanari buruz hitz egin da. Borroka horrelako une baliotsuek ere egiten dute. Ez da bat-bateko esku-hartzeen segida bat. Hortik datorren komunitatea Fernand Delignyren almadiaren antzekoa da:

Almadia bat, badakizu nola egina den: zurezko enborrak daude beren artean nahiko laxo lotuta, eta, beraz, ur-mendiak erortzen direnean, ura enbor bereizietatik igarotzen da. Horregatik almadia bat ez da txalupa bat. Beste era batera esanda, ez dugu galderarik eusten. Gure nolabaiteko askatasuna oinarrizko egitura horretatik dator; hortaz, nire ustez, hura diseinatu zutenek —almadiak ari naiz— ahal zuten hobekien egin zuten, ez baitzeuden ontzi bat egiteko moduan. Galderek inguratzean, ez gara elkarrengana areago biltzen —ez ditugu enborrak elkartzen— plataforma kaltetu bat eratzeko. Guztiz kontrakoa. Proiektutik elkartzen gaituena soilik mantentzen dugu. Hor ikusten da lokailuen eta lotura moduen funtsezko garrantzia, baita enborren artean egon daitekeen distantziarena ere. Lotura nahikoa laxo egon behar da eta ez da askatu behar.⁹¹

Denbora behar dugu gure kontraesanak gainditzeko, finkatzen eta ikasten dabilen mugimendua handitzeko, gure loturak etengabe estutzeko, laxatzeko eta egokitzeke. Agintarietako obrak abiadura bizian bata bestearen ondoren egitea imajinatzeko. Dezelerazio ahulgarri bat burutzera behartu ditugu. Eta hara non, egutegia aldatzera ere behartu ditugun. Denbora gure alde dago, eta gure etsaiek badakite, horregatik ez dituzte lanak bertan behera utzi.

Sainte Soline 1: *Be water!*

Koordinazioak ultimatum bat bota du: «Obren amaiera, ur-biltegi gehiagorik ez!». Mezua eguzkia bezain argia da: ur-biltegien beste obra bat abiatzen baduzue, fisikoki aurka egitera etorriko gara lau aste beranduago. 150 antolakundek egin dute bat dei horrekin anbiguotasunik gabe. Marais Bretoneko udaberriaren ostean, mugimenduak laxotasuna eman nahi dio osaketari. Ez kosta ahala kosta ekintza komun hori bilatzea, baidetik eta partekatzen dugun helburu baten inguruan elkarrekin zenbait praktika antolatzea.

91 Fernand Deligny, *Le croire et le craindre*, Stock, 1978.

Aurreikusitako hamabost kokapenetatik, agintariak Sainte-Solinekoa hautatu zuten. Haien helburua Poituko paduratik alde egitea da, hor baitago errotuta borroka. Paisaia-aldaketa. Ongi etorri Pays Melloisera, Dive ibaia sigi-saga dabilen Lezay nekazaritza-lautadan. Ez du zerikusirik Mauzé-sur-le-Mignonekin! Nekazaritza-paisaia mistoa da, mosaiko bat, non, elkarrekin topatzen ditugun baso txiki bihurtutako belardiak eta Océalia kooperatibarako zerealen laborantza intentsiboa. Inguruan, ez dago inolako ur-biltegiarik, eta, ondorioz, ez dago jomuga alternatiborik. Baina ur-biltegi hau guztietan handiena da. Lurrari hartutako 16 hektarearekin, tamaina zentzugabea du. Haren gehiegikeriaren mailako gainditze bat eskatzen du. Lehen burdin hesiak urri hasieran jarri ziren.

Hilabete baino gutxiagoan, lurralde bat eta bertako biztanleak ezagutu behar dira, baliabideak eta konplizitateak bilatu. Handitzen dabilen zaintzak bilerak egiteko tokia aldiro aldatzera bultzatu gaitu. Pays Mellois osoan sakabanatuta dauden biztanle eta nekazari askoren baserriak, aletegiak eta etxeak ezagutu ditugu. Aldaxkak berehala bota ditu sustraiak. Lurralde hau higanoten bastioi bat da. Borroka protestanteen ondareak eta Basamortuko Batzarrek⁹² aztarna utzi dute. Sare politikoa mamiak: ingurumen-elkarteak, sindikalismo borrokalaria eta gazte antifaxistak.

Lokalizazioak bilatzen ari ginela, Uraren Kooperatibako ureztatzaile ohi batekin egin dugu topo. Ados dago guri lursail bat uztearekin. Basoilo txikiarekin ere egin dugu topo, Frantziako lautada landuetako arrisku handiengan dagoen txoria. Lursail irekietako lurzoruko hutsuneetan egiten du habia. Desagertzeko zorian dago, eta borrokaren totem animalia bihurtuko da. Obrek arriskuan jartzen dutela izango da errekurtsio juridikoaren arrazoia. Laster herrialdeko horma guztietan itsatsita basoilo bat hegan agertuko da.

Prefeturak errepresio-dispositiboa areagotzen jarraitu du. Debeku-eremuak ikaragarri handiak dira eta udalerrri kopuru ha-

92 «Basamortuko batzarrak» deitzen dira higanoteen jazarpen garaian, alor kulturalak eta politikoak nahasten zituzten bilera klandestinoak, zehazki, 1685ean Nantesko ediktua ezeztatuta eta 1787an tolerantzia-ediktua onartu bitartean. Terminoak erreferentzia egiten dio hebrearrek Moisesen gidaritzapean Egiptotik ihes egiten ari zirela basamortua igarotzeari.

rrigarri bateraino zabaltzen dira. Lehen aldia da eremu gorriari aurre egiteko deia egiten dugula. Badakigu kontrolak ugariak eta disuasiokoak izango direla. Prefeturaren intimidazio-operazioa zapuzteko, elkartzeko-puntua lehenago ezarri behar dugu.

Urriak 25, asteartea, debeku-ordenantzak argitaratu osteko biharamuna, baina haiek indarrean sartu baino lehenago, materialez betetako traktore eta kamioi zutabe bat Sainte-Solineko baserrialdean martxan jarri da. Haren buru, ureztatzaile konplizea. Obretatik 3 kilometrora dagoen soro batera eraman gaitu. Lursail pribatu batean gaude eta, beraz, ezin gaituzte kanporatu. Kanpamentu bat ezarri da. Makinek ziztu bizian egin dute alde obretatik. Kameren aurrean, ureztatzaile damutuak azaltzen du zergatik dagoen ur-biltegien, Sainte-Solineko obren eta Uraren Kooperatibaren azpizokoen aurka.

Kanpamentuaren lehen irudiek elur-bola efektua dute. Aurkariak erakartzen ditu, ZAD baten mamuarekin itsututa dauden agintariak sufriarazten dituen adina. Umiliatuta, prefekturak, lehen aldiz, ez-egoiliar guztientzat higitzeko debekua dekretatzen du. Baina gure elkartzeko-estrategiak —inguruko herrixketan *infoline* eta harrera-puntuak nahastean datza— beste 6.000 manifestari gehiagori kanpamentura batzeko aukera eman die makina bat ibilbideren bidez. «Ur-zurrusta bakoitza bere bidera», dio Banbara herriaren esaera zahar batek. Halako aldartea da nagusi 2022ko urriak 29ko egunean.

Debekua saihestu dugu, baina kanpamentuaren iparraldean jada ezarri da jendarme mugikorren lerro bat. Joko handia hasi da: 1, 2, 3, ur-biltegiak! Jokoaren araua, hiru jarraigotan banatzea, zuriak, berdeak eta gorriak. Jokoaren helburua: burdin hesietara iristea haiek erorarazteko. Prefetak azpimarratu du, ez da manifik egongo, manifestariak ez dira inoiz obrara iritsiko. Estatuaren ohore-kontua da. Baina jarraigoak aurrera doaz. Denak mistoak eta askotarikoak dira. Batek bide zuzenena hartzen du, bestea bidezidorretatik dabil itzulginguruka. Biak ala biak indartutako pankartekin doaz aurrera, gainerako manifik bidea irekitzen.

Zuriak beste teknika bat erabiltzen ahalegintzen dira. Lerroaren punta batetik bestera ahalik eta gehien luzatzen saia-

tzen dira *farandolak*⁹³ eratuz. Eskua emanda, adorea ematen diogu elkarki eta soroetan barrena egiten dugu sigi-saga, ahalik eta eremu handiena hartuz betiere. Horrek tarreak sortzen ditu, hutsuneak lerroen artean. Manifestariak taldeetan doaz abailan jendarme lerroa apurtzeko bi aldeetan jende nahikoa egon arte. Guzti hori kamioneta baten gaineko basoilo erraldoi batek ahotik botatzen duen musikaren erritmoan.

Hiru jarraigoen sakabanaketari eta haien aniztasun taktikoari esker, dispositiboak erabat egin du gainezka. Gorriak, berdeak eta zuriak ez dira ari norgehiagoka, oldarraldi berean parte hartzen dute ordea. Haizea gure alde dago. Jendarmeak ez dira gai gu aurrerantz joatea eragozteko. Guk aurrera egin ahala atzera egiten dute haiek, lerroak desegiten ditugun bakoitzean presaka berregiteko. Urteetako polizia-sarekaden ostean, zaila da azaltzea aitzinamendu horiek sorrarazten duten alaitasuna. Jendetza gogotsu dago.

Gorriak dira azkarrenak, burdin hesiak erori egin dira, urbiltegian daude! Prefeta garaitu dugu. Berehala, manifestariak eraso-granada pila jaso dituzte. Harrituta egin dute atzera. Une berean, jarraigo zuria batzen zaie. Jendetza hurbiltzen ari da. Burdin hesia dardaraka dago. Granadak indar gehiagoz erortzen dira. Hainbat pertsona larri zauritu dituzte. Txakurrek jasandako umiliazioaren mendekua hartu dute.

Gure helburua bete dugu: dispositibo poliziala benetan obrak babesteko gai ez dela frogatu dugu. Ez du ezertarako balio alferrikako aurrez aurreko batean sartzeak. Denok batera kanpamentura itzultzea erabaki dugu zaurituak sendatzeko. Biharamunean, lurpetik hoditeria bat aterako dute aingira batek eta haren ehundaka esku anonimok. Gure itzultzeko erabaki argia hezurramitzeko, gotorleku-talaia bat eraiki da.

Oihartzun mediatikoa sekulakoa da, baina kazetariak galdera bakarra dute buruan: «Hemen gelditu eta ZAD bat finkatuko duzue?». Darmanin-i⁹⁴ gezur bakarra geratzen zaio bere ohorea salbatzeko: «ZAD bat ezartzea eragotzi dugu». Baina inoiz ez zen

93 [I.o.] Erdi Arotik datorren Proventzako dantza tradizional tipiko bat da, eta euskal sokadantzaren antza du, parte hartzaileek lerroan jarrita eta eskutik egin ohi dute dantza.

94 [I.o.] Gérald Darmanin Barne-ministroa zen liburu hau argitaratzean, eta 2024ko irailera arte izan zuen kargu hori. Urte bereko abenduan, aldiz, Justizia-ministro izendatu zuten eta horretan dihardu gaur egun.

ZAD batez hitz egin. Edo, hobeto esanda, ur-biltegien borroka behekoz gora jarri zituen formak. 1.700 jendarme inguratuta daudela ohartzean, obrako eremu txiki bat defenditzen, haien inguruko lurralde guztia, askoz zabalagoa, gobernaezina bihurtzen da uraren defentsa amorratuan.

Sainte-Soline 2: granada zaparrada

Urritik martxora, Sainte-Solineko obrak ia-ia geldiarazita egon dira, hain zuzen ere. Hitzordua martxoaren 25ean da. Manifestazioak hiru helburu ditu: aurrekoak baino are masiboagoa eta herrikoia izatea, borrokari nazioarteko dimentsioa ematea, indar harremanean atalase bat gaintzea. Aldi honetan, igaraba bat agertzen da kartelean. Herrialdeko txoko guztietan antolatzen dira bilera publikoak. Europan egindako bira batek Italiako proiektu antzekoak ezagutzea eta Espainiako ur-biltegi handien porrotaren inguruan ikastea ahalbidetzen du. Harremanak erazten dira Brasil, Kolonia, Txile, Mali, Mohawk nazioarekin eta Via Campesinarekin.

Mobilizazio honek hainbat alde ditu:

- Traktoreen konboi bat prestatzen ari da. Nekazariak Deux-Sèvresetik, Vendéetik, Itsas Charentetik, Loira Atlantikotik eta Mayennetik batzen dira. Nekazarien borrokaren handiagotzea nabarmentzen du. Jakin badakigu traktoreak debekatuko dituztela, aurreko manifestazioetan bezala. Horregatik, debeku hori zapuzteko eta helmugara onik iristeko estrategia bat pentsatu beharra dago.
- Melle-n topaketak antolatu dira. Udaletxeak herriko atea guztiz ireki dizkigu, eta mugimenduaren herriarekiko eta lurraldearekiko sustraitzea berretsi da horrela. Prefetaren intimidazioak egon arren, udaletxeak gure eskura jarri ditu makina bat espazio. Nazioarteko mahai-ingurua, batzarrak, kontzertuak... Melle ur-biltegien aurka dagoen jendearen hiriburu bihurtu da egun batzuetan. Horrek milaka pertsona herrian hartzeko hedatze logistiko itzel bat eskatzen du.
- «Erretagoardia-base» bat eraiki da. Gure mobilizazioak antolatzen gabiltzanetik lehen aldiz, Frantzia osoko talde batek estu hartu du zaintzaren garrantzia modu transbertsalean. Medikuntza- eta lege-taldeen haratago,

zeinak manifestazioak egiteko ezinbestekoak diren, kasu honetan, hurbilketa orokorragoa da. Era berean, erretaguardia-baseak hurtzaindegi bat, laguntza psikologikoa, desgaitasuna duten pertsoneri laguntza, gaubeila-taldea eta autodefentsa antisexista ere baditu. Antolaketa mota horrek elkarrenganako arreta handiagoa ahalbidetzen du. Hausnarketa eta antolaketa handia ere eskatzen du.

- Manifest-akzioa, zeinak helburu hauek dituen: beste behin ere prefetaren debekua eraginik gabe uztea; obrei kalte egitea; haiek babestea ezinezkoa dela frogatzea presentzia mota eta gatazka maila ezberdinak batuz. Oraingoan, ez gara egoerak eskatzen duen mailan arituko.

Manifestazio hau prestatzen ari garela, pentsioen erreformaren aurkako mugimendu handi bat lehertu da. Frantzia osoan, egoerak itxura txarra du. 49.3 bozketa⁹⁵ izan zen urak gainezka egiteko falta zen tanta eta manifestazioak eragin zituen. Gure mobilizazioa su alai horren une goren, baina efimeroan, kokatzen da. Martxoaren 25ak askorentzat Macronen gobernuaren aurkako gatazka erreparorik gabe azaltzeko eta borroka soziala zehazki lurraren eta uraren defentsarekin lotzeko nahia islatzen du.

Ostirala, martxoaren 24a, egunsentian, kanpamentu xume bat ezarri da obretatik sei kilometrora. Gauzatze orduaren eta lekuaren sekretua ahoz aho ibili da jakitera eman gabe. Eremu gorriaren ertzean kokatu gara. Egunean zehar, traktoreen konboia hurbiltzen joan da. Prefetak prentsan baieztatu du: ez dira Sainte-Solinerira iritsiko. Dispositibo handi batek eskoltatzen ditu eta bidea ebaki nahi die. Jarraigo espontaneo bat kanpamentutik atera da haiei igarotzen laguntzeko. Eta trenbidea setiatu du. Prefetari jakinarazi zaio amore ematen ez badu, traktoreek autobidea blokeatuko dutela eta manifestariak, berriz, abiadura handiko trenbidea. Traktoreek errepide nazionala uztea lortu dute zulo txiki batetik eta kanpamentura iritsi dira zoramenean dagoen jendetzaren biba eta txalo artean.

Gau osoan, auto ilara amaigabeak daude kilometroetan zehar landa-errepideen ertzeetan. Soroan bildu den jendetza izugarria da. Gure instalazioa eskas geratu da. Gertakariaren he-

95 [I.o.] Frantziako Konstituzioaren 49. artikuloko 3. paragrafoari egiten dio erreferentzia, gobernuak pentsioen erreforma ontzat jotzeko erabili zuen 2023an.

dadurak gainditu gaitu. Giro bero batean hitzartzeak egin ostean, zaparrada ederra bota digu.

2023ko martxoaren 25ean, 30.000 izatera heldu gara! Beste behin, hiru jarraigo osatzen dira: basoilo arrosak, igaraba horiak eta aingira turkesak soroan zehar egiten dute aitzina. Jendarmek eskarmentua hartu dute urriaren 29ko porrot saminetik. Jada ez dira saiatzen soro zabalean lerroak eratzen gure aitzinaztea geldiarazteko.

Indar guztiak obren barnean daude kontzentratuta, burdin hesien atzean. Gotorlekuaren estrategia da. Haien jarduteko modua sinplea da: manifestariak etortzen utzi, bereizi gabe eraso-granaden zaparrada bat jaurti, eta,aldi berean, atzetik eraso egin, quadetan doazela gomazko piloten jaurtigailuekin tirokatuz, hau da, soroan voltigurrarena⁹⁶ egiten ibiliz.

Ez genuen aurreikusi egun horretan gure aurka amildu zen inoiz ez bezalako suaren hedadura. Iraganean Poliziaren indarkeria neurrigabeari aurre egin bagenio ere, ez ginen kontziente Estatua noraino irits zitekeen. LDHko⁹⁷ behatzaileek beren txostenetan klinikoki deskribatu zuten.⁹⁸ Jendarmeen helburua ur-biltegiatar inor sartzea eragoztekoa zen «zeinahi zela giza-kostua».

Sainte-Solineri buruzko Parlamentuko ikerketa-batzorde aurrean egindako audientzian, goi-kargudun batek baieztatu zuen martxoaren 25ean, «5.000 granada baino gehiago jaurti behar» izan zituztela, «2018an, urte eta lurralde osoan, 3.500 soilik» erabili bazituzten ere.⁹⁹ Konfrontazioak, alabaina, ordu eta erdi besterik ez zuen iraun! Miraria da manifestari bat bera ere hil ez izana. Gutxiatik... Masiboki mutilatzea eta trauma-

96 [I.o.] Frantsesez jaulzilar edo akrobata esan nahi du eta erreferentzia egiten dio Napoleonek Frantziar Armada Inperialerako sortutako infanteria arineko soldaduei. Bataloiaren lehen lerrora zaldiz iristen ziren eta han jauzi egin eta tiratzaile gisa aritzen ziren.

97 [I.o.] Frantziako Giza Eskubideen Liga izeneko elkartera.

98 Frantziako Askatasun publikoen eta polizia-jardueren behatokia, «Sainte-Soline 24-26 mars 2023. Empêcher l'accès à la bassine quel qu'en soit le coût humain», Altxamenduen webgunean eskuragarri frantsesez.

99 2023ko martxoaren 16aren eta maiatzaren 3aren artean burututako manifestazio eta kontzentrazioen harira egondako biolentzia gauzatu zuten ekintza-taldexken egituraketari, finantzaketari, bitartekoei eta modalitatei buruzko ikerketa batzordea, baita manifestazio eta kontzentrazio horien jarraipenari berari buruzkoa ere. Christian Rodriguez, Frantziako jendarmeriaren zuzendari nagusiaren audientzia, 2023ko maiatzak 30. Altxamenduen webgunean eskuragarri frantsesez.

tizatzea. Erailtzeko arriskua minuturo hartzea. Shock-egoera sortzea. Mugimendua militariki zapaltzea. Hori da Estatuak erabilitako estrategia.

Basoilo arrosaren jarraigoa iritsi da lehendabizi bertara. Eraikinaren mendebaldeko albotik hedatzen da, ikaragarriko giza-katea osatzen. Ur-biltegiaren setioa hasi da. Jendetza adoretsua eta askotarikoa aitzina doa lerroetarantz jaurtigairik gabe. Tarte horretan, quadak Aingira turkesen jarraigoarengana hurbiltzen ari dira. Jendarmeez lehen granadak bota dituzte, abisurik gabe. Soroak gazez beteta daude manifestari guztiak obretara iritsi baino lehen. Ur-biltegiaren hegoaldean elkartze-puntu bat osatu da.

Batzuk estu hartu dute lerroak gainditzearen eta jarraigoa defenditzearen ikuspuntua. Ihardetsi egiten dute. Nola izan liteke bestela, Estatuak erabaki duenean gerra-armekin jendetzaren aurka sistematikoki tiro egitea, mundu osora esportatu den ordena mantentzeko doktrina bihurtzeraino? Jarraigoen buruak batera antolatu eta elkarrekin mantentzen dira. Jendarmeen furguiek su hartzen dute. Batzuk obren itxiturara sartzea ere lortzen dute. Atzealdean, manifestazioaren gainerakoak su bortitza jasaten jarraitzen du. Ezinezkoa da elkartzea. Ez da herri-inbasiorik egongo.

Pankarta indartuak eta lehen lerrokoen ezkutuak oso babes kaskarrak dira. Leherketek tripak nahasten dituzte eta tinpanoak zulatu. Granaden ufadak gorputza eta arima mintzen du. Lurra lehertu egiten da. Kraterak sortzen dira. Puskak barreiatu eta haragian sartzen dira. Etengabeko eztauden erdian, garrasi bat entzun da; «Mediku bat!». Tiro bat buruan, beste bat karotidan, lehertutako begiak, masailezur eroriak, puskek zulatutako zangoak. Odola eta malkoak isurtzen dira. Zalantzan dauden bizitzak eta mutilatutako gorputzak negartzen ditugu. Elkar zaintzen ahalegintzen gara. Ez da erraza kaos horretan zaurien hedaduraz eta larritasunaz ohartzea. Manifestari mordoen artean informazioa zabaltzeko denborak amaiezina dirudi. Ez dator bat manifestari batzuen hil ala biziko larritasun egoerarekin. Pixkanaka atzera egin dugu. Konfrontazioak baretu egin dira.

Burdin hesiaren atzean, hala ere, ez zegoen ezer desarmatzeko. Ez zegoen ezer defendatzeko kraterrean. Ezer ez, obra hori

lubakian babestutako bere boterearen ikur egin duen Estatuaren ohorea besterik ez. Baina historiak erakutsi du mila aldiz, berniz demokratikoaren eta babes sozialaren arrastoen atzean, Estatuak, beste ezer baino lehen, gutxiengo baten interesak defenditze-ko erailtzen duen munstro hotz bat dela. Berariaz oztopatu du larrialdi-zerbitzuen sarbidea,¹⁰⁰ zaurituak guk geuk ahal beza-la ebakuatu ditugun bitartean. Erabat gaindituta gaude suaren intentsitateagatik eta ondorioengatik. Esku-ohreak ditugu, medikuak eta ibilgailuak, baina horrelako egoera bati aurre egiteko gerrako medikuntza-baliabideak falta zaizkigu.

Martxoak 25 mugarri bat izango da, baina ez guk imajinatu genuen moduan. Kanpamentura bueltatu gara, itzuleran hoditeria eta ponpa batzuk desarmatuz, baina gogorik gabe. Gure mediku-taldeak leporaino daude; karpapean, zaurituak zain daude ebakuatuak izateko. Uraren gerra jada ez da metafora bat. Gertakari tragiko bat bizi berri dugu.

Datozen egun eta asteak gatazka horren ondorioen ardura kolektiboki hartzen igaroko ditugu. Zaurituei eta beren senideei moralki eta ekonomikoki babesa emateko beharrezko neurriak martxan jartzen. Diskurtso nagusia erantzun eta borroka mediatiko neketsua gauzatzeko, Estatuak propagandak bere narratiba inposatu ez dezan. Gure eta gureen barne-zauriak sendatzen. Egun horretan bizitakoaren inguruko eztabaida zirkuluak antolatzen. Bien bitartean, granada batek jotako manifestari baten bizitza hari batean dago.

Taktikoki, garaituta gaude. Politikoki, mila galderaz inguratuta. Sentimenduei dagokienez, gogorra da. Baina inoiz baino elkartuago gaude. Gertatutakoak sekulako elkartasun aldeak ekarri du. Indarrak batu ditugu. Ezein antolakundek ez du irentsi banantzearen amua. Bassines Non Merci! eta Confédération paysanne eredugarriak dira. Baita ezkerreko alderdiak ere, normalean «bazter-nahasleak» salatzeke orduan azkar-azkarrak izan ohi diren arren, oraingoan beren burua kontrolatzea lortu dute.

Ildo politikoak aldatzen ari dira. Ur-biltegi handien aurkakotasuna ez da inoiz hain handia izan. Ez dute lortzen

100 Franck Johannès, «Sainte-Soline : l'enregistrement qui prouve que le SAMU n'a pas eu le droit d'intervenir», *Le Monde*, 2023ko martxoak 28.

ekoterrorismoaren propaganda sinestaraztea. Martxoaren 25eko manifestazioak desarmatzearen, desobedientziaren eta Poliziarekiko autodefentsaren legitimazioan etapa erabakigarri bat markatu du. Gobernuaren errepresiozko ofentsiba bere aurka itzuli da politikoki.

Hurrengo koordinazio bileran, norberak barne-barne-tik bizitakoa adierazi du. Inoiz ez dugu horrelako solasaldirik izan. Lehen aldiz, gure batzarraren maila sentikortasun handiko zintzotasunarena da. Bat-batean lekua egin diegu malkoei eta berezitasunei. Mundu guztia shock egoeran dago, baina garai-penera arte borrokatzeko gogoia bere honetan dago; are gehiago, inoiz baino handiagoa da. Eta betekizun sentimendu baten karga du. Sainte-Solinen, martxoaren 25ean, denok frogatu genuen adore ikaragarriak eskatzen duen betekizuna. Adore eta apustu horrek behartzen gaituzte. Inola ere ez dugu amore emango...

Hain zuzen ere, justu ohiturak hartzen eta gure modura jarduteko eta antolatzeke errutinak eratzen ari ginenean, manifestazio horren balantzeak hausnarketa estrategiko eta taktikorako esparru handi-handia irekitzen du. Gure antolaketa moduaren transformazio sakona eskatzen du, borrokak eskatzen duen mailan egongo den aldaketa.

Nola oztopatu ur-biltegien lanak etorkizunean gotorleku baten kontra aurrez aurre jo gabe? Nola eraiki adimen taktiko eta estrategikoa hainbesteko jendetzarekin? Mugimendu baten arrakasta galdera horiei erantzuteko mugimenduak izan dezakeen asmamenean datza.

Uraren konboia

Martxoaren 25aren ostean, elkartzeko beste modu bat imajinatu beharra dugu. Orduan, lehorde erdian Sainte-Solinetik Pariseraino joango zen udako konboi erraldoi baten ideia atera zen. Martxoaren 25az geroztik, proiektuaren promotoreek hainbat urduritasun zantzu erakutsi dituzte. Uraren Agentziaren korridoretatik ureztatzaileen upategietara, Deux-Sèvresen aurreikusitako hamasei ur-biltegietatik hamar bertan behera uztearen zurrumurrua bolo-bolo dabil. Bi urtetan, ia proiektuaren bi heren hondoratu ditugu. Konboiaren helburuetako bat Uraren Agentziara joatea da, lanak berehala geldiaraztea eskatzeko.

Comité de Bassin-eko langileetatik burokratetara, instituzio hau barne-kontraesanez beteta dago. Pixkanaka, agentziako atal osoak lanak geldiaraztearen alde agertu dira. Administrazioen eta 79. Uraren Kooperatibaren barnean kontraesanak areagotzea ahultasun seinale da. Konboiaren helburua kontraesan horietan presioa egitea da. Luzamendua agintzen bada, mugimenduarentzat garaipen partziala izango da. Bestela, lanei aurka egingo diegu berriz fisikoki.

700 bizikleta baino gehiagorekin, ehundaka kilometro egin ditugu. Uda kiskalgarri baten erdi-erdian, gelditu gabe eragin diegu pedalei. Gure karabanak itxura ona du. Honako hauek osatzen dute: nekazarien traktoreek, igaraba batek eta aingira erraldoi batek, txirrindulariak hornitzen dituen atoi-kantina ibiltariak, moto irekitzaile batek eta erratz-autoak. Herri bakoitzean, biztanleekin aritu gara solasean. Etapa bakoitzean, tokiko batzorde bat osatu da guri harrera egiteko. Konboiak gure epe luzerako konpromisoa islatzen du. Haren arrastoak uraren aldeko borrokak duen lurralde-hedadura nabarmentzen du.

Zazpi egunetan abentura pila bizi izan ditugu. Lezay-n, mugarri bat altxa dugu zaurituen omenez, ahazten eta barkatzen ez dugula azpimarratzeko. Golf zelai bat hondatu dugu eta baserri-fabrika bat bisitatu. Loiran zehar ibili gara, beltxargen, koartzatxoeren eta ubarroiaren alboan. Lagunak diren baserrietan geldialdia egin dugu eta borrokan dauden kolektiboak ezagutu.

Orléans-era hurbiltzean, ekaitza lehertu da. Tximistek zeru iluna argitzen dute, txirrindulariek blai eginda «Riders on the storm»-en doinuan pedalei eragiten dieten bitartean. Ostarrea iristean, ezarritako ibilbidetik atera gara bat-batean, motor gidarien eta prefeturaren egundoko harridurarako! Uraren Agentziantz goaz ziztuan, 24 orduko aurrerapenarekin.

Kanpamentu basati bat ezarri da La Source auzoko bulebarraren erdi-erdian. Helburua biharamuneko hitzordurako presioa egitea da. Kasu honetan, logistika ibiltaria etsaitasuneko eremura hedatu da. Lasto apur batek, kantinek, taberna batek eta eszenatoki inprobisatuek festa gau bat ahalbidetu dute bulebar baten erdi-erdian, Uraren Agentzian lubakitutako jendarmeen aurrean.

Biharamunean, mugimendu baten ordezkariak hartu dute. Lurraren Altxamenduak ez da haren parte. Elkarrizketa

ofentsa bihurtu da: lanen geldiaraztea negoziatzera gatozen honetan, Pnaires-en hirugarren ur-biltegi baten obrak abiatuko dituztela jakin dugu!

Kanpoan, tentsioa handitzen ari da, agentziako burdin hesia dardaraka dabil burrunba handiz. Ordezkaritzak kexu dela erakusteko, eraikina okupatu du gau osoan zehar.

Biharamunean, bagoazela, agentziaren burdin hesia bota dugu abisu gisa. Konboia Parisen amaitu da, eta han katu eta saguarenean aritu dira bizikletak BRAV-M-arekin.¹⁰¹

Aurreko udan Sèvre ibaian egindako nabigazioan ez bezala, bizikletak erritmo amankomuna eskatzen du, pelotoi trinkoak eratzea. Batzuen azelerazioak eta besteen bat-bateko balaztazteak jasan behar dira. Ez da erraza martxoaren 25etik erritmo berean aritzea. Pertsona batzuegan, traumak ekintza moteldu eta bertan behera utzi behar delako sentimendua eragiten du, zauritu gehiago egongo den beldurrez. Beste batzuk, aldiz, kosta ahala kosta zerbait egiteko nahiaz itsututa daude, beren buruei frogatzeko Sainte-Solineko zauriek ez dutela ezinbestean gure ekintzarako gaitasuna indargabetu.

Eratzen dugun osaketarentzat berrikuntza da administrazioarekin elkarizketak izatea. Gure artean instituzioekiko dauden aldeak erakusten ditu. Batzuek negoziaketek arrakasta izango dutelako esperantza dute. Besteek lekuan bertan borrokari hobe ekiteko fasetzat jotzen dituzte. Beste batzuek botere publikoak uraren erabilera erregulatzeko aukera direla uste dute. Besteen ustez, aldiz, botere horiek agroindustriaren menpe daude erabat. Ildo horretako hausturek partaide bakoitza zeharkatzen dute. Zenbaitetan, batzuen barneak ere astintzen dituzte.

Mundu guztia ados dago luzamendua eskatzearen inguruan. Proiektua Estatuaren erabakiak soilik hondoratu dezake, eta erabaki hori indar harremanez eta bortxaz bakarrik lor liteke. Aldiz, uraren erabilera eta banaketa etorkizunean nork hautatuko duen zehazteko mugimenduaren barneko lanketa politikoa hasiberria da oraindik. Mugimendua trinkotu egin behar da arro

101 [I.o.] Frantsesez *Brigade de répression de l'action violente motorisée* esan nahi du, hau da, Indarkeriazko ekintzaren errepresio-brigada motorizatua. Frantziako poliziaren brigada mugikor bat da, motoan doazen polizia bikotez osatua, eta manifestazioetan parte hartu ohi dute diotenez segurtasuna bermatzeko. 2019an sortu zen Jaka Horien mugimenduaren testuinguruan.

hidrografiko bakoitzaren maila gorpuzteko. Nola sortu eta lotu beren lurraldeetan uraren ardua hartzen duten borroka-komunitateak? Galdera erabakigarri horrek zeharo gainditzen du ur-biltegi handien erronka. Hura erantzutea adituen eta kudeatzaileen eskuetatik ura erauzteko modu bakarra da.

Betiko itoginak harria zulatu

Deux-Sèvreseko proiektuaren promotoreak kezkatuta daude etorkizunagatik. Bi urteko motelaldiaren ostean, lanak bizkortu eta hordagoa bota dute. Haien estrategia berria lehen etapako lau kokapenetan ahalik eta lan gehien hastean datza. Estatuak ziurtatu nahi du Deux-Sèvresen hasieran aurreikusitako hamasei ur-biltegietatik sei gutxienez eraikiko direla. Ez dago haiek eraikitzeke ureztatzaileei banatutako dirua bueltan eskatzeko moduan. Baina ez dago hurrengo hamar obretan hamar aldiz handiagoak diren gatazkarik onartzeko moduan ere ez. Uraren konboiaren ostean, proiektua berriz ahuldu da administrazio-auzitegian mugimenduak lortutako garaipen berriekin.

Estatuak Sainte-Solineko traumaren eraginen eta erreprezio penalaren alde egin du borroka indargabetzeko. 2021az geroztik, epaiketak biderkatu egin dira. Niorteko auzitegiak ezker-eskuin kondenatzen du eta aise banatzen ditu baldintzapeko kondenak eta lurraldera sartzeko debekuak. Bi kide ere espetxeratu dituzte. 2023ko irailaren 8a, CGT 79, Solidaires 79, Confédération paysanne eta Lurraren Altxamenduak mugimenduetako bozeramaileak auzitara eraman dituzte Sainte-Solinen egin ziren bi manifestazio debekatuak antolatzeagatik. Epaiketa horren helburua da mugimenduari kentzea lanen aurrerapenen aurka egin litezkeen beste manifestazio harrigarriak deitzeko asmoa. Baina ez du funtzionatzen.

Biharamunean, BNMren deialdian, ehun bat pertsona ginen. Konboian abiatu ginen Priaireseko obretarantz. Barrkada bat altxa zen sarbidean. Burdin hesiak erori ziren. Keinu horrek tokiko ekintza txiki ugari bidez eta etorkizuneko manifestazio masiboen bidez, lanak fisikoki oztopatzen jarraitzeko erabakitasuna adierazten zuen.

Aste batzuk geroago, ekaitz gau batean, obretako burdin hesi guztiak erori ziren berriro. Ondoren, garaipenezko errekurtsio juridiko batek lanak erabat eta modu sinplean gel-

diarazi zituen. Udazkeneko ur-biltegien betetzeen bezperan, talde misteriotsuek ur-biltegi berriak desarmatu zituzten. Segidan, mugimenduak iragarri zuen datorren udan, Olinpiar Jokoen bete-betean, dozenaka milaka pertsona elkartuko ginela berriz Deux-Sèvresen. Jada imajinatzen dira jende-olde modu berriak. Hainbat hilabete hartu genituen modu horiek lantzeko.

Borrokaren fase horretan, hamabost bat ur-biltegi errekur-tso juridiko bidez baliogabetu ziren. Gutxienez beste hamazazpi desarmatu egin ziren. Lerro hauek idazten ari garenean, ur-biltegi berri bat soilik jarri da martxan Mauzé-sur-le-Mignonen; mugimenduak, aldiz, hogeita hamar bat desegin ditu materialki edo juridikoki!

Uraren aldeko borroka luzea izango da. Hasi dira jada ur-biltegi handien aurkako erresistentzia antolatzen Viennen eta Berryn, Limousinen eta Okzitanian. Frantzia mailan, ur-biltegi handien luzamendua eskuratu behar dugu eta ura herri-ondasun gisa defendatzeko herri mugimendu bat eraiki. Thomas San-kararen intuizioa estu hartuko duen mugimendu bat: «Erabaki beharra dago: ura denontzat ala xanpaina batzuentzat».

ALDERANTZIKATU JOERA: DEUSEZTATZEAREN HIPOTESIA

Nola desmuntatu ur-biltegi handi baten ponpa? Nola landatu heskaiak eta zulatu urmaelak? Nola altxa barrikadak traktore batekin? Nola akabatu norberaren animaliak baserrian? Nola bihurtu erabilezin kooperatibatzar bateko silo handia? Nola babes-tu agroindustriako langileak beren lan baldintzen alde borroka egin dezaten, beren bihiak arriskuan ez jarri behar izateko eta gorputza eta ingurumena suntsitzen ez duen janaria ekoizten laguntzeko? Nola kendu lehertzeko arriskurik gabe metanizatzaile baten detonagailua? Nola bihurtu zereal-esplotazio handi bat edo ukuiluko abeltzaintzan dabilen baserri-fabrika bat baserri kolektibo batean, non etengabeko belardiak eta nekazaritza-arrazak dauden, eta kooperatiba industrial baten ordeztu, esnea nekazaritza-gaztandegi batek eraldatzen duen? Nola eraldatu nekazaritza-estalpe erraldoi bat era askotako jardunerako eremu bat, non biltzen diren aroztegi bat, irin-fabrika bat, ekilore-olioa egiteko prentsa bat, labetegi bat, konponketa-lantegi bat, liburutegi bat eta boxeo-areto bat? Labur-bilduz: nola deuseztatu urratsez urrats agroindustria?

Lurra defenditzeko eta berreskuratzeko, ez dira nahikoa landa eremuan nekazariak bizitzera eta lanera joatea eta alternatibak loratzea. Desegitea, suntsitzea eta berrantolatzea ezinbesteko ekintzak dira. Historikoki, borroka ugari ardatzu dira langileek ekoizpen bitartekoak birjabetzean eta bateratzean. Beste batzuk ekoizpen-indarrei erregulazioak edo mugak ezartzean kontzentratu dira. Baina gutxik planteatu dute zuzenean deuseztatzearen gaia.

Borroka antinuklearrak eta borroka antimilitaristak soilik hartu dute —edonoiz dena suntsitu dezaketen azpiegituren aurka doazelako— beren gain ikuspegi hori gure biziraupenerako behar gisa. Gailurrean zeudenean, mugimendu horiek jakin zuten gune horien hedapena geldiarazten, bertan behera uztea lortuz Plogoffeko zentral nuklearra eta Larzac-eko eremu militarren hedapena. Baina ezin izan zituzten inoiz deuseztatze-saiakerak praktikan jarri.

Gaur egun, gai hori zenbait borrokaren muina da. Alemanian, Ende Gelände herri mugimenduak ikatzaren industria deuseztatzea du helburutzat, gobernuengan presioa eginez industriaguneen inbasioen eta blokeo masiboen bidez. Ameri-

ketako Estatu Batuetan, Ferguson-eko istiluen biharamunean, mugimendu antirrazistako zati batek Poliziaren desfinantzaketa eta deuseztatzearen ikuspuntua besarkatu zuen.

Nuklearren eta armen industria edo Polizia deuseztatzearen iradokizunak utopia gisa gutxiesten dira. Guri utopia iruditzen zaiguna «larrialdi-frenoari tira egin»¹⁰² gabe bizirauteko aukera bera da, hau da, makina-kapitalista handia errotik moteldu gabe aritzekoa. Hondamendiaren aurrean, kontua ez da sinpleki ekoizpen bitartekoen jabetzarena, baizik eta beren xedearena, eta, are gehiago, bitarteko horietako batzuek gure xedea azkartzeko moduarena.

Ekoizpen batzuek gure etorkizunaren aukera bera ere suntsitzen dute, baina, hala eta guztiz ere, oraingoz, haien menpe gaude erabat. Agroindustria deuseztatzea kontraesan horren adierazgarri da. Gure garaiko erronketako bat ekozidua eragiten duten azpiegiturak desegitea da, eta haiek gabe gure beharrei erantzuteko teknikak eta gaitasunak berreskuratzea. Desarmatzetik deuseztatzerara igarotzea aurrerapauso garrantzitsu bat ematea da. Deuseztatzea jokaera bat da, ekintza bat. Interpelatzeko eta eragiteko bat-bateko esku-hartze bat. Deuseztatzea transformazio prozesua da, ibilbide politiko luze bat.

Agroindustria gerra-arma gisa

Frantzian, baserritar nekazaritzak nekazaritza industrialerantz izandako bilakaerak erabateko gerran¹⁰³ du iturria. Vichy-ren gobernuak ekin zion nekazaritzaren «modernizazioari»: pestizidak, nitratoak, potentzia mekanikoa; gerra-artefaktuen eta gerra-kulturaren inportazioa lurraren lan-eremuetara. Mundu-gatazkaren ostean, prozesu horrek jarraitu egin zuen «Frantzia elikatzeko» aitzakiapean.

102 «Marxek esan zuen iraultzak munduko historiaren lokomotorra direla. Baina baliteke gauzak oso bestela izatea. Baliteke iraultzak izatea tren horretan bidaiatzen duen gizadiak larrialdi frenoari tira egitearen ekintza» Walter Benjamin, «Über den Begriff der Geschichte», Institut de recherche sociale à Los Angeles, 1942.

103 [I.o.] Erabateko gerra edo gudua deitzen zaio herrialde edo nazioek dituzten baliabide guztiak mobilizatzen eta muturreraino bultzatzen dituzten gerra motari. Frantzian Lehen eta Bigarren Mundu Gerrak aipatzeko erabiltzen da, kasu honetan, bigarrenaz ari da.

Atelier Paysan-en¹⁰⁴ urratsak jarraituz, «agroindustriaz» ari gara. Baina termino horrek ez dio soilik agroindustriari erreferentzia egiten, baita haren menpe dauden botere publikoen eta haren arteko harremanari ere. Izan ere, gune militar-industrialek ordena kapitalistaren arkitekturan duten garrantzia estrategiko bera du. Eta, gainera, nekazaritzara eta lurrera gune militar-industrialaren metodo, teknika eta logikaren iraulketa ere ilustratzen du.

Azelerazio Handiaren aurretik, baserritar eta familia-nekazaritza gure mundua ezin hobeki elikatzeke gai zen. 1948an, Frantziak bere elikadura autonomia berreskuratu zuen eta soberakina esportatzen hasi zen. 1954az geroztik, 104 milioi tona garirekin, berriz iritsi zen Frantzia zerealen ekoizpenaren errekorretara.¹⁰⁵ Elikadura burujabetza errekuperatzeko helburua bete zen arren, nekazaritza sektoreko industrializazioak jo eta ke jarraitu zuen. Gaur egun, nahiz eta FNSEaren propagandak kontrakoa errepikatu, ikuspegi teknikitik erabat posible da Europa baserritar-nekazaritzarekin elikatzea,¹⁰⁶ eta hala frogatzen dute ikerketa askok. Baina horrek transformazio sakon bat eskatzen du antolaketa sozial eta politikoan.

Beraz, alde batera utzi behar da agroindustriaren xedea «mundua elikatzea» dela dioen mitoa. Nekazaritza-ekoizpenaren industrializazioak ez du helburutzat gero eta handiagoa den biztanleriaren beharrei erantzutea. Bere funtzioa beste bat da. Iraupenaren herri-fabrikaren aurkako gerra-arma bat da.

«Frantzia elikatu» ordez, agroindustriak, gaur egun, 10 milioi tona janari botatzen ditu urtero, 7,9 milioi pertsona bizirauteko elikadura-laguntzaren menpe dauden bitartean.¹⁰⁷ Oparotasuna dago, baina ondoz ondoko gainproduktzio-krisien eta gerrikoa estutzen duten familien testuinguruan. Eta, zer oparotasun, norentzat eta zer preziotan? Gose-ezabatzaile¹⁰⁸ industrialek

104 Atelier Paysan, *Reprendre la terre aux machines*, Seuil, 2021.

105 Christophe Bonneuil, «La modernisation agricole comme "prise de terre" par le capitalisme industriel», *Terrestres*, 2021ko uztailak 29.

106 Institut du développement durable et des relations internationales, «Une Europe agroécologique en 2050 : une agriculture multifonctionnelle pour une alimentation saine», 2018ko iraila.

107 Bénédicte Bonzi, *La France qui a faim, le don à l'épreuve des politiques alimentaires*, Seuil, 2023.

108 [I.o.] Elikadura aldarazteko medikamentua, jateko gogoa murrizten du. Jatorrizkoan «abat-faim», gaztelaniaz «supresor de apetito».

obesitatea eta gaixotasun metabolikoak hedatzen dituzte. Gu-
xtiengo dirudun batek soilik eros dezake elikadura ekologikoa.

Mundua elikatu beharrean, agroindustriak gosez hilik uz-
ten du. Nekazalgoaren eta eragin nekolonialen pean dauden
herrialdeen iraupeneko herri-ekonomien aurkako arma inperia-
lista bat da. Magrebeko eta Mendebaldeko Afrikako herrialdeek
Frantziako zerealekiko duten mendekotasuna garai bateko men-
dekotasun kolonialen luzapena baino ez da. Baina esportatu eta
leku guztietan inposatu baino lehen, agroindustriak Mendebal-
dean bertan ezarri zuen nekazalgoa eta iraupeneko ekonomiak
suntsitzearen logika.

Aldaketa horiek izugarriak eta bat-batekoak izan
ziren. 70 urte, bizi-denbora bat, lurralde osoan nahas-
mendu fisiko eta material drastiko bat eragiteko: heskaiak
berdintzea, hezeguneak suntsitzea, pestizidez eta ongarri sin-
tetikoaz kutsatzea, basa- eta etxe-biodibertsitatea masiboki
desagertzea. Benetako «estatu-kolpe biologikoa», zeinak ondo-
rio gisa ingurumenaren sinplifikazioa eta lurren berdinketa izan
duen, ibilbide tekniko estandarizatua lortu ahal izateko.¹⁰⁹
Ekoizpenaren espezializazioak sakonki andeaten ditu lurral-
deak. Arro paristarreko laborantza estentsiboko eskualdeetako
animaliak desagerrarazten ditu. Horren ondorioz, abeltzaintza-
animalien kontzentrazioko tasa lotsagarriak daude Frantzia
mendebaldean: abeltzaintza-animalien % 60 nekazaritza-ustia-
tegien % 3an dago bilduta, eta abeltzaintza intentsiboaren % 70
Britainia eta Loirerria eskualdeetan!¹¹⁰

Hala, pixkanaka, paisaien, kulturen, gaitasunen eta
herri-ohituren askotariko mosaikoa uniformatzen joan da. Ne-
kazaritzaren modernizazioa hautespeneren eta hondamenaren
enpresa bat da. Bizimoduak sailkatzean datza. Alde batetik,
agroindustriaren irizpideen arabera, epe laburrera emankorrak
eta errentagarriak diruditen landare klase eta bariatateak, lurrak
eta baserriak. Beste aldetik, «antzuak», «kaltegarriak», eginahal
guztian desagerrarazi behar diren horiek.


Eraso berean, agroindustriak intsektu eta hegazti asko hil-
tzen ditu gerra kimikoaren ondorioz, eta nekazalgoa eta haren

109 Christophe Bonneuil, «La modernisation agricole», a. a.

110 Mathilde Gérard, «Dans l'élevage, 60 % des animaux sont concentrés dans 3 % des
fermes françaises», *Le Monde*, 2023ko maiatzak 16.

inguruko munduak, hizkuntzak eta ekintzak desagerrarazten ditu. Ekozidioa eta etnozidioa txanpon beraren bi aurpegiak dira. Zer geratzen zaigu desagertutako mundu horietatik? Paisaiak ikusten eta irakurtzen dakienarentzat, landa-lurraldeek *bataila-eremua* dirudite. Lursail baten azpiko ihi-multzo batean lehortutako zohikaztegi edo padura baten oroigarria aurkitzea. Abandonatutako aletegi batean enaren falta nabaritzea, jada ez baitira beren habia hutsak betetzera etortzen. Fardo-makina baten atzean hautematea zorpetzearen azken oihua, autonomiaren galera eta norberaren makinak konpontzeko gaitasunarenarena, fardo txikiak biltzeko talde-lanen desagertzea... Eta ulertzea zer berpiztu daitekeen agroindustria desegiten hasten bagara.

Ez gara familia patriarkalaren eta herritar kontrolaren nostalgikoak, inondik inora ere ez. Era berean, ez ditugu alde batera utzi nahi nekazari-lanen zailtasuna arintzen duten traktoreak eta tresnak. Lurperatutako nekazaritza munduak altxor komun batzuk ezkutatzen ditu, eta haiekin berriz konektatu nahi dugu gure etorkizuna eraikitzeko, besterik ez. Altxor



HORIZONTE-LERROA

horietako batzuk elikadura autonomia, lurrarekiko eta bere seinaleekiko lotura sentibera, eskulanaren noblezia eta talde-lana dira. Hori lortzeko, ez dago beharrik arkaismo matxistak eta tradizioaren zurruntasunak gure egiteko. Desegitea ez da iraganera itzultzea, alderantziz, etorkizunerako aukera bat da. Frantzia, agroindustria da berotegi-efektuko gas emisioen bigarren iturria. Berotze globala eta biodibertsitatearen hondamendia azkartzen ditu. Prostatako minbizia sorrarazten die pestiziden eraginpean egondako nekazariei, gure ur-erreserbak xurgatzen ditu, gure laborantza lurren degradazioa bizkortzen du.

Agroindustria nekazarien alienazio tresna gisa

Nekazaritza-enpresen bi herenek ez du, baldintza ekonomikoei dago-kenez, izateko arrazoirik. Ados gaude nekazari kopurua murriztearekin.

Michel Debatisse, CNJAren¹¹¹ buruzagi nagusia eta FNSEAkoa ondoren,
1958tik 1978ra

Agroindustriak metodikoki klase baten kultura ezabatzen du, nekazalgoarena, hain zuzen ere. Nekazarien desagertze behartua eragiten du, diru-sarrera miserable batzuegatik, jo eta su lan egiten duen laborari-proletarioa zeharo esplotatzen, pozoitzen eta zorpetzen duen bitartean.

Zeharka, desjabetze prozesu horrek eragin sakona izan du langile mugimenduan. Lehen, landa munduari errotuta zegoen, eta, hein batean, greba luzeak eta erasotzaileak egiteko gaitasuna mugatu zaio,¹¹² baita nolabaiteko elikadura autonomiari esker epe luzera buru egiteko gaitasuna ere. Langileen eta nekazarien, beharginen eta lurraren arteko bereizketa handiena, herri erresistentzia zapaltzeko bitarteko bat da. Agroindustria matxinaden aurkako politiken engranajea da.

Izan gaitezen argiak. Agroindustria desegitea ez da batez ere nekazaritza integratuan¹¹³ harrapatuta dauden nekazari-la-

111 CNJA frantses estatuko nekazari gazteen sindikatua da, eta FNSEaren parte da. Euskaraz, «Nekazari Gazteen Talde Nazionala» (jatorrizkoa: *Centre National des Jeunes Agriculteurs*).

112 Gaspard d'Allens, «Faire durer les grèves : les leçons de l'histoire», Reporterre, 2020ko urtarrilak 21.

113 [I.o.] Nekazaritza konbentzionalaren eta ekologikoaren arteko bidea da, ekoizpen-teknika konbentzionalak erabiltzen baititu beste praktika berritzaile batzuekin batera.

borariak begitan hartzea. Nazioarteko lehia anker baten menpe daude, zeina merkataritza askearen akordioak ugaritzearen ondorioz handitzen den. Haien autonomia marjinak ezerezero murriztu dira, eta zerikusi handia du horrek lanbidea iluntzen duten suizidio ugariarekin. «Laborari integratuaren egoera tor-nulariaren egoeraren antzekoa da industrialari metalurgikoak honakoa esan ostean: “Nire lantegian urtebetez lan egitea eskaintzen dizut, baina erosi lan egiteko behar duzun tornua zuk!” [...] laboraria beraz, eskulangilea, etxez etxeko langilea bihurtzen da, eta guztiz preso dago, haren zorrek lotzen baitute»,¹¹⁴ idatzi zuen Bernard Lambertek, 1973an, *Les Paysans dans la lutte de classe* liburuan. Egiaztapen hori ez da batere zahartu.

Alabaina, 1960ko hamarkadako oldar modernizatzailean, nekazariak rol aktiboa izan zuten beren desagerpenean. Baina nola ez liluratu lurra lantzeko modu tradizionalen emantzipazioaren ikuspegi batekin? Nola ez xarmatu lanbidearen eta haren betebeharren gogortasuna arintzeko promesagatik? Nekazaritza munduko zati handi batek onartu egin zuen orduan teknikariak produktibitatearen, denboraren eta etekinen irabazi gisa aurkezten zutena. Nola imajina zezaketen sistema berri horren kontrapartiden hedadura, eta haien eragina pixkanaka ezagutezin bihurtu diren kanpainengan? Apur bat berandua-go, 80ko hamarkada hasieran, landa munduko zati bat jabetu zen nekazaritza lanbideek autonomia galdu zutela eta aldaketa sakona jasan zutela. Kredituekiko mendekotasuna, hazien derrigorrezko erosketak, makinak eskuratzegatik zorpetzeak, produktiboak izaten jarraitzeko dimentsionatzeak: lanbidea erabat aldatu zen. Berriz norberaren baserriaren jabe bihurtzeko, nekazari bakoitzak haren nagusia bera den lanbidearen autonomia berreskuratzeko, lanaren mailan dagoen diru-sarrera duin bat bermatzeko, ezinbestekoa da agroindustriak inposatutako dependentzia alienatzailearekin apurtzea.

Laborariak nekazaritzaren industrializazioan aktibo izan ziren modu berean, agroindustriaren desegitea ezin da haiek gabe egin. Lurraren langileen emantzipazio mugimendua da. Ez al ziren ehungintzako langileak berak izan makinak hautsi zituz-

Frantsesez *agriculture intégrée* eta gaztelaniaz *producción integrada* erabili ohi dira.

114 Bernard Lambert, *Les paysans dans la lutte des classes*, Seuil, 1970.

ten lehen ludditak? Ez al ziren borrokan zeuden nekazariak izan, 2000ko hamarkadan, GEOak segaz moztera deitzen lehenak?¹¹⁵

Deuseztatzearen politika bereizketa-politika bat da. Nekazaritza mundua ez da gure etsaia. Oso ongi ezagutzen dugu. Ez ditugu inoiz baserriak jomugan izango, bereizketa egiten baitugu baserri-fabriken, megakooperatiben eta nekazaritza-entresa handien artean, zeinak agroindustriaren oinarria diren eta FNSEAk hortzez eta haginez defenditzen dituen. Gure zailtasunetako bat bereizketak argi eta garbi egitea ahalbidetzen duten ezagutzen transmisioan datza. Nekazari ertain baten eta nekazari *businessman* baten artean, baserri baten eta baserri-fabrika baten artean, defendatu nahi ditugun eta borroka egin nahi diegunen artean, alde handia dago. Baina hori hautemateak ikerketa-lan handia dakar.

Bereizketa horiek igartzeko zailak dira eta ezin dira bio edo eko labela duten baserrien eta gainerakoen aurkakotasunera murriztu. AB ziurtagiria¹¹⁶ duten negutegi klimatizatuak daude eta agroindustriaren berregituraketa «berdea»ren abangoardia dira. Agroindustriaren gatibu diren nekazari ertain konbentzionalak gure borroka kideak dira. Ekologikoaren eta konbentzionalaren arteko bereizketa —askotan, nekazaritza mundutik kanpo hobe ulertzen da— paradoxikoki ez da ulermenerako irizpiderik egokiena. Baserritar nekazaritzaren eta agroindustriaren arteko aurkakotasuna zuzenagoa da, baina orobat eskasegia.

Landa eremuan aurkako nekazaritzak elkarrekin bizi dira. Alde batetik, ehundaka hektareako ustiategi agroindustrial handiak, begi hutsez amaierarik ez dutela diruditen monolaborantzako soroak, eta elikagaien inportazioekiko erabat menpeko den ukuiluko abeltzaintza. Beste aldetik, polilaboratzen, abeltzaintzan edo baratzezaintzan dabilzan baserriak, salmenta zuzenekoak edo zirkuitu laburrekoak, sargaietan aurrezten dutenak eta ingurumenarekin arduratsuak direnak, labelarekin

115 [I.o.] 2000 hamarkadan Frantzian hasi zen desobediencia zibileko mugimendu bati egiten dio erreferentzia. *Faucheurs volontaires (Segalari boluntarioak)* zuen izena eta 6.700 kide izatera iritsi zen. Haien helburu eta ekintza nagusia Genetikoki Eraildatutako Organismoak (GEO) (edo Jitez Aldatutako Organismoak, JAO) eta saiakuntza transgenikoak zituzten soroak segaz edo igitaiaz moztea zen lobby agrokimikoaren aurka egiteko.

116 [I.o.] AB etiketak *Agriculture Biologique* esan nahi du (Nekazaritza ekologikoa) eta Frantziako Nekazaritza Ministerioaren jabetzakoa da.

laboratu edo ez. Bi mutur horien artean, ezin konta ahala berezitasun, Frantziako baserri ertain gehienak bi horien artean dabilen batezbestekoan daude. Nekazaritza mundua piramide gisa deskribatu nahiko bagenu, tontorrean, agroindustriaren burgesia handia egongo litzateke, azpian, nekazaritza-langileen proletalgora, eta, erdian, pobretze bidean dauden nekazari ertainak.

FNSEAk nekazari guztiak haren atzean bildu nahi ditu «inoiz eskuak lurrean sartu ez dituen hiriko ekologista burges bohemioen» jazarpen sentimendua piztuz. Nekazaritza munduaren batasunaren mito korporatibista hautsi nahi dugu, zeinak alkandora berdeen¹¹⁷ eta Vichyren propagandaren agrarianismo erreakzionarioan sustraitzen den. FNSEAk iruzur horri esker egiten du aurrera. Modu iruzurtian nekazarien sindikatutzat aurkezten da, baina, berez, agroindustriaren esparruko enpresaburuen sindikatua da. Zertan izan daitezke antzekoak erabat integratutako sektore batean harrapatuta dagoen zorpetutako abeltzain bretoi baten interesak, eta FNSEaren lehendakari eta Avril¹¹⁸ talde boteretsuaren eta beste hamabost bat enpresaren nagusia den Arnaud Rousseau-ren interesak?

Ezin dugu lurren metaketa kapitalistaren aurka borroka egin nekazaritza-business nagusien aurka gatazkarik bideratu gabe, nekazaritza mundu barnean klase borrokaren parte izan gabe, eta FNSEari borroka egin gabe, benetako gotorleku mafioso hura baita.¹¹⁹ Landa munduaren zaindari izendatzen du bere burua, haren hondamendia arretaz planifikatzen duen arren. Haren funtzio historikoa nekazaririk gabeko nekazaritza sustatzea izan da, eta, ondorioz, haren kide kopurua etengabe murriztea. Defenditu behar duen klasea desagertzeko lan egiten du. Baina nola apurtu hegemonia itogarri hori?

117 Chemises vertes (alkandora berdeak) 1929an Henri Dorgères-ek sortutako nekazaritza-liga faxista zen. Hasiera batean, nekazaritza-langileen aldeko aseguru-etxe sozialak sortzeari aurka egiteko sortu zen. Harreman ezin hobea zuen Action française eta Doriot-en Parti populaire français alderdi faxista frantsesekin. Cf. Robert O. Paxton, *Le temps des Chemises vertes. Révoltes paysannes et fascisme rural, 1929-1939*, Seuil, 1996.

118 Avril taldea: agroindustriako multinazionala, oliotsuen sektoreko burua, 9 mila milioi euroko fakturazioa izan zuen 2022an, eta, besteak beste, Lesieur eta Puget marken jabea da.

119 Gilles Luneau, *La Forteresse agricole, une histoire de la FNSEA*, Fayard, 2004.

Gaur egun, Frantzian, nekazaritza-paisaia hiru sindikatuk hezuramaitzen dute. Alde batetik, FNSEA (eta, hortaz, bere gazte erakundea, *Jeunes Agriculteurs*) Beste aldetik, Confédération paysanne eta Coordination Rurale daude. Agroindustriatik kanpo daude, baina haien desadostasunek nekazalgoaren bi tradizio historikoren arteko —nekazaritza ezkertiarra eta *agrarianismo erreakzionarioa* dei ditzakegu— borroka kultural bat irudikatzen dute. Lehenak —nekazari-langileen ekintzek markatu dute— lantzen duen ingurumena zaintzen duen baserritar nekazaritza defendatzen du, baita soldatapeko langileentzat lan balditza duinak ere, eta nazioarteko nekazari mugimendurekin bat egiten du (*Via Campesina*). Bigarrena kontserbadorea da, mehatxatutako eta gutxiengo bihurtutako nekazari nortasunaren alde borroka egiten duelako, landatartasuna salbatu nahi duelako, «gizakiak elikatzen dituztenentzat» diru-sarrera duinak eskatzen dituelako, nekazari-haziak zaindu nahi dituelako eta «gure zibilizazioa mantendu» nahi duelako. Harreman ia organikoa du Bilgune Nazionala¹²⁰ alderdiarekin. Bi sindikatu horiek agroindustriarekin eta merkataritza askearen akordioekin apurto nahi badute ere, ur-biltegiei dagokienez, zeharo kontrajarrita daude.

Lurra agroindustriaren aurka defendatzeko, aliantza estu bat finkatu behar dugu Confédération paysannerekin; izan ere, nekazaritza-sindikatu hori da, ofizio barnean, ekologiaren eta justizia sozialaren aldeko borroka ardua handiz daramana, eta agroindustriaren aurka ekintza zehatzak kudeatzen dituena. Era berean, tokiko aliantzak finkatu behar ditugu sindikatu gabeko nekazari ugarirekin.

FNSEArri ere aurka egin diezaiokeen sindikatuz kanpoko indar bat eraikitzen saiatzen gara. Indar autonomo eta nabar bat, zeinak nekazarien sentsibilitatea eta azken urteetako gizarte mugimenduen borrokarako energia konbinatuko dituen. Ofizioaren gaineko kanpo-presioa nekazaritza munduaren barneko klase gatazkekin artikulatzen dakien indarra, azken horiek aldarrikapen korporatibistek neutralizatzen baitituzte maiz.

120 [I.o.] Ofizialki eta frantsesez *Rassemblement National* edo RN, Frantziako eskuin muturreko alderdia da, doktrina xenofoboa eta frantziar nazionalista ditu. Alderdiaren sortzailea Jean-Marie Le Pen izan zen, eta haren alabak, Marine Le Pen ezagunak hartu zuen ondoren alderdiaren buruzagitza.

Agroindustria ingeniari-tza sozialaren mekanismo gisa

Agroindustriaren aurkako borroka ez da soilik erronka profesional edo sindikal bat, ezta nekazarientzat gordetako esparru bat ere. Nekazaritza munduaren zati bat inplikatzen du, baina, era berean, gainditu egiten du gure lurraldeak, lurrak eta ura ukitzen baititu, baita gizarte antolaketaren egitura bera ere.

Agroindustria industriako eta estatuko eragileen sare moduko koalizio bat da, eta artefaktuetan, teknologian eta gailuetan hezur-mamitzen da. Lurra eta ura bereganatzen dituzten nekazaritza-enpresa handien enpresa-konglomeratua da. Familia-baserri ugari dira eta harrapatuta daude, alde batetik, hasierako fasean integratzen dituzten industriengatik (hazi-ekoizleak, ekipo-fabrikatzaileak, pestiziden edo ongarrien hornitzaileak, etab.), eta, bestetik, azken fasean integratzen dituzten nekazaritzako elikagaien talde handiengatik, zeinak lotzen dituzten nekazaritza-produktuen bilketan, eraldaketan eta banaketan. Agroindustria nekazaritza-ekoizpena normalizatzen eta gobernatzen duten erakunde profesionalen, administrazio burokratikoaren eta politika publikoaren nahasketa bat da. Teknoegitura bat da eta bere ikerketa, irakaskuntza eta laguntza teknikoko erakundeak ditu, hau da, berez, jakintza eta gaitasun gailuak. Finantza-sistema propioez (bankuak, aseguruak, etab.) hornitutako sektore ekonomikoa da.

Egia hori jakiteak «ustiatzaile» ikuspegitik soilik arrazoitzen uztera bultzatzen gaitu. Agroindustria funtzionarazten dutenak honako hauek dira batez ere: nekazaritza-langileen masak, sasoikako langileak, hiltegi-tako operadoreak, supermerkatu-tako kutxazainak, agente logistikoak, eta nekazaritza- eta kimika-lantegi-tako langileak. Baserri-fabrika bat edo ur-biltegi bat desarmatzeko ez ezik, pixkanaka-pixkanaka agroindustria osoa deuseztatze-ko an-bizioa izateak, langile horiekin biltzea eta ikuspegi komunak eta birmoldaketa aukerak definitzea eskatzen du.

Hortxe datza, dudarik gabe, Lurraren Altxamenduen etorkizuneko erronkak gainditzeko bide bat. Hortxe datza, era berean, ekologiaren kontraesan nagusia: ekozidua eragiten duten azpiegituren beharrezko deuseztatzea eta azpiegitura horiek funtzionarazten dituzten langileen emantzipazio soziala trebeki artikulatzeko zailtasuna. Nola jokatu, urratsez urrats, deuseztatzea ez dadin izan desindustrializatzea eta deslokalizatzea?

Galdera horrek ekologia politikoaren alorretik kanpo aliantza berriak jostera garamatza.

Agroindustriak gure eguneroko oinarrizko alderdiak egituratzen ditu: ingurua, elikadura ohiturak, edaten dugun uraren kalitatea, premiak asetzeko gaitasuna. Gure gorputzetan eta bizitzetan sakon eragiten du. Ikuspegi politiko gisa agroindustriaren deuseztatzea izateak esan nahi du auzi erabakigarri eta nabarrei aurre egitea; besteak beste, uraren kutsadura eta lurraren jabetza, langile kondizioa eta nekazari kondizioa, biodibertsitatea eta laneko diru-sarrerak, gure plateren edukia eta Europako politika publikoak, hegaztien patua eta bidezko elikadura, merkataritza askearen nazioarteko akordioak eta bizilagunaren soroaren etorkizuna. Indarrean dagoen antolaketa ekonomiko eta sozialaren aldaketa erradikalean proiektatzea da. Inoiz hain nekazari gutxi egon ez den arren Frantzian, inoiz ez dira egon ere ez hainbeste langile agroindustriak kontratatuta. Azken horrek eskulanaren eta lan indarraren transferentzia masibo bat burutu zuen. Ingeniaritza sozialaren tresna bat da, eta bere funtzio nagusia nekazari klasea ezabatzea eta langile klasea masifikatzea izan zen, eta kaleratzeengatik biziarteko kalte-ordainen eta nekazarien haurrak auto fabriketan engaiatzearen bidez bete zuen. Garaipen handienetako bat ez al da, hain zuzen ere, gu guztiok «lurrik gabeko nekazari» bihurtu izana, deserrotzea izanik denon kondizio komuna?

Desarmatzetik deuseztatzer

Bistan da hain sektore indartsu eta kaltegarria ez dela trantsizio agroekologiko goxo batera makurtuko. Alternatibean ugaritzean parte hartzen dugu, kontuan izanik, hala ere, ez direla nahikoa agroindustriaren hondamendiak saihesteko.

Gure hipotesia da desarmatzeak orokortzeak eta hedatzeak deuseztatzearen ikuspuntua dakarrela. Desarmatzea konpondu daiteke. Deuseztatzea iraunkorra eta atzeraezina da. Desarmatzea selektiboa da, engranaje bati eragiten dio. Deuseztatzea sistematikoa da, egitura desegiten du. Pixkanaka deseraikitzeke, zatika geldiarazteko anbizioa adierazten du. Bi ekintzak elkar artikulatzen eta elikatzen dira.

Herri mugimendu bat «ur-biltegi handien» obra pilotuak geldiarazteko altxatzen denean, zereal laborantza intentsi-

boko sistemen berregituraketaren logika guztia astintzen eta ezegonkortzen da. Eta, hala, agroindustriaren irauteko gaitasuna ahultzen da. Funtsean, ez dago «tokiko» borrokarik. Haiek gairiditzea eskatzen duten borroka kokatuak besterik ez daude. Jomuga logikoa, kate osoaren ezegonkortasuna dakarren desarmatzea da.

Ur-biltegi handiaren azpiegituraren atzean, artoaren sektorea dago. Haren produkzioa batik bat esportaziora eta ukuiluko abeltzaintzaren hornikuntzara bideratuta dago. Horrek nekazariak hazi-enpresa handien erabateko mendekotasunean murgiltzen ditu. Hona hemen haren kontrako ekintza programa baten ardatz nagusiak:

- Ikertzea eta ikastea: gure ikerketei esker, artoaren sektorearen eta bere gune nagusien inguruko lurralde-kartografia bat finkatzea. Horrelako deuseztatze bat burutzeko behar diren tresna teknikoak transmititzeko herri-heziketaren dinamika bat ezartzea: alde batetik, arto industrialaren alternatibei buruzko nekazarien gaitasunak, eta, beste aldetik, borroka-mugimenduen partetik blokeatzearen, desarmatzearen eta okupatzearen erabilera egokiari buruzko deuseztatze-gaitasunak. Ikerketa eta herri-heziketa lan horrek bereizketa kultura eraikitzen lagun dezake, eta norberari tresnak eskaini arto industrialaren eta abeltzain txiki eta ertainek laboratutako artoaren, jateko artoaren eta baserri-fabriketara bideratutakoaren azpiegiturak ezberdintzeko. Deuseztatzea goitik, eta inola ere ez behetik, hasten den prozesu bat da. Artoaren sektorea deuseztatzea sektoreko erraldioen (Pioneer, Limagrain, Monsanto, etab.) ahuleziak estrategikoki helburutzat zehaztea da.
- Uraren eta lurraren sarbidea moztea: eragozteko udan, haien artoa urreztatzea, eta, neguan, ur-biltegi handiak betetzea. Ureztatzaile handien aurkako jazarpen juridikoa eta administratiboa handiagotzea. Lurraldeko estrategia bat ezartzea laborantza estentsibo industrialen mesedetan lurra metatzen duten enpresak handitzearen kontra.
- Fluxua blokeatzea: ekoizpen doituko produkzioaren une kritikoaren arabera errepideen, trenbideen eta portuen blokeo kanpainak kudeatzea. Oztopatzea ez soilik es-

portazioa, baita laborantza eremuetatik mendebaldeko baserri-fabriketara doan arto alearen garraioa eta metanizatzaileen kontsumo irensolea ere.

- Kate-maila estrategiko bakoitza geldiaraztea: ezegonkor- tzea aurreko eta osteko faseak, jarraipena, tratamenduak, uza, biltegitratzea eta banaketa. Adibidez, posible da hazi-ekoizle industrialen ekoizpena jatorrian suntsitzea. Arto-populazioaren haziak ereinez,¹²¹ hazi antzu baten hautaketa eta ekoizpen prozesua eragingabeak bihur ditza- kegu. Hazi antzu horiengan bilatzen den ezaugarri nagusia herbizidekiko eta fungizidekiko tolerantzia da. Ekintza txiki hori hamar, ehun, mila bider errepikatzea udaberriro. Nekazarien haziak ekoizteko baserri bolun- tarien sare batean sostengatzea, eta helburu horrekin ados dagoen banaketa sarea osatzea. Hazi-ekoizle industrialek ondasun guztiak galdu arte prozesua berregitea.

Indar harremanean atalase bat gainditzeko, ekintzen egu- tegi batetik *ikerketen eta ekintzen programa* batera igaro nahi dugu: nazio mailan sektore kaltegarri batean eragiteko antolatu, toki- ko garaipenetatik eta bat-bateko kolpe mediatikoetatik haratago dagoen etorkizun bat irudikatu, lerro bat markatu, bere arrastoa- ri jarraitu eta noraino garamatzan ikusi.

Deuseztatze terminoa¹²² ez dugu Bonnet, Monin et Landiva- rren⁷⁹ zentzu berean erabiltzen;¹²³ haiek CAC 40ko¹²⁴ enpresei eta botere publikoei «birbideratze ekologiko» baterako aholku ugari ematen baitizkiete. Gu deuseztatzearen ikuspegi teknokratikoa- ren aurka gaude, «trantsizio ekologikoa» izenpean, enpresen beren produkzio-tresnaren berregituraketa gisa ulertuta. Bistan da kapitalismoak ez duela gure beharrik industriaren alde guz- tiak deuseztatu eta deslokalizatzeko, egin izan du jada. Guretzat

121 Arto-populazio bat nekazariak hazi-ekoizle industrialen kontrako irizpideen arabera aukeratzen eta ugaltzen duten bariatatea da. Irizpide horiek honako hauek dira: landareen hotzarekiko erresistentzia handiagoa, zeinak sargai gabeko laborantza errazten duen, lursail txikietara egokitzeko gaitasuna, eta ekoizleen autonomia finantzarioa eta teknikoa.

122 [I.o.] Jatorrizkoan «démantèlement».

123 Emmanuel Bonnet, Diego Landivar eta Alexandre Monnin, *Une écologie du démantèlement*, Divergences, 2021.

124 [I.o.] Parisko burtsako indize nagusia da (*Cotation Assistée en Continu*).

deuseztatzeak ez du hutsetik hastea esan nahi. Egiturak desegiten eta beren erabilera eta funtzioa aldatzen duen prozesu bat da, beti ondo kokatuta eta biztanleekin eta langileekin elkarlanean.

Deuseztatzeak zerbait ezerez bihurtzea esan nahi du, eze-reztea.¹²⁵ Frantzian, XVI. mendean «démantèlement» terminoak (deuseztatzea) hiri eta herrietako gotorlekuak suntsitzea esan nahi zuen. Agroindustria kapitalismoaren gotorlekutzat dugu, eta hura deuseztatzea setio modukotzat. Zenbait puntutan amore emanarazteko, eraso-angeluak eta ofentsibak biderkatu nahi ditugu, jazarpen multilateral moduko bat burutu, antzina Txinako Harresian edo Erromatar Inperioaren limesean gelditu gabe inguruan ibiltzen ziren barbaroek egin zuten bezala.

Setio hori hasi da honezkero, albo askotatik. Badago, alde batetik, lurraldearen borrokarena: ur-biltegi handien kontrakoak, baserri-fabriken kontrakoak, metanizatzaileen kontrakoak... Teknika toxikoen borroka ere bada: GEOen kontrako ekintza zuzena, pestiziden aurkako errekurtso juridikoak edo isilka goratuz doan baserrien robotizazioaren eta zenbakitzearen erresistentzia. Nekazarien sindikalismoarena ere bai: lurren metaketaren eta merkataritza askearen akordioen kontrakoa, eta nekazariak landa eremuan kokatzearen eta diru-sarrera duinaren aldekoa. Elikadurarena ere bada: hornidura-sareen eta elikagaien gizarte segurantzako tokiko formen esperientziak biderkatuz.

Harresi barnetik egindako borroka guztiak ere badaude. Agroindustriako langileen borrokak baldintza hobeen eta ordainsari hobearen alde. Baserritarrek tentuz egiten duten lana beren bizilagun nekazariak ibilbide teknikoetara bihurtzen, eta hala, agroindustriaren produktibismoak markatutako bideetatik aldentzen dituzte. Ingeniari agronomoek lana uztea, modu horretan, arrakasta sozialaren eta hondamendiaren kudeaketaren bide markatua uzten dute. Baina ez lan uzteak areagotzeak, ez esperientziazko alternatiboak areagotzeak, ez borrokak ugartzeak, ezin dute *beren kabuz* erabateko iraulketa eragin. Iraulketa hori erresistentzia-foku horiek guztiak estrategia baten inguruan koordinatzeko aukeran datza. Sakabanatu gabe banatzearen inguruan. Gure indar guztiak pitzatzen ari den eta kolokan dagoen

125 [I.o.] Jatorrizkoan, *Démanteler veut dire – littéralement – « ôter le manteau », mettre à nu.* (deuseztatzeak –literalki– «berokia kentzea» esan nahi du, biluztea).

horma-zati batean biltzean, gotorlekuaren beste milaka puntuetan berriz barreiatzeko.

Irauteko, industriaguneez etengabe azeleratu behar dute. Gure helburua dezelerazioa behartzea da. Logika espansionistak eta itxitura berriak astintzea. Etorkizunean, lurralde osoko ur-biltegi handiei buruzko proiektuen luzamendua lortzeko ahal den guztia egiteak, agroindustriaren biziraupenerako funtsezkoa den teknologia neutralizatzea esan nahi du. Hori lortzeko sektore osoa erabat ezegonkortzea ekarriko du. Hortik dator Estatuak amore emateko duen errezeloa. Hortik dator tematzeko beharra, baina baita beste ahulgune batzuk jakitera ematekoa, beste arrakala batzuk irekitzekoa, eta edonon, helduleku egoiak aurkitzekoa ere, lurrian barne. Eta, beraz, geldiarazteetatik luzamenduetara, eta luzamenduetatik bertan behera uztera, deuseztatzearen hastapenak zirriborratzen dira.

Hainbat intuiziok oinarritzen dituzte agroindustria deuseztatzeko gure estrategiak. Hasteko, agroindustriak berreskuratu nahi ditugun lurrak metatzen ditu. Bigarrenik, teknikoki irisgarriagoa da beste sektore batzuk baino, hala nola industria estraktibista edo nuklearra. Nekazaritzak, izan ere, azkar berreskuratzeko potentzial handia du. Batez ere, baseritar txiki eta ustiatzaile ertain askok nekazaritzaren inguruko gaitasun baliotsuak dakizkitelako eta mantentzen dituztelako. Azkenik, agroindustriak oinarritzeko behar bati erantzuten diolako: elikadurari. Gure autonomia berreskuratzeko lehen urratsa gune horretan gure mendekotasun kateak hausten hastea da.

Duela gutxiko bi gertakarik gogorarazten digute zenbateraino den eraginkorra agroindustriaren gotorlekua altxamendu garrantzitsuei eusteko. Gertakari horiek 2017an Guyana-n gertaturiko matxinada eta Jaka Horiek 2018an Réunion-en egindakoa dira. Indar handiko bi mugimendu, blokeo masiboengatik ezagunak. Bi kolonia frantses horietan gertaturikoak gure mendekotasunen ispilu lana giten digu.

Portuaren, aireportuaren eta errepide nagusien blokeo eraginkorrak erabat paralizatu zuen bi lurraldeen ekonomia. Paralisi hori are azkarragoa da, enklabe kolonial bat erraz isolatzen delako merkatu globaletik; izan ere, metropoliaren inportazioen mende dago guztiz, eta horiek guztiak azpiegitura horietatik igarotzen dira. Baina errepresio polizialak baino

gehiago, propaganda mediatikoak, ministroen imintzioek eta taktikoki baimendutako papurrek baino gehiago, barrikadak altxatzea eragin zuena supermerkatuetako apal hutsek sortutako bertigo partekatua izan zen. Hausnar dezagun Guyanako Gazteria Autoktonoaren (JAG, jatorrizkoagatik) bozeramaileak ateratako ondorioari buruz: «Nola eskuratu autonomia politikoa ez baditugu hura lortzeko baliabide materialak?».

Elikatu ez zaituenak ezin dizu ezer eskatu. Eta, hala ere, hemen gaudе, egunero, urtero, geure burua elikatzen, eta «behera inperialismoa» oihukatzen. [...] Eta batzuek inperialismoa non dagoen galdetzen dute? Begiratu zuen platera jaterakoan. Inportatutako arroz, arto eta artatxiki aleak, hori da inperialismoa, ez da urrunago joan behar.¹²⁶

Thomas Sankara

Agroindustriaren deuseztatzea autonomia-politikarako esperimentazio esparru bat bihurtzea proposatzen dugu. Zailtasun sakonak ukatu gabe, lur aberatsa da ofentsiba eta alternatiba konbinatzen dituen mugimendu bikoitzerako, zeinak batzen dituen gure elikadura beharren kontrolaren berreskurapena eta agroindustriaren aurkako borroken bateratzea. Ez da egongo guda handi bat agroindustria «hartzeko», jacqueriek¹²⁷ jauntxoek gazteluak, sans-culotteek¹²⁸ Bastilla eta boltxebikeek Neguko Jauregia hartu zituzten bezala. Guretzat, agroindustriaren deuseztatzea ikuspegi estrategikoa eta politikoa da, baita kontu teknikoa ere.

Ikuspegi horrek beraz, ikasketa oso zehatz bat behar du. Zalantzarik gabe errepikatzen dugu: kontua ez da inondik inora ere makinei uko egitea printzipio antimodernoengatik. Ez dugu azpiegitura moderno guztiak modu frenetikoan deuseztatzeko deia egiten. Ez gatoz bat «teknika» gaizkiaren erabateko iturri bihurtzen duten teoriekin. Teknika toxikoak autonomia baliabide bilakatzeko herri gaitasunetan sinesten dugu.

126 1986ko martxoaren 30etik apirilaren 4ra Iraultzaren Defentsarako Batzordeen Lehen Konferentzia Nazionala zela eta emandako hitzaldia.

127 [I.o.] 1358. urtean Frantziako ipar-ekialdean jauntxoek gehiegikerien aurka piztu zen nekazarien matxinada. *Jacquerie* hitzak nekazari matxinada adierazten du ordudunik Frantzian.

128 [I.o.] Frantziako Iraultzan, *sans-culotte*-ak behe klaseko militante erradikalak ziren, burgesiako, aristokraziako edo errege-familiako kide ez ziren jende arrunta.

Horretarako, asmamen gaitasuna erakutsi behar dugu kontu oso zehatzei erantzuteko asmoz. Nola zatikatu ehundaka hektareako baserri bat besterengarria izan dadin? Nola blokeatu zerealak masiboki esportatzen dituen portu bat proiektu agroindustrialei presioa egiteko asmoz? Nola eraldatu artoaren monolaborantzan zentratutako lautada ustiapen bat polilaborantzako abeltzaintza baserri batean, ur fluxu guztia bertan birmoldatuz? Nola sartu SAFER edo CDOA¹²⁹ batzordeetan erabaki arbitrarioak oztopatzeko? Nola inbaditu nekazaritza-teknologiaren laborategi bat? Nola jaso urtero biltzen ez diren fruta tonak eta zuku bihurtu industriaurreko prentsak birgaituz? Nola gelditu baserri-fabrika batera doan kargamentu bat? Nola indarberritu pobretutako lurra? Nola hondatu arto industrialaren soro bat arto populazioa ereinez? Nola fabrikatu eta konpondu norberak bere makinak eta tresnak?

Eraiki nahi dugun desegitearen eta berregitearen arteak harremanak ezartzea eskatzen du jakintzak eta teknikak —deslortzeko ikuspegi sinesgarriak irekitzen dituzten gakoak— dituzten pertsona guztiekin. Azpiegitura toxikoak gure beharren, lan etikaren eta bizidunon nolabaiteko arretaren arabera aldatzeko eta zapuzteko jakintzari buruzko politika luddita moduko bat. Deuseztatzea ez da ikuspegi teoriko bat, eskulana da. Iritsi da gure lan-jantziak eta lohihartzekoak¹³⁰ janzteko, mahukak biltzeko eta gure tresnak heltzeko hastear dagoen obra handi honetan parte hartzeko.

129 SAFER: Sociétés d'aménagement foncier et d'établissement rural («Lurralde-antolaketa eta landa-kokatzeko sozietateak»); CDOA: Commissions départementales d'orientation agricole («Nekazaritza-orientaziorako departamenduko batzordeak»). Erakunde horien eginkizuna «Mahukak jaso: lurra berreskuratzearen hipotesia» kapituluaren dago azalduta.

130 [I.o.] Gorputz osoa estaltzen duen pieza bakarreko jantzia da, Hego Euskal Herrian, gaztelaren eraginez, *mono urdina*, *overola* edo *buzo urdina* ere esaten zaio.

BYE-BYE BAYER, CIAO MONSANTO!

Bigarren Mundu Gerraren amaieran, lehergailuak eta gas itogarriak egin zituzten industriak berrantolatu egin zuten beren ekoizpen-lerroa ongarriak eta pestizidak ekoizteko. Hain zuzen ere, sektore militar-industriala izan zen agroindustria sortu zuena, zeina gaur egun Bayer-Monsanto, Zyklon B aliantzak eta agente laranja osatzen duen.

«Iraultza berde» horren emaitza? Lurrak pozoituta eta polinizatzaileak sarraskituta geratu ziren. Baina agroindustriek haiek eragindako hondamendiaren konponbidea zuten. GEOei ekin zieten landareak lurreko baldintza kaltetuekiko eta sargai kimikoekiko erresistenteak izan daitezten. Segalari boluntarioek eta Confédération paysannek Monsantoen aurkako borroka go-gorra hasi zuten.

2018an erosiak, Monsantoen ekintza ekozidak Bayerren Cropscience adarrak xurgatu zituen. Munduko multinazional gorrotatuenaren izena desagertzeko aukera bikaina: Monsanto gehiagorik ez! Baina Roundup-en ekoizpenak bere horretan jarraitzen du. Baita eragiten duten intsektu polinizatzaileen desagertzea ere. Ezin diegu trikimailu hau erabiltzen utzi. 2021eko martxoaren 19an, Bayerreko lobbyak neonikotinoideak Europar batzordearen sarrarazteko Europako Parlamentuan lanean ari ziren unean, XRek berebiziko ekintza antolatu zuen.

Berrehun aktibistak Bayer-Monsantoren Lyoneko egoitza sozial frantsesa hartu zuten. Arin-arin desagertu baino lehen, etxabeko hormak espraiez margotutako esloganez bete zituzten eta altzariak hankaz gora jarri. Inolako komunikatuen arrastorik ez egunkarrietan, Bayerren zipitzik ere ez, ezta samintzeko ere, eta ondorio judizialik ere ez. Arratsalde horretan bertan, dena txukunduta zegoen, hormak berriz margotuta eta jai eman zieten langileak biharamunean itzul zitezkeen. Bayerrek, prefeturarekin eskuz esku, istorioa isilarazi zuen: erabateko isiltasuna.

Gertaera horren ostean, buelta bat eman genuen auzoan: «Ba al dakizu alboko bizilaguna Vietnameko agente laranja dela, korbatadun dotore hori, hura da Roundup hartzeagatik Indian nekazariak bata bestearen segidan suizidatzearen erruduna, ha-

ren Bt kotoia herrialdean sartu ostean. Hura da PCBen,¹³¹ GEOen, hazkunde-hormona transgenikoen, Terminator genearen, txosten zientifiko faltsifikatuen eta abarren erruduna».

Lurraren Altxamenduak mugimenduarikin pozoitze horiek eragindako giza-ondorio tragikoen argazkiekin bete ginituen auzoko hormak. Eta milaka pertsonak parte hartu zuten manifestazio bat antolatu genuen.

Segalari boluntarioek ere parte hartu zuten, noski. Belau-naldien arteko talka txikia komunikatzeko bideei buruz ados jartzean: ordenagailuak, mugikorrek edo postaz, garai batean bezala? Une honetako osaketa politikoan, hiriko gazteak eta sindikalistak, nekazariak, baratzezainak eta erlezainak elkartzen dira, zeinak duela hogeit bat urtetik, Frantzia osoan GEOak erazuteko jarduera osasungarrian diharduten.

Giroa berotzeko, 2022ko martxoaren 5eko manifestazio handiaren aurreko hilabetean, ekintza deszentralizatuak egiteko deia egin zen. Horri erantzuteko, otsailaren 2an Carbon Bee *startup*era bisita bat antolatu dugu. Negozio horrek traktoretan edo dronetan jartzen diren sentsore hiper-espektralak dituzten kamera adimendunak garatzen ditu. Makina horiek Roundup-en jaurtiketa zehatzak egiten dituztela ziurtatzen dute, belar «txarrrak» bisualki antzematearen bidez. Glifosatoa saltzen jarraitzeko aukera bikaina eta abian den azken nekazaritza-iraultzaren adibide ezin hobea: agroteknologia.

Beste behin ere, kultura politikoek talka egiten dute: alde batetik, antolaketa milimetrikoaren nahia, bitartekoekin, banatutako eginkizunekin, etab. Beste aldetik, plan sendo bat: harea joan, bertan sartu eta beren lanaren inguruan gaizki dagoela uste dugun guztia azalduko diegu. Tonua igotzen bada, ardo botila bat eta gazta jarriko da mahai gainean, eta eztabaidan jarraituko dugu! Ados... Beno, saia gaitezen. Azkenik, gainbehera da sektore izugarri arin eta desmaterializatu horren isla: «Karbonozko erlea»ren garatzaileek hilabete lehenago abandonatutako espazio ireki batekin egin dugu topo! Frustrazio hori konpentsatzeko, be-

131 [I.o.] Bifenilo polikloratuak (PCB) konposatu organokloratuen multzoa dira, eta 1929an hasi zen lehen aldiz ekoizten Monsanto enpresa. Toxikoak dira, bizidun askorentzat hilgarriak eta pertsonen hainbat asalduren sortzaileak (dermatitisa, gibel-arazoak eta abar). Kartzinogenoak ere badirela uste den arren eta nazioarteko itunek nahita ekoiztea debekatzen duten arren, PCBen kantitate esanguratsuak «oharkabeen» ekoizten jarraitzen da.

tiko administrazio frantses on baten bulegoetara goaz okupazio azkar-azkar bat egitera...

2022ko martxoaren 5a, manifa eguna. Ordu bietan, 4.000 inguru gara egoitza sozialetik gertu gabiltzanak. Koktel alai bat da: Confédérationoneko nekazariak, mota guztietako ekologistak, antifak, ileurdinak eta gazteak txandalean. Baina, ezustekoa! Goizean beste nonbait ginen... Handik 60 kilometrora, Bayerren pestizida lantegi bati oldartu gatzazkio. 400 pertsona inguru, lan-jantzi zurietan kokapen horretan sartzeko prest, hura desarmatzeko. Villefranche-sur-Saône herriko kaleetatik korrikaldi epiko baten ostean eta biztanleen begirada harritupean, lantegiko burdin sareak bota ditugu. Baina jendarme mugikor pilak gas negar-eragile eta gomazko pilota kolpez bultza gaituzte atzera. Gelditutako lantegiaren bi orduko jazarpenaren ostean, trenbide ondoko horma modu sinestezinean eskalatu ondoren, bi gasolindegiren fatxada zaharberritu eta polizia-furgoneta bat txikitu ondotik, taldeak sakabanatu egin dira.

Aurretik, luze eta zabal komunikatu dugu egoitza sozialaren lekualdaketa, lantegiaren desarmatzea buruan dugarik. Baina segurtasun-indarrak ustekabeen harrapatzeko eta sakabanatzeko distrakzioa ez da nahikoa izan. Eskualde osoko Bayerren kokapenak jendarme mugikorrekin beteta zeuden!

Ezusteko txikien jokoan, segalari boluntarioek lortu dute tantoa egitea. Ekintzaren data baino egun bat lehenago, BASFen lantegia hartu zuten. Beren herritarren ikuskapena eskasegia izan daiteke, baina antolaketaren aldetik duen opakutasuna izugarri eraginkorra da.

P4 laborategi batekin (Wuhanekoaren matrizea), Monsanto-Bayer laborategi batekin eta enpresa bioteknologikoen kluster batekin, manipulazio genetiko Lyongo metropolian burutzen den negozioa da. Ausardia eta energia falta izan ziren ekintzaren egunean abentura gehiago gehitzeko, beste ezusteko ekintza batzuk aurreikusteko. Ordainetan, agrokimikaren industriaren kontrako manifestazio publikoa eta ezusteko ekintzak nahasten zituen segidak lerroburoetara jauzi egin zuen. «Jalgitzen ikasi» lelopean, jardunaldi horrek itzultzeko gogo sortu zuen. Kokapena blokeatu genuen, baina ez genuen lortu desarmatzea.

«Lantegiaren bila itzuliko gara!» zioen grafitiak ondo adierazten zuen bai amaitu gabearen sentipena bai Seveso kokapen horien kontra jarraitzearen erabakitasuna.

KONFRONTAZIOAREN PARADOXA

Gure hipotesi politikoez nahitaez konfrontazio moduren bat dakarte berekin. Hormigoia desarmatzea, agroindustria deuseztatzea, lurra berreskuratzea, ezinbestean, baliabide guztiekin gu galaraztea erabakita dagoen Estatu baten aurka jotzea da. Konfrontazio asimetriko horrek hainbat paradoxa eta kontraesan dakartzigu, zeinak gai etikoak eta estrategikoak sakon zalantzan jartzea eragiten duten.

Indarkeriarik gabeko desobedientzia zibila gainditzea

Europar mugimendu iraultzaileek behea jo zutenetik, «indarkeriarik gabeko desobedientzia zibila»ren ideologia hedatu egin da. Joera horrek bakealdi bati erantzuten dio. Haustura bat adierazten du 1970eko hamarkadarekin; izan ere, urte horietan izan ziren istiluen ugaritzeak, nagusien bahiketak zituzten grebak eta borroka armatuaren bidea hartzen zuten taldeak.

«Indarkeriarik gabeko desobedientzia zibila»ren kontzeptua Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen. Henri David Thoreau-k teorizatu zuen eta aho betez desobeditzean datza, ez helburu pertsonalekin, baizik eta desadostasun etiko sakon bat adierazteko eta aldaketa juridiko bat eragiteko. Desobedientzia praktikatzaileek legea haustea zuzenbidearekin justifikatzen zuten. Beren ekintzen epaiketa penala nahi eta eskatzen dute. Estrategia erreformista horrek «ekintza judizialen» bidez aldaketak eragitea bilatzen du, nagusiki.

Henri David Thoreauk uko egiten zion zerga pagatzeari uste baitzuen esklabotza Ameriketako Estatu Batuetako Konstituzioaren kontrakoa zela. «Gau bat igaro zuen kartzelan», baina «biharamun goizean, haren izebak haren ordezkari [zerga] ordain zezan utzi zuen».¹³² Hannah Arendtek erakusten duen moduan, istorio horrek adierazten du «indarkeriarik gabeko desobedientzia zibila», oren gainetik, kontzientzia kontua zela. Thoreauk idatzi zuen «bere eginbeharra gutxienez esku garbiak izatea» zela. Arendtek dio: «Kontzientzia neure buruarekin dudan harremana da, politika, aldiz, elkarrekiko dugun harremana».

132 Hannah Arendt, «Civil Disobedience», The New Yorker, 1970. Jarraian dauden Hannah Arendten aipu guztiak testu horretakoak dira.

Nabarmentzen du: «Kontzientzia apolitikoa da». Haren agindu indibidualak «ez dituzte ekintza printzipioak adierazten, baina gure egintzek zeharkatu beharko ez lituzketen mugak ezartzen dituzte». Politika ez da moral indibidualaren kontua, baizik eta ekintza kolektiboarena. Ekintzari zentzua eta norabidea ematean datza, ez soilik mugak ezartzean.

Baina indarkeriarik gabeko desobedientzia zibila ez da morala bakarrik. Alderdi taktiko bat ere badu, eta haren oinarria edozein motatako konfrontazioak saihestea da. Aldaketa demokratiko baten itxaropenak animaturik, erakundeekin elkarrizketa bat izateko nahia erakusten du, baita iritzi publikoarekiko nola-baiteko errespetagarritasuna lantzekoa ere. Horrez gain, ez du sinesten indarraren bidez egiturazko aldaketak lortzean. Aldaketa pragmatiko gisa agertzen da errepresioa saihesteko eta emaitza hobeak eskuratzeko. Hori da euskal ezkerreko erakundeek, hala nola Bizik edo Alternatibak, defendatzen duten ildo, independentziaren aldeko borroka armatuak amore eman ostean. Larzaceko nekazari gehienen ildo ere bada. Ez da, ordea, gurea.

Indarkeriarik ezaren jarraitzaileen artean, malguenek aniztasun taktikoaren ideia onartzen dute. Lurraren Altxamenduen ekintzetan parte hartzen dute. Irmoenek, aldiz, uste dute indarkeriarik eza dela ez soilik moralki zuzena den ekintza-modu bakarra, baita estrategia eraginkor bakarra ere. Ideologian erantzuteko metodo horren gauzatzea irudikatzen dute. Borroka sozial, feminista, antikolonial eta antirrazisten irakurketa historikoki desegoki batean oinarritzen dira. Guk baino lehen beste askok azaldu izan dute nola «indarkeriarik eza»ren guruek ahazten duten zer garrantzitsuak izan ziren sufragetteen borrokan lehergailuak eta jiu-jitsuak.¹³³ Mandelaren mitoaren atzean estaltzen dute apartheidaren aurkako borrokan ANC-k¹³⁴ armak eta sabotajea erabili izana. Gure borroken genesi historikoa isila-

133 Elsa Dorlin, *Se défendre, Une philosophie de la violence*, La Découverte, 2017.

134 Umkhonto we Sizwe (MK) 1961etik 1991ra, Afrikako Kongresu Nazionalaren (ANC) eta Hego Afrikako Alderdi Komunistaren atal militarra izan zen. Sharpevilleko sarraskiaren erantzun gisa sortu zen, eta bere izenak hitzez hitz «Nazio baten lantza» esan nahi du. Sabotaje-kanpainak, *township*etako (Hego Afrikan, apartheidaren garaian beltzak baztertuta bizi ziren gunea) polizia-etxeen eta azpiegitura militarren aurkako eraso armatuak eta atentatuak egiten zituen. Nelson Mandelak sortu eta zuzendu zuen luzaroan.

razten dute, baina nekazarien matxinaden amorruan eta langile mugimendu iraultzailearen barrikadetan dute jatorria. «Indarkeriarik eza»ren ideologia justifikatzeko historia berriaztea ez al da, hain zuzen ere, zerbait izugarri basatia?

Gutako bakoitzak, bere sinesmen, historia eta sentsibilitatearekin, harreman berezia sortzen du indarraren erabilerarekin. Arrazoi etikoengatik indarkeriarekiko guztiz herabe izatea ez da batere desohoragarria. Baina konfrontazio formen alde dauden horien joera ere ez. Ekologismo kontsekente bat eraikitzeko, «indarkeriarik gabeko desobedientzia zibila»ren bertsio ideologikoarekin amaitu nahi dugu. Estrategia kolektibo eraginkor eta moralki bidezko bakar bihurtzen duen burugogorkeria garbizaleari, amorruaren eta konfrontazioaren dimentsio soziala ulertzeko borondatearekin egiten diogu aurre.

Gatazkak politikara itzultzen ari diren honetan, Lurraren Altxamenduak mugimenduaren agerpenak indarkeriarik ezaren ildoak hankaz gora jartzen lagundu du, eta ekologismo politikoa- ren alorrean haren hegemonia hausten. Altxamenduen ekintza guztietan, osagarritasun taktikoko moduak helburu estrategiko komun batzuen zerbitzura erabiltzen ditugu. Uko egiten diogu gure erresistentziak Mendebaldeko klase ertainaren bizimodu baketua islatzen duten ekintza moduetara mugatzeari. Indarkeriarik ezaren ideologiak «ongia» eta bere etika burgesa nahasten ditu, bidenabar, mundu osoan zehar eginiko herri protesten bidezko bortiztasuna gutxietsiz. Ez al da logikoa klase aberatsetakoak izatea batez ere bide baketsu eta legeetik «sistema barrutik aldatzea» posible dela uste dutenak? Ez al dira pribilegio batzuk eduki behar lasaitasunez norbere gorputza Poliziari eta norbere askatasuna epaileei entregatzeko?

Gogora dezagun 2019ko martxoaren 16a, XVIII. egintza. Frantzia osotik etorritako Jaka Horiek Eliseo Zelaien hiribidea hartu zuten berriz. Saltoki handiak lapurtuak dira manifik «iraultza» oihukatuz polizia bultzatzen duen bitartean. Anartean, kilometro eskasetara, klimaren aldeko martxa modu baketsuan dabil Parisko kaleetatik. Abestiak eta kantikak jendetasunez oihukatzen zituzten Eliseo Zelaietako aldarri sutsuen kontrako norabidean zihoan ibilbide zehaztu batean zehar. Bi manifestazioen arteko kontrastea ikaragarria zen. Bi munduk el-

karri entzungor egiten diote. Bai bateko bai besteko batzuek nahi duten arren, ez dira elkartuko.

Lurraren Altxamenduen desiretako bat da elkartzea esplotazio ekonomikoaren eta arrazagatiko diskriminazioen ondoriozko gizarte amorrua eta munduaren amaieraren ukatzea. Hori aginduak biderkatzen dituen ekologismo moralarekin erabat apurtzean hasten da: eguneroko ekintza txikietatik kontsiderazio politiko-estrategiko handietara. Ezinbestekoa da jarrera hori alde batera uztea, klase herritarren praktikak eta igortzen duten amorrua ez estigmatizatzeke; 2018an Jaka Horien eta 2023an, Nahelen erailketaren ostean, bazter auzoetako gazteen amorru periferikoaren zilegitasuna onartzeko.

Irmoki uko egiten diogu Estatuaren indarkeriaren erabile-ra hura jasaten dutenen erantzunarekin alderatzeari. Ekintzak beren esanahiarengandik bereiztea gobernuaren operazio bat da bere ekintza ahalmenaren monopolioa bermatzeko. Zoritxarrez, indarkeriarik ezaren ideologia maiz heldulekua da politika honentzat, borroka mugimenduetatik datozen ekintzen «gaitzespenaren» bidez.

Estatuaren diskurtsoak uko egiten dio «polizia indarkeria» terminoa erabiltzeari, baina sistematikoki jotzen du «biolentotzat» kalte material txikiena, legez kontrako gauzarik txikiena... Ekintza horiek helburuzko aliatuek egiten dituztenean izan ezik! Keinuen suhertasuna eta ekintzen intentsitatea baino gehiago, Estatuak «biolentziari» ematen dion tratu bereziaz bortxa baliabidetzat dutenekiko duen adostasun-mailaren araberakoa da. Halaber, Poliziaren edo FNSEaren manifestazioen errepresioak ez du zerikusirik Jaka Horienarekin, pentsioen erreformaren aurkakoekin edo langile auzoetako gazte iraultzaileenarekin. Tratu ezberdin hori hain da traketsa, erridikulua dela. Estatuak «amorrutzat» jotzen ditu Comité d'action viticole ausartaren lehergailuak eta «ekoterroristatzat» ur-biltegien olanak mozten edo zementu-fabrikak desarmatzen dituztenak.

Konfrontazioaren fetitxismoari uko egitea

Bidezko defentsa erabiliko dugu soilik hura erabiltzeko beharra alferrikako bihurtzeko helburuz. «Indarkeriaren dialektika» bat da.

Gunther Anders, *Gewalt: Ja oder Nein. Eine notwendige Diskussion*

«Indarkeriarik ezaren» ideologiari uko egiten badiogu, «indarkeria» bera idealizatzeari eta harekin amets egiteari ere uko egiten diogu. Estatu errepresiboak hutsetik hasita eraikitzen dituen irudiek ez bezala, gu ez gaitu mugiarazten borroka armatuaren tentazioak. Baina, batzuetan, «indarkeriarik gabeko desobedientzia zibilaren» dogmaren erreakzio gisa, konfrontazioa fetitxe bihurtzeko joera azaleratzen da. Indarkeriak intentsitate modu bat sortzen duenez, lilura sor dezake. Ez gara fidatzen Poliziarekiko konfrontazioa borrokarako modu eraginkor bakartzat izateari balio handiegia ematen dion joeraz. Ez gara konfrontazioa idealizatzen duten horietakoak. Muturreko polizia indarkeriak arrasto handiak eragin dizkigu; zauriak, mutilazioak, hiltzeko moduko kolpe eta traumatismoak, heriotza-mehatxuak granada bakoitza lehertzean.

Indarkeria ez da ez sakratua ez tabua. Benetako hausnarketa estrategikoa garatzea eragozten digu taktikak, kosta ahala kosta, printzipio moral eta ideologia politiko bihurtzeko nahiak. Irakurterrazak eta gobernagarriak bihurtzen gaituzten automatismoak finkatzen ditu. Mikrokosmos txikietan bereizten gaitu eta aliantza egonkorrak oztopatzen ditu. Taktika guztiak bezala, «indarkeriarik gabeko desobedientzia zibila» edo «bloke beltza» helburu etiko eta politiko ugarirekin erabil daiteke. Zenbaitetan, egoera bati ongi egokitzen zaizkio eta, beste batzuetan, beste egoera bati erabat gaizki. Batzuetan, elkarren aurka egiten dute eta, beste batzuetan, elkartu egiten dira. Taktika baliabide sorta bat da. Estrategia baliabide horiek helburu jakin batekin koordinatzeko artea da. «Ez biolento» edo «biolento» gisa definitzea, estrategikoki pentsatzea galaraztea da eta gure ildo etikoei buruzko beharrezko eztabaida pobretzea.

Kezkatzen gaituen galdera ez da ekintza hori, teorian, biolentoa den edo ez jakitea. Baizik eta nola egin behar den indar harreman hain asimetriko hori iraultzeko. Aurre egiten diegun indarrek ez dute batere zerikusirik gureekin. Ez dugu inongo

pisurik agroindustriako eta hormigoiaren sektoreko multinazionalen aurka. Gure baliabideak barregarriak dira indar guztiaz babesten dituen eta leporaino armatuta dagoen Estatu errepre-sibo baten aurka. Erabiltzen duen indarkeria fisiko, sozial eta sinbolikoaren maila neurtezina da gure borrokekin alderatuz. Gure egoera Davidek Goliaten aurka zuenaren antzekoa da; Da-viden armak oinarritzkoa izan arren, erraldoia garaitzen baitu.

Autodefentsa eta ekintza zuzeneko praktikak izenda-tzeko, Françoise d'Eaubonnek «kontrabiolentzia» kontzeptua baliatu zuen. Bere esanetan, taktikarik onena askotariko gerrilla irudimentsua da, zeinak egoerari egokitutako askotariko bitar-tekoak mugiarazten dituen. «Greba masibo bat, sabotaje orokor bat, bahiketa anizkun bat, iseka teknika ikusgarri bat» borro-karako buruz buruko baliabideak bezain egokiak izan daitezke. Eta, maiz, idazten zuen: «Alde batetik, ezinezkoa da aukeratzea, eta, bestetik, batzuek balio dute hemen eta besteek han, eta kontrabiolentzia osatzen duten bitarteko biolentoak erabiltzeko ezintasuna berriz ere abstrakzioan eta ametsean erortzea da».

«Indarkeriarik ezaren» moralismotik ateratzea, ez da ino-laz ere gure arerioekin indar ariketan simetria umiliagarri eta eskuraezin bat bilatzea. Ekintzan, borroka armaturik gabeko ge-rrilla mota batera hurbiltzen den adimena bilatzen dugu, hau da, «ahuletik indartsura» borrokatzeko artea. Segurtasun-indarrekin konfrontazio asimetrikoa noizbehinka mehatxatutako lurralde bat, manifestazio bat, antolaketa leku bat, greba pikete bat edo okupazio bat defendatzeko premia da. Egoera jakin batzuetan palanka bat izan daiteke: eten beharreko obra batera, desarmatu beharreko makina batera, inbaditu beharreko botere-leku batera iristeko.

Gure asmoa ez da jomuga gisa gorputzak eta pertsonak hartzea. Gure helburuak materialak dira. Gogoan hartzen dugu soilik borroka batean indar harreman uneak daudela, eta, ho-rietan, jendarmeen lerro bat zeharkatzen eta barrikada bat mantentzen jakin behar dela. Printzipioengatik konfrontazioa-ren aukera bera baztertuz borroka egitea, aldez aurretik uko egitea da. Ildo horretatik, «indarkeriarik gabeko desobedien-tzia zibilaren» zati ez hain ideologikoentzat, gure ekintzak «ez biolentoak» dira, kategorizazio hori arbuaitzen dugun arren. Portaera hori defendatzen duten talde ekologistek ondasunen

eta pertsonen bereizketa argia egiten dute. Ez dute Lurraren Altxamenduak mugimendua gaitzesten. Suntsiketa eta desarmatzea beren ekintzen katalogoan sartzen dituzte. Ez dute uste «ondasunak pertsonak bezain garrantzitsuak» direnik, Gérald Darmaninek parlamentuko ikerketa batzorde aurrean baieztatu zuen moduan.¹³⁵ Sainte-Solineko martxoak 25ari buruzko adierazpen basati horrek egia latz bat eman zuen jakitera. Salgaien fetitxismoa eta jabetza pribatuaren sakralizazioa gorputzen eta bizitzeko kosifikazioa baino ez dira. Poliziak eta mundu honetan ordena mantentzeak ez bezala, gu ez gaitu gorputzak kontrolatzeko eta menperatzeak animatzen. Ministroak obra batzuk defendatzeko segurtasun-indarrei hiltzeko eta mutilatzeko baimena ematea, kapitalismoaren antietikaren ondorio logikoa da.

Gure kontraesanekin osatzea

Lurraren Altxamenduak mugimenduarekin ekintzak egiten hiru urte eman ostean, hainbat paradoxarekin egin dugu talka. Gure ideia ez da hemen horiek konpontzea, baina merezi du haiek argi adieraztea gure antolatze modua hobetzeko eta esperientziak partekatzeko.

- Indarkeria ikusgarriaren paradoxa dago. Nahiz eta guk geuk ez izendatu geure burua «biolento» gisa, errepresioak eta hedabideek beti egingo dute guregatik. Gerta ahala gerta, legezko-tasunari jaramonik egiten ez diogunean, eta gure ekintzek —ondorio materialak direla-eta— interpelazio herritar eta sinbolikoaren eremu hertsia gainditzen dutenean, sistematikoki «biolentotzat» joko gaituzte. Diskurtso hori indartzeko, hedabideek borrokako kideren baten ahotik «gaitzespen» bat kosta ahala kosta erauztea bilatuko dute. Gure aliantzen elkartasuna gure konplizeek eskakizun horiek ukatzeko duten gaitasunarekin neurtzen da. Komunikabideak «indarkeria ikusgarriaren» ega-

135 2023ko martxoaren 16aren eta maiatzaren 3aren artean burututako manifestazio eta kontzentrazioen harira egondako biolentzia gauzatu zuten ekintza-taldexken egituraketa, finantzaketa, bitarteko eta modalitateei buruzko ikerketa batzordea, baita manifestazio eta kontzentrazio horien jarraipenari berari buruzkoa ere. Gérald Darmanin, Frantziako Barne ministroaren audientzia, 2023ko urriak 5.

rri dira. Eta hark ikusgaitasunaren aukera dakar berekin. Axolagabetasunetik aterarazten ditu lurralde borrokak. Kazetariak Frantzia osotik datoz inbasioaren berri ematera. Nazkatzen dituen era berean erakartzen ditu. Hortaz, galdera bakarra dute bueltaka: «Gaitzesten al duzue indarkeria?». Ondorioek ihes egiten diguten arren, ikusgaitasun horrek indar harremanen areagotzea ekarri ohi du maiz. Indarkeriarekiko komunikabideen lilura hori, funtsean, kaltegarria da, eta bertan ez erortzen saiatzen gara. Gure ekintzek zentzua izan behar dute beti beren kabuz, eta ez ematen duten irudiagatik. Hasieratik errealtatean izango duten eraginagatik eta eusten dituen borroka-komunitatea indartzeko gaitasunagatik pentsatzen dira, eta ez «indarkeria-
ren» taularatze gisa.

- Indar negatiboaren paradoxa dago. Indarkeria erabiltzea ia beti gaitzesten bada ere, urriak dira inolako konfrontaziorik erabili gabe beren helburua bete duten borrokak. Aurrez aurreko eta amorerik eman gabeko aurkakotasun batetik eta indar negatibo batetik datozen mugimenduak dira, sarritan, gobernuak makurrarazten dituztenak. Frantzian, Jaka Horien kasua adibidez. Herriaren babesarekin, haien oldarraldiak Eliseo jauregia dardararazi zuen eta erregaiaren zerga arrapaladan baztertu zen. Baina, paradoxikoki, indar negatiboak badu — hark ere— aurre egin beharreko muga bat. Tentsioa gehiegi igo denean, gobernuek partzialki ematen dute amore egoera berehala amaitu dadin. Esku batekin bakea ezartzen dute, bestearekin errepre-
sio biolentoa erabiltzen dute amore emanaraztera behartu dituzten ekintza moduak ez legitimatzeko. Indar harremanean nolabaiteko atalasea igaro ostean, lehen amore emateak lortu ostean, ez da erraza tinko irautea are gehiago lortzeko, eraldaketan haratago joateko. Estatua atzera egiten hasten denean da arriskutsuen. Erronka, beraz, prozesuarekin aurrera egitea da, baina konfron-

tazioaren areagotze batean erori gabe, indar errepresiboek mugimendua zeharo txikitzea ekar baitezake. 2023ko martxoaren 25aren ostean, ur-biltze-gien aurkakoborroka eta pakorapilatsuhonetan dago. Ameriketako Estatu Batuetan, George Floyden erailketaren ostean, Black Lives Matter mugimendua bat-bateko amorru uneak bizi izan zituen, non proletalgo beltz mordoak metropoli erdialdea arpilatu zuten. Nanterren Nahelen erailketaren ostean egondako istiluetan gertatu bezala, Estatu bake faltsua apurtu egin zen labur. Frantzia baino askoz gehiago, Atlantikoaz bestaldeko erakunde askok Poliziaren desfinantzaketa eskatzen dute, baita abolizioa ere. Hala ere, erakunde horietako ia inork ez ditu amorru ekintzak bere gain hartu. Kontrain-surgentziaren artea ekintza horiei beren esanahia ezabatzean datza, ekintza mutu bihurtzean, indar antolatuetatik bereizi eta, horrela, iritzi-mugimendu soiletara murrizturik geratzean.

- Ikusgaitasunaren paradoxa dago. Alde batetik, desarmatzeak, blokeoak edo okupazioak askotariko jendetzak eta egun-argitan egiteko deia zabaltzen dugu. Nola edo hala, gure ukitu pertsonala da. Horrek legea desobeditzea dakar, argi eta garbi eta denok batera. Ekintza horiek izugarri zabaltzen dituzte hedabideek, eta gaueko bat-bateko erantzunak inspiratzen eta legitimatzen dituzte. Lurralde osotik barreiatutako talde txikien ekimenez antolatzen dira.

Konfrontazioaren paradoxa

Bestalde, errefusatu egiten ditugu indarkeriarik ezaren sakrifizio-taktikak, zeinak oinarritzen diren apropos atxilotzen eta auzitegietara eramaten uztearekin, legea aldatuko delako us-tean. «Zeharo tamalgarria da hainbeste pertsona sinetsita egotea norbera sakrifikatzeke nahia dela konpromisoaren indarraren frogarik handiena».¹³⁶ Gure helburua ez da ahalik eta epaiketa gehien biltzea.

136 Hannah Arendt, «Civil Disobedience», *op. cit.*

Ikusgaitasunaren paradoxa gure elkarrekin eusteko nahi argia islatzen duen kontraesana da: alde batetik, ekintza egun-argitan egitearen izaera publikoa, eta, bestetik, errepresioaren aurrean anonimotasunaren babesa. Altxamenduen ekintza bakoitza ikusgaitasunaren eta anonimotasunaren artean dabil. Ikusgaitasuna beharrezkoa da gure erresistentzia ekintzak zabaltzeko, jeneralizatzeko eta argi adierazteko. Anonimotasuna halaber beharrezko babesa da etengabe areagotzen ari den Estatuaren errepresioaren aurrean. Gure manifestazioek beren izaera iheskor eta herrikoia gal ez dezaten, aurpegia estalita eta estali gabe doan jendea behar dute. Berezko zerbait izan gabe, bi agerpen mota horien bizikidetzak ikasketa prozesu bat da oraindik. Ikasketa horrek ekintzaren eta autodefentsaren kultura komun juridikoa eraikitzea eskatzen du eta oraino hasiberria da.

Gure ekintzen eremuaren erdigunea lekuan bertan dago, ez auzitegietan ezta batzarretan. Bidenabar, luzamenduak edo jurisprudentziak lortzea edo proiektuak bertan behera uztea kontu bat da. Are gehiago, oso garrantzitsua da gure jarduteko gaitasunean berriz konfiantza lortzeko eta ezintasunetik ateratzeko. Baina gure helburuak garaipen partzialetatik haratago doaz. Hondamendia antolatzen duen Estatu baten aurrean, gure ekintzek laguntzen dute legearen oniritzia eskasten, gobernu-autoritate ez-legitimo bat gainbeheratzen, obediencia ukatze masiboa sortzen.

– Frontaltasunaren paradoxa dago. Aldiro jendarme are gehiago dugunez zain, birritan pentsatu gabe hormaren aurka jotzeko arrisku handia dago. Paradoxa hau bereziki ukaezina da obra suntsitzaileen aurkako borrokei dagokienez. Nola egin aurka fisikoki lanei suntsiketa atzeraezinak eragozteko?

Hasi behar da obrak blokeatzera, inbaditzera eta desarmatuzera, erregulari eta denok batera joateko antolatzen jarraituz. Deux-Sèvresen, estrategia horrek emaitzak eman zituen Estatuak obrak gotorleku erasoezin bat bihurtzea erabaki zuen arte,

Italian, Susa haranean gertatu zenaren eredia jarraituz. Konfigurazio partikular horretan, dispositibo polizialak aurrez aurrekoratzen bultzatzen gaitu, eta hartaz aprobeixatzen da izua zabaltzeko eta masiboki traumatizatzeko.

2023ko martxoaren 25ean, Sainte-Solinen, eta Mauriennen aste batzuk geroago, kale itsu estrategiko horrekin

egin genuen topo.¹³⁷ Elkartze-puntu batean harrapatuta, manifestazioa etorkizunik gabeko konfrontazioa bihurtu zen, eta manifestari gehienak ikusle. Indarrak berritu eta kale itsu horretan ez harrapatuta geratzeko, hainbat bide esploratu behar dira: Poliziari aurre egiteko modu masibo, inklusibo eta ludikoekin esperimentatzen jarraitzea, zeinak dispositiboari gainezka egiteko gai diren; Sainte-Solinen, 2022ko urriaren 29an, farandolen espirituan finkatutako presentzia herrikoiak errepikatzea; eta gailua saihesteko oztopo naturaletara moldatzea, Mauriennen jarraigoak ibai bat zeharkatzeko giza zubia egin zuenean bezala.

Gotorleku horiek halaber, eta batez ere, obra haren perimetro hesituaz haratago pentsatzera gonbidatzen gaituzte, lurralde osoan zehar hedatzen den sekulako kate baten katebegitza hartzera. Sentipena aldatzeak masan mobilizatzeako modu berriak asmatzea eskatzen du, zeinak gai diren azken unera arte isilpekoak diren elkargune askotan milaka pertsonaren aldi bereko mugimendua koordinatzeko.

Beste aukera bat kokapenak okupatzeko bitartekoez lehenago hornitzea da, toki haiek buldozerren aurka defendatzeko. ZADen estrategia da. Azken urteetan aukera horren indarra eta mugak bizi izan ditugu. Lurralde oso txiki batean indarren kontzentrazio handi bat eskatzen du, erabateko konpromiso existentziala, une oro tokiko biztanleen zaintza eta arreta. Kanporatze-saiakeren aurrean erabakitazunez eustea dakar.

Estatuak, iraganeko akatsetatik ikasirik, kosta ahala kosta eragozten saiatzen da gaur egun okupazio iraunkorrek ezartzea. 2023ko urrian, A69 autobideko ibilbidean, Castres-eko «Cremzad»aren ia berehalako kanporatzea da adibide argiena. Hogeita lau ordu baino gutxiago iraun zituen. Estatuarentzat Notre-Dame-des-Landeseko porrota kolpe iraunkorra da oraindik. Horregatik, kanporatzeekiko erresistentzia hasieratik planteatzen da batzuetan, eta ez hura finkatu ostean.

Berri horrek okupazio motak aldatzera garamatza. Dela, adibidez, A69aren aurkako borrokan, obren perimetroan okupazio iraunkorrek ezartzen tematuz, dela lan-egutegiari oso doitutako okupazio iragankorrek bultzatuz (hala nola Girose-ko

137 «À celles et ceux qui ont marché à Sainte-Soline», Lurraren Altxamenduak, 2023ko martxoak 25.

glaziarrarena), edo dela obren aurretik defendatu beharreko lurraldeek modu iraunkorrean eusteko beste modu batzuk hartuz, besteak beste Susa haraneko *presidioen* eredu¹³⁸ jarraituz antolakuntza eta zelata lekuak legalki eskuratzea.

Egun batean, Marcos komandanteordea ibai baten ertzean eseri zen urrutiko herri batean. Antonio agureak, ohorezko kontalari zaharrak, arbasoek transmititutako maien mito bat kontatu zion. Ezpataren, zuhaitzaren, harriaren eta uraren istorioa. Ezpatak altxa eta esan zuen: «Ni indartsuena naiz. Denok suntsitu zaitzaketet. Nire ahoak moztu egiten du, naraman pertsonari boterea ematen dio eta kontra egiten didana hiltzen du». Zuhaitzak erantzun zion bera zela indartsuena ekaitz bortitzenak jasan zituelako. Zuhaitzak eta ezpatak borroka egin zuten. Zuhaitzak gogor eta tinko eutsi zion ezpatari. Hark behin eta berriz kolpatu zuen moztu zuen arte. Haren txanda iristean, harriak desafio egin zion ezpatari: «Indartsuena ni naiz, gogorra eta zaharra bainaiz, astuna eta sendoa, denboraren joan-etorriari eutsi diot». Ezpatak eta harriak borroka egin zuten. Harriak gogor eta tinko eutsi zion ezpatari. Ezpatak behin eta berriz kolpatu zuen, harria kraskatu zuen, baina ezin suntsitu. Ezpatak kamuts-kamutsa amaitu zuen borroka, eta harriak pusketatxoetan. Beren alferrikako guduagatik egin zuten biek negar.

Bitartean, erreka urak aurrera jarraitzen zuen, axo-lagabe. Ezpatak mespretxuz begiratu zion: «Zu ahulena zara!». Ezpata errekaaren kontra joan zen abailan. Erraz zatitu zuen ura, zeinak ez zion gogor eta tinko eutsi. Baina ura berehalaxe itzuli zen bere formara. Denbora igaro zen eta ezpata herdoildu egin zen, bere ahoa galtzeraino. Atsekabetuta zioen: «Ura baino indartsuagoa naiz, baina borrokarik ere egin gabe garaitu nau». Lotsa-lotsa eginda joan zen, ulertu gabe zergatik eta nola, irabazi arren, galdu egin zuen.

Maien mito horretatik, adinduek ez dute esperotako moralik ateratzen. Ez dute inolaz ere uraren nagusitasuna on-dorioztatzen. Honakoa esaten digute: «Zenbaitetan, ezpataren antzera borrokatu behar da animaliaaren aurka, beste batzuetan, zuhaitzaren antzera ekaitzaren aurka, eta, beste batzuetan, ha-

138 Lyon eta Turin lotzen dituen AHTarentzako tunel transalpetarraren aurka hamarkada asko daraman borrokaren testuinguruan, oposizioak *presidioak* ezarri ditu. Bileretarako eta zelatatze lekuak dira, baita aldi berean, obren aurkako defentsa-egiturak ere.

riaren antzera denboraren aurka. Baina, noizbehinka, uraren antzera ere borrokatu behar da ezpataren aurka».¹³⁹ Beti hautatzeko aukera ez dugun arren, guri dagokigu bereiztea —indar harremanaren une bakoitzean— noiz bihurtu ezpata, zuhaitza, harria edo ura. Polimorfoak bihurtzea.

139 Marcos komandanteordea, *Contes mayas*, L'Esprit frappeur, 2000.

IRAUPENAREN IKUSPEGIA (IRITZIA)

XXI. mende hasierako Frantziako mugimendurik indartsuenaren abiapuntua erregaiaren zerga baten ukapena izatea ez da kasualitatea. Hilabeteetan zehar, Jaka Horiak biribilguneak okupatu zituzten, txabolak eraiki, suontzien¹⁴⁰ inguruan edo haiek antolatutako batzarretan jan eta hitz egin zuten. Ekonomia blokeatu zuten eta botereguneak mehatxatu klase herritarraren duintasunaren izenean. Ekologismo punitibo baten gaitzespen harrigarria mende honetako borroken iragarle iruditzen zitzaizgun. Matxinada horiak oso argi zuten, erresistentziarik gabe, berotze globalaren aurkako borrokak aberatsen harrapakaritzarako babes moral gisa balioko zuela berriz. Guk ere partekatzen dugu konbikzio hori.

Azken urteetako mugimendurik indartsuenak, ordea, porrot egin zuten. Porrot egin zuten gure bizi baldintzak aldatzeari dagokionez: zerga ia berehala atzera botatzeaz gain, aginteak apurrak besterik ez baitzizkien eman. Bizitza duin baten alde borroka egitea inoiz baino beharrezkoagoa da, baina gure software politikoa zaharkituta dago. Eraso egiten diogun sistema ekonomikoaren menpeko gara.

Mendekotasun hori askoz ageriago geratzen da kolonia ohietan. 2009an, greba erraldoiek astindu zituzten Antillak. Hona hemen zer dioen mugimenduaren babeserako Antilletako idazle talde batek idatzitako *Behar-beharrezko produktuen aldeko manifestuak*:

Esparru kolonial zentzugabe horretan, operadore eta bitartekariak kate ulertezinarekin negoziatzeak, berehalako sufrimendua zertxobait arindu dezake, zalantzarik gabe, baina akordio horien karitate iruzurtia azkar ezabatuko du «merkatuaren» printzipioak.

Testu honetan, «duintasuna» hitzak prosaikoaren —jatea, edatea, lo egitea— eta poetikoaren —dantzatzea, kantatzea, herria egitea, zentzua ematea— arteko batasun hautsezina adierazten du, zeina grebaren mugimenduak bultzatua den. Duintasunaren aldeko borrokak arrakasta izan dezake, soilik,

140 [I.o.] Ontzi biribila, gehienetan metalezkoa, su txingarrez beterik berogailu gisa erabiltzen dena. Gaztelaniaz eta frantsesez *braser*o.

Merkatuaren legetik materialki eta espiritualki libratzen bagara. «Behar-beharrezkoa berehala gizarte ez ekonomiko baten oinarriak ezartzen saiatzea da». Guk ere partekatzen dugu inspirazio hori. Zer esan nahi duen aztertu aurretik, aurkariei buruz apur bat hitz egin beharra dago.

Ekologismoa, kapitalismoaren azken fasea?

Beste batzuek esan dute guk baino lehen: aurreko mende-ko kapitalismoak ekarritako oparotasun promesak orain hiriko matxinaden eta sute izugarrien kean erretzen dira. Bi diskurtso ugaldu dira beren errautsetatik.

Lehena, faxismo fosilarena da, eta klase ertainari eta herri klase pobretuei eta deserrotuei hitzematen die muga nazional militarizatuek itsas mailaren igoeratik, epidemietatik edo prekarrietatik babestuko dituela, aurrerago jorratuko dugu.

Bigarrenak kapitalismoaren fase berria irudikatzen du, trantsizio ekologiko gisa ezaguna. Aurrerapenaren mitoa bertikatzen du oparotasun promesak apokalipsiaren xantaiaz aldatuz: *sinistu ala hil*. Etorkizunaren kolonizazioaren enpresa kapitalistak jarraitu dezake, munduko ekonomiaren deskarbonizazioa helmuga gisa edukita. Hasiera batean, terminoa giro alternatiboetatik eta desazkundekoetatik zetorren. 2008an, Rob Hopkinsek, permakulturako irakasle ingelesak, ezagutara-zi zuen, eta gaur egun, erabateko arrakasta instituzionala lortu du: 2017tik, gai horri buruzko ministerioak Trantsizio Ekologiko eta Solidarioaren Ministerioa izena du Frantzian, eta Trantsizio Ekologikoaren Ministerioa Espainian, 2016tik. Zer dago arrakasta horren atzean?

Har dezagun agroelikagaigintzako ekologiaren sektorea, bertan ongi uler daiteke trantsizioaren nozioak duen funtzio ideologikoa. Ekologikoa ez al da abian dagoen trantsizioaren eredia, 2020ko ministerioaren kopuruek goraiapatzen duten moduan?¹⁴¹ Ez al da nahikoa denbora pasatzen uztea, «kontsumitzaile aktiboak» heztea, eta aukeratzen uztea, agroindustriatik bizitza eta osasuna errespetatzen dituen nekazaritzarako trantsizioa gauza dadin? Berez, zabaldutako pestiziden kopurua ere etengabe ari da handitzen, laborantza lurrek eta nekazariek desagertzen ja-

141 <https://www.ecologie.gouv.fr/bio-en-pleine-croissance-decouvrez-chiffres>

rraitzen duten bitartean, gauzak agian zehazki «bide onetik» ez doazen seinale. Nekazarien blokeoek ere adierazten dute eredu ekologikoa ez dela hain erraz sartzen agroindustriaren agindu ekonomikoetan.

Hala azaltzen dute Atelier Paysaneko kideek.¹⁴² Kontzesiorik gabeko balantze batean, alternatibak —nekazaritzakoak, industrialak, energetikoak— beren kabuz izugarri hedatzearen eta bizitza kolektiboko egiturak kapilaritate hutsez aldatzearen ilusioa deuseztatzen dute. Ekologikoa merkatu nitxoa da, eta kalitatezko produktu garestiak eskaintzen ditu, behartsuentszat eskuraezinak. Egoera nitxo horrek soilik ahalbidetzen die nekazari ekologikoei bizirik dagoen lanaren duintasuna berreskuratzea. Izan ere, denontzat ekologikoa ekoizteko, bi bide nagusik elkarren aurka egiten dute: alde batetik, ekoizpen industrialeko baliabide «adimendunak» —gehienbat zenbakizkoak eta robotikoak— elkartzea, areagotzea eta hedatzea, sargaien zati bati uko egin eta prezioa jaitsarazteko. Eta, beste aldetik, lurrak berreskuratzea, milioi bat nekazari landa eremuan kokatzea eta elikadura-sistema birdefinitzea, Confédération paysannek proposatzen duen moduan. Lehen aukerak eskatzen du urre, zilar, kobre, tungsteno, litio eta beste lur arraroen kopuru izugarriak erauztea 4.0 nekazaritzarako beharrezkoak diren makinak eta zirkuitu inprimatuak fabrikatzeko, eta horrek nekazariak inbertitzaileen menpe amaitzea eta baserritarrak *bullshit job*etara bultzatzea eragiten du. Bigarrenak lurraren banaketa berri bat eta elikadurari zuzendutako baliabideen birbideraketa kolektibo bat exijitzen du. Erraz-erraz asma genezake bi bideetako zeinek jasotzen dituen gobernuaren dirulaguntzak.¹⁴³

Bien bitartean, ekologikoa aitzaki bikaina da Nekazaritza Ministerioarentzat pestiziden aurka legerik ez egiteko, kontsumitzaileek aukera dutelako aitzakiarekin, eta egoera ezin hobea gizartearen digitalizazio eta kontrolerako teknologietan inbertitzeko. Gizarte-harremanen egiturazko aldatetarik gabe, nekazaritza «konbentzional» batetik «ekologiko» deituriko nekazaritzara igarotzeak esan nahi du, batez ere, pestiziden eta petrolioaren kontsumitzailea den nekazaritza metalen eta elek-

142 L'Atelier Paysan, *Reprendre la terre aux machines*, Seuil, 2021.

143 France 2030 planak 2.300 milioi euro bideratzen ditu nekazaritzaren eta elikagaigintzaren berrikuntzara.

trizitatearen kontsumitzailea den nekazaritzarekin ordezkatzeari. Eta gauza bera gertatzen da trantsizioa egin nahi duten beste sektoreekin: hormigoi ekologikoa, «bioerregaiak», ekoauzoak, jatorri ekologikoko materialak, ikatz garbia, eta abar. Askoz errentagarriagoa izango da beti bildu eta automatizatzea, hau da, esplotazioa eta kalteak legeria ez hain hertsia duen herrialde batera kanporatzea, langileentzat eta beren ingurunearentzat lan duinerako baldintzak sortzea baino.

Zehazki energiari dagokionez, trantsizioaren errealitatea eta bere erronkak argiak eta ongi jasoak dira: energia berriztagarriek laster energia fosilak ordezkatzearen ideia ilusio bat besterik ez da. Trantsizioaren nozioa, funtsean, tekniken historiaren ikuspegi oker batean oinarritzen da.¹⁴⁴ Petrolioak ez du ikatza ordezkatu, izugarri pila erabiltzen da oraindik —1900ean Parisen baino gehiago erabiltzen da egun Kinshasa-n—, eta energia eolikoak ez du gasolioa ordezkatzeko: gure mundu-ekonomian, energiak metatu egiten dira une oro handitzen ari den eskaria asetzeko.

Laburbilduz, ez dago trantsiziorik, metaketa baizik, bai energiena, bai azpiegiturena, bai irabaziena. Edozein direlarik karbono-isurketengatik konpentsazioak, hazkunde berdeak beti izango du odola eskuetan. Merkatu lehiakor globalizatu batean, ezin baita industriak baino *hobeto* ekoitzi. Nitxotik atera nahi badugu, nonbaitetik atera behar dira mozkin-marjinak: lurraren zainetatik eta bertako biztanleen izerditik, gehienetan.

Kapitalismoa eta ekologismoa ez dira bateraezinak. Behintzat, azkenak, ingurumen-baldintza hondatuetera ego-kitzea esan nahi badu. Munduko ekonomiak, aitzitik, ezagutza bioteknologiko aurreratuen behar handia du etekin iturri berriak aurkitzeko, baita apokalipsiarekiko larritasunarena ere, gobernariek gobernatuekiko duten boterea legitimatzeko. Izan ere, balore-kurbak hazten jarraitzeko modu bakarra agortu arte esplotatzeko doako lanaren hobi berriak topatzea da: Hegoaldeko meategietan, bakterien fotosintesi jardueran, diruz lagundutako bioerregaien monolaborantzan, bortxaz lanean jarraitu duten emakumeen eta langile orenen gorputzean, soldatarik eskatu

144 Jean-Baptiste Fressoz, *Sans transition. Une nouvelle histoire de l'énergie*, Seuil, 2024.

gabe materia aldatzen duten geologia, giza, landare edo animalia indar guztietan.

Bidegurutze une bat bizitzen ari gara. Alde batetik, kapitalismoaren egokitzapen autoritarioa ingurumen bizien suntsiketara. Bestetik, erauzketaren ekonomiaren irteera. Beste batzuek guk baino hobeto azaldu dituzte bizitza birsortzeko gaitasunak errespetatzeko kapitalak duen egiturazko ezintasuna frogatzeko arrazoiketak eta argudioak. Baina ez da espezialista izan beharrik «*Green new deal*», «bioekonomia»¹⁴⁵ edo «karbonoaren kontentsazioa» terminoen atzean dagoen gezurra susmatzeko. Soberakin hori nonbaitetik atera gabe gero eta gehiago ekoizten jarrai dezagula esatea gu ergeltzat hartzea da.

Ez dago ekoizpenik suntsiketarik gabe, ez da irabazirik lapurretarik gabe: mundua bezain zaharrak diren uste osoak daude, Marxen orrialde korapilatsuenak edo IPCCaren txostenak bezain zentzuzkoak. Hamarkada gutxitan, kapitalismo fosilak desagerrarazi egin du lan biziak eskala geologikoan patxadaz eraldatu duen eguzki-indarra; eta, haiek deitzen diote gureari sabotajea?

Iraupeneko herri-fabrika baten alde

Beharbada, egiaztapena aitortuko digute. Sistema harrapakari baten eta hura antolatzen dutenen aurkako kritika, funtsean, arras partekatua da. Zailtasuna egongelako haserretik edo zinizismo paralizatzailetik haratago doan zerbait ateratzean datza.

Azken finean, arazoa nahiko sinplea da, baina masiboa. Bizitza narriatzen duen ekonomiarekiko menpeko gara, kapitala elikatzen baitu gure iraupena bermatzearekin batera. Aurreko mendean langile mugimenduak ekonomiarengan izan zuen kontrol eskasa globalizazioak zapuztu zuen: Nigeriako uranioa behar dugu etxeak argitzeko, eta inbertitzaileak beti joan daitezke beste norabait ustiatzera. Gure lan baldintzen eta ingu-

145 Hasieran, lurraren leheneratze zirkuituetan ekonomia berreskuratu nahi zutenek erabiltzen zuten terminoa, gaur egun, izaki bizidunak zirkuitu ekonomikoetan integratzeari buruzkoa da. Adibidez, bakterioak plastikoak degradatzeko duten gaitasunagatik erabiltzea.

rumen bizen narriadura ez da geldituko metaketa ekonomiaren hausturarik gabe.

Nola ihes egin mendekotasun horretatik? Kriseilu amisharen eta 5G-aren artean hautatu behar dugu, Frantziako gobernuburuak 2020ko irailean arazoa maltzurki mahaigaineratu zuen moduan?

Ez dugu ekonomia globalki berrantolatzeko planik. Ez dugu ez planeta ez nazioa gobernatu nahi. Ahaleginez, desjabetzeen azpiegiturei eraso eginez saiatzen gara makina geldiarazten. Baina motor geldituen atzean, nahi dugunaren jomuga zer den galdetzen diogu geure buruari. Nola eraiki oparotasun industrialaren eredu zaharkititik kanpo bizitza eder baten baldintzak? Erantzuna ez da teknokrata batzuegandik etorriko. Esperientzia kolektibo berrien bulkadan edo erabat kontsumitu ez den iragan baten txingarretan, erantzuna jada existitzen diren praktiketan bilatzen dugu.

Ikerketek eta praktika ekofeministek lehen urratsak eskaintzen dizkigute.

Azken hamarkadetako garapen behartuaren politikek hegoaldean eragindako erresistentziek inspiratuta —adibidez, NDFaren egiturazko doikuntzen aurka, esportaziora bideratutako kafea beren senarrentzat jasotzeari uko egin zioten Kenyako emakume nekazariak, landareak erauzi eta haien ordez, fruituak eta barazkiak landatu zituzten, eta ondoren, eskualdeko merkaturtan banatu zituzten—,¹⁴⁶ feminista batzuek «iraupenaren ikuspegia» deitzen diotena proposatzen dute borroken jomuga gisa, bai Iparralde bai Hegoalde globalean.

Baina zer ulertzen dugu iraupen gisa? Oparotasun industrialaren mitoaren preso, nozio hori lotuta dago pobreziarekin, atzerapenarekin, gabeziarekin, baita biziraupen biologikoarekin ere, eta, ondorioz, «azpigarapenarekin», zibilizazio ezarekin; hau da, zurtasunarekin. Ideologia hori lehenago prosaiko eta poetiko deitu diogun banaketaren gainean dago eraikita, gorputzaren beharrak eta arimarenak. Ideologia horren ustez, herri librea botere industrialak beharraren uztarritik askatutako herria da, hura soilik baita behar materialetatik libratzen duen ondasunen

146 Ikus «Les femmes de Maragua» kontakizuna, in Maria Mies eta Veronika Benholt-Thomson, *La subsistance : une perspective écoféministe*, La lenteur, 2022.

oparotasuna ekoizteko gai. Iraupenaren kontua gainerakoentzat da, modernitatearen trena igarotzen utzi dutenentzat.

Estigma aurrerakoi horrek balioa kentzen die iraupen-gizarteei, non zuzenean bermatzen den komunitatearen bizitzaren erreprodukzioa, dimentsio material zein espiritual bereizezinetan. Horrek ez du esan nahi ez gosetea ez komunitatearen isolamendua: bidaiariek eta antropologoez kontaktatu izan dute ondasunen eta pertsonen zirkulazio handia dagoela, eta hark iraupen-gizarteak elkarrengandik lotzen dituela dohaintzen eta kontra-dohaintzen bidez. Horrelako gizarte asko dago munduan, nahiz eta zenbatzeko oso zaila izan; izan ere, definizioz, ez dira nabarmentzen ekonomialarientzat. Gainera, gaur egun, antolaketa kapitalistaren moduren batekin korapilatuta egon ohi dira: auzoko elkartasuna, ekonomia informalak, landa-barrualdea, herri autoktonoak, eta abar. Gizarte talde askotan, beharrak, hein batean behintzat, merkatuaren bitartekaritzarik gabe asetzen dira.

Gure gizarte industrializatueta, estigma historiko berak eragiten die elikadura-nekazariaren lanari eta emakumearen lanari; ez dute truke-balio kuantifikagarririk ekoizten, baina bizi-premia bat asetzen dute zuzenean: ogia, maitasuna edo garbitasuna. Nekazaritzako edo etxeko lanak, batzuetan hitzez ohoratuak, baina, egia esan, beti gutxietsiak, ikusezinak dira askorentzat. Biziaren ugalketari loturiko zereginak pertsona zapalduenen kargu uzten dira, emakumeen, langile migratzaileen eta beren ondorengoen esku, batik bat. Doan egitera bortxaz behartzen ez direnean, ez-emankortzat jotzen diren zeregin horiek baldintza okerreten gauzatzen dira,¹⁴⁷ hoteletan zein soroetan. Menpeko lanaren erregimen horrek joera handiagoa du zabaltzeko desagertzeko baino. Jada 1970. urtean, iraupenaren ikuspegiaren aldekoek «lanaren etxekotzea» deitzen zioten gaur «uberizazio» deritzogunari.

Iraupen praktika horiek kapital gutxi behar dute. Adinduak zaintzeak, ezkontza bat edo agur bat ospatzeak edo arropa konpontzeak ez du goi-mailako unibertsitate-ikasketarik eskatzen, ez du makina handirik behar, ez du balio erantsi handirik sortzen. Praktika horiek merkatuaren ekonomiaz bestelako lo-

147 Batignolleseko Ibis hoteleko langileen greba irabazleak agerian jarri duen moduan.

gikak jarraitzen dituzte. Arrazoi horien guztiengatik gutxietsiak eta azpiratuak dira. Arrazoi berberengatik, gure askapenean lagun gaitzakete.

Nekazaritza-borroka batzuekin uste dugu posible dela estigma aldatzea. Ikusezina desiragarri bihurtzea. Zaintza erdigunean jartzea. Ez-emankor deritzon lana aintzat hartzea. Iraupen praktikak harro egoteko zerbait bihurtzea. Mundu desmerkantilizatuen oinarriak ezartzea, gure munduetan kapitalari ihes egiten dion guzti horretatik abiatuta.

Segur aski esango digute ez garela herri autoktonoak. Duela denbora gehiegi utzi ziotela gure ekonomiek beregain izateari, ez gaudela prest uko egiteko soldatak eta —hark posible egiten duen— kontsumo-gizarteak ematen diguten erosotasunari. Hasteko, bi belaunaldi besterik ez dira Europa mendebaldeko landazabaletik nekazalgora ia desagertu zenetik, eta haren memoria bizirik dago oraindik. Bigarrenez, iraupen praktikak ez dira mugatzen, erakutsi dugun moduan, nekazaritzara. Iraupeneko bitartekoen ekoizpenak normalean ikusezinak diren hainbat zeregin hartzen ditu bere baitan, ez dira zenbatzen ezta monetizatzen, gaizki ordainduak dira, maiz emakumeek egiten dituzte edo feminizatuak dira eta, alabaina, erabat behar-beharrezkoak dira. Erizain laguntzailearen edo andereñoen lanaren zati txiki bat soilik da ordaindua. Gainerakoa —egoiliar batekin barre egitea, haiek garbitzean sufrimendua arintzen duten mugimenduak ikastea edo zinema irteera bat antolatzea— zentzua duelako egiten dute. Beharrezkoa delako, ekonomikoa ez den beharengatik. Keinu horiek guztiek gure bizitzak munduko ekonomiaz bestelako mendekotasun sare batean sartzen dituzte. Uste dugu posible dela sare horretan oinarritzea merkatu-ekonomiatik irteteko ikuspegia zabaltzeko, gutxiespena harrotasun bihurtuz.

Izan gaitezen argiak: diru-sarrera duinak bermatzen dituen gizarte-babeseko sistematik ahal dena defendatzeko ere egiten dugu borroka, hau da, lan araudia, gutxieneko gizarte-prestazioak, pentsioak, osasuna, etab. Baina, alde batetik, konpromiso sozialaren aroa atzean geratu dela dirudi. Badirudi Estatuko elkartasun sistemen hondatze motela ezin dela geldiarazi globalizatutako ekonomiaren testuinguruan. Hori baiesten du gizonen lan egonkorren eredia berriki guztiontzako ezegonkorra den

norberaren enpresa-sorkuntza bihurtu izanak. Aberatsek ez dute dudarik ere egin pentsio-funts pribatu gisa mutualizazio sistema propioa sortzea, eta haien sezesioa transformazio horren beste zantzua bat da. Beste aldetik, ez zaigu zentzuzkoa iruditzen oparotasun eredia defendatzea, azken finean, Hegoalde globaleko gorputzen eta lurren esplotazioan oinarritzen baita. Berehalako borroka babes ditzakegu diru-sarreraren alde, baina ez ekonomia nazionalen eta bost kontinenteetako langileen lehiak.

Dena dela, ekonomia kapitalistaren logika bera ere guztioi ongi bizitzeko diru-sarrera nahikorik ez ematean datza. Batzuek biziarteko soldata eskatzen dute, guk espazioa eta denbora lortu nahi ditugu batez ere. Merkatuarekiko mendekotasun gutxiago duten gure beharrak asetzeko moduak eraikitzeko, eta, beharbada, objektuen oparotasunak ematen duena ez den beste edertasun motez gozatzeko. Iraupeneko ekologia ez da gabeziari oda bat, baizik eta plazer eta luxu komunalaren ekologia.¹⁴⁸

Jakina, ez da nahikoa gure gizarteetan iraupeneko praktiken iraunkortasunaz baliatzea hazkunde ekonomikoaren aginduekiko mendekotasun kolektiboa ezabatzeko. Horrengatik, autonomia gaitasunak eraikitzeko beharra dugu. Gure borroketatik abiatuta, zirriborro batzuk sortzen ditugu. Altxamenduen aletegi bat sortzeko proposamena,¹⁴⁹ Rennes-ko Réseau de ravitaillementen (Hornidura sarea) esperientzian oinarritzen da, zeinak 2016tik borroka elikatzen dituen, eta ildo horretan ari da lanean. Aletegi horiek sasoi bakoitzeko ekimenean Frantziako txokoetako milaka pertsona elikatzeko gai diren jantoki ugariarekin lotuta daude. Maila erabat ezberdin batean, elikagaien gizarte segurantzaren ideiak aukera ematen du imajinatzeko nola uztartu diru-sarrera duinak eta kalitatezko elikadura bateratze-lanaren bidez. Iraupenaren ikuspegia, halere, ez da soilik elikadurari loturikoa. Zer izango litzateke, adibidez, adinekoak zaintzea zaharren egoitzetako merkatu

148 Herri-ekologiaren testuinguruan, plazeraren eta erosen inguruko ikuspegiak eraberritzeko, irakurri Myriam Bahaffou-ren *Des paillettes sur le compost. Écoféminismes au quotidien* (La Passager Clandestin, 2022). Oparotasuneko berdintasunean oinarritutako luxu komunalaren kontzeptuan sartzeko, eta ez luxu burges, zentzugabe, xahutzaile eta harroan, irakurri Kristin Ross-en *Communal Luxury: The Political Imaginary of the Paris Commune* (Verso, 2015).

149 <https://lessoulevementsdelaterre.org/comites/appel-a-constituer-des-greniers-des-soulevements>

doilorraz baliatu gabe? Zein izango lirateke etxebizitza baterako sarrera higiezinaren espekulaziotik ateratzeko bideak? Galdera horiek gure mugimendutik askoz haratago doaz. Puntu horietan guztietan —zaintza, etxebizitza, elikadura, etab.— esperimentuen eta alternatiben ugaritasunari batzen gatzaizkio, lanarekin harreman berri bat abiarazten saiatzen baitira, non harremanen zaintza merkataritza trukeei gailentzen zaion. Estatu mailako elkartasuna liberalismo autoritarioen mesederako gainbehera doan honetan,¹⁵⁰ kontua ez da finantzaketa publikoaz edo gabe egitea, baizik eta gure mendekotasunak lantzea luzamendutan ibili gabe. Tolosan, Saint-Denis-en, Marseillan eta beste leku batzuetan, adibidez, arreta komunitarioko zentroek hamabost urte daramatzate jada gizarte-babeseko sistemari integrazteko moduak eta autonomia kolektiboko praktikak uztartzen. Arreta ez da gauzatzen espezialista batek emandako zerbitzu soil gisa, baizik eta medikuntza, gizarte eta politika auzi gisa, langile auzoetan bititako egoeretan errotuta. Zaintzaile tituludunak elkarteetako boluntarioekin, gizarte-langileekin eta pazientearen inguruko jendearekin nahasten dira, eta erabiltzaile taldeen barruan, gizarte segurantzak ordaindutako zerbitzuak bikoteen laguntzarekin konbinatzen dira; izan ere, lehen kaltetuek dakitene ondoen zer behar duten. Erregistro erabat ezberdin batean, Antidote higiezinaren agentziak helburu gisa hartu du erabilera kolektiboko eraikinen higiezin-merkatutik modu iraunkorrean ateratzea, eta, era horretan, jabetza eskubidea bere aurka jarri du. Alemaniako antzeko egitura baten eredia jarraituz, elkarte etxejabeak eskubide guztiak ematen dizkie hain zuzen ere erabiltzaileei, zeinek nahi duten gisan erabiltzen duten lekua, edo ia-ia: tokiaren salmenta edo transmisioa batzarrean erabakitzen da, higiezinaren agentziako beste tokietako kide guztiekin batera.

Autonomiaren desira existitzen bada ere, ez da nahikoa. Ingurune alternatiboetan lana uzteko, lurrera itzultzeko eta lanpostua aldatzeko joera ikus daitekeen arren, ez dago milaka hautagai Frantzia nekazari gisa hasteko. Iraupen lana gogorra eta mugatzailea da, baina erabat esanguratsua. Merkatu-ekonomiarekiko mendekotasunak modu ezberdinean banatzen dira: errazagoa da lan duingabe edo zentzugabe bat uztea, ezbeharrik

150 Chamayou, *La société ingouvernable*, La fabrique, 2018.

izanez gero, gure familiak gure segurtasuna bermatu deza-keenean. Gure iraupena bermatzeko baliabideez hornitu nahi badugu, kapitala edozein dela ere, ezin dugu laneko desertzio indibidualak —ezta esperimentazio kolektiboak ere— ugaritzea eskatzearekin konformatu. Lurrerako eta iraupen praktiketarako sarrera blokeatzen duten oztopoak identifikatu behar ditugu, eta haien gaineratik jauzi egin. Gure ustez, oztopo horiek bi motatakoak dira nagusiki. Maila sinbolikoan, gorputzaren eta lurraren lanarekiko gutxiespena nagusitzen da, eta gutxiespen hori dator materialaren eta espirituaren banaketatik, baita askatasunaren eta ahalguztiduntasunaren nahasketa patriarkaletik ere. Gure ekintza txikiena ere ukitzen duen sakratuaren zentzua topatu behar dugu. Maila materialean, gailu, arau eta monopolio multzo batek iraupeneko baliabideen metaketa antolatzen du, eta herriak hura erabiltzea galarazten, bai medikuntza, bai elikadura, bai hezkuntza arloan. Hori guztiagatik iruditzen zaizkigu ezinbestekoak altxamenduak.



HIRU

BERRESKURATU LURRAK

ZER DA DEFENDATZEN DEN «NATURA»? (IRITZIA)

Desjabetze-azpiegituren aurka borroka egitean, askotarikoz erabakiak topatu ohi ditugu. Batzuek, bihotza suminduta dute zuhaitzen mozketagatik, beste batzuek, ezarritako ukazio demokratikoagatik. Beste batzuk, beren laneko tresnak galtzearen aurka egiten dute oraindik borroka, edo eraikitzen bizitza osoa eman duten etxe baten suntsiketaren aurka. Zenbait, aldiz, kilometroak egiteko prest daude industriaren aseezintasuna amaitu behar dela sinesten dutelako. Denek iritzi politiko ezberdinak dituzte, zenbaitetan kontrakoak. Aniztasun hori borroka hauen indarraren parte da. Gure esperientziak erakutsi digu ez zela ez posible ez desiragarria talde politiko beraren baitan antolatzea. Aldi berean, badakigu elkarrekin borroka egitea dela modurik onena konbikzio zenbaitetan oso teorikoak lotzeko bizi izan ditugun esperientziekin, eta sinesten dugu benetako gatazken konpromisoak aurreiritziak gainditzen dituela, oso errotuta egon arren.

Haatik, lerro argi bat finkatzen saiatzen gara gorputz minoritarioak kanporatzeko natura arau bihurtzen duen ekologismoaren eta lurraren jabeak eta suntsitzaileak botatzeko indarra naturan bilatzen duen ekologismoaren artean. Oso maiz, «lurra» edo «natura» aldarrikatzen dutenek arrotza, aldaezina eta idealizatua balitz bezala, gauza bakarria bilatzen dute: munstrotzat edo gutxiagotzat jotzen dituzten gorputzen kontrako indarkeria autoritate transzendente batean oinarritzea. Hortaz, gorabehera ekologiko berriez irakaspenik atera baldin badezakegu, gizakiok ez gaudela mundu naturaletik kanpo da. Giza jarduna gai da bere historiaren esparru aldaezina zela uste zuena asaldatzeko, gure oinetako lurra altxatzen den bitartean. Natura ez da babestu edo imitatu beharreko toki ideala. Giza kondizioaren hitzetako bat da, baina baita interesak eta ideiak aurrez aurre ipintzen diren bataila-eremu bat ere. Jabeen aurkako borroka zuzenean faxismoaren edo patriarkatuaren aurka borroka egiten duten pertsonekin edo erakundeekin egiten dugu, mugimendu barnetik edo haiekin aliantzak sortuz.

Natura naturaren aurka

«Ez dugu natura defendatzen, defendatzen den natura gara!». Hamabost bat urteren ostean, lelo hori borroka ekologisten ebidentzia moduko bat bihurtu da. Gizakiaren eta naturaren arteko banaketa modernoaren kontra, gure ingurunearen parte garela aldarrikatzen du. Guk ere, Lurraren Altxamenduetatik, «bizi dena» defendatzera deitu dugu, bai Poituko paduran bai handik kanpo. Baina gure kontsignez ere mesfidatu behar gara. «Bizitzaren» edo «naturaren» izenean, Vinci industria taldeak desjabetutako baserriak okupatu daitezke, baina baita abortua debekatu edo genero disidentziak erreprimitu ere. Hitz horiek leku guztietan eta zentzu guztietan dabilta gaur egun, eta haiekin edonor identifika daiteke, horra hor haien indarra eta ahultasuna. Haien zentzua argitzea dagokigu hemen.

Vichyren erregimenpeko landa-propagandatik, egungo lurralde-zaindariatara, Völkisch mugimendutik,¹⁵¹ ordezkapen handiaren teoretara, familia tradizionalaren gorazarre integristetatik igaroz, lurraren defentsa-lerro arrazista bat existitzen da eta naturaren ikuspegi erreakzionarioan oinarritzen da. Mendebaldeak baztertutako bestetasunaren irudi nagusia judutarrek hezurmamitu baldin badute ere luzaroan, egun, migranteak, musulmanak eta pertsona transak eta queerrak akusatzen dira Estatuko kidegoaren integritatea mehatxatzeaz. Kapitalismo industrialak zalantzan jarri beharrean, identitarioek gutxiengo sexualei eta arrazazkoei eraso egiten diete, eta uste dute gure garaiko arrakalak era horretan konponduko direla.

Atxikimenduaren beharra oso behar sakona da, batzuen-tzat beharbada ogia, aterpea edo maitasuna bezain ezinbestekoa. Faxismoak ongi ulertu du hori, mundu osoko bazter guztietako hauteskundeetan izandako arrakastak erakusten duen moduan. Baina ez dugu mugen beharrik elkarrekin, nahiz bizi garen lurraldeekin, batzeko.¹⁵² Altxatzen diren lurrak beti izango dira lur abegikorrak.

Lurra ez baita gurea.

Horretan ados baldin bagaude, gure borroketan, natura, banaketa eragiten duen auzia da. Batzuek «natura» eta «kul-

151 Alemaniako mugimendu naturalista, nazismoaren beste aitzindarien artean. Ikus Antoine Dubiau, *Éco-fascismes*, Grevis, 2022.

152 Fatima Oussak, *Pour une écologie pirate*, La Découverte, 2023.

tura»ren arteko Mendebaldeko banaketa gainditu behar dela deritzote, mugimendu feminista garaikidearen zati baten lortza jarraituz, zeinak naturarekiko harreman emantzipatzailea eraikitzen duen. Beste batzuek arrazoi bikainak dituzte biologia eta politika nahasten dituen horretaz mesfidatzeko: haientzat, naturaren ideia bera baztertu behar da. Borroka feministek beti baitute generoaren naturaltasunaren ideiak desegiteko beharra, inoiz baino gehiago agertzen baitira jokaeraren estandarizazioak biologiaren bidez legitimatzen dituzten argudio erreakzionarioetan, iraganeko mugimendu feministen lorpenak egon diren arren.

Gure generoaren, sexualitatearen, gurasotasunaren alde borroka egitean, beharbada, ez dago naturaren ideia alderantzizkatzeko interes estrategikorik, ezta natura ez-normatiboa edo askotarikoa bada ere. Baina, Lurraren Altxamenduak borroka ekologisten erakunde bat da. Ezinbestekoa deritzogu programa erreakzionarioa bere eremuan desmuntatu ahal izatea; izan ere, gurea ere bada hein batean. Halere, ordena naturalaren ideia, zeina ordena soziala eraikitzeko erabili den beti, amarrua da. Ez «lurrak» ez «naturak» ez digute legea inposatzen. Jokaera guztiak naturan gertatzen dira, harrapakaritzza bortitzenetik hasi eta sinbiosi eskuzabalenetaraino, sexualitate-modu asmakorrenak barne. Gu izaki bizidun proteiformeak gara, hau da, mutazio aleatorio eta ustekabeko gurutzatze bidez ugaltzen gara, eta gure historian zehar eraikitzen ditugu loturak. «Naturak» ez du ezer justifikatzen, ezta agindu moralik ematen ere, haren aniztasun infinituan, oreka igarokorretan eta nahasmendu iraunkorretan «da» besterik gabe.

Beraz, zer naturaz ari gara «defenditzen den natura» gara diogunean? Ez da gorde beharreko kapital biologikoa, ez arpilatu beharreko lur birjina, ez imitatu beharreko abstrakzio handi bat («Natura»), baizik eta bizirik egoteko moduen etengabeko eta inoiz egonkortu gabeko eztanda bat. Bestalde, hori da «natura» hitzaren etimologiak adierazten duena: natura, izatez, latinezko *nascor*, «jaio», aditzaren etorkizuneko partizipioa da. Ez lehenaldiko partizipioa (jada jaiotakoak) ezta orainaldiko partizipioa ere (jaiotzen ari direnak), *naturak* oraindik jaiotzear dauden bizidunen multzoari etorkizunean egiten dio erreferentzia. Sortzeko

indar hori babesteko konpromisoa hartu dugu, oso hauskor eta aztoragarria izan arren.

Deserrotzea eta nazioa

Errotzea da, agian, giza arimaren behar garrantzitsuena eta ezezagunena. Definitzeko zailenetakoa da. Gizaki batek parte-hartze egiazko, aktibo eta naturalari esker, bere sustraiak ditu iraganeko altxor batzuk eta etorkizuneko susmo batzuk bizirik mantentzen dituen kolektibitatearen existentzian. [...] Gizaki bakoitzak askotariko sustraiak izateko premia du. Haren bizitza moral, intelektual eta espiritual ia osoa bere inguruneen birtatez jasotzeko beharra du.

1943an, Simone Weilek langile kondizioaren, nekazari kondizioaren eta kondizio kolonialaren deserrotzea deskribatu zuen. Kondizio hori inoiz baino gehiago da gurea, larritasuna —ekonomikoa, ekologikoa edo existentziala— etengabeko kezka den garai honetan. Iraganeko ukapenaren eta etorkizuneko ikuspegi gabeziaren artean harrapatuta, flotatzen gaude, zailantzez beteta, gure existentzien itsasoan.

Bulkada nazionalista da deserrotzearen ondorioetako bat. Komunitaterik, oraindirik eta etorkizunik eza arintzen ditu, txarrantxazko hesiz betetako nortasun nazionalarekin eta arrazaren eta etniaren garbizalekeria kezkarriaren ainguratuta. Denboran gogortasuna bermatzeko betebeharra eta giza bizitzen espazioa erabat utzi dira Estatuaren eskuetan, eta enpresa hegemoniko kultural neofaxistak Estatuaren inguruan sustraiak botatzera behartzen gaitu. Baina Estatu-nazioa izan da mendeetan zehar —eta oraindik ere bada— deserrotzearen indar nagusia. Barne-deserrotzea burutzen da berdintasun nazionala eraikitzearen ondorioz zapalduta dauden herri guztiak, tokiko eta herriko kultura guztietakoak, sistematikoki suntsitzearen bidez. Kanpo-deserrotzea, aldiz, enpresa kolonialaren indarkeriaren eta haren egingo jarraipen maltzuraren bidez burutzen da.

Hainbat mendetan zehar, gizon zuriek iragana suntsitu dute, modu ergelean eta itsukeriaz, nonahi, bai beren herrian bai handik kanpo.¹⁵³

Ezin konta ahala adibide daude. Nazioak horrelako emozioak bultzatzen baditu, gutako askorentzat geratzen den

153 Simone Weil, *L'ennracinement*, Gallimard, 1949.

kolektibitate bakarra delako da. Baina batasun nazionallean ez dugu topatuko gure erauzitako sustrairik; nazioa merkatu kapitalistaren aparatu burokratiko eta militarrek edozein atxikimendu mota suntsitzeko erabiltzen duen fikzio historikoa delako. Haren denborazko funtsa botere aparatuetan eta baztertzeko gaitasunean datza; gainerakoa folklorea besterik ez da. Nazionalistek ekonomia kapitalistak marketin elementu batzuetara —*baguettea*, saltxitxoia eta ardo beltza— murriztutako bizimodua defendatzen dute, baina ekonomia horren garapena sustatzen dute.

Sustraiak iraganean dituztenez, etorkizuna irekiko duten kolektibitate berriak eratu beharra dugu. Baina ahaztutako istorioek utzi digutena balioesteak ez du esan nahi tradizio idealizatu bat era berean birsortzea, ezta natura aldaezina defendatzea ere.

Naturak ez du mugarik

Faxismoaren zati batek, nazio formaren pobretasunaz jabetuta, arrazaren gizontasunean bilatzen du komunitatea egiteko zernahi. Historiaren gainbeheren aurka, natura da —beren ondarea transmititzeko lehian ari diren talde genetikoetara murriztua— supremazismo zuriaren politikaren oinarria. Joera hau politikoki talde txikietakoa bada ere, sustrai sendoak odolak bakarrik elikatu ditzakeelako ideia sakon errotuta dago gure iruditerian.

Hala ere, deserrotzearen garaia hain justu ere naturaren asmaketarena da, non natura gizartetik at dagoen betiereko zerbait moduan ulertzen den. Natura basati, birjin eta aldaezin baten irudiak, zeinak gizakiei benetako bizi-eredua emango liekeen, eta izaki bakoitzak dagokion lekua beteko lukeen bertan —indartsuak ahulen gaineretik, ehiztaria sukaldariaren gaineretik, kolonoa esklaboaren gaineretik—, eginkizun politiko zehatza betetzen du, beraz. Europako goi mailako gizarteak paisaia natural ezin ederragoekin hunkitzen ikasi zuen, zehazki, industria iraultzak haiek populatzen zituen nekazaritzaren eta autoktonoen mundua suntsitu zituen unean. Ursula K. Le Guin idazle feministak¹⁵⁴ gogorarazten du «lur birjina» nozioa mito fundatzaile gisa

154 Ursula K. Le Guin, «The Carrier Bag Theory of Fiction» eta «Woman/Wilderness», *Dancing at the Edge of the World*. Grove Press, 1989.

erabili zela amerikar mendebaldea konkistatzeko testuinguru genozidan. Kolonoen bizitza mugan, kementsu eta latza, ekialdeko kostaldeko bizitza hiritarraren dekadentziaren kontrako eredu gisa erakusten da. Konkistatutako lurak lehen gatazka ekologikoen eremu dira: batzuen ustez, lur horiek landatu egin behar dira, besteen ustez, aldiz, babestu.

Guztiek eremu birjinak ikusten dituzte masakratutako herrien bizitzeko ingurunea dagoen tokian. Oraintsuago, Ramachandra Guha historialariak erakutsi du ekologia kontserbadoreak natura idealizatu baten ikuspegi koloniala hedatzen zuela, adibidez, bertako biztanleak beren lurretatik kanporatzen zituzten parke nazionalak sortuz.

Gaizkiarengandik garbitzeko haren jatorria bilatzean datzan egiturak gaur egun ere iruditeria erreakzionarioak elikatzen jarraitzen du. Azken horiek era askotako formak hartzen dituzte eta, maiz, kontraesankorrek. Surbibalista askok jatorrizko beherakada iraultza neolitikoan kokatzen dute, gizarte ehiztari/biltzaileen artean nekazaritzaren eta hirigintzaren agerpenarekin. Neolitikoaren osteko zibilizazio oro ustelduta legoke ezinbestean. Beste ekofaxistek, berriz, arraza zuriaren kultura eta ondare genetikoa mehatxatzen dituen «migrazio inbasioen» aurrean, zibilizazioaren zaindaria gisa dute beren burua,¹⁵⁵ eta gertatzearen arrazaren gerra bizkortzen saiatzen dira erailketen bidez. Ideologia nazionalsozialistaren odolaren eta lurraren arteko lotura modu politikoki zuzenago batekin berrituz, Nouvelle Droite-k¹⁵⁶ «etnopluralismoa» defendatzen du, zeinak deportazioak modu maltzurrian justifikatzen dituen, desberdintasuna goraiapatuz. Kasu honetan, idealizatutako natura ondo mugatutako biolurralde osatuta dago, zeinetan arraza desberdinak «bakoitza bere lekuan» bizi diren.

Hala ere, guztiek gizontasun oldarkorra goraiapatzen dute eta generoaren ikuspegi zurruna partekatzen dute. Jatorrizko naturan, beti daude gizonak eta emakumeak eginkizun ezberdinekin, are gehiago, hierarkikoekin. *Limite* aldizkariak (orain

155 Ikus 8chan plataforman argitaratutako Brenton Tarrant-en eta de Patrick Cruisius-en manifestuak beren atentatu arrazisten bezperan, zeinek dozenaka hildako eragin zituzten 2019an, Zeelanda Berrian eta Ameriketako Estatu Batuetan hurrenez hurren

156 [l.o.] Eskuin Berria (*Nouvelle Droite* frantsesez), batzuetan ND inzialekin laburtua, 1960ko hamarkadaren amaieran Frantzia sortu zen eskuin muturreko mugimendu politikoa da.

CNewsen editorial-egile den Eugénie Bastié-k sortua), adibidez, ZADak babestu nahi dituen «ekologia integral» bat defendatzen du, bertan bizi diren pertsonen bizitzak (pertsona queerrak eta transak) antinaturaltzat hartuz gaitzesten dituen bitartean.

Ekofaxismoa ez da ekologismoaren atal txikiago bat. Lurraren defentsak hasi zenetik darama berekin politikaren biologizazioan errotutako joera erreakzionario sakona. Muga nazionalen edo genero-binarismoaren arloan, pertsona ospetsu askok partekatzen dute muga naturalen gorazarrea, ekologia zientifikoaren sortzailetik ekintza zuzeneko lehen taldeetara.¹⁵⁷ Gaur egun, ekologia erradikalaren zati handi bat pertsona transetan eta ugalketa praktika berrietan ardatzen da, haiek medikuntzaren eta farmaziaren industrian duten mendekotasunaren aitzakiapean, eta beren tentsio identitarioak disimulatu gabe.

Mugimendu transfeministek, hain zuzen ere, kontu horiek lantzen dituzte: trantsizioetatiko edo jaiotzetiko derrigorezko medikalizazioari uko egiten diete, praktika inprobisatuak eta autonomoak garatzen dituzte, eta ekologia erreakzionarioaren fede gaiztoa ere salatzen dute; izan ere, kritika berak egiten al zaizkie pilula antikontzeptiboa edo intsulina hartzen duten pertsoneri? Bereizketa bat egiten da zainketa merezi dutenen eta ez dutenen artean —are gehiago, errudun direnak ere—, naturaren ikuspegi oso mugatu baten izenean.

Hala ere, bizidun askok, animaliek zein bakterioek, mugak gurutzatzen dituzten erraztasun berarekin egiten diote barre desberdintasun sexualari, politika biologizatu beharrean biologia politizatzen dutenek frogatu duten moduan.¹⁵⁸ Natura ez da inoiz jarraitu beharreko eredu finkoa izan nekazaritza-praktikentzat. Praktika horiek lan egiten duten inguruetako oreka ezegonkorrek aldatzen dituzten bezainbeste aldatzen dituzte paisaiak. Segalari boluntarioekin borroka egiten dugu GEOen aurka, ez kode genetikoa aldatzea antinaturala delako, baizik eta

157 Ernst Haeckel, «ekologia» kontzeptuaren sortzailea, gizateriaren ikuspegi arrazistaren defendatzaile sutsua ere bazen: proposatzen zuen interdependentziaren azterketa *Lebensraum* «bizi-ingurunea» kontzeptuarekin lotuta dago, zeinak Alemania naziaren politika hedatzaileak justifikatu zituen. Ikus baita ere Dave Foreman Earth First! taldearen sortzailearen *Confessions of an eco-warrior*. Duela gutxi, Deep Green Resistance nazioarteko taldea gogor kritikatu da bere liderren jarrera transfobikoengatik.

158 Ikus Donna Haraway-ren edo Joan Roughgarden-en lanak, adibidez.

nekazarien autonomia eta animalien eta landareen aniztasuna defendatu nahi dugulako, bizidunen ugaltzeko eta ekoizteko gaitasunen metatze industrialaren kontra. Ez dago ezer sakratua, berez, DNA puska batzuetan. Egun, udare gozoak jaten baditugu, duela milaka urtetik hona baratzeak, artaldeak bezala, hautespun artifiziala jasan dutelako da. Hain zuzen ere, *hybris* garaikidea ez datza natura aldatzean, baizik eta ordainetan transformaziorik jasango ez dugula sinestean. Genetikoki eraldatutako organismoen labore intentsiboen ondorioak sobera kontrolaezinak dira; izan ere, soroak ez dira laborategiak, hau da, maneia garriagoak izateko artifizialki bakandutako inguruneak. Ahalguztiduntasun lilura horren aurrean, hain zuzen, defendatzen den biziduna gara.

Gure sustraiak gorantz hazten dira.

Gure lurra. Gure lurraren zatia. Ez dezagun, halere, lurralde absolutuan bihurtu, bertatik munduko tokiak konkistatzeko eskudun sentiarazteko.

Édouard Glissant, Poétique de la relation

Naturak ez gaitu salbatuko deserrotzeaz, ezta nazioak ere ez. Naturaren nagusiak eta jabeak suntsitu nahi baldin baditugu, atxikimendu berriak sortu behar ditugu eta mugimenduak apurtuko ez dituen heldulekuak eratu. Mendebaldeko nazio zaharren lurretan bizi garen gutako askorentzat, iraganeko kolektibitateekin elkartzen gaituzten loturak baliotsuak dira, baina ahulegiak kapitalaren korrante deserrotzaileei aurka egiteko. Hala eta guztiz ere, borrokak joan borrokak etorri, odola eta jabetza ez diren loturak ehundu ditugu. Loturak antolaketa proiektu baten edo erreforma neoliberal baten aurka borroka egitean aurkitzen diren lekuekin eta pertsonekin. Erabileran eta laguntasunean oinarritutako loturak.

Lurraldeek beren historian zehar hazten diren sustraiak dituzte. 1980ko hamarkadan, kautxua erauzten zuten langileen borrokak kautxu bilketaz bizi ziren Brasil iparraldeko langile etorkinen ondorengoak eta Amazoniako herriak bildu zituen lur jabe handien aurka, zeintzuk basotik kanporatu nahi zituzten bere abereak bazkatzeko eta, era horretan, lurraz jabetzeko. Kautxuaren langileak eta indigenak gatazkan zeuden, noizbehinka

gatazka biolentean, basoaren erabileraren ondorioz. Haien ingurunea defendatzeko, ordea, «Basoko herrien batasuna» izenekoa elkartu ziren, soilgune gutiziatuak okupatu zituzten, eta Brasilgo gobernua behartu zuten erreserbak sortzera, non promotoreei bertan sartzeari debekatzeko zaien gaurdaino.

Deux-Sèvreseko uraren aldeko guduak agroindustriak suntsitutako paisaiaren oroitzapena birsortzen du, eta, aldi berean, etorkizuneko aukerak irekitzen ditu berriz. Manifestazio edo bilera baten itzuleran, adinekoek kontatzen dute, ikusmugaraino iristen diren artoaz eta haize errotaz betetako soroen aurretik, intxaurren eta heskaiak, errekek eta jendea bizi zen herrixkak zeudela. Inork ez daki zer itxura hartuko duen lurralde batek, non biltzen diren, alde batetik, belaunaldiz belaunaldi bertan finkatutako nekazariak, hiriguneetako gazteak, militante autonomoak edo feministak, edo baita uraren tokiko borroken ordezkariak ere, eta, beste aldetik, nekazaritza intentsiboaren aldekoak eta kontrakoak aurka egiten diren. Arroaren isurialdeetan zehar, hala ere, kolektibitatearen moduko zerbait eraikitzen ari da.

Gure sustraitzeak eta atxikimenduak deserrotze erreakzionariotik bereizten dituen da eraikitzen ditugun komunitateak ez daudela itxita purutasun engainagarrian, muga identitarioez josita. Abegitsuak, irekiak eta hibridoak dira. Bizitzan eta borroketan zehar egindako kontaktuekin *kreolezatu* eta aberastu egiten dira. Horrexegatik daude bizirik eta mugitzen dira, eta uko egiten diote *beti izan da horrela* dioen kontserbazio atzerakoi batean finkatuta geratzeari.

Defenditzen den natura izateak ez du esan nahi norbere lurraldearen ertzetan kanpatzea ustezko inbaditzaileak uxatzeko. Alderantziz, indar ugariarekin batera borroka egiteko gai izatea da. Beren historiagatik, pasioengatik edo beharregatik, jabetze horren aurka daudenekin eta, hala, gorputzaren eta lurraren erabilera berriak asmatzen dituztenekin. Gure identitateak, bai indibidualak bai politikoak, ez dira gure historien aurretikoak. Biologoek aspaldi erakutsi zuten beren ondasun genetikoa transmititzeaz kezkatuta zeuden norbanakoen lasterketa batera murriztutako bizitzaren ikuspegiak duen izaera

izugarri ideologikoa,¹⁵⁹ eta, zer da ideologia, natura bihurtutako historia ez bada? Gainerakoen ez lurra ez gorputza ez dira ondarea. «Eduki umeak!», aldarrikatzen du maltzurki Donna Haraway-k, horrela defendatzen eta zabaltzen baita bizitza. Lotura estuak eraiki behar ditugu, gure borrokei belaunaldien betiereko berpizkundea gaindituko duen oinarria eman nahi badiegu. Familia nuklearrak ez du beti izan transmisioaren monopolioa: apur bat haratago begiratu besterik ez dago beste ahaidetasun eredu batzuk topatzeko. Ahaidetasun-lotura zabalak josten genituen, historia partekatuetan eta ikuspegi eta praktika komunen oinarrituak, odoleko lotura soilaz haratago. Bizi den ororen moduan, lurraldearen borrokak sinbiosi hauskorak dira. Tokiko batzordeak, biztanleen kolektiboak, laguntaldeak, lantaldeak, artisauen sareak, nekazaritza-elkargoak, eta abar; harremanak ez dira ez homogeneousak ez errazak. Harreman horiek indartzeko lan egiten dugu; izan ere, gure erresistentzia handitzeko gai diren elkartasun materialaren eta elikagai espiritualaren iturri bakarra dira.

159 Ikus, besteak beste, Lynn Margulisen lanak.

SUMINAREN MAHATSAK

Lurraren Altxamenduak sortu zenetik laborantza lurrak metatzearen aurkako ekintzak egitea izan da helburu nagusia. Ardatz hori Confédération paysannekin dugun harreman oparoaren oinarria izan da. Harekin batera, ikerketa, trebakuntza eta ekintza prozesu bat garatu dugu, eta horren lehen fruituek eskualde honetako mahastiak izan dituzte haztegitzat.

Jurako sastraka garbiketa

2022ko urtarrilak 29, Jura departamenduko Passenans udalerrian. Mahastien alfer-lurren 2 hektareako lursail bat. Duela urte batzuk, 8 hektareako familia-etxalde txiki baterako mahatsak ekoizten zituen. Baina mahastizainek erretiroa hartzean, haien semeak etxaldearen zatiak saldu zizkion mahasti-lurren ABJ partzuergoari.

Normalean, laborantza lurren salmenta SAFERek¹⁶⁰ kontrolatzen du. Kontrol hori saihesteko modurik erabiliena lurren ordezkari enpresa saltzea da. Hain zuzen ere, partzipazio sozialaren eskualdatzeak Frantziako elikadura-lurren salmenta eta alokairua erregulatzeaz arduratzen diren instantzien kontrolerik erabat kanpo dauden transakzio ilunak dira. Prozesu horrek arreta eman gabe lurrak eskuratzea ahalbidetzen du. Eskualdatuko diren laborantza lurren milioika hektareak bezala, mahasti hori ere metatu nahi dute. Hori salatu nahi zuen, hain zuzen ere, Jurako Confédération paysannek Lurraren Altxamenduekin ekintza bat antolatuz.

Mahasti-lurren partzuergoak mahasti hori berrerosi zuen hura kapitalizatzeke, baina lugorri utzi du. Egitura kapitalistentzat, mahastia beste edozein inbertsio bezalako bat besterik ez da, eta ez lanerako tresna bat. Juran alabaina, mahasti-lurren kalitateagatik, nekazaritza ekologikoko mahastien 2 hektarea horiek nahikoa lirateke mahastizain bat eroso bizi ahal izateko.

Jurako ardoaren arrakasta nekazarien lanaren fruitua da. Nekazari-eremuetako kokatze berriek mahasti sarea berritzea ahalbidetu dute, eta, gaur egun, haren erdia nekazaritza ekolo-

160 [I.o.] Frantziako irabazi-asmorik gabeko sozietate anonimoen multzoa da, interes orokorreko helburuak ditu eta Nekazaritza eta Finantza Ministerioen babespean dago.

gikoan ekoizten da. Nekazaritza ekologikoaren presentzia sendo hori ezohikoa da pestizida eta fungizida gehien kontsumitzen dituen laborearentzat. Mahastizainen belaunaldi berriak lurra- ren prezioak arrazoizkoa izaten jarraitzeari esker agertu dira.

Baina mahastietako ardoak urriagoak eta gutiziatuagoak bihurtzen diren heinean, prezioek gora egiten dute bat-batean eta lurrak lortzea zailtzen dute. Jura bere arrakastaren biktima da egun. 2018an, Jean-François Gannevat mahastizaina «urteko mahastizain» izendatu zuen *Vins de France* aldizkariak. 2021eko azaroan, bere 13 hektareako etxaldea Alexander Pumpyanskiy mila milioidun errusiarrari saldu zion, hektarea bakoitza 48.000 euroan! 13 kilometro eskasera du etxalde hark Passenans.

Era horretan, Jurako lurrak eskuratzea gero eta garestiagoa bihurtzen da, baita bertan bizitzeko oztopoa ere. Confédération paysannek idatzi zuen moduan: «Gaur egun ezinezkoa da gazte mahastizain batentzat lur horietan bizi eta horiek laboratzea, eta bitartean, inbertitzaileek abandonatuta uzteko berrerosi eta beren prezioa igotzen utz dezakete, Ours izeneko Passenansko toki honetan bezala».¹⁶¹

Espiral espekulatibo hori geldiarazteko, 600 pertsona bil- du gara neguko goiz honetan lursaila setiatzeko. Egunsentitik, Confédération paysanneko traktoreek birrintze lanei ekin diete. Hura jarraituko dugu guk gurdi-zaldiekin. Aizturak, kurrikak, igitaiaik eta kakoak eskuan, abesbatza baten doinuan talde-lan handia sastrakak kentzen hasi da. Mahasti hilak eta zuhaixka atera berriak erauzten ditugu, belar txarrak kendu eta alanbreak jaso. Ordu batzuetan, lursaila egoera onean dago berriz ere, bir- landaketa onartzeko eta nekazariak biziarazteko prest. Aihenak eta hondakin berdeak erretzen ari diren bitartean, ogia, ardoa eta *compté* gazta partekatu ditugu.

Lehen helburua lortu dugu: laborantza lurren metatze masibo baina isila ikusarazi, tokiko metatzaileen aurrean in- dar harreman publikoa ezarri, ekintza kolektibo nazionalen bidez. Tokiko batzarrak eguna amaitutzat eman du hurrengo aurreikusteko. Aste batzuk geroago, 2022ko martxoaren 14ean, Confédération paysanne hartu zuen bulegoan departamenduko

161 Informazio gehiagorako (frantsesez): https://www.confederationpaysanne.fr/sites/1/articles/documents/DossierdePresse_ActionVar_AccaparementFoncier.pdf

prefetak. Estatuak hitzematzen zuen jabeak bultzatuko zituela mahasti-lursail hori berriro landatzeko hautagaitzak aztertu zituzaten. Jarraipena administrazioaren korridoreetan jokatzeko zen. Baina mahastizain bat bertan finkatzeko Confédération paysannereko asmoen arren, izapideak ez du oraindik arrakastarik izan gaur-gaurkoz, toki horretan berehala instalatzeko bitartekoak dituzten hautagai faltagatik.

Mahats-bilketa basatia Bernard Arnaultenean

Jurako ardo dastaketa horren ostean, Confédération paysannek ardoarekin loturiko beste ekintza batera gonbidatu gaitu. Oraingoan bai, Proventzako ardo gorria begiz jo dugu. Ongi etorri XVIII. mendean sortutako Esclans-en etxaldera! Hainbat jabe-
ren eskuetatik igaro ostean, lehenik nobleziakoak eta ondoren burgesiakoak, Suediako pentsio-funts batek erosi zuen 1994an. Inbertsio errentagarria, izan ere, 2006an, Sacha Lichine-ri birsaldu zion, zeinak 35 milioi euro inbertitu zituen luxu handiko ardo gorriaren negozioari ekiteko.

Sacha Lichine Alexandre Lichine aristokrata errusiarraren semea da. Haren gurasoek 1917eko iraultzatik ihes egin zuten «hiru burko eta kabiar kaxa batzuk aldean zituztela»,¹⁶² eta, jakina, «urrezko txanponez betetako maleta batekin».¹⁶³ Aita tratalari boteretsu bat zen, Margaux udalerrian Bordeleko etxalde handien jabea, Ameriketako Estatu Batuetara ardo frantsesa esportatzearen aitzindaria. Bere semea errusiar merkataria da eta Proventzako ardo gorriaren lehen mundu mailako marka handia sortu zuen.

Haren marka bi oinarritan funtsatzen da: oso gama altuko produktu bat, «Garrus», munduko ardo gorriarik garestiena —80 euro baino gehiagotan saltzen da botila—, eta kontsumo masiboko produktu bat, «Whispering Angel», ardo komertziala —17 eurotan saltzen da botila—, eskualde osoan mahastizain integratuei 1.000 hektarearen baliokidean erositako mahats-nahasketaren emaitza. Botila horiek Los Angeleseko mahairik eskusiboan, Kosta Urdineko yateetan eta Dubaiko hotel

162 Jean François Chaigneau, «Sacha Lichine, l'homme de tous les records», *Paris Match*, 2020ko irailak 8.

163 Michel Guerrin, «Sacha Lichine, VRP de luxe du rosé de Provence», *Le Monde*, 2017ko uztailak 5.

handietan daude. «The Hamptons-etan, Long Island-en ipar-ekialdeko auzo oso eskusiboan, Garrus agortzen den egunean, New Yorketik helikoptero hornidura urgentea egiten da».¹⁶⁴

Sacha Lichinek ez du krisia ezagutzen. Hamar urtean haren negozioen balioa 1,5 milioi eurotik 40 milioira igaro zen. 2010 eta 2020 artean, Proventzako ardo gorriak hazkunde izugarri azkarra izan zuen nazioartean, eta salmentak % 516 igo ziren kopuruan eta % 963 balioan. Hortaz, bere etxaldea hedatu nahi zuen, inguruko ahalik eta mahasti gehien erosiz eta kontratupeko gero eta mahastizain gehiago kontratatuz.

Château d'Esclans luxuzko ardo gorriaren upategi handi gisa gailendu zen, eta Bernard Arnault LVMHko enpresaburuaren interesa piztu zuen, hau da, 2023an munduko gizonik aberatsena izan zenarena, Elon Musk eta Jeff Bezosen oso aurretik.¹⁶⁵ 2019ko abenduan, bilioidunak Château d'Esclansen kontrola bereganatu zuen. Moët Hennessy filialaren bitartez, 26 milioi euroren truke eskuratu zuen Sacha Lichineren enpresako akzioen % 55. Etxaldea, orduan, 267 hektarea izatera heldu zen, eta haietako 74 ziren «AOP Côtes de Provence» jatorri-izena zuten mahastiak.

2020ko udaberrian, Château d'Esclans handitu egin zen alboko landa-partzuergoa erosiz SAFERen konplizitatearekin, zeina bitartekaria izan zen salerosketa horretan. Haren funtzio arautzailea bete beharrean, handitze-eragiketa lagundu zuen hiegizinen agentzia soil baten antzera. Esan beharra dago, jakina, komisio handi bat jaso zuela. Gaur egun, Arnault-Lichine tandemaren jabetzak 427 hektarea ditu —140 dira mahastiak—, eta haiei kontratu bidez tokiko mahastizainak txertatuz eskuratutako 1.000 hektareak gehitu behar zaizkie.

2022ko abuztuaren 28an, Château d'Esclansen inguruetara autoen konboi batean joan ginen. Jendarmeeek nekazarien matxinada batek gazteluari su emango zion beldurrez, ardandegia eta luxuzko jabetza babestu zituzten. Baina mahastiak interesatzen zitzaizkigun guri: metatzearen uztako fruituak jasotzera joan ginen, ondoren haiek banatzeko! Gure jarraigo alaiak abesten egin zuen aurrera, Jaka Horien doinu batekin: «Oi Bernard Arnault, ergel halakoa, zure lursailera gatoz mahatsa biltzera!».

164 Jean François Chaigneau, *ibid.*

165 Forbes, munduko 20 mila milioidun aberatsenen 2023ko sailkapena.

Aurreko udan, mahats-biltzaile ausart batzuk gauza bera egin zuten guk baino lehen, eta bilketa hori errepikatzeraz bultzatu gintuzten. Berrehun aihotz eta balde banatu ziren jendearen artean, haiengandik alduenduta zeuden jendarme eta segurtasun agente batzuen begirada harritupean. Mahats-biltzaileek aurrera egin zuten mahatsondoen ilaretan zehar, eta giza kate batek horretarako prestaturiko atoian husten zuen uzta. Mahats tona eta erdi bildu ostean, konboian abiatu ginen LVMHren etorkizuneko upeltegiaren obretarantz. Piknik bat egin genuen han. Prentsa mekanikoaren trinketak burrunba egiten zuen eguzki errean. Lanean hasi eta zukua ekoizten jarri ginen. Mahatsen zati bat oinek zantatu zen, antzinako moduan.

Ekintzak arreta mediatikoa deitu zuen. Confédération paysannerean aukera zen lurren metatzearen inguruan duen mezua zabaltzeko. Var departamenduko Confédération paysanneko bozeramaileak, Sylvain Apostolok, hala adierazi zuen: «Proventzako ardo gorriarekin dagoen mundu mailako liluragatik, gazteluak presio handia egiten du Esclans ibarrean uzta erosteko. Mahastizainek morrontzan bizitzearen sentsazioa dute, ia monopolio egoeran».¹⁶⁶

Gaua iristean, inguruko baserri batean, mila litro zuku botilaratu ziren, parte-hartzaileen eta borrokan ari diren kolektiboen artean banatzeko. Kopa baten inguruan, amesten jarri ginen: eta metatzearen fruituak biltzea tradizio bihurtuko balitz? Eta urtero mahats-bilketa basatiak nonahi egingo balira? Eta mahatsen uzta herrikoi handi batetik zukua soilik egin ordez, ardoa egiteko antolatuko bagina? «Baldin eta» batzuekin, antolamendu apur batekin eta imajinazioarekin, milioi dunak akaso botilan ere sar genitzake...

166 Idelette Frisch, «Des vendanges sauvages chez LVMH pour faire respecter la loi», *La revue du vin de France*.

MAHUKAK JASO: LURRAK BERRESKURATZEAREN HIPOTESIA

Lurra ez da kapitala, zerbait erabat ezberdina da. Lurra, nondik datozen gure elikagai guztiak eta industriak ondoren eraldatzen duen dena, naturaren parte da, arnasten dugun airea bezala, haiek gabe bizitzarik egon ezin daitekeen argia eta beroa bezala. Airearen eta argiaren pare, lurra eta urak ere libreak behar lukete. Gizakiak betidanik jakin izan du eta jakingo du hori. [...] Denona da – eta ez da inorena.

Gustav Landauer, 1913

Eta, hala ere, aspaldi kendu ziguten lurraren jabetza. Klase bat lurraz eta bere fruituez jabetu zen. Erosi, saldu eta metatu egiten da, edozein merkantzia bezala. Hormigoia desarmatzea eta agroindustria deuseztatzea; bi hipotesi politiko horiek aldaketa are sakonago bat lortzeko palankak dira: lurra jendearen esku uztea, bertan bizi direnei eta hura lantzen dutenei itzultzea.

Maila nazionalen, hormigoia iren industriaren eta agroindustriaren aurka indar harremanaren oinarriak finkatzea lortu dugu. Baina hondamendiaren arbuio irmoaz haratago, eraikitzeko gogoak adoretzen gaitu, lurrarekiko gure harremana oinarritzen duten erabilerak eta begiruneak birdefinitzeko borondateak bultzatuta. Lurra birjabetzea hipotesi politikoa da eta beste plan bat hedatzera bultzatzen gaitu, gure ekintza nazionalen egutegiaren paraleloa. Gure mugimenduak sakontzeko eta eraldatzeko beharra du, epe luzearako tokiko ekimenen sare bat osatuz. Lurralde osoan zehar barreiatuta dauden tokiko 150 batzorde baino gehiago sortu izanak aukera ematen digu lurraldean sustraitzearen oinarriak finkatzeko, jada leku guztietan existitzen diren lurren defentsaren eta birjabetzearen tokiko dinamika ugariak eza-gutzeko, indartzeko, saretzeko eta zabaltzeko.

Lurra ez da birjabetzen hormigoi-zentral bat desarmatzen den moduan. Lurraldean ongi errotutako presentzia eskatzen du, bat-bateko kolpeen politika gaudituko duena. Horretarako, tokiko kontrabotereak eraiki behar dira, lurraren jabetza kendu diguten aparatu burokratikoak bezain sendoak.

Elikadura-lurren alde borrokatzea

Lurra nahi dugu, ogia, etxebizitza, hezkuntza,
arropa, justizia eta bakea.

Black Panthers Party, *Hamar puntuko programa*

Frantzian, metropoliko 55 milioi hektareetatik, 28 milioi laborantza lurrek hartzen dituzte. INSEEren¹⁶⁷ ikerketa baten arabera, 2030erako, nekazarien erdiak erretiroa hartzeko adinera iritsiko dira.¹⁶⁸ Hortaz, baserri eta lur kopuru handia dago eskualdatzeko zorian, milioika hektarea hain zuzen ere! Historikoki, lurraren erabileran eta jabetzan hain aldaketa estruktural eta masiboak iraultza edo deskolonizazio testuinguruetan baino ez dira gertatu.

Lurren eskualdatze horrek agroindustriaren eta finantza-metatzaileen gosea pizten du. Putreak asaldatuta daude jada, eta lurraren jabetzaren metaketa inoiz baino gehiago areagotzen ari da. Gaur egun, mundu osoan, agroindustriako baserrien % 1ak laborantza lurren % 70a okupatzen du.¹⁶⁹ Europar Batasunean, 2013an, soilik nekazaritza-ustiategien % 3,1ek elikadura-lurren erdia biltzen zuen.¹⁷⁰ Metaketa bizkortu egin da bazkide fenome-noagatik eta nekazaritza finantzatzeagatik.

Egun, Frantzian, hamar baserritik bat finantza-erakunde¹⁷¹ moduko bat da. Nekazaritza-gainazalaren % 14 kontrolatzen dute eta 640.000 lur hektarea dituzte,¹⁷² baina beren lur-gosea aseezina da.¹⁷³ Nekazaritzakoak ez diren eta elikadura-lurrak kapitalizatzen dituzten inbertitzaileen esku-hartzea gero eta

167 [l.o.] Frantsesez, *Institut National de la Statistique et des Études Économiques*, eta euskaraz, «Estatistika eta Ekonomia Gaietarako Institutu Nazionala», Frantziako estatistika eta ekonomia ikerketarako nazio institutua da.

168 «Les agriculteurs : de moins en moins nombreux et de plus en plus d'hommes», Insee, 2020ko urriak 23.

169 Tanguy Martin, *Cultiver les communs, une sortie du capitalisme par la terre*, éditions syllepse, 2023.

170 Informazio gehiagorako (frantsesez): https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-8-2017-0119_FR.html


171 [l.o.] Frantzian, «société financiarisée» izenekoak sozietate eta ia sozietate multzo bat dira, eta eginkizun nagusia finantza-bitartekaritzako zerbitzuak (bankuak eta aseguruak) ematea edota finantza-jarduera lagungarriak (finantza-laguntzaileak) gauzatzea da.

172 *Terres de liens*, «Une ferme sur dix est une société financiarisée», 2023ko martxoaren 28ko txostena.


173 Lucile Leclair, *Hold-up sur la terre*, Seuil, 2022.



1970



2020



50 URTEAN,
NEKAZARITZAKO AZALERA % 10 MURRIZTU DA;
ARTIFIZIALIZATUTAKO LURRAREN AZALERA, ALDIZ, BIKOIZTU.

handiagoa da. Adibidez, Chanel-ek eta L'Oréal-ek Grasse-ko (Itsas Alpeak) lurra erosten dituzte, merkatuko prezioa baino lau aldiz prezio handiagoan.

Ezer egiten ez badugu, eskualdatzeko lur guztiak agroindustriako ustiategi handien hedapenak eta finantza-metatzaileek irentsiko dituzte. Baina nola saihestu lurra haien eskuetan amaitzea? Nola lortu erretiroak eta elikadura-lurren epe laburrekoa dirudien eskualdatzea emantzipazio aukera bihur daitezen?

Lurra berreskuratzeko nekazarien beharra dugu. Gure hitz eta ekintzekin bokazio berriak sortu nahi ditugu eta Frantzia desagertzeko zorian dagoen klase soziala defendatu.

Ibilbide-plan batera mugatu beharrean, kontzientzia politikoan eta zentzua bilatzean inarritzen da nekazarien bokazioa. Hura sentitzen dutenei, lurraren eta besteen zaintzari bete-betean heltzeko modu bat bezala eskaintzen zaie.

Baina laborantza lurren borroka denon ardura da, ez da soilik nekazarien kontua. Ez dugu bat egiten nekazariak historia egitera bideratutako subjektu iraultzaile bihurtzeko ideiarekin. Gure hipotesi politikoa da elikadura-lurren bilakaera erabat lotuta dagoela gure garaiko gatazka politiko, ekologiko eta sozial handiekin. Gure existentzien kondizio materialak zehazten ditu. Mundu guztiak ezin du nekazari bihurtu, baina mundu guztia antolatuta daiteke kolektiboki gure bizitzen bilakaeraren kontrola berreskuratzeko.

Defendatu eta birjabetu beharreko lur-sortan, laborantza lurrek toki oso berezia dute elikagaien iturriak direlako eta oinarritzko behar bat asetzen dutelako. Eskubide bat baino gehiago, elikagai osasuntsuak, kalitatez eta kantitatez behar adina eta tokikoak etengabe eta erregulariki eskuratu ahal izatea premia bat da. Alabaina, hori lortzeko modurik onena ez da soilik nekazari kopurua handitzea, baita laborantza lurren erabilera herritarren sarbidekoa izatea bermatzea ere; eta, batez ere, elikadura-lurren esleipena, banaketa, jabetza eta erabilera hautatzeko ahalmena denoi itzultzea.

Zerealen eta olioaren merkatuan Ukrainako gerrak izandako ondorioek berriki erakutsi dute noraino izan daitekeen arriskutsua agroindustriaren espezializazioaren mendekotasuna. 2007-2008 urteetan jada, mundu mailako elikadura «krisi» batek zerealen prezioa izugarri igo zuen. «Subprime» deituriko hipoteka-maileguren higiezin burbuila lehertu zen une berean izan zen. Kolpe horiek agerian jarri zuten harriaren eta lurren merkatuaren garrantzia, kapitalismoaren oinarria dira eta. Higiezin jabetzak «balore-gordailu» gisa edukitzearen aldeko olatua eragin zuten. Ondorioa metaketa bizkortzea izan zen, eta, beraz, denontzat are konplikatuagoa bihurtzea etxebizitza, lurra eta elikadura lortzea.

Behar-beharrezko produktuen inflazioa berria da Frantzia. 2020ko urtarriletik, pastaren eta kuskusaren prezioa % 36 igo da, irinen eta zerealena % 34, arrozarena % 28, ogiarena % 17 eta azukrearena % 62. Urtebetean, olioaren prezioak %

35 egin du gora, fruituenak eta barazkienak % 20 eta esneki eta arrautzenak % 24.¹⁷⁴ Inflazio horren irabaziak erabat xurgatzen ditu banaketa handiak¹⁷⁵ eta ez dute inolako ondoriorik lurra- ren langileen diru-sarreretan. Baina soldatapeko langileen eta langile prekarioen diru-sarrerak bere horretan dirauten bi- tartean, ezinezkoa izango da beharrezkoa zaigun kalitatezko elikadura bidezko prezioan ordaintzea. Nekazaritzatik duinta- sunez bizitzea ezinezkoa den era berean. Halaber, bizitzaren garestitzearen aurkako borroka, klase borroka bezala, lanaren diru-sarreraren aldeko berehalako gudu bat da eta,aldi berean, epe luzeko borroka bat ere bai, ekoizpen bitartekoak zuzenean hartzeko eta lanaren fruituak partekatzeko. Hirugarren sektore- ko eta sektore industrialeko langileen borroka sozialak 2024ko urtarrilean hasitako nekazarien oihartzun handiko mugimen- duarekin lotzen ditu.

Jaka Horiak erregaiaren prezioaren igoeraren erantzun gisa sortu baziren, elikagaien prezioaren inflazioak altxamendu berriak eragin litzake, gosearen matxinaden itzulera Mendebal- deko historiaren agertokian. Horretan datza, hein handi batean, «munduaren amaieraren eta hilabetearen amaieraren» arteko lotura zehatza, proletalگو hiritarraren eta landatarraren arte- koa. Elikadura-lurren banaketak eta nekazaritza ekoizpenaren antolaketak elikadurarako sarbidea baldintzatzen dute, eta hortik dator nekazaritzaren kontua politikoki birplanteatzea- ren beharra. Horretarako, komeni da «elikadura burujabetza» nozio lausoa zehaztea. Termino hori gure FNSEAko arerioek, Via Campesinako gure kideek, ezkerreko nekazariak eta es- kuin muturrak erabiltzen dute. Agroindustriarentzat, elikadura burujabetza nekazaritzako inportazioen eta esportazioen mer- kataritza-balantze kontua da. Agroindustriak elikaduraren merkatuaren globalizazioa eta nekazarien mundu mailako lehia bultzatzen ditu. Horren aurrean, ezker nekazaritzak merka- taritza askeko akordioen aurka borrokatzen du, eta elikagaien

174 Marine Delrue, Dorian Jullien, Gary Dagorn eta Romain Imbach, «Un an d'inflation la hausse des prix de 31 produits du quotidien expliquée», *Le Monde*, 2023ko maiatzak 17.

175 «Euroguneko inflazioaren bi heren enpresen etekinetatik datoz»; aldiz, hiru pertsonatik batek otordu bat saltatzen duela aitortzen du diru faltagatik. Iturria: [https:// www. quechoisir.org/action-ufc-que-choisir-inflation-alimentaire-il-est-urgent-d-en-finir-avec- les-profits-opaques-des-industriels-et-des-distributeur-exigent-foodwatch-familles- rurales-ufc-que-choisir-et-la-clcv-n114018/](https://www.quechoisir.org/action-ufc-que-choisir-inflation-alimentaire-il-est-urgent-d-en-finir-avec-les-profits-opaques-des-industriels-et-des-distributeur-exigent-foodwatch-familles-rurales-ufc-que-choisir-et-la-clcv-n114018/)

inportazioetarako gutxieneko sarrera-prezio bat proposatu; subiranistek, berriz, aduana-hesiak ezarri nahi dituzte. Guretzat, neurri protekzionistak esportazioen etenarekin batera joan behar dira, haiek gabe harrapakari eta kolonialak baitira. Mendebaldeko nekazaritza laguntza publikoekin gainezka jartzeak eta masiboki esportatzeak mundu osoko nekazalgora suntsitzea dakar. «Elikadura burujabetzaren» anbiguotasunarekin apurtzeko, nazioarteko elkartasuna eta merkataritza askearen aurkako borroka uztartzeko, Estatu-nazio markoaz libratu beharra dago, lurralde mailan elikadura autonomia planteatzeko. Era horretan soilik berreskura genezake gure iraupena eta bermatu genitzake denontzat kalitatezko elikagaiak.

Behar-beharrezko produktuen inflazioaren arrazoiak asko dira: iraupenei buruzko diskurtsoan Robespierrek «fratrizidatza» jotzen zuen gariaren espiral espekulatiboa; energiaren eta sargaien prezioaren igoerak nekazaritzan duen eragina; gizakion elikaduraren kaltetan abeltzaintza industrial intentsiboak xurgatzen duen zereal kopurua; energia ekoizteko («bio»erregaiak, metanizazioa, energia fotovoltaikoa) elikadurarako ziren laborantza lurren desbideratzea; eta, jakina, klima aldaketaren tragedia.

Lehorteen ugaritzeak, muturreko gertakari meteorologikoak eta tenperaturaren igoera etengabeak eragin zuzena eta masiboa dute nekazaritza ekoizpenean. Eta hasiera besterik ez da. Nekazaritza Holozenoko teknika bat da. Duela 12000 urtetik hona, klima egonkor eta epel batek lurra lantzeko eta artzaintzarako baldintza egokiak sortu ditu gure latitudeetan. Orain, alabaina, beste era geologiko batean sartu gara.

Batzuek «antropozenoa» deitzen diote, egungo eta etorkizuneko aldaketak «krisi ekologikoa» soilik ez direla adierazteko, baizik eta garai aldaketa bat. Baina guk uko egiten diogu «giza espeziea» —multzo bereizi gabetzat ulertuta— iraulketa horren erantzule izatearen ideari. Ezin dira alde batera utzi klase, genero eta arraza kontuak ekologia aitzakiatzat hartuta. Bizi dugun garaiko aldaketa hobeto kalifikatzen duen kontzeptua «kapi-talozenoa» da. Aro geologikoaren aldaketa hori produkzio eta kontsumo modu eta harreman baten ondorio gisa deskribatzen du.

Nekazaritza kapitalistaren aurrerapen oro aurrerapen bat da ez soilik langilea esplotatzeko artean, baita lurra desjabetzearen artean ere; haren emankortasuna tarte batez handitzeko aurrerapen bakoitza, emankortasunaren iturri iraunkorren hondamendiranzko aurrerapena da. Ekoizpen kapitalistak ekoizpen sozialaren aurrerapenaren teknika eta konbinazioa garatzen ditu soilik, aldi berean, aberastasun guztia datorren bi iturriak agortuz: lurra eta langilea.

Karl Marx, *Kapitala*

Nekazaritza zeruari eta lurrari estuki loturiko giza-jarduerara da. Klima aldaketekiko izugarri sentikorra denez, egingarria izango da oraindik 2 °C beroagoa den munduan? Denak iradokitzen du berrasmatu egin behar dugula. Hori agroindustriaren esku uztea, berotze globalaren aurka borrokatzeko aire giotzea handitzea bezalakoa da. Ez dugu robot eta pestizida gehiagoren beharrik, agronomia eta lurraren langile gehiago baizik. Klima aldaketarekiko erresistentea den nekazaritza modu hauetan orokortu ahal izango da: biztanleek beren elikaduraren kontrola berreskuratuz, nekazariak eta beren lan baldintzak defendatuz, azpiegiturak ugartuz eta gaitasun agroekologiko herritarrak sakonduz. Horrek lurra birjabetzeko bultzada handi bat eskatzen du.

Elikadura-lurrak birjabetzeko, beharrezkoa da indar harreman bat ezartzea eta lurraren aldeko borrokan ekintza zuzeneko formak berriz barneratzea. 70eko hamarkadako nekazari-langileen mugimenduaren ondarea berpiztu nahi dugu. Garai horretan, Loira Atlantikoan, ez zen arraroa berrogeita hamar bat traktore bat-batean agertzea eta ganadu merkataribatek berriki bereganatutako lursail bat goldatzea eta haren baserria setiatzea. Egun batean, Babin izeneko bat eskopeta bat eskuan zuela atera zen haiek uxatzera. Baina haien erabakitasunaren aurrean, azkenean, auzitan ziren lursailen zati bat utzi zuen nekazari-kokatze baten mesedetan, akordio lagunkoi bati sinatzeari esker zirriborro azkar batekin, hark haren eskopeta eta nekazari-langileek beren makilak utzi ostean. Teorian, higiezinen merkataua erregulatzeaz arduratzen diren erakundeen akats sistematikoaren aurrean, oinarritik zuzenagoak diren gure erregulazio formak inposatzea dagokigu. Ekintza horiek borro-

kan dauden tokiko nekazariak gidatuta soilik gerta daitezke, eta lurraldean errotuta dauden tokiko batzordeen laguntzarekin.

Lurren okupazioaren arrakasta mundu mailako indar harreman batean sartzearen araberakoa ere bada. 1968ko maiaztzeko grebak pizten zituzten nekazari-langileen ildoari jarraituz, nekazarien borrokak eta borroka sozialak lotu nahi ditugu, eta, horretarako, hornidura sare bat sortu, manifak, grebak eta okupazioak elikatzeko eta denboran zehar eusten laguntzeko. Elkartasun osasungarriak josteko bitarteko zehatz bat da, lurretik galtzadaraino. Mendebaldean —Rennesen, Nantesen edo Angersen—, hornidura sareekin eduki berri diren esperientziak lagungarri izan daitezke praktika horiek hedatzeko.

Iraunarazi nahi dugun beste ondare politikoa hiri baratzeak (langileen baratzeak ere deituak) dira. Nekazariak ez diren pertsonekin baina beren iraupenaren ardura hartu nahi dutenekin laborantza kolektiboak eta herri-baratzeak inplementatzean datza. Horrek lurra berreskuratzea dakar, bai landa eremuan baina baita hirian bertan ere, zehazki, garai bateko baratze-gerrikoetan. Lur horiek nekazari konplizeek emanak izan daitezke, baina baita okupatuak edo konfiskatuak ere tokiko indar harremanak ahalbidetzen duenean. Lentillères-etik Dijon-era, baratzeen esperientzia inspirazio iturri da. Nekazaritza-bokazioak sustatzeaz, migratzaileentzako harrera-lekua eta auzoarentzako prezio libreko merkatua irekitzeaz gain, lagunartekotasun eta elkartasun gune baliotsua zabaltzen du hiriaren bihotzean. Handik ez oso urrun, Besançon-en, Vaîtes auzoan gertatzen ari den borrokak hiri baratzeak defendatzen ditu, higiezin-proiektu batek hormigoiz estaltzearekin mehatxatzen baititu. Lurren okupazioak auzoko biztanleen elikadurara bideratutako baratzeen defentsa batzen du baratze-instalazio batekin eta AMAP pirata bat sortzearekin.

Elikagaien prezioen igoera basatiaren aurrean, langileen mutualismoaren ildoari jarraituz, elikaduraren sozializazio-esperientziak ugaritzearen hipotesia babesten dugu. Esperientzia horiek hirietako nahiz landa eremuko biztanleak ekimen oso zehatzen inguruan biltzean dautza: jantoki herrikoiaren praktika indartzea eta zabaltzea, eta elikaduraren gizarte segurantzaren tokiko esperientziak babestea eta biderkatzea, kotizazioak finantzatutako elkartasun kutxak sortzearen bidez; era horretan,

sektoreko nekazariekin lankidetza estuan, elikaduraren behar-
rrak eta erosketak partekatzeko.

Aurreikusita dagoen nekazari klasearen desagertzearen
aurrean, Lurraren Altxamenduen tokiko batzordeen ekintzak,
aktibismora mugatu orde, lurraldeko nekazarietako laguntza
barne har lezake. Laguntza hori zehatza izan behar da. Elkarri
eskua luzatzean, eskaera kolektiboetan eta lan-karga arintzean
edo baserriaren ekonomian lagun dezakeen guztian oinarritzen
da. Babes horrek hainbat forma har ditzake: sasoiko zeregin
kolektiboena, ordezkapen puntualena, bankuaren, adminis-
trazioaren edo baserria xurgatzeaz amesten duen bizilagun
arerioaren aurkako indar harremanean laguntzearena.

Lanean elkartasun kontsekuentea izateak nekazarietako la-
gun diezaieke denbora gehiago eskaintzen ekintza politiko eta
sindikalarari.

Era berean, nekazarietako lankidetasun-sareak sortzeko egi-
ten dituzten ahaleginek hiriko gazteak nekazaritza-eremuetan
kokatzea erraztu dezakete. Lurraren Altxamenduek militantzia
eta aktibismo ekologikoa lurraldean arrimatzeko lagundu nahi dute,
batzuetan modu alternatiboa gaingartzeko zailtasunak dituen
nekazaritza berpolitizatu bitartean. Lanarekin eta lurraldeko lan-
gileekin berriz ere lotzeko espazio politikoak ugaltzeko zubiak
irekitzen dizkio nekazaritza-eremuetan hasieran bide hori hartu
ez zuten pertsonak kokatzeari. Nekazaritza-eremuetan kokatze-
ko desira piztu eta zabaltzea borroka kultural eta politikoa da.
Eskulana eta nekazaritza-lana gutxiesten dituen gizartean bizi
gara. Baina gure garaia, halaber, inposatzen zaion bizitzari aurre
egiten dion gazterriaren asaldurarena da. Jendea nekazaritza-
eremuetan kokatzearen olatua gerta liteke lurralde defendatzeko
borroka-mugimendu irmo bat eratzen bada, desertzio profesio-
nal eta existentzialak ugartuz.

Nekazarietako beharra dugu soroa metatzeko libre ez uz-
teko, besoak eta eskuak lurra landu eta arretaz zaintzeko,
abereak larreak bazkatzeko. Ezinezkoa da lurren banaketa
honetan eragin esanguratsurik izatea nekazaritza-eremuetan
jendea kokatzearen olaturik gabe, gehienbat abeltzaintzan.
Nekazari berriek batez ere barazkiak edo belar usaintsuak
eta sendabelarrak landatzeko duten joerak eragin txikia du
lurzoruaren erabileran. Halere, agroindustriaren erokeriare-

kin apurtzen duten nekazari-abeltzaintzaren eta laborantza estentsiboen praktikak existitzen dira. Amets egin dezagun beren txandaketak zaintzen dituzten laborariekin, produktu kimikorik gabeko lurretan zerealak eta lekaleak bata bestearen ostean jartzen dituztenekin eta nekazarien barietateei lehentasuna ematen dietenekin. Amets egin dezagun artzaintzarekin, belardi iraunkorrek, mendiak eta hezeguneak kontserbatzeko duen funtsezko eginkizunarekin, aire zabalean bazkatzen duten tamaina apaleko bere artaldeekin, bertako arrazak hautatuz inguruko biodibertsitatea babesten duten abeltzainekin. Gaur egun, abeltzaintza mota hau arriskuan dago frenesi normaliboaren ondorioz, ukuiluko abeltzaintza intentsiboa eta, hortaz, zoonosiak ugaritzen diren bitartean. Animalien Munduko Osasun Erakundeak aire zabaleko abeltzaintzaren abolizioa bultzatzen du! Nekazaritza-praktika horiek babestu eta zabaldu gabe, ezin izango dugu eragin nabarmenik izan eskualdatuko diren lurren patuan eta metaketari aurre egitean.

Confédération paysannek helburu gisa jarri du milioi bat nekazari landa eremuan kokatzea. Ikuspegi hori partekatzen dugu. Baina, gaur egun, Frantziak ez ditu aitortutako 500.000 nekazari-ustiatzaile besterik.¹⁷⁶ Nekazari klasea berriz orokortzea beraz, ikaragarritzko lana eta adore handikoa da. Baina, *lurren jabetzaren aldaketa* segituan dator eta elikadura-lurren eskualdatze masiboa hasi da jada! Paradoxa bitxi bati egin behar diogu aurre: batetik, ez dugu nahiko hautagai aurkitzen landa eremuan kokatzeko eta eskualdatuko diren lurren ardura hartzeko, eta, bestetik, horietako askok zailtasunak dituzte bertan kokatzeko etxalde bat eta lurra aurkitzeko. Kontraesan hori sortzen duten oztopoak dira, batez ere, etxaldeen erosketa prezioa, zeina askotan eskuraezina den, eta ekoizpen industrialeko tresnen gehiegizko garrantzia, nekazari berrien proiektuetarako desegokiak izan ohi baitira.

Izan ere, ezin gara soilik aipatutako kokatze horien esku egon¹⁷⁷. Horregatik, ardatz estrategikotzat hartu dugu *laboran-*

176 Informazio gehiagorako (frantsesez): <https://www.terre-net.fr/salon-de-lagriculture/article/224611/chiffres-de-l-agriculture-des-agriculteurs-moins-nombreux-et-plus-ages>

177 [l.o.] Liburuan osoan zehar asko agertuko den terminoa da *kokatze* edo *nekazari-kokatze*; jendea landa eremura bizitzera eta lanera joatea esan nahi du, etxalde bat erosiz edo alokatuz, eta bertan nekazari sartuz.

tza lurren erreserbak eratzea. Lur erreserbak sortzea esplotazio agroindustrialen handitzeek mehatxatutako lurrak eta haien ardurara hartzeko oraindik hautagairik ez dutenak birjabetzeko eta mantentzeko tresna kolektiboa eraikitzea da.

Lur erreserbak, nolabait, trantsizioko herri-lurrak dira. Elikadura-lurrak partekatzean eta zaintzean oinarritzen dira, nekazaritza helburuak mantentzeko asmoz, baita berriz banatu ondoren, landa eremuetan kokatuko diren etorkizuneko nekazariari bideratzeko helburuz ere. Kontua ez da lugorrian uztea, baizik eta lurren eskualdatze masibo bati aurre egiteko tresna bat izatea, eskualdatze horiek batez ere familia-esparrutik kanpo egiten diren testuinguru batean, non metatzaileek guri aurrea hartzeko baliabideak dituzten. Lur erreserbak eratzeak agroindustriaren eskuetan dauden lur eremu zabalak berehala kentzea ahalbidetzen du, hura gehiago handitu ez dadin. Era berean, nekazaritzako jarduerak probatzeko saiakera-tokiak ugaritzeko balio lezakete, landa eremuan kokatzearen abenturari ekin aurretik, hainbat urtarotan bokazioa probatzeko eta oztopoei aurre egiteko. Laburbilduz, nekazari-lurretarako irismena eta nekazari jarduera hastea erraztuko lukete.

Egiaz, lurren etorkizunarekin kezkatuta dauden nekazari asko beren eskalako erreserba txikiak sortzen ari dira jada.

Inguruko lurrak libre geratzean, haiek berreskuratzeko jarrrera hartzen dute —nahitaez beharrik ez badute ere—, ondoren, etorkizuneko kokatze bati uzteko esperantzaz. Helburu horretarako tresna kolektiboak dituzten esperimenduak urriagoak dira. Loira Atlantikoan, SCIC Nord-Nantes kooperatibak erreserba-lan hori egiten du. Jabeak konbentzitu ostean, kooperatiba lursailak mantentzeaz arduratzen da eta hautagaiak bilatzen ditu bertarako, landa eremuan kokatzeko laguntza ematen duten tokiko egiturekin lankidetzan estuan. Kooperatibak ez du mantentzen dituen lurrak edukitzeko bokaziorik, baizik eta nekazariak bertan kokatzekoa.

Lur erreserbak sortzea gure lur-birjabetze politiken oinarri bat da. Politika horrek elikadura-lurrak berreskuratzeko gaur egun erabiltzen ari diren taktika guztien mugak ezagutzen ditu: borrokaren bidezko okupazioa, nekazarien erabilera eta herritarren erosketa. Okupazioaren eta ekintza zuzenaren taktikak une

honetan oso espazio eta azalera marjinalei eragiten die, lurraren jabetzaren aldaketaren hedadurarekin alderatuta. Nekazari-kokatzearen taktika sindikalak bokazio eta hautagai faltari aurre egin behar dio, baita kokatzean dituen oztopo ekonomiko eta administratiboei ere. Erosketa kolektiboaren taktika herritarrek —Terre de Liens mugimenduarena bezala— diru ikaragarri pila behar du lurra erosteko. Gainera, berrerostearen estrategia horrek ez ditu kontuan hartzen eskualdatuko diren lur gehienak, berez ez baitaude salgai, alokairuan baizik.

Baina, orduan, nola ugaritu zehazki lur erreserbak? Bide ugari daude. Gure mugimendua bereizten duena da sentsibilitate politiko ugari biltzen dituela bere baitan. Batzuek, lurren jabetzari buruzko lege handi baten alde egiten dute lurraren zerbitzu publikoaren modu bat eratzeko, eta, horren bidez, Estatua arduratuko litzateke lur erreserbak sortzeaz eta kudeatzeaz. Beste batzuek, udalerrriaren edo eskualdearen esku utzi nahi dute erreserba horiek sortzearen eta administratzearen ardura, udalerrri mailan edo lurralde-elkargoetan. Azkenik, borrokan dauden nekazarien eta biztanleen autoantolakuntzaren esku utzi nahi dutenak daude.

Aukera hori, gaurtik aurrera, erreserba horiek guk geuk sortzean datza, adibidez, nekazaritza-ustiatzearen sozietate zibilak sortuz, agronomo eta nekazari boluntarioen partaidetzarekin. Sozietate horiek auzo elkarteak, nekazaritza sindikatuen tokiko sekzioak, borroka kolektiboak, eta abar barne hartuko litzukete. Aurrerantzean eskualdatuko liratekeen lurretan kokatu litezke eta eurak berak arduratu lur erreserbak sortzeaz. Ustiatzeko baimenak aurkeztu. Laborantza lurra lortu. NPBako diru-laguntzak jaso. Ongarri ekologikoa erein, saltzeko lastoa ekoizteko belardiak segaz moztu, baita laboreak landatu edo artalde bat hazi ere. Bide hau sozietate amarruak lurraren jabetzaren kontzentrazioaren aurka erabiltzean datza, eta erreserba-tresna bihurtzeko desbideratzean.

Hiru aukera estrategiko horiek (Estatuarena, udalerrriarena eta autonomia) ez dira berriak. Frantziako lurraren jabetzaren berehalako aldaketak mundu osoko «nekazaritza erreformen» historia luzearen ondarea berriz aztertzeraz bultzatzen gaitu.

Iraultzak, nekazaritza erreforma eta lurren birjabetzea

Lore batzuek beren korola eguzkiari begira jartzen duten bezala, iraganak, ezkutuko heliotropismo moduko baten bidez, historiako zerutik ateratzen ari den eguzkiari begira jartzeko joera du.

Walter Benjamin, *Historiaren kontzeptuaren inguruko tesiak*

«Nekazaritza erreforma», mendeetan zehar soroak erre izan dituen ideia. Frantziako, Errusiako, Mexikoko edo Aljeriako nekazarien buruan, lurren jabetzaren monopolioak eta kontzentrazioak hausteko borondatea irudikatzen zuen, baita beren beharrak asetzeko denek elikadura-lurretarako sarbidea izateko eskubidea izango zutelako itzaropena ere. Saiakera iraultzaile ugariren muina izan da.

Iraultza liberalak egon ziren. Mirabetza eta jaunen pribilegioak abolitu zituzten, baina, azkenean, jabetza pribatua hobetsi eta herri-ondasunak deuseztatzen amaitu zuten. Frantzia, 1789ko indar iraultzaileak —denoi jabetzaren eskubidea emateko aitzakiapean— «jabetzaren eta boterearen gehiengo bermatu zien batzuei, denon laguntzarekin».¹⁷⁸ Babeuf-en jarraitzaileek «Berdinen konspirazioa» izenekoan elikadura-lurren birbanaketa baten bidez iraultza luzatzeko beharra adierazten zuten. Baina, 1793ko martxoaren 18an, Konbentzio Nazionalak «nekazal legerik edo lurren, merkataritzen eta industrien jabetzen bestelako subertsiorik proposatzen duen edonorentzat heriotza zigorra dekretatzen du».

Iraultza komunistak egon ziren. Etxalde handiak deuseztatu zituzten lurra nekazari txikiei birbanatzeko, baina, azkenean, lur jabetzen kontrolaz eta nekazaritza ekoizpenaz desjabetu zituzten Alderdi-Estatuaren burokraziaren mesedetan.¹⁷⁹ Errusian, 1917ko urriaren 26an, «Lurraren dekretua» argitaratu zen. Honek zioen: «1) Lur jabeen lur-jabetzak berehala indargabetzen dira inongo kalte-ordainik gabe. 2) Lur jabeen etxaldeak [...] beren azienda bizi eta hilarekin, eraikuntzekin eta eranskinekin, kantonamenduko nekazari-batzordeen esku geratzen dira». Baina, berehala, nekazari-batzordeei beren mamia kendu zieten. Neka-

178 Edgard Pisani, *Utopie foncière*, Gallimard, 1977.

179 Chantal de Crisenoy, *Lénine face aux Moujiks*, Seuil, 1978.

zarien autonomiaren aldeko matxinadak, Ukrainan eta Tambov eskualdean,¹⁸⁰ odolez ito zituzten. Komisario politikoen prosa hotzak bost urteko planaren helburu irrealen mende jartzen du nekazalgora.

Iraultza antiinperialistak egon ziren. Jabetza kolonial handiak desegin zituzten nekazari xume edo lurrik gabeen mesedetan, eta lur batzuk komunitate indigenei itzuli zizkieten. Baina, azkenik, aurrerapen horiek geldiarazi egin ziren burgesia nazionalen agerpenarekin, zeinak kolonoen lekua hartzeko eta lurreko aberastasunak metatzeko egarriz zeuden.¹⁸¹ Nekazaritza erreformak desjabetze prozesu horri ihes egin ziren toki bakarretakoa da Mexiko. 1910-1920ko iraultzan, Emiliano Zapata eta bere jarraitzaileek etxalde handien desjabetzea aldarrikatu zuten Morelos eskualdean. Desjabetutako lurren zati handi bat ejidoak bihurtu ziren, hau da, herriko komunitateari emandako jabetza eta gozamen kolektiborako lurak. Debekatuta zegoen haiek saltzea edo ematea. Porrot militarra jasan arren, erreibindikazio zapatistak 1917ko Konstituzioan jaso ziren neurri batean. Oinarri horren gainean, 1917 eta 1962 artean, ezkerreko gobernuak 48 milioi hektarea lur birbanatu zituzten pixkanaka.¹⁸² 1992an, gobernu liberal batek ejido edo herri-lur horien salmenta eta privatizazioa baimendu zuen. Horrela hasi zen haien zatiketa. Bi urte beranduago, Chiapas gobernuaren kontra altxa zen, iraultza mexikarraren espiritua eta sugarra berpiztuz.

Esperientzia iraultzaile horien guztien indarra herriek historia egiteko zuten gaitasuna frogatzean zetzan, naturalizat eta aldaezintzat jotzen ziren aginduak eroraraziz. Amaitzen ari den gure garaiko drametako bat ikuspegi hori itxi izana da, etorkizun politikoari atea itxi izana.

Baina nekazaritza erreforma gehienak iraultzen ondorioa badira ere, ez da denen kasua.

Bigarren Mundu Gerraren amaieran, Erresistentziak irudikatzen zuen erreformismo garrantzitsu bat egon zen Frantzian. François Tanguy-Prigent, erresistentziako kidea Finistère-n eta

180 Jean Louis Van Regmorter, *L'insurrection paysanne de la région de Tambov. Luttres agraires et ordre bolchevik, 1919-1921*, Ressources, 2000.

181 Frantz Fanon, *Les damnés de la terre*, Maspéro, 1961.

182 «La réforme agraire est presque totalement réalisée», *Le Monde diplomatique*, 1964ko martxoa.

nekazarien sare sindikal klandestino indartsu baten eragilea okupazioan zehar, Nekazaritza ministro izendatu zuten Vichy erori osteko biharamunean. Landa-errentamenduaren estatutua ezartzen duen 1946ko apirilaren 13ko legearen egilea da. Jabeek laborantza lurren gainean duten boterea izugarri mugatzen du. Baserritarrei eskubide sendoen bermea eskaintzen die eta lur jabe handiekiko haien mendekotasun neofeudala amaitutzat ematen du. Landa-errentamenduaren prezioa finkatu eta mugatzen du. Indar harremana alderantzikatzen du horrela lurraren erabiltzaileen alde. Haustura erradikala da landa frantsesean! Egun, oraindik, Frantziako nekazaritza gainazalaren % 60 landa-errentamenduan alokatzen da.¹⁸³ Erresistentzia Kontseilu Nazionalaren (EKN) ondarea da, maiz ahaztua. Beste neurri enblematiko batzuen antzera —esaterako, gizarte segurantzaren erregimen orokorra—, aurrerapen handia izan da, baita borroketarako laguntza-puntu sendoa ere.

Halere, hurrengo hamarkadetan, laborantza lurren errenta legeria aldatzea ez zen nahikoa izan gero eta ustiategi gutxiagoren esku zeuden elikadura-lurren etengabeko kontzentrazioari aurre egiteko. Errotiko aldaketaren hasiera gisa ulertzen ez bada, berehala tamaina bereko neurri batzuk hartzen ez badira jarraian, erreforma batek ezin du hark bakarrik lurralde-ordena estrukturaliki astindu.

EKNren epe laburra igaro eta gutxira, aldaketa iraultzaile baten aukerarik gabe eta erresistentzia armatuak eragindako presiotik aske, nekazaritza erreformaren aukera lausotu egin zen ezkerrarentzat, zentzurik gabeko erreformen mesedetan. Elikadura-lurren desjabetze eta birbanaketa masibo baten ordeztan, «lurren jabetzaren merkatuaren erregulazio» soil baten ideia inposatu zen. Edgard Pisani izan zen politika horren egile nagusia.

1960ko eta 1962ko legeen bultzatzailea izan zen, eta lege horiek bi erakunde sortu zituzten: SAFER eta CDOA. Instantzia horiek, legeak zehaztutako irizpideen arabera, salmenta-egintzetan (lehentasunez eskuratzeko eskubidearen bidez) eta laborantza lurren errentamendu-egintzetan (ustiapen baimenaren bidez) esku har dezakete. Estatuaren babespean, nekazari sindikatuak

183 Tanguy Martin, *Cultiver les communs*, op. cit.

zein jabetzen ordezkariek, ehiztariak, bankuak, mutualitateak eta abar biltzen dituzte.

Lurraldeko beste biztanleek ez dute ez hitzik ez boto-rik. Erreforma horiei esker, Estatuak eta nekazari sindikatuek laborantza lurren erabilera zehazteko lur jabeen ahal osoak ordezkatu baldin badituzte, agroindustriari azken finean hobeto entregatzeko da.¹⁸⁴

Beren osaketa dela eta, erakunde horiek FNSEaren hegemoniaren mende daude. Agroindustria osatzen duten atalak dira. Horrela, CDOAk ezohiko kokatzeak baztertzen dituzte, ez diote inolako oztoporik ezartzen lurren jabetzaren metaketari, inolako mugarik ez handitzei, eta ez dute irizpide ekologikorik kontuan hartzen lurra esleitzerakoan. Nekazaritza uniformizatzeko tresna bat dira, Estatuak eta Europar Batasunak ezarritako eredu produktibistaren moldera egokitzen diren ustiatzei bakarrik laguntzen baitiete. Erakunde horien aurrean sinesgarriak izateko, beharrezkoa da bankuekin zorpetzea eta behin-behineko aurrekontuak behar bezala ekoiztea. CDOAk klientelismoz josita daude. Lurrerako sarbidea lehenesteko erregimen oso desberdina aplikatzen dituzte, lurraldeen eta tokiko sindikatu indarren arabera. Beraz, erraz saihestu daitezke sozietateak muntatuz eta partizipazio sozialeko trukaketa opakuen bidez. Mugak gorabehera, Europako eta munduko nekazari askok erregulazio instantzia horiek beren herrialdeetan ezartzea aldarrikatzen dute, laborantza lurren jabetzaren merkaturia erabat kontrolatik at baitago. Frantzian, ezker nekazaritzak errefortzua eskatu du.

1981. urtearen aurretik, Edgard Pisanik *L'Utopie foncière* programa liburua idatzi zuen Frantziako Alderdi Sozialistarentzat. Obra hori erregulazioa indartzeko lege proposamen batekin amaitzen da. «Lurren jabetzarako bulegoak» izeneko erakunde publikoak sortzea aurreikusten du, lurralde bateko udalerrien ordezkariz osatuak. Bulego horiek lehentasuna izango lukete salgai jarritako ondasun higiezin guztiak erosteko. Helburua pixkanaka jabetza pribatua abolitzea da, lurren etengabeko berrerosketa «planifikatuz» haiek «publiko» bihurtzeko. Baina «utopia» ez da egia bihurtuko. Legea fikzio juridikoaren tiraderetan geratuko

184 Christophe Bonneuil, *La "modernisation agricole" comme prise de terre par le capitalisme industriel*, Terrestres, 2021eko uztaila.

da. Higiezinaren jabetza desegiteko baino, Mitterrandek Kanak herriaren mugimendu independentista eta espoliatu zizkieten lurak itzultzeko borroka legitimoa zapaltzeko kontratatu zuen Pisani.

Frantzian, 80ko hamarkadako norabide liberalaz geroztik, lurraren jabetzari buruzko legeek erregulazioak ahuldu besterik ez zuten egin, eta oso makalak ziren ordurako. Etor-kizun iraultzailerik eta nekazaritza erreformako asmorik gabe, ezker nekazaritzak inguratuta ikusi zuen bere burua, jada eskuratuta zuena defendatzen. Aurreko bosturtekoan, lurraren jabetzari buruzko lege bat lortzeko Macronen gobernuarekin izandako negoziazioak ezerezean gelditu ziren. Egun, lurren jabetzaren merkatua desarautzeko, neurri neoliberalak ezartzen dira. Neurri horiek nekazaritza *kontrarreforma* baten izaera dute, erabat areagotzen baitituzte elikadura-lurren metaketa eta konfiskazioa.

Nekazaritza erreformen historia beste aukera batzuetarako bidea egiteko iparorratza da. Saihestu beharreko kaleitsuak eta bide egingarriak adierazten dizkigu. «Altxor galdu» bat du bere baitan, Hannah Arendten hitzetan.¹⁸⁵ Autodeterminazio lekuetan eta uneetan kiribiltzen da, biztanleei boterea eta lurak itzultzen dizkieten tokiko erakunde autonomoen baitan antolatzeko modu herrikoien loratzean. 1789ko Parisko klubaren ugaritzean nabarmentzen da, 1917ko sobieten agertzean, Frantzian Fronte Popularra opor ordainduak ezartzera bultzatu zuten 1936ko lantegien oinarritzko batzordeetan, Espainiako gerran zehar Aragoiko landa eremuko komunetan, Jugoslaviako eta Aljeriako nekazaritza erreformen hasierako esperientzia autogestionatueta, Chiapasko komunitate zapatisten egungo matxinadetan...

Baina nola saihestu erakunde autonomo horiek loratu bezain pronto zimeltzen diren loreak izatea? Nola egin bere sarea lianena bezain trinko eta bereizezina izan dadin,¹⁸⁶ eta bere sustriak ehun urteko zuhaitz batenak bezain sakonak izan daitezten? Nola lortu gobernuaren aihotz bakar batek ere ezin ebaki ahal izatea inoiz? Galdera horientzat ez dago ia erantzun argirik.

185 Hannah Arendt, *Essai sur la révolution*, Gallimard, 1985.

186 Dénètem Touam Bona, *Sagesse des lianes. Cosmopoétique du refuge*, post-éditions, 2021.

Rosa Luxemburgek idatzi zuen moduan: «antolaketa on bat ez da ekintzaren aurretikoa, haren emaitza baizik», «uretan soilik ikasten da igeri egiten».¹⁸⁷

Halako kontrabotereak eraikitzearen zailtasun guztia bi eskakizun kontraesankorri erantzutean datza. Eskakizun mikropolitiko bat: osatzen dituzten norbanako eta taldeen eskumenean geratzea; haien jatorriko esperientzia kokatuei dagozkien tokian tokiko forma bereziei neurrira doitzea; eta, hala, desjabetze burokratikoa eragozte. Eta eskakizun makropolitiko bat: beren indarrak elkartu eta kontzentratuko dituen mugimendu zabal bat osatzea; Estatua, Europar Batasuna eta mundu mailako merkatua derrigortu eta eraginaraziko dituen ahalmen maila bat lortzeko elkartzea. Eskakizun bikoitz hori betetzen bada soilik eraldatu daitezke kontrabotereak *ahalmen bikoitzean*, hau da, ezarritako ahalmena astintzeko —edo are erorarazteko— bitartekoak lortzea benetako kontrapisua kontrajarriz.

Lurraren Altxamenduen batzordeak kontrabotere autonomoen lurraldeko sarea eraikitzeko prozesuan aktiboki parte hartzera deituta daude. Beren helburua da *lurralde sindikatuak, herrialde-batzarrak, arro hidrografikoen kontseiluak, lur jabetza komunitarioen bulegoak*, edo tokiko eztabaidetatik eta inspirazioetatik sortzen den beste edozein izendapen sustatzea edo horietan parte hartzea. Batzarretan indar aniztasun asko biltzea da helburua, lurra berreskuratzeko aukera elkarrekin gauzatzeko: Confédération paysanneko edo Groupement des agriculteurs bio-ko tokiko sekzioak, CIVAMak, ADEAReko soldatapeko langileak,¹⁸⁸ herritarren jabetzak, nekazarien baserriak eta kooperatiba txikiak, proiektu kaltegarrien aurka borrokan dauden tokiko kolektiboak, kolektibo naturalistak eta ingurumenaren aldeko elkarteak, soldatapeko langileen tokiko sekzio sindikalak, herrietako edo auzoetako biztanleak, eta abar. Kontrabotere horiek lurren birjabetzea azpitik bultzatzeko tresna dira, baita erakunde erregulatzailleen ahuleziaren aurrean tokiko indar harremanak ezartzeko tresna ere.

Badaude jada horrelako esperientziak hainbat lekutan. Eredu izan gabe, esperientzia berriek haiengan har dezakete

187 Hannah Arendt Rosa Luxemburgen hitzak aipatuz, *op. cit.*

188 ADEAR: nekazariak landa eremuan kokatzeko laguntza-egiturak.

inspirazioa. Pentsa dezagun «Paysans de nature»k padura atlantikoan bultzatu duen nekazari belaunaldien ordezkapen dinamikari buruz. Jabetze kolektiboaren estrategia, laguntza publikoak lortzea eta nekazarien kokatzea konbinatzen ditu metatzea eragozteko, alboko zenbait baserri berreskuratzeke eta horietan abeltzaintza praktikak ezartzeko, zeinek beren erdigunean jarriko duten padurako biodibertsitatea babestea, eta abeltzainen, Marais Bretoneko behien eta hegabera eurasiarraren arteko aliantza. Pentsa dezagun Euskal Herriko Laborantza Ganbaran: erakunde autonomoa, paraleloa eta Laborantza Ganbera ofizialaren lehiakidea da; haren ordeze, nekazari-kokatzeen laguntzaren eta nekazarien babes teknikoaren ardura hartzen du eta lurren jabetzaren politika propioa du.

Pentsa dezagun Notre-Dame-des-Landeseko aireportuaren aurkako borrokan sortutako nekazari-kokatzeetan, zeinak handitzeari ia 500 hektarea kentzea ahalbidetu zuten. Horretarako elkartu zituzten, alde batetik, autodefentsa administratiboa (ustiatzeko baimen koordinatuen ezarpenaren bidez) eta, bestetik, erabilpenen batzar bat eraikitzeko saiakera (elkarrekin pentsatzeko baso txikian nola bizi, hura nola laboratu eta zaindu). Pentsa dezagun Montagne limousine sindikatuan; bertan, basoa zuhaitz erretxinadunez ordezkatzearen kontra ari dira borrokan biztanle antolatua, lur erreserba bat abian jarri dute, eta elkartasun sare bat josi dute tokiko asilo eskubidea bermatzeko.

Ziur gaude lur zehatzen berreskurapena bultzatuz eta tokiko kontrabotereak sortuz behar diren baliabideak finkatuko ditugula iraganeko nekazaritza erreformen helburuekin zehatz-mehatz jarraitzeko: lurren metaketa handiak desegitea lurra birbanatzeko; diru-sarrera eta lan baldintza egokiak bermatzea lurraren langileei elikadura sozializatuz; denontzako lurra, etxebizitza eta elikadura bermatzea; Frantziak kolonizatutako komunitate indigenei lurrak itzultzea, Guyana-tik Kanaky-ra.

Baina metatzaileen eta agroindustriaren eskuetatik lurrrak erauzteko, ez da nahikoa han-hemenka sakabanatutako esperientzia batzuekin. Halaber, ez da nahikoa alderdi politiko bati hauteskunde programan erabiltzeko prest dagoen

jabetzari buruzko lege proposamen bat ematea. «Lurrak birjabetzea» terminoarekin okupazio uholde bat edo jabetzen berrerosketa kolektibo bat baino gehiago espero dugu. Lurrak birjabetzea lurren jabetze kapitalista eta koloniala desegiteko mugimendua da.

Lurraren Altxamenduen etorkizuna tokiko kontrabotereak halako mugimenduetan lotzean datza, oinarrian autoantolakuntzaren dinamika eratzean eta Frantziako koalizio handi batean. Ez dakigu lurren birjabetzeak jabetzari buruzko lege forma hartuko duen, edo iraultzarena, edo tokiko esperientzien ugaritzearena eta zabaltzearena, edo hiru aukerak aldi berean. Edozein kasutan, lurra biztanleen eskuetan berrezartzen duen tokiko erakunde sarean babesteko beharra izango du. Gure mugimendua osatzen duen sentsibilitate aniztasunak, hondamendiaren aurrekaririk gabeko larritasunak eta eskuin muturraren hegemonia kultural gorakorrak, bereizten gaituzten aurkakotasun zaharrak —gehienbat erreformaren eta iraultzaren arteko antagonismoa— gainditzea premiazkoa den egoeran jartzen gaitu. Era horretan soilik ahal izango gara bildu indarrez, soinez soin, borroka-eremu zehatzetan, eta estrategia komunak landu ahalko ditugu ere.

Nekazaritza erreformaren eguneraketaren alde lan egiteak, kontrarreforma liberalen segida etengabeak bultzatzen gaituen defentsibatik ateratzea esan nahi du. Ikuspegi gisa, garaipen bat planteatzea da, hirigintzako honelako lege edo halako proiektu baten inguruan gobernuak atzera egitean mugatzen ez dena, baikizik eta transformazio sakonaren forma hartzen duena. Aldaketa erradikal baten alde borroka egitea baimentzea da, etorkizunari buruz ditugun zalantzak eta haren izaerari buruzko desadostasunak gorabehera.

Lurren birjabetzearen gure politika ez da «iraultza pasiboa», hau da, «goitik egindako aldaketa soziala».¹⁸⁹ Berreskuratze aktiboa da, oinarritik hasita transformazio erradikal bat. Mugimenduak erauzia da, eta ez gobernuak emana. Helburua da kontrola autonomia guneetara eta tokiko kontrabotereetara itzultzea, lurra Estatuko burokraziaren esku utzi beharrean. To-

189 Antonio Gramsci, *Guerre de mouvement et guerre de position*, La fabrique, 2011.

kiko esperientziak gainditzen ditu haietatik datorren bitartean. Lurraren jabetza funtsean zalantzan jartzea dakar.

Mugarik gabeko jabetzei muga jartzea

Lurra deritzon hori gizakiaren erakundeekin modu askaezinean lotuta dagoen naturaren elementua da. Gure arbasoen enpresa guztietatik arraroena agian hura isolatu eta merkatu bat eratzea da.

Karl Polanyi, *The Great Transformation*

Lurra bizi forma guztien oinarria bada, gure antolaketa sozialarena ere bada. Haren arabera da gure eraikitze, laboratzeko eta bizitzeko gaitasuna. Parte hartzen dugun lurren jabetzaren borroka «lur funtsen» aldekoa da. Funtsak literalki «zerbaiten funtsezko zatia» esan nahi du. Lurraren banaketari eta birbanaketari, erabilerari eta jabetzari eraso egitea gizarte ordenaren muina bera ukitzea da. Ordena hori biztanleei lurra konfiskatzean oinarritzen da, kontrola behin betiko galtzeraino.

Mendebaldeko ordena juridikoaren jatorrizko ekintza «lurraren jabetzea» da. Jabetze hori lurzoruan trazatutako lerroetan hezuramaitzen da, eta haiek espazioan banatzen dituzte zurea eta nirea, pribatua eta publikoa, barnekoa eta kanpokoa. Botere politiko baten inaugurazio ekintza bere subiranotasuna zein lur funtsetan gauzatzen duen mugatzea da, katastroaren trazaduratik hasi eta mugetaraino.

Erromatar Inperioak estatu arrazoi lineal edo geometriko bat ezartzen du, eta kanpamentuen eta gotorlekuen diseinu orokorra dakar, baita trazaduraren bidez mugatzeko arte unibertsala, lurraldeen antolaketa, eta lekuak eta lurraldetasunak espazioaz ordezkatzeko ere.

Gilles Deleuze eta Félix Guattari, *Mille Plateaux*

Kondairak dioenez, K.a. 715. urtean, Numa Pompiliok, Erromako bigarren erregeak, Romulok konkistatutako lurra banatu eta Terminusen, mugen zaindariaren, gurtza ezarri zuen. Terminusek lurraren jabetza pribatuaren izaera aldaezin eta sakratua irudikatzen du. Bere garaipenak Saturnoren erregealdiari amaiera eman zion, non lurralde guztiak komunak ziren. Neguko solstizio bakoitzean, Saturnoren jaietan, Inperioko hierarkia sozialak hainbesteraino inbertitzen ziren, non esklaboek ere

aldi baterako askatasuna baitzuten. Aitzitik, Terminusek *dominium* erromatar jardunaren iraunkortasuna mugatu eta bermatu zuen: hau da, *pater familias*en erabateko gozamina lurren, emakumeen, haurren eta esklaboen gainean. Hiriko lurrak mugatu ondoren, Erromak bere inperioa Mediterraneo osora zabaldu ahal izan zuen pixkanaka.

«Lurraren jabetze batek norabide bikoitzean oinarritzen du zuzenbidea, barnealderantz eta kanpoalderantz».¹⁹⁰ Hala-ber, XV. mendetik aurrerako metaketa kapitalistaren jatorrian, lurraren jabetze bikoitza dago: barnekoa, herri-ondasunen itxiturarekin,¹⁹¹ eta kanpokoa, «mundu berriaren»¹⁹² kolonizazioarekin. Kapitalismo aurreko jabetzaren eta gobernuaren formek espazio-mugak zituzten arren, gaur egun ez da horrela. Britainiako paduratik Karibeko mangladietara, olatuen haustetik mendien gailurretaraino, itsaso eta ozeanoetatik haratago, lurren jabetze kapitalista mundu mailakoa da. Mugarik gabe agertzen da eta etengabe baztertzen du edozein muga.

Gaur egun, itxituraren logika eremu guztietan barneratzen ari da. Maila molekularrean: bizidunen patenteak nekazarien hazien eta sendabelarren material genetiko bereganatzen du. Maila holistikoa: konpentsazio ekologikoen merkatuak aukera ematen du «zerbitzu ekosistemikoekin» espekulatzeko, eta, orain, baso batek karbonoa biltzeko duen gaitasuna ere monetizatzea daiteke.

Jabetze kapitalista existitzen den guztiaren suntsiketaren iragarpena da. Metaketa lur errearen politika da. Juridikoki, lurraren jabetzak —dela pribatua dela Estatuarena— hondamendiarekiko eskubide burujabe bat du. Beraz, jabetza eskubidea triptiko ezagunaz definitzen da: *usus*, *fructus*, *abusus*.¹⁹³ Lur baten jabea izateak hura erabiltzeko eskubidea barne hartzen du (*usus*), baita haren fruituez gozatzeko eskubidea (*fructus*), eta, azkenik, jabea den lurra saltzeko eta, batez ere, suntsitzeko eskubidea ere, substantzia bera ezinbestean aldatzeko eskubidea (*abusus*). Lurren defentsaren eta berreskuratzearen aldeko gure

190 Carl Schmitt, *Der Nomos der Erde*, Duncker & Humblot, 1950.

191 Itxitura: Lur komunalak norberarentzat ixtea eta banatzea.

192 Sylvia Federici, *Caliban eta sorgina*, Elkar, 2016.

193 Sarah Vanuxem, *Propriété de la terre*, Wildproject, 2022.

borrokaren asmoetako bat jabetzaren abusuzko dimentsioa abo-
litzea da, hari mugak ezartzea.

Jabetza pribatuaren mugaketa eskubideen kontu simple bat baino gehiago, gure ustez, indar harreman baten emaitza da. Lurrak berreskuratzeko prozesuaren lehen fasea, hortaz, jabetzari muga bat ezartzean datza. Hori egiteko, Altxamen-
duen batzordeek lurraren defentsarako batzordeek bezala jokatzeko intentzioa dute, tokiko borrokekin harreman estuan. Hau higiezin jabetza zaintzeko lan batekin hasten da. Beharrezko informazioa lortzeko, komeni da batzea nekazariekin, naturalistekin eta lurraldearen antolaketaren eta lurren esleipenaren ardura duen administrazio barnean lan egiten duten funtzionarioekin.

Higiezin jabetzaren zaintza ekintzarako palanka erabakigarria da. Proiektu suntsitzaileak identifikatzen laguntzen du, ahalik eta azkarren aurre egiteko hormigoitze-saiakerei, agroindustriaren azpiegitura berriak eraikitzeari eta beste antolaketa-proiektu kaltegarri batzuei. Higiezin jabetzaren zaintzak proiektu horiek sortu bezain pronto soinez soin aurka egitea ahalbidetzen du. Lurra suntsitzen dutenek beldur izan behar dute, beren lurraldearen kontrola berreskuratzeko prest dauden biztanle eta nekazarien aurkakotasun basatiaren presioa sentitu behar dute. Atzerapen lokalizatu bakoitzak eta tokiko garaipen bakoitzak, lehenagoko abandonuen mamua handituko du. Ondorioz, gure borrokak zenbat eta ugariagoak eta indartsuagoak izan, orduan eta gehiago jazarriko ditu mamu horrek bere disuasio-ahalmenarekin.

Lurra berreskuratzeko, nekazaritza jabetzen zaintza funtsezkoa da. Departamendu bakoitzean, nekazaritza gainazal eta laguntza publiko gehien metatzen dituen enpresaren izena azkar bihur liteke mespretxagarria, nahikoa litzateke inork haren kontrako kanpaina egitea. Kontua agroindustriako lurren metatzaileak identifikatzea eta salatzea da, presiopean jartzea eta euren sabelkeria geratzea. Era berean, eskualdatzeko laborantza lurrak katalogatu egin behar dira berreskuratu ahal izateko. Laborantza lurren sakoneko lan hori agroindustriaren tokiko jardunbideei buruzko ikerketa batekin eratzen da: barreiatzen dituzten produktu toxikoak identifikatzea, ur kontsumoa kuan-

tifikatzea, nekazaritza-langileak esplotatzeko baldintzak hobeto ezagutzea, eta abar.

Ikerketa eta ezinegon politikoa batuz, jabe handiek, promotoreek eta agroindustrialariek jada ez dute «etxean» sentitu behar. Ezin dute lurraz zigorrik gabe abusatzen jarraitu. Muga hori guk jarri behar dugu. Edonon, lurra suntsitzen dutenak ahotsaren eskumenean daude, eskura. Gure asmoa da beldur izan diezaiotela Altxamenduen batzordeek, edonoiz, beren atea jotzeari.

Herri-ondasunak berreraikitzea

1968ko ekainean, Garrett Hardin biologo estatubatuar eta ekofaxista ospetsuak¹⁹⁴ «Ondasunen tragedia» izeneko hitzaldia eman zuen. Erreferentziatzko testu horrek behar ekologiko gisa teorizatzen du itxitura. Ondasunak eta «baliabideen iraunkortasuna» uztartzea ezinezkoa dela dioen tesia defendatzen zuen. Baieztapen hori jolasen eta zibernetikaren teorian oinarritutako eskematizazio abstraktuan oinarritzen da, leku eta garai guztietan arbitrarioki aplikatuta.

Imajina dezagun sarrera libreko bazkaleku komun zabal bat. Hardinentzat, abeltzain bakoitzaren interes egoista bere azienda ugaltzea da, bere aberastasuna areagotzeko. Hortaz, denek modu horretan jokatu dute belardietako belarra erabat agortu arte. Haren ustez, «ondasunen tragedia» hori saihesteko bi modu bakarrak honako hauek dira: batetik, lurraren jabetza pribatua, zeinak adostasuna ekarriko omen duen jabearen interes egoisten eta «baliabideen babes iraunkorraren» artean; eta, bestetik, artaldean eta bazkalekuen mugak inposatzeko gai den Estatuaren administrazio zentralizatuaren hertsapena.

Baina sinestea abeltzainak ez direla gai izango gehiegizko artzaintzaren zantzu aitzindariak ikusteko, beren abereen egoeraren okertzeaz eta belardien agortzeaz jabetzeko, beren ondasunak babesteko erabilera arauak ezartzeko, lurraren eta

194 Garrett Hardin Ameriketako Estatu Batuetako ekologiaren figura nabarmena da, darwinismo sozialaren eta eugenesiaren jarraitzailea, eta immigrazioaren nahiz hazkunde demografikoaren murrizketa zorrotzaren aldekoa. Harentzat hondamendiaren arrazoi nagusia «gainpopulazioa» da. Aktiboki aritu da herrialde pobretuen familia-laguntzen eta elikadura-laguntzen kontra militatzen, baita «buruhulak» esterilizatzearen eta mugak ixtearen alde ere. Ekofaxismo garaikidearen aitzindarietako bat da.

bizitzaren kontuez erabat ezjakina izatea da. Ez al dira, aitzitik, arrisku hori aurrez ikusteko egokienak, ondasunak erabiltzeko ohiturak eta arauak ezartzea adostuz? Elinor Ostrom-ek enpirikoki frogatu zuen uraren, arrantzalekuen eta basoen bere lanen bidez, «herri-ondasunen autogobernurako»¹⁹⁵ modu bideragarri ugari daudela.

Hardinen kontrako ondorio bat dugu guk: jabetza pribatuak eta Estatuaren kudeaketak ez gaituzte aldaketa ekologikoetatik batere babestu. Estatu batzuek zenbaitetan lurraren babeserako neurriak hartu dituzten arren, argi eta garbi ez dira nahikoa izan hondamendia geldiarazteko. Egia esan, *tragediaren* bat baldin badago, zalantzarik gabe, eremu komunaren murrizketa drastikoarena da.

Gaur egun, Mendebaldeko metropolietako biztanleen gehiengoarentzat, «gune komunak», zoritxarrez, korridore estu batera eta zaborren gela batera mugatzen dira. Bizimodu nagusia zati pribatuen espazio txikiko itxitura existentzialarena da. Espazio publikoari dagokionez, egunero gero eta beteago dago merkantilizazioaz, bideozaintzaz eta polizia miatzeez.

Eremu guztia arerioak okupatu du jada... Benetako hirigintza agertuko da, eremu jakin batzuetan okupazio honen hutsunea sortzean.

Eraikuntza deritzoguna hasiko da orduan.

Internazional Situazionista, 6. zk., *Hirigintza bateratuaren programa iraultzailea*

Guretzat, jabetza pribatu eskusibo eta abusuzkoak itxuratzen duen lurraren jabetza-erregimen honen pean jaio garenontzat, ez da erraza imajinatzea ez zela beti horrela izan. Mendebaldean modu hau inposatu da aldibereko jabetzen erregimen feudalaren orde.¹⁹⁶ Gogora dezagun XVIII. mendean Britainian, herri-ondasunak oraindik lurraldearen % 42a zirela!¹⁹⁷ Ezin konta ahala erabilera eskubide zeuden: uzta eskubidea, buruxkak biltzekoa, *plantis* edo landatze eskubidea, artzaintzarena, larratze librea, bigarren belarrarena, bazkatzearena,

195 Elinor Ostrom, *Governing the Commons*, Cambridge University Press, 1990.

196 Sarah Vanuxen, *Propriété de la terre*, *op. cit.*

197 Jean-Baptiste des Gallois de La Tour intendentearen memorien arabera, Sklaerenn Sculler-ek aipatua in *Propriété et usages collectifs, l'exemple des marais de Redon*.

champoyage eskubidea, sua egiteko egurrarena, ehizarena, arrantzarena eta ibilbidearena... Lege-testu batek baino gehiago, erabilera eskubide horiek botere feudalaren eta landa komunitatearen arteko indar harremanak bermatzen zituzten, baita matxinaden jarraitutasunak eta herri-ondasunak defendatzeko egoskorkeriak ere. Hortaz, mendeetan zehar, komunaren aldekoek egun mehatxatuta dauden inguruneak zaindu zituzten: hala nola, gasteak, garrigak, oteak, txilarrak, itsasertzeko padura lehorrak, padurak eta mendiak.

Lurren berreskuratzea ikuspegi politiko gisa izateak, gune komunen eremua zabaltzean lan egitea esan nahi du. Hirian higiezin jabetzari eraso egitea, etxebizitzaren, alokairuen neurritz kanpoko prezioen, eta gure behar kolektiboak asetzeko eremu gehiagoren kontua birplanteatzea da. Elikadura-lurrak berreskuratzearen baliokide hiritarra gure beharrak asetzeko higiezinak eta lokalak okupatzea eta konfiskatzea da.

Lurra berreskuratzea hasten bada mugarik gabeko jabetzeari muga bat jarritz, muga horrek, aldi berean, berreraiki nahi ditugun herri-ondasun berrien ingurua marrazten du. «Herri-ondasunen» kontzeptuarekin blokeatu beharrean —teoria liberal eta utilitaristen jarraigoarekin—, «komunal» edo «komun» terminoetara jotzen dugu. Guretzat «herri-ondasunen» nozio juridiko eta ekonomikoa bera problematikoa da, jarraitzen duelako lurra salgai-objektu gisa ikusten:

- Tradizioz, zuzenbidean, ondasun bat honela definitzen da: «Gizakiari nolabaiteko onura eman diezaioketen eta jabetza pribatua bihur daitezkeen gauza guztiak».¹⁹⁸ Ondasun bat dakarren aberastasunak bereizten du. Baina lurra eta ura ez al dira ondasun bat edo gauza bat baino askoz gehiago? Ez al dira bada haiek zaintzeko, hain zuzen ere, halakotzat edukitzeari utzi beharko?
- Tradizioz, ekonomian, «herri-ondasun» bat bere izaeraren arabera definitzen da: «lehiakidea» da eta «ez esklusiboa». Lehiakidea da nire erabilerak gainerakoena oztopatzen duelako. Ez-esklusiboa da teknikoki oso zaila delako sarbidea mugatzea. Era horretan, lurra definizioz baztertuta geratzen da: «Jabetza pribatua, igarotzea debekatuta» dio-

198 G. Baudry-Lacantinerie, *Précis de droit civil*, 1269 zk., 1922.

ten kartelegin hesitu eta inguratu daitekeelako, eta aldi bereko erabilera ugariren euskarri delako.

Herri-ondasunen kontzeptuarekin ez bezala, «komunal» hitza bat dator gure ondarearekin eta ikuspegi politikoarekin. Lurra eta ura barne hartzeaz gain, tresnak, eraikinak edo lekuak ere barne hartzen ditu. Mugarik gabeko jabetze kapitalistari, komunalek birjabetze kokatu eta komunitarioa kontrajartzen diote. Jabetza pribatu eksklusibo eta abusuzkoei, erabilera-jabetza, aldi baterakoa, kolektiboa eta aldiberekoa kontrajartzen diote. Merkatu-balioari, aldiz, partekatzearen eta elkartasunaren etika.

Komunalak berreraikitzeko bideetako bat, gure ekintzei loturiko beharretatik hastea da, *borrokaren komunalak* eraikitzen hasiz. Rennesko Lurraren Altxamenduen batzordeak baliabide material autonomoz hornitzeko deia egin zien gainerako batzordeei: jantokiak, kanpamentu mugikorak, hornidura sareak, eta abar. Mugimenduarekin eta antolaketarekin zuzenean lotutako beharretatik abiatuta, komunizazio-prozesu hasiberria egunero bizitzako beste esparru batzuetara heda daiteke pixkanaka. Hala eratzen da Lurraren Altxamenduen aletegiak eraikitzeko ikuspuntua. Nekazaritza ez profesionalaren ekoizpen kolektiboko esperientziekin bete litezke, edo nekazari bizilagunen lotura estuarekin, baina baita metaketaren fruituaren uzta jasotzeko eta birbanatzeko ekintzak ugaritzearekin ere.

Mugimenduko komunalak azpiegituren, lantokien eta tresnen multzoa dira. Dinamika horretan sakontzeak ondoren antolaketa eta biltegitratze lekuak, lokalak, estalpeak, lurak eta eraikin komunak izatera bultzatzen du. Autoantolakuntza politikorako espazioa irekitzen dute, non borroka komunitate bat behar batzuk asetzeko baliabide materialez hornitzen den. Partekatze horretarako, gatazkak ebazteko erabilera-arauak eta barne-prozedurak ezarri eta praktikan jarri behar dira. Autonomia politikoaren praktika ikasteko aukera ematen du.

Komunal horiek okupazio forma har dezakete, edo nekazari-kokatze batena, erosketa batena edo alokatze kolektibo batena, eta modu erabat informalean ere gauzatu daitezke. Modu horietako bakoitzak maniobra-marjina eta iraunkortasun-berme desberdinak eskaintzen baditu ere, guztiek laguntzen dute komunalak berpizten eta jabetza pribatuaren eremua mugatzen.

Lurrarekin beste harreman bat lantzea

Gure lurra landu behar dugu, garia egin behar dugu,
gure gorputzen ardo gorriarekin ureztatu.

Mahmud Darwix, «Hitz pasakorren artean pasaiari»

Lurra berreskuratzeko borrokak dimentsio kulturala du. Egun helburua lurrarekin dugun harremana atzematen duten bi eredu nagusien hegemoniaren aurka borrokatzea da: eredu liberal eta utilitarista, zeinak erabiltzeko baliabide eta esplotatzeko jabetza gisa soilik ulertzen duen; eta, eredu nazionalista eta erreakzionarioa, zeinak lurra eta hildakoak aipatzen dituen soilik bere buruarengan lubakitutako aberri baten jatorriaren, lurraren eta odolaren purutasunaz harrokeriaz hitz egiteko.

Eredu hilgarri horietaz libratzeko, gure iruditeria nekazariengana eta tokiko kultura ugaritara gerturatzu elika dezakegu, bai urruneko tribuetatik datozenak bai Britainiako eta Okzitaniako herrietatik datozenak. Mundu osoko kultura askotan, lurra inorena ez bada eta, beraz, guztiona bada, lehenik eta behin sakratua delako da, espiritu, jainko edo arbasoen jabetza gorena delako. Inperialismo kolonialak ez bezala, zeinak lurraren jabetza-erregimena nonahi inposatzen duen, gure mugimenduak lan egiten du herri eta kosmogonia ugarirekin harremanetan egonez eta kreolizazioarekin lurrarekin dugun harremana aberastu egingo den mundu bat lortzeko.

Adibidez, Volta-ko (Afrika) arro hidrografikoaren usadio eta ohiturak, inspirazio iturri izan daitezke Frantziako borroketan bilatzen denerako. Burkina Fason, Kassena herriaren lurren jabetza-erregimena «esertzeko leku baten eskubidea»¹⁹⁹ izenean oinarritzen da, hau da, bizitzeko, egoteko eta landatzeko lurra denok edukitzearen bermean; eta «santutegi arboladiak» ezartzeko, «lurraren zati handiak erabilera komunerako» kentzean. Mugimendu bikoitz hori, lurraren eskubidea eta «leku salbuetsiak» kontsaktatzea, inspirazio baliotsua da guretzat.

199 Danouta Liberski-Bagnoud, *La souveraineté de la terre. Une leçon africaine sur l'habiter*, Seuil, 2023.

Gaur egun, ikus dezakegu Burkina Faso jada ez dela lehen zena. Ikus dezakegu urmaelak lehortu direla, baso deitzen zitzaiona desagertu dela. Gure arbasoek arboladiak sortzeko argitasuna izan zuten, arboladi sakratuak [...]. Debekuek eta tabuek natura errespetatzea bermatzen zuten.

Thomas Sankara²⁰⁰

Burkina Fasoko lurren jabetza-erregimenean lurrari loturiko tabuen artean, saltzeko eta erosteko debekua dago. Debeku hori —Burkina Fasokoa bakarrik izan gabe— herri askok partekatzen dute. Bat dator esaera zahar amazig honekin: «Ez dugu aiten eta aitonen lurra saltzen, patatak soilik ditugu saltzen». Lurra erostea denbora luzez ezinezkoa zen, aberrazioa, sakrilegioa. Askoren ustez, lurra ez da materia bizigabea, baizik eta solaskide bat: eskaerak egiten dizkiogu eta ematen diguna eskertzeko ofrendak eskaintzen dizkiogu.

Argi gera dadin ez garelako kassena edo amazigak imitatzea proposatzen ari Aro Berriaren (*New Age*) errituak sortuz. Haienganako iraina litzateke, baita aldi berean, geure buruarekiko engainua ere. Aldiz, lurrarekiko beste harreman batzuk bilatzeak gurea arrotasun osoz ulertzea ahalbidetzen digu, *desmerkantilizatzeko* ezinbesteko beharraz ohartzea. Gurean lurra objektu, aberastasun ekonomiko edo helburu baterako baliabide izatera mugatzea da, hain zuzen ere, hondamendia geldiarazteko apurto nahi duguna. Horregatik bilatzen dugu elikadura-lurren berreskurapena lurren pixkanakako abandonuarekin antolatzea, Rouen-eko basoan edo Girose-ko glaziarrean burutu genituen ekintzak bezalakoekin.

Modernitate kapitalistak ezabatu egin ditu Mendebaldeko kulturaren aurretik zeuden lurrarekiko loturen aztarna guztiak. Lurreko jainkoez beteta zeuden kristautasunaren aurreko mitologiak ahanzturan erori ziren, kapitalismoaren aurreko tradizio kristaua bezala, non lur guztia Jainkoarena zen eta ez gizakiena. «Ondasunen komunitateari» dagokionez, XIII. mendera arte Elizaren doktrina izan zen, eta, egun, San Agustinen atsotitza baino ez da geratzen. «*Omnia sunt communia*». Mendebaldeak, erlijio kontuak eta sakratuak baztertzeko aitzakiapean, merkaturia jainkotu, salgaia fetitxizatu eta ekonomia magia beltz gisa

200 Thomas Sankara, *Desertifikazioaren aurkako borroka ezin da bereizi borroka antiinperialistatik*, 1985eko apirilak 22ko hitzaldia.

praktikatzen du. Erlijiora eta «amalurra»ren sakralizazioa itzul-
tzearen gorazarre lelotuan erori gabe, lurrarekin beste harreman
bat landu nahi dugu. Jabeak garela sinesteari utzi eta zainda-
riak bihurtu. Jabetzari uko egin transmisioa eta partekatzea
bermatzeko.

BERRARMATU BASOA

2023ko maiatzaren 5etik 8ra Lurraren Altxamenduen 5. denboraldiko III. ekintza gauzatu zen. «Des bâtons dans les roues» (*Makilak errepideetan*) izenburupean, NALA kolektiboak («Non à l'au-toroute A133-134!») eta Naturalistes des terres taldeak antolatuta zuten. «Roueneko mendebaldeko saihebidetaren» hormigoi sugearen aurkako jaialdi-ekintza bat izan zen.

Proiektuak mehatxu egiten zuen laborantza- eta baso-lurren 516 hektarea deuseztatzearekin, espezie babestuen habitata suntsitzearekin eta Roueneko metropoliaren % 50 elikatzen duten edateko uraren bilketa puntuak kutsatzearekin. Emakidatuna izendatzeko epemuga (2023ko iraila) gerturatzen ari bazen ere, ez zegoen obrarik aurreikusita berehala, prestatzeko lanak (arrasetik moztea, arkeologia indusketak, etab.) ez baitziren 2026a baino lehen hasi behar.

Ekintza honen berezitasuna zen proiektua martxan jarri baino askoz lehenago gertatzen ari zela. Denborazkotasan hori errekurtsio juridikoen batailaren eta erabakiak hartzeko erabakitzaileak «interpelatzeko» mobilizazioen unea izan ohi da. Ez ekintza zuzenarena. Zer egin «jomuga logikoa» falta denean, oraindik eteteko, blokeatzeko edo desarmatzeko obrarik ez dagoenean? Egoera horrek iruditeria sustatzen du.

Nola aurkitu, baldintza horietan, zentzuzko heldulekuak ekintza harrigarri bat eraikitzeko, eta, defentsa juridiko-administratiboaz haratago, jarduteko indarra? Egurgileak oraindik Bord basotik urrun daude. Hortaz, nola pentsatu lurraren defentsan, autobidearen obren badaezpadako «desarmatzean»?

2005ean, lore mehatxatu eta babestu batek, Roueneko bioletak, proiektua une batez geldiarazi zuen, promotoreak behartuz udaberriko landare hauskorren habitata inguratuko zuten ibilbide alternatiboak proposatzera. Ondo kolpatzen duen ekintza juridiko batek, maiz, «denbora irabazteko» eta indarra berreskuratzeko aukera ematen du, unea iristen denean hobeto erabiltzeko. Istorio honen oroimen kolektiboan, hau da, bizitza begetal hauskor baten eta biztanleen autodefentsa dinamika baten arteko aliantza garailearenean, mugimenduak basoaren «berrarmatzean» pentsatzeko inspirazioa aurkitzen du.

Hor esku hartu zuten Naturalistes des terresekoek. Lurraren Altxamenduen ekintzetan inspiratuta, «bimaturalizazioaren» lehen ekintza bat burutu zuen orain gutxi kolektiboak Deux-Sèvresen: artoaren laborantza intentsiboaren ondorioz lehortuta eta narriatuta zegoen zohikaztegi babestu bat ureztatzeko ubide bat berriz estali zuen. Animalien eta landareen hizkuntzaren interpreteak bihurtu dira. Adituen balorazio hutsetatik haratago doaz, basoen ahalmenak deitzeko. Lurraren Altxamenduen ekitaldi bat antolatzeke tokiko erakundearekin egin zuen bileratik borroka egun eder bat sortu zen, esan dezakegu gure mugimenduaren historiako lehen masa ekintza naturalista izan zela.

Larunbat goizean, maiatzaren 6an, 2.000 lagun zihoazen, handikiro, Bord basoan zehar, lau jarraigotan banatuta, hurrenez hurren, espezie lagun bakoitzaren babespe totemikoan, hau da, muxar txikiaren, okil ertainaren, kaprikornio handiaren eta uhandre gandordunaren babespean. Zuhaitzak zulatu genituen uhandre gandordunak eta arrabioak aterpetzeko, beste batzuk aratu genituen kaprikornio handiaren etorrera laguntzeko, muxar txikiarentzat habiak jarri genituen... Basoa *berrarmatu* genuen mehatxatzen zuten obren aurka, oztopoak jarriz zehazki trontza-zerren kateen aurka (zuhaitzetan iltzeak eta kableak ezarri). Espezie babestuak basoan finkatzera bultzatu genituen errekurtsu juridiko berrien bidez proiektua indargabetzen lagun gintzaten. Alderantzizko «azelerazionismo» moduko bat: espezie laguneren etorrera bizkortzea, «biodibertsitate mehatxatuaren» estatus objektibotik ateratzea, haien botereak askatzea eta aliatu politiko baliotsuen duintasuna ematea. Basoa da gure bidez defendatzen dena.

Igandean, hilak 7, lehen «umeentzako ZADa» eraiki genuen: egiturarako erabili genituen gaztainondoaren egur puskek Notre-Dame-des-Landeseko Roanne basotik zetozen. Hala, baso basati baten puskek suntsitzeaz mehatxatutako beste baso bat defendatu zuten. Hemen ez dira etxebizitza iraunkorrak eraiki. Okupazioak jolastoki itxura hartu zuen eskulturekin, sokekin eta zabuekin. Horrek biztanleen aldetik baso horrek dituen aldikako erabilerak areagotu zituen: perretxiko bilketa, paseoak bakarka edo maitalearekin, piknika aire zabalean. Basoa gogor

babesten ez bada autobidearen proiektuak asfaltoaren azpian desagerraraziko dituen erabilerak.

Arratsaldean, ibilaldi handi baten ostean, ehundaka pertsona A13 autobidea blokeatzera adoretu ginen, baina *ez geunden bakarrik*. Basoa gurekin etorri zen. Adarren barrikada bat altxa zen. Pasabide ekologiko iheskor bat marraztu zuen, asfaltoaren mugaren gainetik, eta hautsi egiten zuen metropoliaren aurre-*rapenarekin* gero eta zatituago dagoen ingurunearen jarraipena. Ekintza horrek hainbat kontutarako dugun gaitasuna erakusten du: zenbait modutan jokatzeko, elkarretaratze familiarak eta fluxuen blokeoak antolatzeke, eta poliziak espero ez gaituen une eta lekuan alde zuzeneko abisurik gabe ustekabearen agertzeke.

«Lurrak eta basoak babestea», ez da beraz, azken finean, «ingurumen» pasibo bat defendatzea: gure borroken eszenatokia, asteburu horretan, eszenaratu egin zen. «Aurpegia eman» eta libratzen den lurraldea da, indar basatiak hedatzen dituen hormigoi-enpresariak desarmatzeko.

Asteburu hori berebiziko unea izan zen espezieen arteko aliantzen inguruan ikasteko eta sakontzeko, eta herri erresistentzia ugariak, alaiak eta erasotzaileak iragarri zituen. Iruditeria berri bat sortuz, maiz «desarmatuta» uzten gaituen denborazko-tasun batean kolektiboki jarduteko ekintza ikuspuntuak eman zizkigun. Ikusarazi zigun erreakzioaren larritasunetik at mugi gaitetzkeela: ez dela beharrezkoa hondamendia itxarotea ekiteko (edo bitan banatzeko).

LURRAK BERRESKURATZEAREN PARADOXAK

Norberaren mugez erabat jakitun izan behar dugu,
batez ere haiek zabaldu nahi baditugu.

Antonio Gramsci

Lurrak berreskuratzearen hipotesiak oztopo ugariaren aurka egin behar du. Bere hiru urteetan, Lurraren Altxamenduak mugimenduak ez du lortu oraindik anbizio horren mailako ekintzarik egitea. Confédération paysannekin formakuntzak eta eztabaidak antolatu ditugu, ikerketak burutu, mahastietan lehen ekintzak gauzatu eta agroindustriak burutzen duen lurren metaketaren egoera lehen planoan jartzen lagundu. Baina oraindik ez gara milaka pertsona elkartu ehun bat hektarea berreskuratze-ko, zehazki handitze bat oztopatzeko, bertan nekazari-kolektibo bat ezarriz edo lehendabiziko lur erreserba sortuz. Gogogabetu ordez, hasitako lanarekin jarraitzera bultzatzen gaitu horrek. Agertzen zaizkigun zailtasunei zenbat eta gehiago aurre egin, orduan eta zehatzagoa da haiek gainditzeko eta saihesteko ikuspuntua.

Lurrak berreskuratzea, hipotesi burugabe bat?

Autoelikatzen eta handitzen den fenomeno bati aurre egin behar diogu, zeinak batzuetan atzeraezina dirudien. Hiriak, historikoki, lur emankorrenetatik gertu eraiki ziren. Haien neurrigabeko hedapenak munduko laborantza lur onenen suntsipena eragiten du. Suntsiketa horrek gure elikadura autonomiaren oinarri fisikoak ahultzen ditu, eta, aldi berean, lurretik gero eta gehiago aldentzen gaituen bizimodua hedatzen eta inposatzen du.

Nekazari klasea ia ezabarazi duten gizarte honetan, agroindustriak lurren jabetzearen kontrol handia duen honetan, biztanleria gehiago handia metropoli handien erdialdean bizi den honetan, eredu kultural hegemonikoak lan fisikoa eta eskulana gutxien dituen honetan, eta guztia kapitalismoaren azpiegituren mendekotasun kateei eta kontsumoari loturik eta lurretik kanpo dauden izakinak ekoizteko antolatuta dagoen honetan, lurrak berreskuratzea, askorentzat, haien eguneroko

bizitzarekin inolaz ere bat egiten ez duela dirudien hipotesi politikoa da.

Ez gara hiriak utzi eta landa eremuan ezartzeko deia egiten duten horietakoak. Guk ez dugu ihesean sinesten. Hiria uztearen nahia ulergarria den arren, kale itsu batera garamatza zuzen-zuzenean: ez dago ihesbiderik.

Irtenbide bat bilatzea biziraupenaren oinarritzko erreflexua da, baina aspaldi da horrelakorik ez dela. Jada ez dago kanpoalderik, ez lurralde fisikorik, ez barnealderik, zeinaren boterea, arduragabekeriagatik edo baliabide faltagatik, magikoki aldentzen den. [...] Ez da harritzekoa, berriz ere landa eremua izatea —masa elikaduraren industria, masa turismoa eta lo-hiriak hedatzen diren tokia izateaz gain— beste bizimodu baten itxaropena biltzen duen lekua. Hirurogeita zortziko kideek²⁰¹ beren utopiak lurralde jendegabetuetara eramaten zituzten, baina haiek bultzatzen zituen iruditeria jada ez da existitzen. [...] Landa eremua ez da «indarberritzea» espero litekeen lekua, ezta gizartearen mugimendu handitik ihes egin duen lurraldea ere. [...] Ez da egongo ahots leunik telefonoan esango diguna: «Atera nahi baduzu, sakatu 0».

Ez da kanpo-linearik egongo.

Xavier Noulhianne, *Le Ménagement des champs*

Lurrak berreskuratzeko nekazariak landa eremuetan kokatzera deitzen baditugu ere, gure ideala ez da mundu guztia nekazaria bihurtuko den mundua. Lanbide hau hautatzen duten horiek modu kontsekuentean jarraituko dute beste lanak burutzen dituzten pertsona guztiak elikatzen.

Gure ildo politikoa ez da hiriko erdiguneak masiboki uztearena. Aitzitik, hiriko eta landa eremuko borroken bateratzea bilatzen dugu. Metropoliien erdi-erdian, eutsi beharreko fronteak daude, burutu beharreko borrokak, biziarazi eta defendatu beharreko auzoak. Eta uste denaren aurka, baita berreskuratu beharreko lurrak ere! Gainera, lurrak berreskuratzearen politika nonbait hasi beharko bada, hiriko erdiguneen alboko periferian izango da, agian. Halako lurren berreskuratzeak erabakigarriak dira borrokak bateratzearen eta metropolizazioak

201 [I.o.] Hirurogeita zortziko kide terminoak (frantsesez «soixante-huitard», gaztelaniaz «sesentayochista») Frantziako 1968ko maiatzeko gertaeretan parte hartzeko adina zuten pertsonen egiten die erreferentzia, edo garai hartan nagusitu ziren ohiturak eta ideiak bereganatu eta zabaldu zituenak.

apurtu duen hiriaren eta landa eremuaren arteko metabolismoa berrezartzearen ikuspegitik. Horren harira, metropolien erdiguneen inguruetakoa baratze-gerrikoen eta zereal lautaden lur emankorrak lehen aukerako jomugak dira. Maiz nekazaritza produktibismoaren ondorioz kaltetuenak dira. Berreskuratzeak lur horiek indarberritzen, berriz emankor bihurtzen eta beren osotasuna berrezartzen ikastea eskatzen du.

Alferrik izango litzateke Mendebalde metropolitani-zatuaren bihotzean lurak berreskuratzeko ikuspuntuaren errealitatetik at dagoen izaera paradoxikoki saihestea. Hipotesi honen egokitasuna baliogabetzen ez duen arren, egingarritasunaren galdera aurrez aurre jartzen digu: nor berreskuratuko ditu orduan lurak? Gaur egun lurak modu kontsekuentean berreskuratzea lortzen duten mugimenduei arretaz begiratzen badiegu, bistakoa da nekazari klasea oraindik masiboa den —baita gehiengo ere— eta lurraren erabileraren kontua berehalako biziraupenekoa den herrialdeetan kokatzen direla batik bat.

Pentsa dezagun, adibidez, Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduan (MST, Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra).²⁰² Mugimendu komunista eta askapenaren teologia gurutzatzean,²⁰³ 1984. urtean sortu zen nekazaritza erreforma bat lortzeko. Brasilgo masa antolakunde garrantzitsuena da. Lurren okupazio olatu historiko bat bultzatu zuen. Egun, lur horietan 500.000 familia bizi dira. Mugimenduak okupatutako eremua 7 milioi hektarea ingurukoa dela kalkulatu da. Zati bat *acampamentos* izenekoak dira: egun ilegalki okupatutako jabe handien lurak. Gainerako zatia *assentamentos* deiturikoak dira: konkistatu eta, azkenik, ekintza zuzena eta bataila juridikoa batzen zituen indar harremanaren ostean emandako lurak. Mugimenduaren lehen indarra metatzaileen eskuetatik lurak behin betiko erauztea lortzen dutela da, lur horiek haiek okupatzen eta laboratzen dituzten familien esku uzteko. Bigarren indarra aldiz, modu oso kontsekuentean ekoiztea da: 15.000 tona ekoiztuz urtean, mugimendua Hego Amerikako arroz ekologikoaren lehen

202 João-Pédro Stédile, Bernardo-Mançano Fernandes, *Brava gente: a trajetória do MST e a luta pela terra no Brasil*, Revista do Departamento de Geografia, 2000.

203 Askapenaren teologia: Latinoamerikan jaiotako pentsamendu kristau iraultzailearen korrontea.

ekoizlea da!²⁰⁴ Are gehiago, duela gutxi, 2023an, «Apiril gorria» operazioarekin, Lularen gobernuaren aurka pultsuan jarraitu zuen, nekazaritza ikerketarako agentzia publikoaren etxalde bat okupatuz, 900 familiarentzako lurra lortzeko asmoz.²⁰⁵

MST inspirazio iturri zoragarria bada ere, une honetan Frantzia antzeko mugimendu bat eratzeak utopikoa dirudi. Guregandik gertuago, Espainian, Nekazaritzako Langileen Andaluziako sindikatuak (SOC-SAT) lurren okupazio mugimendu bat bultzatu zuen nekazaritza-kooperatibak ezartzeko. 400 koka-pen baino gehiagotan hedatu zen eta baserriar nekazaritzaren aldeko lurren berreskuratzeak antolatu zituen migranteekin elkartasunez, asko baitira kooperatiba horietan lanean dabil-tzanak. Haiek kontratatuz, beren erregularizazioa errazten dute eta baratzezaintza industrialeko enpresa handien esplotaziotik libratzen dituzte.²⁰⁶ Adibide honek bide oso pizgarri bat irekitzen du gure mugimenduarentzat. A4 elkarte²⁰⁷ (nekazaritzan edo artisautzan lan egin nahi duten paperik gabeko pertsonen elkar-tasun sarea) eta CODETRAS kolektiboa²⁰⁸ (Rodanoren Ahoak-eko sasoikako langileen defentsarako kolektiboa) gogorarazten ditu Frantzia.

Iniziatiba horiek defendatzen dugun ildo politikoa argi-tzen dute. Lurra berreskuratzekeo hipotesiaren izaera burugabea gainditzeko, garaiko borroka sozial, ekologiko eta anticolonial handiei elkartzeko apustua egiten dugu.

Nekazari-kokatzearen paradoxak

Nekazari gehiago nahi baditugu ere, ez dugu iruzur egin behar landa eremuan bizitzaren eta lanbidearen zailtasunen inguruan. Gu eta gure hurbilekoek egunero jasaten ditugu. Ja-kitun gara lurra lantzearen hautuak zer nolako determinazioa eskatzen duen eta hark dakartzan eragozpenak. Ezagutzen ditu-gu arrakastarik gabeko saiakerak eta zapuztutako itxaropenak,

204 Bruno Meyerfeld, «Au Brésil, les sans-terre champions du riz bio», *Le Monde*, 2021eko urtarrilak 2.

205 Bruno Meyerfeld, «Au Brésil, Lula confronté à la pression croissante du mouvement des sans-terre», *Le Monde*, 2023ko abuztuak 10.

206 Tanguy Martin, *Cultiver les communs*, op. cit.

207 Informazio gehiagorako, frantsesez: <https://a4asso.org/>

208 Informazio gehiagorako (frantsesez): https://www.codetras.org/wp-content/pdf/rapports/Histo_Codetras.pdf

erromantizismoak talka egiten duen bideragarritasun ekonomikoaren aginduen errealtate gordina.

Gaur egun, nekazari-kokatzea borrokalarien bidea da. Zailtasuna ez da soilik lurrak topatzea. Usu, produkzio-tresnak lortzeko izugarri zorpetu beharra dago. Pentsio miserableek nekazariak beren lan-tresnak kapitalizatzerara bultzatzen dituzte. Egiaz, bankuak pisu gehiago du baserri bat eskuratzean lagatzaileak edo bizilagunek baino. Ez dugunean ez kapitalik, ezta bermerik ere, adore eta eromen handia behar da 200.000 euroko mailegu bat kontratatzeko hamarkada batean edo gehiagotan, diru-sarrera baxuko jarduera baterako.

Behin kokatuta, prozesu luze bat hasten da baserrirako oreka ekonomiko eta existentzial egokia topatzeko. Lanaren errealtatea, lanbidearen erritmoa markatzen duten ustekabe klimatiko, mekaniko, biologiko eta gizatiarrak ezin dira behin-behineko aurrekontuen ondo ordenatutako kategorietara murriztu. Nekazaritza administrazioaren konplexutasuna erraz gal gaitetzkeen nahas-mahasa da, baita izapideetan eta kontrol umiliagarrietan hondoratu ere. Ohartzeko behar duzun baino denbora gutxiagoan, larri-larri zabiltzala topa zaitezke, diru-sarrera miserableak dituzula eta lan gainkarga izugarriarekin.

Lanbidearekiko maitasun suntsiezina behar da laborari baldintza eta nekazaritza lanbide gogorrei aurre egiteko. Bokoazioaren indarra ez da beti nahikoa kolpeak eta erritmoa eusteko. Nekazariak ez direnek zailtasunak dituzte irudikatzen lurraren exijentziek zenbateraino lotzen gaituzten —hitzaren zentzu osoan— lurrari berari. Hiper mugikortasunaren mundu honetan, non lagunak eta familia oporretan elkartzen diren edo aldizkako bidaiez gozatzen duten, baserriari lotuta egongo garela onartzeak gertukoekiko eta gainerako munduarekiko urruntzea sor dezake. Elkartasuna egon badago ere, eta ekoizleen artean elkarri laguntzeko eta prestakuntza teknikorako talde ugari badaude ere, zure erorketaren zain dagoela dirudien bizilagunaren begiradaren zama ere hor dago, baita nekazaritza-mundutik ez datozenek jasaten duten epaiketarena ere.

Nekazari jardunbidearekin ezkontzea, metaketaren aurka borroka egiteko lurrak berreskuratzea, norbere baserriak bereganatuko gaituela onartzea da. Nekazari batentzat, ekintza politikoari edo sindikalari denbora eskaintzeak, antolakuntza bi-

kaina eta elkartasun handia eskatzen du. Hortaz, ez da arraroa arrazoi politikoengatik nekazaritzan aritzen diren askok baserri-
tik eta lanbidetik kanpo eta handik haratago politikoki jarduteko
gaitasunik ez izatea.

Zailtasun horiei aurre egiteko, gero eta pertsona gehiagok
talde-lanean aritzea hautatzen dute. Baserri kolektiboak ugari-
tzen ari dira, GAEC²⁰⁹ motakoak nahiz kooperatibak, eta hainbat
jarduera osagarri uztartzen dituzte, lan-kargaren banaketa hobe
bat egiten dute, lanabesak, eraikinak eta inbertsioak mutualiza-
tzen dituzte, eta abar.

Nekazaritza kolektiboa nekazaritza ustiapen indibidua-
la baino desiragarriagoa da. Etorkizunerako aukerak marrazten
ditu. Kolektibo asko saiatzan ari dira, baina ahalegin horiek maiz
nekazaritza-ustiategien ezarritako marko batetik —Laborantza
Ganberek eta CDOAk bultzatua— ateratzea dakarte, eta ez da
hain erraza nekazaritza mota hau laguntzeko gogo handirik izan
ohi ez duten administrazioek jaramon egitea.

Hala ere, nahiz eta zenbait arazo gainditzen lagundu
—bereziki isolamendua apurtzen—, nekazaritza kolektiboak
beste arazo batzuk dakartza, eta ez dira gutxi. Elkarrekin lan
egitea ez da beti hain erraza. Gizarte indibidualista honek mol-
datu gaituenontzat, lana, tresnak eta lurra partekatzea ikasketa
prozesu luzea da. Nekazaritza kolektibotik haratago, komunalak
edo lur erreserbak sortzeko edozein saiakerak, edozein banake-
ta motak, beti dakar bere barne gatazka eta zailtasun multzoa.
Arau komunak sortzen eta ezartzen, antolaketa kolektiboaren
forma iraunkorrak eraikitzen, elkar zaintzen, eta talde batean
boterea biltzearen mekanismoak zapuzten ikasteak denbora eta
pertseberantzia handia eskatzen du. Baina esperientzia horiek
ugaritzeak balioko digu, zalantzarik gabe, denboran iraungo du-
ten abentura kolektibo sendoak pixkanaka-pixkanaka eraikitzen.

Azkenik, nekazaritzako belaunaldien ordezkapena nahi
badugu, etorkizunaren zati handi bat familiatik kanpoko ko-
katzeen mende dagoela onartzen badugu, klase historikoa ere
defendatu nahi dugu. Nekazari-kokatzeen beharrak ez digu
bertan jardunean dauden nekazariak mantentzeko eta defen-

209 GAEC: *Groupement agricole d'économie en commun* («Ekonomia komunaren
nekazaritza partzuergoa»).

datzeko helburua bistatik galduarazi behar. Horrez gain, beste helburuetako batzuk agroindustriari inposatutako mendekotasunetatik atera nahi duten horiek laguntzea, eta diru-sarrerara eta lan baldintza duinen alde borroka egitea dira.

Lurraren langileen mugimenduen paradoxak

Berriro diogu: ezinezkoa da lurra berreskuratzea eta agroindustria deuseztatzea nekazarien parte hartze aktiborik gabe. Gure mugimenduaren hipotesiak nekazariak eta ustiatzaile ertainak barne hartzen dituen borroka baten premian oinarritzen dira.

Lurraren Altxamenduak mugimenduak hiriko ekologisten eta nekazarien arteko aurkakotasun bitarra gainditzeko lan egiten du. Ez da lan makala! Izan ere, nekazarien zati batek gorroto bizia die «ekologistei», eta «nekazari-bashing»aren²¹⁰ aurka halako harrotasun baten inguruan elkartzten dira. Era berean, ekologia politikoaren zati batek ez du ezer ulertzen nekazaritzako erronken inguruan, eta jarrera moral batekin eta klase gutxiespena ezkutatzten duten aginduekin estaltzen da. Haatik, bi mundu horiek homogeneoak izatetik oso urrun daude, elkargune ugari egon arren haien artean, lurralde borroketan traktoreen etengabeko presentziak erakusten duen moduan, Notre-Dame-des-Landesetik ur-biltegi handietara. Nekazaritza eta ekologia modu bitarrean kontrajartzean datzan eragiketa politikoaren helburu nagusia, gazte mugimenduen suhartasun istilu pizgarria, soldatapeko langileen ekonomia geldiarazteko greben gaitasuna eta nekazarien blokeo ahalmena antolatuko dituen altxamendua eragotzea da.

Agroindustriak nekazari-ustiatzaileak mendekotasun hirukoitz batean hondoratzen ditu: merkatuekin aurrez aurre (*upstream* eta *downstream* industrietan diru-sarrerak murrizten dituzte), hektareako laguntza publikoekin aurrez aurre (artifizialki bizirik mantentzen ditu estrukturalki metaketa bultzatzen duen bitartean), eta kontsumitzaileekin aurrez aurre (gehienek ezin dute nekazaritza eta elikadura ez industrialaren prezioa ordaindu). Mendekotasun hirukoitz hori haustek aukera emango luke

210 [l.o.] Termino horrek nekazariak beren lanbidearen aurka jasaten duten hitzezko abusua eta, batzuetan, abusu fisikoa adierazten du, osasunerako, ingurumenerako eta animalien ongizaterako nekazaritza kaltegarria dela dioten iritzengatik.

aldi berean bai agroindustriak ezarritako esklabotza teknikitik nekazariak emantzipatzeko, bai banaketa handia laburtzeko, nekazariak eta kontsumitzaileak zuzenean harremanetan jartzen dituen ekimen multzo baten bidez (AMAP,²¹¹ elikagaien gizarte segurantza, etab.), herritarrek kalitatezko elikadurarako sarbidea izan dezaten eta soldatak eta bizi baldintza duinak hobetzeko borroka komuna egin dezaten. Laburbilduz, nekazaritzaren sektoreko aldarrikapen korporatibistetatik haratago doan eta ingurumenaren aldeko borroken esparru hertsia erabat gainditzen duen aldaketa eragingo duen mugimendu politiko bat eraikitzea.

2023-2024 negua aurrekaririk gabeko nekazarien mugimenduarena izan zen. Herbehereetan hasieran, ondoren, Alemanian, eta, azkenik, Frantzian, traktoreak bat-batean zezen plaza politikoan sartu ziren berriro ere. Negu horretako gertakariak gogora ekartzen zuten Mansholt Europako Batzordeko lehendakariaren planaren aurkako erresistentzia; 1960ko hamarkadan, Britainiako abeltzainen matxinada zalapartatsua eragin zuen, baita nekazari-langileen mugimendua sortzea ere.²¹² Horrez gain, 70eko hamarkadako esnearen grebak eta Okzitania garai bereko Comité d'action viticoleko bat-bateko esku-hartzea ere gogorarazten zituzten.²¹³

Nekazarien amorrua lehertu izanaren zergatiak sakonak dira: diru-sarrerak eskasak, gehiegizko zorpetzeak, lan gaitzagarriak eta formalitate burokratikoak, klima aldaketaren gero eta eragin handiagoak ekoizpenean, laguntza publikoekiko mendeotasuna, merkataritza askearen akordioek men egitera behartzen dituen munduko lehia gupidagabea. Ekologiaren eta nekazaritzaren arteko aurkakotasunetik haratago, mugimendu horien paradoxa nagusia da haien hitza eta boterea FNSEAk harrrapatu dituela, zeina agroindustriaren atal gehigarria den, eta ez klase antolamendu bat. Komeni zaio mugimendua —hasieran sindikatu gabeko oinarri batek bultzatua— aldarrikapen korporatibistetara eta ingurumen arauen oztupoetan ardaztutakoetara

211 [I.o.] AMAP siglak frantsesez, *Association pour le maintien de l'agriculture paysanne* esan nahi du, hots, «baserritar nekazaritza mantentzeko elkarte». Kontsumitzaile talde baten eta nekazari baten edo baserri baten arteko lotura da.

212 René Bourrigaud, *Les ceps de l'injustice*, Adife, 1982.

213 Michel Lebris, *Occitanie : volém vivre ! (nous voulons vivre !)*, Gallimard, 1974.

mugatzea. Kontraesan hori gainditzea sindikatu maioritarioa gainditzeko oinarrien gaitasunean datza.

Mugimendu horiek ezagutarazten duten beste paradoxa bat Estatuaren eta Europar Batasunaren politika «ekologikoarena» da, bere lege sortekin, arautegiekin eta neurriekin. Nekazaritzan, arauak anbiguotasun bereziki kaltegarria ezkututzen dute. Askotan, ahulegiak dira asmoa lurra eta langileak benetan babestea denean —froga gisa pestiziden erabileraren mugaketa erridikulua—, baina, erabat zorrotzak, nekazari lanbidearen estandarizazio industrialari eta eguneroko bizitzaren konplikazioei dagokienez.

Beraz, ingurumen-arau guztiei bereizketarik egin gabe eraso egin ordez —agroindustriaren bozeramaileak egiten duen moduan—, osasuna, uraren kalitatea eta lurra babesten dituztenak nekazarien lanbidea eta baserrien aniztasuna ezereztzen eta suntsitzen duten arauetatik, eta esne gordinarekin gazta fabrikatzea edo mahats-bariedade zaharrak landatzea eragozten duten arauetatik ezberdindu behar dira. Arau zitalenak ekologiararen babespean agroindustriaren garapena sustatzen dutenak dira.

Anbiguotasun hori ez da nekazaritza-arauena soilik. Gauza bera gertatzen da errepide garraiorako ez den gasolioaren prezioaren igoerarekin. Igoera hori neurri ekologiko antisozialen bereizgarria da, Jaka Horien altxamendua eragin zuenaren antzerakoa. Neurri mota horrek klima aldaketaren prezioa herriar xumeari ordainarazten diote, eta, aldi berean, industriak salbuesten dituzte, hau da, berotegi-efektuko gasaren igorle nagusiak eta hondamendiaren benetako arduradunak eta onuradunak. Lepoa egin dezakegu gero eta herri mugimendu gehiago sortuko direla hondamendia kudeatzeko modu horri erantzuteko. Mugimendu horiek agerian utziko dituzte ez lurraren defentsarako mugimenduen kontraesanak, baizik eta gobernuen ingurumen politikarenak.

Aldiz, nekazarien mugimendu horietan arreta eman behar diguna da lurraren jabetzaren errebindikaziorik ez dagoela batere, eta, pertsona ugari nekazariak diren herrialdeetako matxinadetan berriz, nonahi ageri direla. Izan ere, zenbat eta gehiago murriztu nekazaritzan aritzen diren eta lurren jabetza duten pertsonen kopurua, orduan eta gatazka gutxiago eragingo

ditu banaketaren kontuak eta orduan eta gehiago azkartuko da agroindustriaren eskuetan dauden lurren metaketa. Hektareako laguntzen sistemarekin, lurren, laguntza publikoen, diru-sarreen eta kapitalaren kontzentrazioa zeharo korrelazioan daude. Egiaztapen kezkarri horrek joera alderantzikatzerara bultzatzen gaitu, beranduegi izan baino lehen.

Lurrak berreskuratzearen paradoxak

Gure erabilera produktiboez haratago, desegokitasunaren eremu gorena agertzen da. Lurraren zentimetro karratu bakoitza giza ustiapenaren menpe dagoen mundu honetan, guri dagokigu irudikatzea nola berreskuratu lurrak haiek askatzeko, nola kontsokratu beren kabuz existitzen diren lekuak, zeinak salbuespena diren logika estraktibistaren, ustiapenaren eta arrazionaltasun instrumentalaren erabateko nagusitasunean.

Leku horiek hainbat arrazoiengatik aukera daitezke: opa-rotasuna, kokapena, historia, uraren zikloan duen garrantzia, bertan bizi diren animaliekiko eta landareekiko atxikimendua, zuhaitz bat, lore bat, txori bat, iturri bat, haitz bat... Leku horiek behar ditugu sunsipena geldiarazteko, hilzorian dagoen biodibertsitatea babestu eta defendatzeko.

Baina nola birjabetu lurrez, gure erabilera ahalik eta gutxienera murrizteko? Okupazioaren bidezko indar harremana erabileran oinarritzen da. Baso batean edo soro batean, nekazaritza edo basoko jardunari loturiko presentziak ahalbidetzen du nekazaritza erabilera inposatzea ustiapen industrialaren ordez. Roueneko basoan edo Giroseko glaziarraren tontorrean, Naturalistes en lutte kolektiboaren laguntza baliotsuarekin, ekintzak burutzea lortu dugu, keinuak kausitzea, okupazio forma iragankor baina eraginkorrak hedatzea laborantzarako ez ziren lurrak babesteko, betiere haietan inolako jardun produktiborik pentsatu gabe.

Lurrak abandonatzearen politikaren zailtasun handiena nagusiki lurrak kolektiboki erostearen bidez edo «natura babesteko» Estatuaren politiken bidez egiten dela da. Bi kasuetan, eragozpen nagusia lurraldeko biztanleen nahien aurka egitea da. Paradoxikoki, ekologia metaketarako eta biztanle eta nekazarien desjabetzerako aitzakia ere bihur daiteke. Goitik datorren parkeen edo erreserben inguruko inposizioa —beren araudi

burokratikoekin, debeku maiz zentzugabeekin eta «naturaren poliziarekin»— zalantzan jarri behar da.

Biztanleei dagokie axola dieten lekuak elkarrekin zehaztea, eta merezi duten begiruneaz ados jartzea. Komeni da arreta handia jartzea «naturaren kontserbazio» mekanismoen jatorri kolonialarekin apurtzeko, Ipar Amerikako eta Afrikako parke naturalen historia iluna ez errepikatzeko.²¹⁴ Horrek babes komunitarioko esperientziak ugaritzea eskatzen du.

214 Guillaume Blanc, *L'invention du colonialisme vert. En finir avec le mythe de l'Éden africain*, Flammarion, 2020.

GLAZIARREN ATZERAKADA

La Grave, goizeko hirurak. Argia kopetan, motxila bizkarrean, bidexka hauteman ilunantzean, martxaren erritmoa adostu, goizaldean saguzarrek eta sarrioez ustekabeen harrapa gaitzaten utzi. Hamabost bat gara. Mendiko irteeretan ohikoa den urduritasunak hunkituta gaude.

Baina, 2023ko urriko gau honetan, aire zabaleko txangoetan usaian arrotza den emozio bat gehitu diogu, eta lehen emozioa izugarri areagotzen du: ekintzaren ikara da. Oraingoan, glaziarra politikoa baita. Izokinen antzera, ibarreko iturburu izozturaino igoko gara, Girose glaziarreko lanak blokeatzeko. Lurraren Altxamenduen talde glaziarra gara, eta, gaur, glaziarren aldeko borroka eguna da.

Girose glaziarreko teleferikoaren hirugarren atalari ez

2.000 metroko desnibelaren ostean, eguerdi aldera, glaziarren oinera heldu gara, 3.200 metroko altuerara, teleferikoaren egungo helmugaren mailara. Kranpoiak jantzi, kordadak eratu eta arrakala irekien artean bide egiten hasi gara. Alpe Garaietan gaude, Écrins mazizoaren ertzean. Aurre egiten diogun proiektua teleferikoaren hirugarren atala da, 3.500 metroraingoko litzateke, erraldoi izoztuari desafio eginez, neguan zein udan. Glaziarren erdira iritsi gara, haren isla arrokatsura, eta bertan finkatu ditugu gure kanpin-dendak eta pankartak. Hemen erai-ki nahi dute teleferikoaren zutabe nagusia. Prestatze lanak hasi dira jada.

Gauean, elur urtuko infusio baten inguruan, gertuko edo urrutiko gailurrak kontatu dizkiogu elkarri, zeinak itxuraldatu egiten diren permafrostaren desizozteak eraisten dituelako. Gure nerabezaroan oraindik glaziarrak zituzten morrenak²¹⁵ seinalatzen ditugu hatzez, gero eta urriagoa den elurraz hitz egiten dugu.

Alpeak 2 °C baino gehiago berotu dira XIX. mende erdialdetik, hau da, munduko gainerako tokiak baino bi edo hiru aldiz azkarrago.

²¹⁵ Morrena terminoa savoiar dialektoaren *morena* («lurraren irtengunea») hitzetik dator, eta glaziar batek mugitzen duen hondakin harritsu piloari egiten dio erreferentzia.

Baina aurreranzko ihesaldiaren bereizgarriak eta energia irensleak diren planifikazio islek, hemen bezala, beste leku bazuetan jarraitzen dute: SATAk, proiektuaren planifikatzaileak, helburu gisa du kudeatzen dituen estazioen bisitak bikoiztea hemendik 2030era, Neguko Olinpiar Jokoetarako. Glaziarretan eski pistak «segurtatzeko» hondeamakinaren, geruzetan elur-kanoiak elikatzeko ponpaketa ilegalean, eta gero eta goragoko azken elur malutak esplotatzeko igogailu mekanikoen bidez. Hala ere, haren homologo askoren antzera, SATAk ez du zalantzarik egiten argudio ekologikoa baliatzerako orduan bere proiektua defendatzeko. Argudiatzen du fuel oliozko teleski bat ordezkatzeko duela... eta mundu guztia dago ados hura desmuntatzearekin eta glaziarreko urtzeak teleski hori erabilezin uztearekin mehatxatzen duela. Baieztatzen du teleferikoari esker, gailurretatik glaziarren urtzea ikustean, bisitariak «kontzientzia hartuko dutela». Kontzientzia falta balitzaigu bezala!

La Grave Autrement (LGA) kolektiboak eta hainbat elkarte ekologistek lau urte daramatzate proiektuaren kontra borrokan eta alternatibak proposatzen. Ekimenak ugaritu dituzte: tribunak, bilerak, kontzentrazioak, crowdfunding bidez finantzatutako kontra-ikerketak, baita landare babestu baten aldeko helegite bat ere, eraginen ikerketak ez ikusiarena egin baitzuen eta kolektiboki berreskuratu zuten. Baina hori guztia ez da nahikoa makina geldiarazteko. Pixkanaka Lurraren Altxamenduei hurbildu zitzaizkigun, alegatuak eta helegite juridikoak beren mugetara iritsi ahala.

Horrenbestez, SATAk udazkeneko lanak abiarazi zituztean, negua baino lehen, nolabait bere lurraldea markatzeko, ekintza-talde bat osatzea proposatu genuen. Adostasun bat lortu zen LGArekin: aldi honetan, lanak «degradazio materialik» gabe blokeatuko genituen haraneko sentsibilitateak ez amorratzeko. Joan den mendean, turismoa izan zen miseriak eta landa-exodoak markatutako haranei bizitza eta duintasuna itzultzea ahalbidetu zuena, eta teleferikoaren kontuari kontu handiz besterik ezin zaio eraso egin. Gailur-lerro batean gaude kili-kolo: indar harremana areagotzeak ez du zaildu behar mahai inguruan biltzeko aukera La Graven beste modu batean bizitzeko.

Denboraz estu gabiltza, hurrengo astean hasi nahi dugu okupatzen. Gure taldea goi-mendian ibili ohi direnek osatzen

dute: batzuentzat beren lanbidea da eta atsekabetuta daude beren munduaren suntsiketa zuzenean ikusten ari direlako; beste batzuek, oporrak igarotzen dituzte bertan, eta, kasu honetan ere, artifizializazioaren eta harrapakaritzza komertzialaren aurka borrokatu nahi dute. Batzuk eskarmentu handikoak dira okupazioetan, beste batzuentzat lehena izango da.

ZAD (benetan) edonon

Okupazioaren biharamunean, igandean, LGA eta Mountain Wilderness erakundeek ibilaldi-mobilizazio bat antolatu zuten Emparis-eko goi-lautadan, glaziar aurrean: 200 pertsona baino gehiagoko giza kate batek urrutitik agurtu zituen «zadpinistak».

Astelehen goizean, egunsentian jaiki gara Meije menditik eguzkia ateratzen kontenplatzeko eta zerua behatzeko. Obretako helikopteroa isla arrokatsuaren gainetik dabil hegan, eta alboan gaude kanpatuta gu. Lur-hartze eremura igo gara lurreratzea eragozteko. Helikopteroak buelta-erdia eman du. Ez da gehiago etorriko aste osoan. Egunez, proiektuaren hondoratzea bizkortzen dugu, eta han utzitako hondeamakina harriz eta elurrez estali dugu, permafrost mugari baten azpian immobilizatuz. *Land art* desobedientea probatzearen pozak ahantzazten digu behin betiko neutralizatu ez izanaren frustrazioa. Darmanin Barne ministroaren ZADen aurkako zelulari egindako iseka honekin pozez zorutzen, gero eta hobeto antolatu dugu gure kanpamentua, eta, udaberrian kanpamentu nagusi hau alpinista militanteentzat zer bihur daitekeen ere eztabaidatu dugu.

Notre-Dame-des-Landeseko kasuan bezala, igoeraren aurretik eta jaitsieraren ostean mimatu egiten gaituzte nekazariak: antxume-masailak, masusta gorri berantiarrak, arrautzak, gaztak... Abeltzain-artzain batek honakoa aitortu digu: «Goize-ro, ardiekin ateratzen nintzenean, mendia begiratu eta zuek hor goian zinetela pentsatzen nuen, eta izugarri zoriontsu egiten ninduen».

Inguruko ibarrak gogotik bete dituzte hormigoiz azken hamarkadetan. Ereku *eskiagarriak* bihurtu dira. Biztanleen biziraupena turisten bisiten esku dago. Igogailu mekanikoen errentagarritasuna prezioak gora eta gora besterik egiten ez duen lurretan turismo etxebizitzak eraikitzearen arabera da. Hala eta guztiz ere, bada oraindik hemen jendea egoera salatze-

ko eta beste etorkizun bat imajinatzeko. Baserritar nekazaritza eta urtaroen arteko bizimodu duina sustatzeko, La Grave Autrementeko kideek teleferikoaren hirugarren atala ez diren beste proposamen asko dituzte.

Kanpatu dugun altitudean, 10 °C zero azpitik egiten ditu gauean. Hotza esteratik zehar igarotzen da. Elur urtuarekin hidratatutako semolaz eta irinaz elikatzen gara. Kordadak gu txandakatzera edo hornitzera datoz. Ez da ez landu daitekeen lurra, ez bazkalekua, ez bizitzeko tokia. Defendatu beharreko zona, baina ez behin betiko autonomiaren zona. Ez da lurren berreskuratzerik egongo, eta hemen egin dezakegun gauza bakarra pasatzea da. Briançon-en, hemendik kilometro batzuetara, beren biziak arriskuan jarriz muga igaro dutenek ongi dakite.

Baina artzain hori hunkitu egin bada okupatu dugun mendia begiratzuz (hara bere ardiak inoiz eramaten ez dituen arren), ez da soilik ibarreko lurren metaketaren aurkakotasunagatik. Ziurrenik hari loturik sentitzen delako da, gu bezala. Isurtzen den eta edaten ematen digun urari loturik. Munduaren zati basati hau gure munduaren parte ere bada, behetik behatzen badugu nahiz goitik ibiltzen bagara.

Ez dugu leku hau artifizializatu nahi, ezta santutegi bihurtu ere. Haren erabilera igarotzekoa da, eta garaiak neurtua izatea eskatzen du. Afera ez da alpinismoa defendatzea (teleferikoarekin edo gabe, mendia pribilegiadunentzako kontua da oraindik), ezta zoritxarrez hark duen gizontasun tradizioa ere (azpimarratzekoa da gure talde glaziarra zis gizonen osatzen dutela nagusiki), baizik eta gonbidapen ekofeminista bat ikustea bertan. Lur honetan ez dago erauzteko, konkistatzeko edo emaitza emango duen ezer. Glaziarrak gure iragaitzako bidaiarien kondiziora itzultzen gaitu. Ingurunearekin dugun harremana eta harekin erlazionatzeko erabiltzen ditugun hitzak zalantzan jartzen ditu. Orri ustez zuri honetan, okupazio hitza bat-batean agertzen zaigu bere dimentsio kolonialean. «Lurak berreskuratzearen» formulak balio estrategikoa badu eta historia horren oinordekoak bagara, eremu menderaezin horrek gogorarazten digu inolako lurrik ez dagoela inoiz menderatua izateko prest.

Defendatzen diren glaziarrak gara

Lagun kazetari batzuk gurekin igo diren arren, guk ere egunero hartzen ditugu argazkiak gure okupazioaren kontakizun propioa elikatzeko. Ahalik eta gehien baliatzen dugu mendia fotogenikoa izatea. Lehen aldiz, TF1 eta BFM Frantziako telebista kateek interesa erakutsi dute gure borroken inguruan Poliziarekin konfrontaziorik egon gabe. Bestalde, aste erdialdean kanporatzearekin mehatxu eginez jendarmeen kordada bat etorri den arren, badakigu oso zaila dela prefeturarentzat 3.400 metroko altitudean halako kanporatze korapilatsu bat —bai mediatikoki bai teknikoki— seriooki kontsideratzea. Apaindutako pankarta bat zabaldu dugu: «Defendatzen diren glaziarrak gara».

Leloa —okupazio hau bezala— zehatza eta poetikoa da aldi berean. Zehatza gure gorputzek aste honetan enegarren aldiz antolaketa bat eragotzi dutelako, eta arbuia egiten dutelako hondeamakinek eta elur-zapalgailuek glaziarraren urtea azeleratzeko aukerari. Poetikoa egiten duguna egiten dugula, zoritxarrez, beranduegi delako eragozteko. Besterik ezean, helburua beste mundu batzuetan pentsatzeko gonbidapen bihurtzen saia gaitzke.

Urteak joan ahala, glaziarrak erretiratzen joan dira, altitude handietan uzkurtuz. Zientzialariek aurreikusten dute Girosekoa hogeita hamar urtetan desagertuko dela. Glaziarren amaiera tragikoa ez da albistegietarako hizpide soil bat. Glaziarrak galtzen ari garen mundua dira: gure historia izotz geruzetan betiko geratua, udan ibaien emaria mantentzen duen eta gure haranak ureztatzen dituen urtzeko ura, mendiei eusten dien konpresio-indarra. Hala eta guztiz ere, glaziarrak ez dira gure biktimak. Dolua egin beharko diegun potentziak dira. Faltako zaigun ura dira. Galtzen ari garen historia dira. Baina etorkizuna ere badira, haien iturritik jaioko diren ingurune ekologiko berriena.

Gizakiak mendiak esplotatzen ditu eta, desitxuratzean, menderatu egiten dituela uste du, aberatsentzako aisialdi-gu-neekin edo muga hilgarriekin. Baina mendia potentzia bat da. Gure aliatua izan daiteke suntsitzen dutenen aurka. Leloak erromantikoa eman dezake, baina elurrak ordezkatzeko gaitue-nean guk egin moduan lanak etenez, ebidentzia sentikor baten

antzera datorkigu. Lasai jaitsi gara behera. Alpinismoaren oinarriak haiek ezagutzeko pribilegioa ez dutenei transmititzeko denbora uzten digu neguak. Udaberrian berriz hara gora igoztea irudikatzeko denbora, Girose defendatzeko eta askatzeko.

ALL POWER TO THE PEOPLE! LURRALDE BORROKEN EKOLOGIA (IRITZIA)

«Herriak erregimena erortzea nahi du»

Ekologiaz, politikaz, eta are gehiago ekologia politikoaz ari garenean, zaila da albo batera uztea *arazoa guretzat handiegia* delako sentimendua. Makineria sozioekonomiko garaikidearen konplexutasunaren aurrean, irudimenak amore ematen du maiz. Beharrezko aldaketak egiturazkoak dira: gure elikatzeko, etxean bizitzeko, mugitzeko eta elkarren artean harremanak izateko moduen funtsezko berrantolaketa. Maila horretan, gogogabetasun kolektiboari zein aberatsen interesei aurre egiten diegu. Planifikazio ekologikoaren jarraitzaile teknokrata bikainenetik²¹⁶ boterea hartzearen aldeko neoleninista berdeetara,²¹⁷ denak bat datoz Estatu larrialdiaren mailan dagoen eragile bakarra dela esatearekin. Gure aldetik, altxamenduetarako deia egiten dugu ez garelako Estatu larrialdiaz egiten ari denaz fio. Batez ere, uste dugu ezintasun sentimendua arazoaren parte dela. Hari egin behar zaio aurre, gure etsaiei bezainbeste. Nagusitasun intelektualaren irribarretxo herri autoantolakuntzaren inozentziaren aurrean, zeinak islatzen duen gure gaitasunetan konfiantzarik eza: hori da benetako mugimenduen astinduek keinu bihur dezaketena.

Estatuarekiko mesfidantza komun hori halere, istorio politiko oso ezberdinetatik dator.

Gutako batzuk, erreformismo zintzoak bultzatuta, erakundeek egin dezaketenaren mugak barnetik bizi izan ditugu edo une honetan bizitzen ari gara. Sindikatu batean, alderdi politiko batean edo gobernuz kanpoko erakunde batean, egunerokoa zehazki eta masiboki aldatzeko gai garen neurrien alde egiten dugu borroka: pestiziden debekua, landa eremuan kokatzeko laguntzak areagotzea, behar-beharrezko produktuen zergak

216 Pierre Charbonnier aipa dezakegu, esaterako, korrante horren pentsatzaile frantses adierazgarrietakoan artean.

217 Andreas Malmek hala erreibindikutzen du *Corona, Climate, Chronic Emergency* liburuxkan. Terrorismoaren Aurkako Zuzendariordetzak egindako kontakizunaren aurka, eta egoera historikoari aurre egiten saiatzen den pentsalari bati zor zaion errespetu guztiarekin, ez gatoz bat Malm jaunaren proposamen politikoekin.

jaistea, Europako bankuen petrolio finantzaketa debekatzea, eta abar.

Baina munduan, egun den bezala, eta indar harremnaren egungo egoeran, errealismo politikoaren harresiarekin topo egiten dugu oso maiz. Markoaren aldaketarik gabe, halako neurriak ez dira inoiz «ekonomikoki bideragarriak» izango; funtzionamendua merkatuaren menpe duen estatu bat ere ez da ausartuko haiek ezartzen.

Beste batzuk tradizio iraultzaile batean sinesten dugu, eta hark uko egiten dio Estatua botere kolektiboaren ikur bihurtzeari. Boterea hartzeari uko egite hori estatu-komunismoen porrot historikoaren egiaztapenean oinarritzen da, baina, egia esan, langile mugimenduaren desadostasun ugarietan du jatorria: 1919ko Bavaria-ko kontseiluetatik, Aragoiko komunetara edo 1936ko lantegi okupatuetara, 70eko hamarkadako autonomia italiarretik igarota. Bestalde, adibide berriagoez ere elikatzen da, non boterean dauden erreformistak errepresaliazko neurri ekonomikoengatik garaituak izan diren, hala nola Podemos Espainian edo Syriza Grezian, hurbilenak aipatzearren. Bizitasun politiko garaikidea munduko txoko guztietako panorama politikoa astintzen duten herri altxamendu autoantolatuetan dago.²¹⁸

Hala ere, esan beharra dago, iraultzaren aukerak kolapsatu eta globalizazio ekonomikoa nagusi den testuinguru honetan, aldaketak behetik eskatzen dituzten mugimenduek ere porrot egiten dutela garaipen esanguratsuak —edo garaipenak soilik— lortzeko unean. Berriki jazotako adibideak bakarrik aipatzearren, Ameriketako Estatu Batuetan, eskubide zibilen aldeko mugimenduaren ostean egon den altxamendu handienak ez ditu aldatu Polizia indarren egitura arrazistak. Iranen, aspirazio feministek sustaturiko iraultza odolez erreprimitu zuten. Frantzia, erritmo izugarrian bata bestearen atzetik datozen gizarte mugimenduek gobernuari gutxieneko kontzesio batzuk erauztear besterik ez dute lortu 2008ko subprime hipoteken krisiaz geroztik.²¹⁹ Borroka ekologikoen lortu izan dute proiektu batzuk bertan

218 Arabiar Iraultzetatik (2011) Sri Lankara (2022), Txiletik (2019) igaroz, gutxienez hamabost urte dira mugimendu aldakorrek panorama politikoa nahasten ari direla, baita boteretik kentzen ere, lider edo alderdi buruzagi bat boterean ezartzen saiatu gabe.

219 Lerro hauek idazten ari garen unean, Europako nekazariek erazitako neurriek berretsi egiten dute nekazaritzak eta haren erakundeek antagonismo sozialetan duten toki

behera uztea, baina ur tantak dira hormigoiairen eta irabazien ozeanoan.

Hortaz, ordena zalantzan jartzera ausartzen den edonor harrapatzen duen tenazaren barailen artean gaude. Ezinezko erreformen eta mugimendu iraultzaileen ezintasunaren artean, Estatuarekiko gure harremana arazo moduan azaltzen da:

1. baraila: Nazio-estatuak ez dute kapitalismo industrialaren irteera antolatuko.

2. baraila: Esperimentuek, alternatibek eta borroka sakabanatuek marjinalak izaten jarraitzen dute, edo porrot egiten dute.

Hortaz, zer egin?

Lurraren Altxamenduak mugimendua galdera hori eztabaidatzen den debate eta esperimendu transozeanikoen kate luze baten katebegia besterik ez da. Gure galdera ezer baino lehen estrategikoa da: nola handitu lurralde jakin bateko biztanleen ekintzarako gaitasuna? Erantzun baino lehen, aipa ditzagun labur-labur gure arazoa formulatzera eraman gaituzten gertakari politikoak.

Sozialdemokrazia, Lenin eta ZADak

Gure mugimenduaren indarra bere baitan bizikidetzan istorio politiko ezberdinak egotetik dator. Erreformismo zuhurregiaren zein espontaneotasun iraultzaile puruaren inkontsekuentziaz jakitun, ez gaituzte konbentzitzen ekologia politikoak gaur egun proposatzen dituen hiru aukera estrategiko nagusiek: erreformismoak, leninismo berdeak eta lurralde-hipotesiak. Lehen biek aurreko mendean langile mugimendua astindu zuen erreformaren eta iraultzaren alternatiba klasikoa errepikatzen dute,²²⁰ eta egungo krisiei plangintza ekologikoarekin erantzuten diete. Lehenak hauteskunderen bidetik jotzen du, besteak altxamenduaren bidetik. Biek ala biek Estatu ekintza politikoaren tresna nagusitzat dute. Hori dela eta, 1. barailari ihes egin diezaioketela uste dute. Hirugarrenari dagokionez, alderdi komunisten ezkerrean kokatzen diren korronte guztietako

berezia (Barne Ministerioak blokeoekiko duen jarrera behintzat ulerkorrak erakutsi duen moduan).

220 Ikus, bereziki, Rosa Luxemburgek Eduard Bernsteini egindako kritikak liburu honetan: *Sozialreform oder Revolution?*, Leipzig Leipziger Volkszeitung, 1899.

erakundez gaindiko politikaren oinordekoa da, maiz ezkertiar deiturikoa, eta erresistentzia puntu zehatz batzuk areagotzearen bidez aldaketa sozialaren aukeran sinesten du. Kasu honetan, 2. baraila da gauditua nahi dena. Azal ditzagun puntu horiei buruzko gure zalantzak, umilki laugarren saiakera bat aztertu baino lehen.

Salba gaitzake plangintza ekologikoak?

Politikari batzuek, erreformismo sozialdemokrataren oinordekoek hain zuzen ere, klima aldaketaren konponbide errealista bakar gisa aurkezten dute mundu mailako erreformak ezartzea. Erreforma horiek kapitalismoaren triskantzak erregulatzeko gai dira jada existitzen den marko batean: karbono bonuak, energia berriztagarrietan inbertsio masiboak, energia fosilen eta enpresa kutsatzaileen zergak, eraikinen eraberritze termikoa, baita ausartenentzat, lurren jabetzaren eskubideen erreforma ere. Hori lortzeko, hauteskundeetako konkista elite politiko eta ekonomikoak kontzientzia ekologiko berrira bihurtzearekin bateratu beharko litzateke. Errealitatearen zentzua eta bertutea, ekologia eta merkaturia uztartuz, *Green New Deal* baten nazioarteko jarraitzaileek haren bideragarritasuna frogatu nahi dute analisi geopolitikoen eta eredu ekonomiko heterodoxoen laguntzarekin. Ekologista hutsetatik haratago, ezker osoak uste du Estatuaren arrazoia —ekologikoa zein soziala— merkatuei inposatzeko modu bakarra hautetsontzien bidez boterea hartzea dela. Baina irabazteko, nahikoa al da arrazoia izatea?

Estatua ez da eduki behar berezko entitatetzat, [...] harremantzat
baizik, are zehatzago, klaseen eta klase-frakzioen arteko
indar harremanaren laburpen materialtzat.

Nicos Poulantzas, *L'État, le pouvoir, le socialisme*, 1978

Ikuspegi horrek eskatzen du Estatuaren egitura nahikoa neutroa izatea eragilearen arrazionaltasunaren esku egoteko. Esperientzia historiko ugari halere, goitik burututako erreformismoaren aukeraz zalantza egitera garamatza, hau da, Estatuaren aukeraz merkatuak haien interesen aurkako aldaketak egitera behartzeko.

«Ekintza klimatikorik ezaren» erregistroa ikuspegi —gure ustez, oker— horren parte da. Esan beharra dago gobernuek ez dutela klima aldaketaren aurrean ezer egiten. Aldiz, aktiboki laguntzen dute kapitala aldaketa ekologikoetara egokitzen azpiegitura tekniko eta juridikoak martxan jarritz —ur-biltegi handiak, litio minak, ingeniari eskolak, motor elektrikoak hobariak, eta abar—, beti egin duten moduan, trenbideak, telegrafoa, indigenen edo familiaren kodea abian jarritz, zeinak lehen industria iraultzaren garapenerako ezinbestekoak ziren. Garapen industrialak espazio sozialaren administrazio bat behar duen bezala, gero eta handiagoa den administratzaile espezializatuen klasearen mantenuak —zeina ezinbestekoa den egungo Nazio-estatuetan—, garapen industrialak behar du.

Interdependentzia horrek gezurtatu egiten du filosofia politikoak eraiki zuen eta geroztik etengabe irautarazi den Estatu subiranoaren mitoak, asmo orokorraren izenean diharduena. Horren adibide tristea da Tsipras greziar politikariak, aberastasuna birbanatzeko erreforma esanguratsuengatik hautatua izan zen arren, haiek aplikatzeari uko egin izana, EBren xantairi amore emanda; izan ere, EBk bere funtzionarioei ezin ordaintzarekin mehatxatu zuen. Askok desio duten plangintza ekonomikoak egungo burokraziek egiaztapen hori gezurtatzea suposatuko luke, baita haien mendeko diren eragile ekonomikoak bat-batean beren funtzioak betetzera behartzeko gai izatea ere. Utziezaguzue zalantzan jartzeko.

Sozialdemokraziaren lorpen handiena —eta egungo jarraitzaileek une oro errepikatzen dutena—, zalantzarik gabe, XX. mendean zehar pixkanaka ongizate-estatu deritzoguna abiarazi izana da; hau da, gure arteko ia guztiontzat ezinbestekoak bihurtu diren zerbitzu publikoen multzoa: ospitaleak, eskolak, pentsioak, etab. Baina zer dela eta arrakasta historiko hori? Askok datoz arrakasta langile mugimendu antolatuen indarrari, ekintza zuzenei eta hauteskundeetan izan zezakeen arrakastari egoztean, bereziki Bigarren Mundu Gerraren amaieran eta «Hogeitamar loriatsuen» garaian,²²¹ gerra hotzaren eta komunismoaren beldurraren testuinguruan. Gizarte seguran-

221 [l.o.] *Trente Glorieuses* (Hogeitamar loriatsuak) Europan 1946-1975 artean izan zen hazkunde ekonomiko orokor eta langile jendearen bizi baldintzen hobekuntzaren garaiari esaten zaio.

tza martxan jarri izanak asko zor dio erresistentzia komunisten fusilei,²²² gobernuek erreforma neurtuak nahiago izan baitzituzten iraultzaren zitalkeriak baino. Baina maiz ahaztu egin ohi dugu zerbitzu publikoen garapena Mendebaldeko estatuek nazioarteko merkatuan deskolonizaziora arte izan zuten estatus nagusiaren ondorioa dela.²²³ Hegoaldeko herrialdeen etengabe-ko arpilatzeak, bertako biztanleen lana mugarik gabe ustiatzeak eta XX. mendearen azken laurdenera arte industria lehiakiderik ez izateak azaltzen dituzte, neurri batean, gerraosteko hazkunde-tasa bikainak, baita konpromiso horiek hartzeko aukera ere. Beste era batera esanda, Nazio-estatua ez da sinestarazi nahi duen bezain subirano absolutua. Eta ez da kapitalaren morroi soil bat ere ez. Aitzitik, boteregune moduko bat litzateke, antagonismo sozialak hezurramitzen eta, aldi berean, arbitroarena egin eta egonkortzen dituena, eta haren funtzionamendua merkaturaren araberakoa da, azken horiek bere menpe dauden bezala.

Ongizate-estatua sortu izana ez dagokio ezkerren hauteskundeetako garaipenari. Iruditzen zaigu ez dela horren idealista pentsatzea, indar harremanaren une jakin batean, Mendebaldeko kapitalistei interesatzen zitzaie la gizarte bizitza eta lan indarra erreproduzitzeko beharrezko funtzio multzo bat finantzatzea. Une hori igaro da jada. Hainbat arrazoi direla eta, hala nola ekonomia mundu mailakoa bihurtzea, lanaren uberizazioa, Hegoaldeko herrialdeen boterearen igoera eta komunismoaren porrota, indar harreman honek eta erauztea baimendu duenak ez diote aurrerantzean hondatzeari uzten.

Bada garaia errealismo politikoa bandoz aldatzeko. Idealismoa edo inozentzia iruditzen zaigu direla metatze-ekonomiatik beren markoa hautsi gabe atera daitezkeela uste dutenei dagozkien kontuak. Iritzi publikoko aldaketa sakonak imajinatu arren, industria aroko lau mendetan eraikitako Nazio-estatu egiturak borondate politiko ona baino indartsuagoak dira. Nahiz eta ezker instituzionala saiatu munduaren amaiera eta hilaren amaiera uztartzen, goitik inposatutako plangintza ekologikoa pobreen

222 1946an, Ambroise Croizat-ek Gizarte segurantzaz ezartzeko norik itxaron nahi zuen salatu zuen Frantziako Nazio Biltzarrean: «Bost milioi dira eta eskura dituzte fusilak».

223 Céline Pessis, Sezin Topçu, Christophe Bonneuil, *Une autre Une autre histoire des « Trente Glorieuses »*. *Modernisation, contestations et pollutions dans la France d'après-guerre*, La Découverte, 2013.

kontura baino ezin da egin, ekonomia egokitzeko betiereko aldagaiak dira eta. Jaka Horien blokeoetatik 2024ko traktoretara, azken horiek ez dira okertu.

Leninismo berdea

Hala eta guztiz ere, ez dugu uste aipatutako marko hori leherraraziko lukeen mailu kolpea *Leviatan*²²⁴ ekologikoaren antzekoa denik. Polizia errepublikazaleak armak Shell edo Monsanto nagusien buruetara zuzenduko dituen eguna publikoki iragartzen dutenei edo isilean itxaroten dutenei erantzuten diegu nahiago dugula azken hitza oraindik esan ez duen hipotesi klandestino batean sinetsi: hau da, autoantolakuntza herrikoian. Proposamen leninista, gaur egun, eremu politikoko gutxiengo oso murrizt batek defendatzen du, baina iruditeria kolektiboaren gainean erakarpen nabarmena egiten jarraitzen du.²²⁵ Izan ere, 1917ko iraultzaren adibide masiboan oinarritzen da, zeina iraultza sozialista garailearen kasu bakanetakoa den. Leninismo berdea Estatuaren boterea indarrez eta kaleko presio orokorraren laguntzarekin hartzea imajinatzean datza, gizateriaren bizirau-penerako ezinbestekoak diren neurriak modu hertsatzailean ezartzeko: erauzketa fosilak geratzea, abiazio pribatua debekatzeta, industria estraktibistak CO2a harrapatzera birbideratzea, energia berriztagarriak masiboki eraikitzea, eta abar, baita, behin jarrita, aberastasunak partekatzea ere. Proposamen horren argitasun martzialak badu zerbait liluragarria garai nahasi hauetan. Pestiziden edo erauzketa fosilen amaiera —partekatzen dugun helburua— ez da lortuko, jakina, zailtasunik gabe, eta zer dago Estatuko aparatu bat baino eraginkorragoa hori lortzeko?

Arazoa da, funtsean, ez dugula ikusten Estatu nola bihur daitekeen benetako aldaketaren eragilea autoritarioa bihurtu gabe. Larrialdi ekologikoei erantzuteko ezinbestekoak diren aldaketa iraultzaileen eragile nagusia Estatu bihurtzea, aukera historiko bat errepikatzea da, eta badakigu aukera horrek indarkeria burokratiko gogorra leher dezakeela. Gure ustez, aukera

224 Mitologiaren hastapenetatik datorren itsas munstro beldurgarri horrek Estatu irudikatzen du egungo filosofia politikoa. Bizitza komunean antolatzeko munstro horren gainean ibili behar delako ideia hautsi nahi dugun iruditeria da.

225 Frantzian, Frédéric Lordon da, zalantzarik gabe, iruditeria leninista baten sustapenean gehien parte hartzen duenetako bat, eta, batzuetan, freskura apur bat ematen dio.

hori nahikoa da proposamena baztertzeko. Nahiago dugu herri altxamenduen promesez fidatu diktadura ilustratuarenez baino, dela berdea dela gorria. Bai, bidea zaila da. Txiletik hasita Sudaneraino, Siriako tragediatik igarota, saiakera guztiek kontrainsurgentziaren beso odoltsuarekin —gehiago edo gutxiago— topo egiten dute. Baina saiakera horiek indartzeko lan egin behar dugu. Estatuari botere kolektiboa itzuli ordez, kontrabotere autonomoak eratu nahi ditugu.

Apur bat zehatzagoak izatearren, eta haiekin eztabaida amaitu gabe dugun neoleninisten analisiaren sotiltasuna gorabehera, XX. mendeko esperientzia iraultzaileak saihesteko zailak diren irakaspen multzoa dituela iruditzen zaigu. Lehenik, Estatuaren mendekotasun ekonomikoa ez da desagertzen buruzagiak uniformeaz jantzen direnean, trajez jantzi ordez. Funtzionarioak ordaindu behar dira beti, eta, bereziki, soldaduak, hau da, asko ekoizti edota nazioarteko inbertitzaileak limurtu behar dira. Ildo horretan, ez dugu ulertzen zergatik izango lukeen arrakasta Estatuaren ekologiak Estatuaren sozialismoak porrot egin zuen lekuan, hau da, Nazio-estatuaren markoan ekonomia produktibo batetik irteten jakiten. Bigarrenik, leninismo berdearen proposamena gaur egungo larrialdi ekologikoaren eta Errusiak 1917tik aurrera bizi izan zuen gerra zibilaren arteko konparazioan oinarritzen da, eta alderaketa horrek muga handiak ditu. Atzerriko armadek eta buruzagi klaseen zati batek haren osotasuna zuzenean mehatxatzen duten herri batentzat onargarria dena, ez da onargarria nahasmendu ekologikoen eraginpean dagoen biztanleriarentzat, eta eskerrak. Azkenik, ekologiaren izenean botere subiranoak erregimen parlamentarioetan dituen babes hauskorak legez eta bidez gaindi daitezkeela esatea totalitarismoen memoria erabat axolagabeki ezabatzea da. Leninisten aukera mehatxagarriena izatetik oso urrun badago ere, beste batzuek —ekofaxismoa edo liberalismo autoritarioa, adibidez— onura atera diezaiokete Estatua larrialdiari erantzuteko gai den instantzia bakartzat aurkezten duen erretorikari. Aparatu burokratiko modernoei espeziearen biziraupenaren izenean boterea erabiltzeko aukera ematea, ez al da beste behin arbitrariotasunaren muga oro kentzea?

«Gizakiak zerua bihurtu nahi izan duen Estatu oro infernu bilakatu da beti».²²⁶ Botereen jolasean hainbeste jokatzeko bada, arauak aldatzeko ahalmena galtzen da. Gure iritziz, Nazio-estatuaren maila ez da egokiena: txikiegia da ekonomia globalizatua aldatzeko, eta handiegia hari ihes egiteko. Indarrez edo hautesontzietez eraso egiten badugu ere, gure tenazaren lehen baraila sendoa da. Jarduteko benetako gaitasuna herri mugimenduetan dago batez ere. Nola handiagotu horiek?

Lurraldeko hipotesia gainditzea: erreforma edo iraultza?

Azken hamar urteetan, ZADa ikono bihurtu da: Barne Ministerioak jazarria, jarraitzaileek maitatua; barne liskarren eta ikerketa berezien zelulen xedea. Ikono izatetik haratago, lurralde borrokek benetako hipotesi politikoa eratzten dute, eta iruditeria politikoa berritu eta garaipenak lortu dituzte, ZADak Sobietar Batasun osteko politikaren kale itsu batzuei erantzuten zielako. Borroka lauso horiek mugimendu altermundialistan, eskualdeko altxamendu —zapatista— batean eta eratu zituzten kontrabotere autonomoetan oinarritu ziren: Euskal Herriko Laborantza Ganbara independentea, Limousineko mendiko sindikatua, Barzelonako etxegabetzeen aurkako auzo batzordeak. Hein batean, hipotesi horrek erreformaren eta iraultzaren arteko alternatiba erabilitik ihes egitea ahalbidetu zuen, Estatuaren fokua lurralde lokalizatueta mugituz, non atxikimenduek eta presio ekonomikoek ez duten era berean jokatzeko.

Alde guztietatik itxitako gizarte egitura goitik edo behetik eraldatzen saiatu beharrean, puntu zehatz batzuetan arrakalak irekitzea ahalbidetzen zen, eta eragin handia izateko gai ziren.

Baina, labor esatearren, eremu batzuk botere ekonomiko eta politiko finkatuei ebastea ez zaigu iruditzen estrategia bat eratzeko bezain aukera hedagarria. Metaketaren hondamendiak ZADak ugarituz gelditu daitezkeela imajinatzea, ziurrenik ez da askoz fidagarriagoa izango berotze globala keinu txikiak pilatuz gelditu daitezkeela pentsatzea baino. Kasu honetan, gure tenazako bigarren baraila da bere tinkaldia burutzen duena.

226 Holderlin-en, *Hypérion*, aipatzen du François d'Eaubonne-k hemen: *Écologie/ Féminisme, révolution ou mutation ?*, Le Passager clandestin, 2023.

Non eta ez diren, agian, puntuak lotzen eta beste batzuei eraso egiten. Gure saiakera datza, alde batetik, borrokan dauden lurraldeak eta kontrabotere modu ezberdinak elkarren artean lotzean erresistentzia sare bat osatzeko, eta, beste aldetik, gure indar erasotzaileak ardatz zehatz batzuetan biltzean, apustu eginez ordena industrialak gehiago desorekatuko dela sektore bat menperatuz, barreiatutako puntuak ugarituz baino. Geure burua batez ere tradizio autonomoan izendatzen badugu ere, kultura horren zati batek, gutxienez, joera ezkertiarra du, zeina iraultza prestatzean oinarritzen den, harreman afektiboen berehalako zirkulu batetik haratago antolatzeari uko eginez. Saiakera horrek hainbeste kritikaturako makropolitikara itzultzea esan nahi du? Izan ere, berriz ere nazio mailara bultzatzen gaitu: ur-biltegi handien edo errepideen eraikuntzari buruzko luzamendu-eskaerak babestea, nekazaritza jabetzen erreforma bati buruzko hausnarketak egitea, baita nekazaritza politikari buruzkoak ere. Lurraren Altxamenduen hiru urteko borroka Estatuari neurriak eskatzera bideratu gaitu, eta horretarako esku hartzera, lurralde borroka urrunago mantendu ohi diren eremu politiko-mediati-koetan.

Beharbada tenaza guregan itxiko da. Beharbada zapalduak izango gara, bai eremu politiko tradizionalaren xurgapenagatik, bai bere ertzetako bazterketagatik. Bien bitartean, bere barailak indar guztiaz irekita mantentzen jarraitzeko asmoa dugu.

Estrategiak

Erronka gailur-lerro arriskutsu horretan irautea da, zapalduak eta errekuperatuak ez izaten saiaturik. Autonomia lausoaren gabeziak, leninismoaren arriskuen eta erreformismoaren ikuspegi estuaren artean gabiltza. Gure gorabeherak ezker instituzionalaren errealismo politikotik dute, marxista-leninisten seriotasun iraultzailetik, Estatuaren mesfidantzatik eta autonomoen imajinaziotik. Oraingoz, ez dago argi urrats horiek estrategia bateratu bat adierazten duten. Beste behin, plana ekintzatik datorrela berresten dugu eta ez alderantziz. Mugimenduaren fase honetan, gure sentsibilitate, uste eta tradizio ezberdinak ekintzen hiru erregistrotan konbinatzen dira. Lehena, desjabetze-azpiegituren aurkako eraso kokatuak dira, deuseztatu beharreko sektoreen terminoetan sortuak. Bigarrena,

liburu honetan kontrabotere autonomoak edo instituzio txikia-
goak deitu diegunak garatzea da, borroken edo beren ildoaren
baitan; haiek lantzen baituzte industriarekiko eta Estatua-
rekiko gure mendekotasunak. Hirugarrena, haien bizi eta lan
baldintzen berehalako aldaketak eskatzen dituzten gure aliatu
hurbilenek —biztanleen kolektiboek eta nekazari-sindikatuak—
defendatzen duten erreformismo erradikala babestea da.

Uztartu ditzakegu hiru ekintza erregistro horiek?
Orientatzen laguntzeko, baliagarria izan daiteke kontrainsurgen-
tzia-erreformen (*reformist reforms*) eta mugimendu abolizionista
estatubatuarraren neurri iraultzaileen (*step to abolition*) arteko
bereizketa. Mugimendu horren helburua Polizia abolitzea da,
Mendebaldeko gizartearen egiturazko arrazismoaren oinarritzat
jotzen baita.²²⁷ Helburuak utopikoa eman dezake, eta Parlamen-
tuko jokotik kanpo uzten ditu, AEBko ezker erradikalena pozik
baitago Poliziaren erreforma soilik eskatzearekin. Hala ere, abo-
lizionistek eskari zehatz eta jakinak egiten dizkiete ordenari
eusteko ardura duten udalerrri edo estatu federalei, zeinak argi
eta garbi programa erreformistaz bestelakoak diren. Polizia in-
darrak gorputz-kamerez hornitzea edo trebakuntza orduak
areagotzea, Poliziak *gutxiago* hil dezan espero izatea da, botere
arrazializatuaren adar armatu gisa duen rola ulertu gabe. Tes-
tuinguru horretan, erreformak beti egongo dira hasierako funtzio
sozialaren zerbitzura, eta gorputz-kamerak, adibidez, agenteen
egoeren eta borondatearen arabera itzali edo piztuko dira. Neu-
rri batzuek aldiz, benetan murrizten dute biztanleen bizitzaren
gaineko Polizia kontrola: esate baterako, beren aurrekontua edo
pertsonala murriztea eskatzea, arma jakin batzuk debekatzea,
larrialdi psikiatrikoetan trebatutako osasun langileek esku har-
tzea polizia agenteen ordeztu, edo atxilotuak askatzea. Jakina,
neurri horiek ez dute ezartzeko inolako aukerarik agintariekiko
indar harreman batean sartu gabe. Aldi berean, komunitateak
istiluak zigor esparrutik at aurkitzeko antolatzen dira, baita ko-
lektiboki autodefentsan trebatzeko ere.

Mugimendu abolizionistaren adibideari jarraituz, uste
dugu posible dela tokiko mailatik haratago doazen egiturazko
eraldaketak eskatzea, erori gabe, halere, lehen deskribatutako

227 Matsuda kolektiboa, *Abolir la police*, Niet, 2021

erreformismo parlamentarioaren edo leninismoaren akatsetan. Haien garaian sindikalista iraultzaileen modura, uste dugu posible dela eguneroko bizitzan berehalako eraldaketa zehatzak eskatzea —adibidez, nekazaritzako edo alokairuko lurren metaketa eragozte—, ikuspegi iraultzailea bistatik galdu gabe. Azken horiek zortzi orduko lanaldiagatik, ordaindutako oporreetatik edo gaixotasun profesionalen aitortpenagatik borrokatzen zuten, jakin bazekiten arren patronalen eskutik produkzioaren kontrola kentzeko gai zen matxinada-greba orokorrik gabe, langileek esplotatzaileen aurrean zuten zaugarritasuna ez zela batere aldatuko.

Neurri bat estrategikoki azter daiteke: aurkariak gure bizitzengan duen kontrola murriztu edo areagotu egingo du? Egungo gobernuari berregituratzeko aukera ematen al dio krisiei hobeto aurre egiteko? Kapitalari ematen al dio aldaketa ekologikoei hobeto moldatzeko edo administrazioari nazio-egoera hobeto kontrolatzeko? Edo aitzitik, auzo edo lurralde bateko biztanleei ekintzarako gaitasun gehiago ematen al die?

Ez dago erreforma on edo txar bat berez. Aurreko irizpidea neurri iraultzaileen eta konpromiso-erreformen artean *a priori* bereizketarik egitea ahalbidetzen ez duen adierazlea da; guztia, jakina, eskaria egiten duten indarren eta aurkitzen diren antagonismoen menpe dago. Nabardura sorta amaigabea dago talde parlamentario batek energia berriztagarrietan eta motor elektrikoetan inbertitzeko eskaeraren —zeinak esan nahi duen diru publikoarekin babestu behar dela ekoizpenaren eta erauzketaren etengabeko areagotzea—, eta 1990eko hamarkadan Ameriketako Estatu Batuetako Earth First!-eko ekologista erradikalek nekez lortutako basoak babesteko neurrien artean.

Gaur egun, tentsio handia dago gehiengoaren bizi baldintzak hemen eta orain aldatzeko eskakizunaren eta desjabetzen gaituztenekiko dugun mendekotasunaren sustraien aurka borrokatzeko beharraren artean. Beharbada, mugimendu iraultzaileen indarra bi horiek antolatzeko aukeran datza; batzuetan langile mugimenduak edo borroka dekolonialak eta indigenak egitea lortu duten moduan. Ez dugu tentsio hori erabat konpontzeko asmorik, harekin bizitzekoa baizik. Maiz, eskaera zeharo negatiboek biak uztartzea ahalbidetzen dute: merkataritza askeko akordioetatik ateratzea eskatzen duten Indiako edo

Frantziako nekazarien mugimendua, errepideak eraikitzeari uzteko eskatzeko borrokan dauden biztanleen kolektiboen sarea, eta abar. Aitzitik, Confédération paysannek bultzatutako NPBren erreformak, zehazki, kokatze-baldintzak hobetu eta agroindustriaren eragina ahuldu dezake, lanbideak dirulaguntza publikoekiko duen mendekotasunaren auzia ebatzi gabe —aldi berean, dirulaguntza horiek merkatuetan sartuta daude—, ezta arau administratiboen bidez homogeneousatu ere. Gure aliatuen eskakizun erreformista batzuk babesten baditugu, industria ordenarekiko antagonismoa urrunago eramateko gai den borroka prozesu baten parte direlako ere bada.

Funtsean, ez dugu sinesten erreformismo ekologiko (edo sozial) baten aukeran, hau da, apurkako aldaketa batean, zeinak pixkanaka-pixkanaka bizitzarako beharrezkoak diren ondasunen produkzioak bere baldintzak suntsituko ez dituen mundu batera eramango gaituen. Marko aldaketarik gabe, erreforma partzialek, kasurik onenean, baztertuak izateko arriskua dute, eta kasurik okerrenean berriz, sistemaren zerbitzura desbideratuak izatekoa.

Gure bizi baldintzak zailtzeko beharrezko eraldaketak imajinaezinak dira proba kolektiborako unerik gabe; hark indar harremanen oreka aldatuko luke eta eremu politikoaren egungo oztupoak saltatuko lituzke. Aldaketa horretarako behar den bizitasun kolektiboa gaur egun herri mugimenduen alde dagoela iruditzen zaigu, eta herri mugimendu horiek proban birmoldatzea onartzen duten klaseen eta erakundeen osaera aldakorrez osatuta daude. Iraultza da etorkizuna: ezin dugu gure hipotesiei beren indar guztia emango liekeen aldaketa une posiblea begiztatu, ezta aurreikusi ere, baina horretarako presta gaitzke. Gure aburuz, erakunde baten eginkizuna bere mugimenduen autoantolakuntza gaitasunak indartzean eta bere arerioak ahultzean datza, borroka kokatuetatik zehaztutako helburu zehatzak finkatuz. Ur-biltegi handien inguruko luzamendu-eskaerak edo lur erreserba komunalak sortzea mota horretako helburuak iruditzen zaizkigu.

Bizi izan ditugun istorio politiko ezberdinen ostean, hauxe da oraingoz egingarria iruditzen zaigun bidea. Beste batzuk ere badaude. Confédération paysannekin batera egiten dugu borroka. Haren programa zeharo erreformistak prezio minimoa eskatzen

du nekazaritza produktuetarako eta zergak mugetan. Guk basoak eta belardiak defendatzen ditugu inoiz negozioazio mahai batean eseriko ez liratekeen autonomo ziurrekin batera, eta aniztasun estrategiko hori da, beharbada, azken urteetan Frantziako hasereei hainbeste arnasa eman dien arrazoietakoa bat.

Ez dago funtsezko ezberdintasunik mugimenduaren eta amaierako helburuaren artean.

Lukács, *Taktika eta etika*

Bide hori egingarria da soilik paraleloki herri autoantolakuntzarako baldintzak eraikitzen badira. Batez ere, kontrabotereen dentsitatea eta autoantolakuntza praktiken hedapena aurreneko baldintzak direlako aldaketa une batean desarmatua ez sentitzeko, eta aldaketa ez dadin itzuli hasi dutenen aurka berehala. Horregatik da bikoitza beti gure ekintzen helburua: 1) gure arerioak ahultzea; 2) gure loturak indartzea.

Batzuen edo besteen etxeetan orduak igarotzea bileretan, bailara bateko errepideak zeharkatzea, elkarretaratze leku baten topografia behatzea, baratze kolektibo bat ereitea, enkriptatutako aplikazio bat erabiltzea, okupatutako eraikin baten historia berreraikitzea, eztabaidatzea, liskartzea, bi eta batzuetan hiru belaunaldi desberdinenekin antolatzea: erresistentzia gure indar kolektiboen ikasketa ere bada. Proiektu kaltegarri bat baztertzen den leku guztietan sortzen diren borrokarako bilerak edo ekintzarako koordinazioak gure autodeterminazio gaitasunak esperimentatzeko lekuak dira.

Argi dago ezin dugula berehala Estatua alde batera utzi, gure bizitzak, beste guztienak bezala, hainbeste mailatan (borroka gogor baten ondoren) konkistatutako elkartasun instituzionalizatuaren mende dauden herrialde batean. Baina serio hartu nahi ditugu ekintza politikoaren irakasteko gaitasunak. Hasiera batean, lurralde borrokek kontrabotereen formak hartzen dituzte, eta borroka garaietan hartutako ohiturek egunero-egunero gure bizi baldintzen ardura nola hartu ikastea ere ahalbidetzen digute: lurralde sindikatuek, auzoetako batzordeek eta arro hidrografikoen kontseiluek, adibidez, beren lan tresnaren autokudeatzaileak bihurtu diren greba batzordeei keinu egiten diete. Arrazoi hori dela eta saiatzen dira Lurraren

Altzamenduak, askotan nekez, zeharkako antolakuntzaren eraginkortasunaren eta tokiko dinamiken aztoramenduaren arteko orekari eusten. Erakundearen zeharkakotasuna ezinbestekoa da estrategia bat eraikitzeko eta aurkako instituzioei kontra egiteko, baina erabakiak hartzeko eskala egokia, guretzat, lurraldearena da, ez nazioarena. Eta eremu horretan jakin dezakegu ea obra bateko makineria desarmatzeko, inauteriak antolatuzeko, ministerioa interpelatzeko edo batzar bat deitzeko unea den. Erabaki batzuk auzo mailan hartzen dira, beste batzuk arro hidrografikoarenean, eta beste batzuk Mediterraneo itsasoarenean. Garrantzitsuena, gure iritziz, erabakiak hartzen dituztenek ere ondorioak jasatea da, eta deliberamendua, hortaz, baldintza partekatu batean oinarritzea. Horregatik, lurralde batek ez ditu *a priori* muga objektiboak ezta muga hermetikoak; borrokak berak definitzen du, baita kontrakoak ere.

Printzipio bat behar badugu, honela formula genezake: lurralde bateko biztanleei dagokie erabakitzea nola bizi bertan. Lurrarekin edo makinekin, eta auzokoekin edo lankideekin duten harremanaren menpe bizi direnak dira horiek nola arautu erabaki behar dutenak, eta ez urrunetik ustiatzen edo administratzen dutenak. *All power to the people!* ez al da eslogan ekologistarik onena?



LAU

SORTU ANTOLAKUNDE BAT URRATSEZ URRATS

ANTOLATZEKO BEHARRA ANTOLAKUNDE POLITIKOEK PORROT EGIN DUTEN MUNDU BATEAN

2021eko urtarrila – Notre-Dame-des-Landes – Inaugurazio-
batzarra

Urtebete igaro da konfinamendutik. ZADeko bizilagunek «zeru-lurrak astintzeko» batzar bat deitzea erabaki dute, proposamen zehatz batzuekin. Ohartxoak bidali zaizkie aspaldiko kideei eta Parisko bihotzean dagoen Italie 2 merkataritza-gunearen okupazioan edo munduaren berrintoxikazioaren aurkako ekin-tza-jardunaldien koordinazioaren baitan ezagutu berri genituen pertsoneri.²²⁸ Debeekatuta dago oraindik biltzea, baina ezinezkoa da ez antolatzea. Baso txikiak aukera hori eskaintzen du.

Kanpoan izugarrizko hotza egiten du eta Ambazada aretoa gainezka dago. Kartografia ariketa azkar batek argi adierazten du herrialdeko txoko guztietatik gutako bakoitzak zeharkatutako bidea. Aurkezpen joko bat egin dugu elkar ezagutzeko, bata bestearen alboan gaude lurra lantzen duten nekazariak eta asfalto egunero zapaltzen duten pertsonak, lagun talde baten edo erakunde ekologista baten izenean hitz egiten dutenak. Denok partekatzen dugu saiakera politiko berri baten beharra, baita elkartzearen zirrara berezia ere. Desirak aldi berean mugagabeak dira: «Monsanto setiatu behar da Lyonon», «Hormigoi-zentraletan inoiz gauzatutako intrusio handiena egin behar da», «Saint-Nazaire badian Yara ongari sintetikoaren ekoizpen terminala blokeatu»... eta azkar batean mugatu dira: «Tira, hasteko saia gaitezen sei hilabetez eta ikus dezagun udan nola joan den».

Bi egunetan forma hartu du lehen ekintza-denboraldi bategen planeten lerrotatze on bati esker: atalase bat zeharkatzeko edo forma berriak probatzeko prest dauden borrokek eman dute izena. Hortaz, aste batzuetan, Besançon-eko Vaïtes lorategian barazkiak landatuko ditugu, Rennesko Pévalaye-ko belardietan futboleko jokatu dugu, Saint-Colomban-eko harrobian krokodiloak jaurtiko ditugu, Loira Garaian, RN88 errepidearen

228 Konfinamenduan zehar zabalduko deialdi baten ondoren, 2020ko ekainaren 17an, blokeoen eta okupazioen dozenaka tokiko ekintza gauzatu ziren «mundua berriz intoxikatzearen aurka». Nazio mailan koordinatutako ekintza zuzenen ekimen hori hainbat aldiz errepikatu zen hurrengo urtean.

ibilbidean, bi sumendi-muinoren arteko topografoen hesolak erauziko ditugu hamarnaka zuziren argian, eta Paris Handiko obren likido grisaren iturria geldiaraziko dugu.

Mugimenduaren izena zein beharko lukeen erabakitze-ko eztabaida sutsu baten ostean, mundu guztia lanean hasi da. ZADekoen koordinazio esperientzia ekintza klimatikoko kolektiboekin bateratuz eta nekazarien kezkak uztartuz, kasu batzuetan bezperan ezagutzen ere ez ziren pertsona taldeek datorren denboraldirako programa landu eta ekintzak zehazki prestatu dituzte.

Aste batzuk beranduago lehen manifestuak honakoa jakinarazten zuen: «Munduaren amaieraren eta haien munduaren amaieraren artean, ez dago alternatibarik».

Mugimendu batek lurralde bat eta ibilbideak zehazten ditu. Hurrengo sei hilabeteetan, gure finkatze nomadaren lehen erreferentzia-puntuak bilatu ditugu. 2021eko udaberriko neurriek herrialde osoan zehar sakabanatuta dauden taldeak lehen lur-multzo bati lotzea izango dute ondorioztat. Denbora hartu dugu elkartzeko eta han eta hemen Lurraren Altxamenduetako kide nabarmen bakoitzaren sareak ezagutzeko ere. Z belaunaldia eta erretiratuak, hiri eta landa munduak, mota guztietako lanbideak eta lana utzi dutenen ibilbideak nahastuko diren mobilizazioak imajinatu ditugu. Inoiz ez da ekintzaren unea soilik, baita hura laguntzen duten otordu handien, ibilaldien, jaien eta kanpamentuen kontua ere. Altxamenduen lehen ekintzak neurtuak dira, baina Polizia jada oso presente dago. Eta hasi garelako elkarrekin jokatzeko, aurkariei aurre egiten eta bakoitzak nola erreakzionatu zezakeen sentitzen, pentsa dezakegu orain hara-joatea. Historia hasi da jada.

Aspirazioak

Kontua burokrazia sortzen ez duen antolaketa bat aurkitzea da. Burokraziak beti traizionatzen baitu. Eta ekintza ez antolatua beti mantentzen baita garbia, baina porrot egiten du.

Simone Weil, Thévenon-i gutuna, 1932

Aldaketa posible baten alde lan egiten duten erakundeak harrapatuta daude egun, Rodrigo Nunes-ek «malenkonia bikoi-

tza»²²⁹ deitzen dionagatik; sentimendu hori aurreko mendeko bi esperientzia iraultzaile handik, bakoitzak bere antolaketa ereduarekin, utzitako porrot sentimenduaren ondorio da. Alde batetik, 1917koa, hiru oinarritan eraikia —abangoardiako alderdia, determinismo historikoa eta subjektu iraultzailea—, hondoratu egin zen diktaduren eta bete gabeko profezien segida batean. Beste aldetik, 1968koak erantzun gisa forma molekularrak, autogestionatuak eta antiautoritarioak zabaldu zituen. Subjektu iraultzaileak areagotu zituen: gazteak, emakumeak, prekarizatuak... Baina itxaropenak apurtu egin ziren 80ko hamarkadako norabide liberalarekin.

Antolakuntzaren azuia ebatzi gabe utzi zuen ondare horretatik abiatzen gara. Etorkizun iraultzailerik ez edukitzea, zenbaitetan, esperientzia politiko ahalik eta sutsuenak bizitzeko gogoarekin ordezkatu da, banda antolatuetan edo denboraldi baterako eremu autonomoetan, esaterako. Horiek muga bat dute: beren irismena zeharo mugatua da. Horren harira, gure autonomia saiakerek aldaketaren dimentsio intentsiboa lehenetsi dute batzuetan, dimentsio hedakorraren orde. Halaber, sakabanatze aktibistaren mugak eta etorkizunik gabeko konpromisoak bizi izan ditugu, helburuak lortzeko esku-hartze iragankorregiak, edozein antolamendu mota egonkorren arbuio erreflexuak.

Hala eta guztiz ere, milurtekoaren hasieratik, egun Lurraren Altxamenduak osatzen duten pertsonak ez dira malenkonian erori. Guztiz esperimentatu dugu antzeko taldeen eta batzar handien osagarritasuna; bat-bateko eztandak eta irauten duten mugimenduak berriz saiatzen dira, eta, azkenerrako, nagusitu egiten dira, hamarkadetako pertseberantziaren ostean. Haiengan konfiantza izan dezakegun borroka eremuak eta komunitateak eraikitzeke antolatu gara. Plan estrategikoak zehatz-mehatz landu ditugu, eta, aldi berean, poztu egin gara gainezka egin dutelako. Mugimendu erregulariki masiboak, sortzaileak eta batzuetan partzialki garaileak ezagutu ditugu, baina baita beheraldi baten ondorioak eta tarte hunkigarriak ere. Gure kontraesanetatik abiatuta, gure ibilbidean antolakundeak eraikitzeke bide posible bat aurkitzen dugu.

229 Rodrigo Nunes militante antikapitalista eta unibertsitateko irakaslea da saiakera honen egilea: *Neither Vertical nor Horizontal: A Theory of Political Organization*, Verso, 2021.

Azken zati hori aribidean dagoen obra baten isla da. Obra hori era askotako gure historien bidegurutzean ezartzen da, baina halere, ziurtasun sendo batean oinarritzen da: antolatzeke modu berriak behar ditugu. Modu horiek zein diren jakiteko, mugimendu ezberdinetako protagonisten arteko nazioarteko elkarrizketaren bidez soilik formulatu ahaliko da benetan erantzuna. Elkarrizketa hori jada hasi da han-hemenka kide siriarren, ingelesen edo estatubatuarren artean.²³⁰ Zati horrek antolakundeari buruzko eztabaidari eginiko ekarpen xume bat izan nahi du, eta gure egituraketa lagunduko duten zenbait kontu eta praktikaren behin-behineko balantzea proposatzen du.

Hipotesia: tokiko borroketan oinarritutako antolakuntza eraikitzea

Kontragailurrak, biribilguneak eta lurralde borrokak

1980ko hamarkada hotzaren ostean, globalizazioaren aurkako mugimenduak ofentsibara itzuli zela erakutsi zuen. «Herrien munduko ekintza» zapatistak, Lurrik Gabekoen Mugimendua, nekazari indiarren edo indonesiarren sindikatuak eta Reclaim The Streets gisako talde europarrak biltzen dituen sarea da. 90eko hamarkada amaieran, mugimendu horrek jomugatzat hartu zituen merkatu kapitalistaren mundualizazio azeleratua eta bere gobernantza eskari berriak. Mundu osoko kapitaletako finantzaguneetan aldibereko ekintzak abiarazteko koordinatu zen. Ekintza horiek G8aren, Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren goi-bilera iskanbilatsuen setioetan gauzatu ziren. Baina nazioarteko hitzordu handi horiek, azkenean, foro sozialetan eta «eremu gorrien» ezustekorik gabeko erasoaldietan erritualizatzen dira, goi-bileretatik at. 1994ko Chiapasko altxamenduak inspiratuta, mugimenduak dimentsio internazionalista eratzen du tokiko mailarekin batera. Bere «globalki pentsatu, lokalki jardun» kontsignak borrokan dagoen lurralde bakoitzaren erronka espezifikoak ematen die lehentasuna.

230 Bereziki hauek irakurtzea gomendatzen dizugu: Hugh Farrell «The Strategy of Composition», Hanane al-Jouri, «Pièges et principes de l'horizontalité» edo Adrian Wohlleben, «Mêmes sans fin», Lundimatin interneteko egunkarian frantsesez (lundi.am)

Garai horretan, Frantzia mailan, herrialdea blokeatu egin zen eta erregulariki su hartu zuen erreforma antisozialen aurrean; hala, garaipen batzuk lortu zituen, 1995eko grebatik 2006ko Lehen Lan Kontratuaren aurkako protestetara. Ordutik, gobernuak kikildu gabe inposatu dituzte beren erreforma liberal guztiak. 2016ko udaberrian, nahiz eta bloke beltzak egundoko ahalegina egin eta oso heterogeneoa izan, «lanaren legea» indarrean sartu zen.

Maila nazionala blokeatzen zen bitartean, 2012ko urrian, Notre-Dame-des-Landeseko ZADeko Cesar operazioaren aurka erresistentzia borrokan birlurraldekatze mugimenduaren une gorenera iritsi zen. «Babestu beharreko guneeetan» antolatzeak aukera ematen du espazio okupatu batean finkatzeko, lurralde-antolaketa aurrean garaipenerako aukerak berreskuratzeko, hezeguneen, basoen eta belardien defentsa uztartzeko munduarekin eta komunarekin harreman berriak asmatzeko aukerarekin.

2018an, Jaka Horiak boterea ikaratu zuten jauregiataraino iritsiz, biribilgune bakoitza mugimenduaren eguneroko bizitzaren erdigune bihurtuz. Modu espontaneoan antolatzen ziren, marko instituzionaletik at eta maila ezberdinetan. 2018ko abenduaren 7ko gauean, hirugarren ekintzaren bezperan, herrialdea hatsik hartu gabe zegoen. Tankeak Eliseo Zelaien hiribidean zabaltzen ziren bitartean, mugimenduko parte-hartzaile asko bertigoz gainezka zeuden: Eliseo jauregia hartzeko erabakitasa genuen, baina ez genekien zer egin erregimenaren erorketa hipotetikoaren ondoren.

Urte berean, klimaren aldeko mugimenduak gazteen greben, manifestazio handien eta kolektibo berrien (XR, YFC, etab.) loratzearen bidez, mundu mailako neurrien aldarrikapena berarratu zuen. Baina gobernuen diskurtsoa berdetzea baino zerbait gehiago lortzeko asmoan porrot egin izanak, berehala eragin zuen kideen zati handi bat tokiko borroketara itzultzea. Haien ugaritzea eta saretzea hondamendiaren norabidea aldatzeko gaitzat jotzen dira.²³¹

231 Adibidez, Terres de luttres gure kideek hezuramaitzen duten apustu politikoa da gaikako koalizio multzoarekin: errepideak, aireportuak, baserri-fabrikak.

Tokiko borroken erronka

«Klima aldaketaren», «hondamendi ekologikoaren» edo «airearen kutsaduraren» «arazoak» oso dramatikoak izan arren, egiazki, borrokarako ikuspegi zehatz gutxi eskaintzen dute, aldarrikapen orokorrak aditzera ematea salbu. Aldarrikapen horiek batera doaz boterean dauden gobernuek —maila horretan burutu beharreko erreformak egiteko gai diren bakarrak direla iritzita— jardutearen itxaropen beti bezala desengainatuarekin. Hala ere, gaitz horietako bakoitza larriagotzea honako hauen emaitza da: fabriketako tximinien isurpenen etengabeko batura, eta Amazonen biltegiek, metanizatzaileek, harrobien handitzeek, aireportuek, errepideen eraikuntzak eta lurralde osoan zehar sakabanatutako obra multzoek eragindako kalteak.

Askok uste dute eremu horretan eta eskala horretan lortu dezakegula eragin jakin bat. Tokiko borrokek lor daitezkeen helburuen bidez garaipenak eskuratzea ahalbidetzen dute.

Vaïtes-etik Sivens-eraino edo Roybon-eraino, Lentillères-etik Gonesse-raino edo Aubervilliers-eko lorategietaraino, arestiko historiak pentsarazten digu, lurren artifizializazioaren mehatxuaren aurrean indarrak era esanguratsuan biltzen direnean, botere publikoek amore eman dezaketela. Gainera, errazagoa da irudikatzea gobernu bat obra bat edo besterekin amore ematen, munduko ekonomiaren presiopean, lan eskubi-deen erreforma bati edo nekazaritza komunaren politikari uko egiten baino.

Maila horretan, garaipen baten onura berehala nabari da. Gure aurrean ditugu basoak eta babesitutako lurraldeak, bizitzarako, paseatzeko, behatzeko edo baratzezaintzarako eremuak. Hortzez eta haginez defendatzen dugun lekuak babeslekua eskaintzen du edozein atxikimendu motaren gainbeheraren aurrean. Bertan topatzen dugu zerbait gogor eutsi eta defendatzearen gogoia. Arrazoi ugari daude lur zati bat defendatzeko, eta ekintza horrek identitate militanteak alde batera uztera bultzatzen du. Lurralde baten eguneroko banaketan, bizitza eta borroka nahasten diren antolaketa moduak hedatzen dira. Gure lurralde batzarretan, azkenean, defendatzen dugunagatik nahiz sortzen dugunagatik elkartzten gara.

Hortaz, tokiko borroken joerak bere muga propioak topatzen ditu. Notre-Dame-des-Landeseko adibidea enblematikoa

da. Baso txikiaren 1.650 hektarea salbatzeko eta aireportu berri bat eragozteko, energia ugari bildu behar izan da berrogei urtez. Baina harrezkero herrialde honetan artifizializatu diren hamarnaka milaka hektareekin alderatuta, baso txikiaren 1.650 hektarea horiek hutsaren hurrengoa dirudite. Ikuspuntu horretatik, zeinak indar harreman globalari buruz asko dioen, sobera galtzaileak izaten jarraitzen dugu. Baina borroka horrek 1.650 lur hektarea salbatu baino askoz gehiago egin du. Haren mamuak buruzagi klaseak eta mota guztietako lobby hirigileak ikaratzen ditu oraindik. Tokiko borroken soberakinaren zati horretatik abiatu behar dugu.

Proiektu jakinak erorarazteko antolatzeak oihartzun eta zabalkunde eraginak izan ditzake. Tokiko borroken garaipenen baturak proiektu-kateak arrapaladan bidal ditzake pikutara. 1990eko hamarkadan, Ingalaterran, *Road protests* deiturikoak —zuhaitz-txablek eta tunel-sareek okupatutako basoak— ugaritzeak garaiko errepede programa handiaren % 80 egitea eragotzi zuen azkenean.²³² Kanporatzeak garestiegiak bihurtu ziren ekonomikoki, militarri eta politikoki.

Gertuagotik begiratzen badugu, tamaina handiko proiektuak —Larzaceko kanpamentu militarra, Plogoffeko edo Carneteko zentral nuklearra, Notre-Dame-des-Landeseko aireportua— eroraraztea lortu zuten mugimenduek tokiko maila gainditzen zuen antolamendu plan bat aktibatu behar izan zuten: babes-batzordeak, manifestazio nazionalak eta gizarteko sektore ezberdinen konpromisoa. Etsaien azpiegituraren —biltegi logistikoak, ur-biltegiak, baserri-fabrikak— aurrerapena atzeratzeko borrokek gudu sakabanatuen batura soil bat baino sendoagoa den estrategia bat gauzatzen dute. Are eta inperatiboagoa da joera maila nazional edo mundu mailara alderantzizatzeko beharra serioski hartzen badugu.

Tokiko borroka antolakunde batean elkartzea

Ez da aukeratu behar tokiko ekintzen eta antolakuntza nazional edo nazioartekoaren artean, ez dago ebatzi beharreko antagonismorik. Eskala ezberdin horien egiturazko konbinazio

232 *Earth First! À bas l'empire, vive le printemps!*, *Divergences*, 2020: 90eko hamarkadako mugimendu ekologista erradikal ingelesaren historia bikaina.

batek soilik ekar dezake benetako desbideratze bat: tokiko borroken sare trinko bat eratzea logika aldaketara behartuko duen botere areagotzearen plan estrategiko bati lotuta. Horrek tokian tokikotik haratago doan antolakunde bat sortzea eskatzen du, zeina gai izango den indarrak bateratzeko, etapak eta ibilbidea pentsatzeko, puntu neuralgikoak identifikatzeko eta ekintzak kontatzeko.

Tokiko borrokek gero eta gaitasun handiagoa dute gaikako koordinazio eremuez, transmisio eta trebakuntza tresnez, eta herri batetik besterako interkonexioez hornitzeko.²³³ Esku-hartze maila ezberdinak antolatzen dituen bide komuna ezartzea falta da inflexio-puntuak eratzeko eta atalaseak gainditzeko. Hori da egiten dugun apustua hormigoiaaren sektorean edo agroindustrian ardazteko gure moduan. Egiten dugun ariketa gure indarrak zergatik eta nola batu erabakitzea da. Erabaki hori ez dator bat hierarkizazio estrategikorik gabeko borroka ugartze hutsarekin.

Ez datza inola ere ez ardatz bat gainerakoengan gailentzean, baizik eta gure esku-hartze eremua testuinguruaren arabera murriztean haren irismena areagotzeko. Eraikin batzuk eraitsi egin behar dira beste batzuk atzetik etortzeko.

Gure esku hartzeko gaitasuna aurreikuspenean eta alde zuzeneko lanketan oinarritzen da. Gaur egun, gaitasun hori ezinezkoa da bereiztea ekintza programa baten eta une zehatz batzuetako konpromiso sendoaren elaboraziotik. Baina agenda bat izateak bere mugak ditu: nola egon eskuragai bat-batean sortzen diren altxamenduentzat? Nola mantendu planak etengabe hankaz gora jartzeko gogoia ustekabeko egoera batean konprometitzeko? Zailtasun horri buruz zerbait adierazten dute pentsioen mugimenduan edo Nahelen heriotzaren ostean egondako errebolteetan, mugimendua desegitearen zurrumbilo erdian, parte hartzeko apeta lotsatiegiek. Palestinar herria bonbapean dagoen bitartean bere zapalkuntza kolonialaren aurka esku hartzeko moduen inguruko eztabaidek edo 2024ko nekazari mugimenduan presentzia egoki bat aurkitzeko moduarenak, guk geuk finkatu dugun bidea gainditzeko gaitasuna atakan jartzen

233 Terres de luites elkartearen gure kideen apustu politikoa da, eta, bereziki, baserrifabriketan, aireportuetan, errepideetan edo biltegi logistikoetan tokiko borroka koordinatzeko prestakuntza ematen du.

dute. Hala ere, egiaztatu ahal izan dugu jada eraikitako indar entzungarri batek bitarteko pribilegiatuak dituela dinamika aliatuak babesteko, komunikazio zehatzaren, sostengu materialaren edo ekintza deszentralizatuen bidez.²³⁴

234 Adibidez, 2024ko otsailaren 17an, Lurraren Altxamenduen tokiko batzordeek eta Urgence Palestine-k antolatutako dozenaka blokeok, eskuorri-banaketek eta boikotek Carrefour katearen denden funtzionamendua oztopatu zuten, kolonizazioari eta Israelgo armadari emandako laguntza aktiboa salatzeke.

ZEHARKAKO ANTOLAKUNDEA

Hibridazioak

Altxamenduak koalizioaren eta mugimenduaren menpe daude, baita antolaketa alderdikoia menpe ere, inoiz erabat bat etorri ez arren. Modu horietako bakoitzaren mugak gainditzeko, bakoitza bere indarrak baliatzen da: koalizioaren ugaritasuna eta alboratze soil baten arriskua; mugimenduaren moldagarritasuna eta egoerekiko egokitasuna, baina baita bere izaera iragankor eta laxoa ere; antolakunde baten fidagarritasuna, iraupena eta bitartekoak eta bere geldialdien eragozpenak.

Koalizio bat gara antolakunde multzoak eta jada existitzen ziren kolektiboak biltzen ditugulako, eta haiek beren autonomia eta existentzia izaten jarraitzen dutelako.

Mugimendu bat gara ekintzara bideratuta gaudelako eta bateratze masiboetara eta taldekatze informaletara irekita gaudelako.

Antolakunde bat gara egitura propio eta iraunkorrez eta erabaki errektiboen eremuez hornitzea erabaki dugulako.

Inaugurazio-batzarrak nahi neurrigabe bat ezarri zuen: lurren metaketaren eta artifizializazioaren erronkari dagokion egoera benetan aldatuko duen mugimendu bat sortzea, eta, aldi berean, haren bideragarritasuna urratsez urrats frogatzea. Forma ireki eta apropos osatugabea hautatu genuen, aukera berriak agertu ahala aldatzeko aukera edukitzeko.

Mugimenduaren beharren arabera, batzorde juridikoak, nazioartekoak eta osasun-zainketarenak eratzen joan dira. Koordinazio espazio bat osatu zen. Dinamika aliatuak eratu ziren *Naturalistes des terresekin* (edo lur-egileekin) eta *Intercantine de l'Ouest*-ekin.²³⁵ Blokeoek eta okupazioek gain, gure bildumara beste ekintza mota bat gehitu genuen —desarmatzea— 2021eko ekainean Gennevillierseko hormigoi-lantegiak okupatu ostean. Ur-biltegien aurkako mugimenduarekin izandako lankidetzeta bizian zehar, gai berri bat itxura hartzen joan zen: uraren defentsa.

235 [I.o.] Ur-biltegi handien edo *Naturalistes des terresen* mobilizazioetan aktibistak elikatzear arduratzen den taldea da, eta ahalmen esponenzial handia du.

«Lurraren Altxamenduen tokiko batzordeak» eratzeko jauziak denbora gehiago behar izan zuen. Hainbat galdera azaleratzen zituen ekintza autonomiaren eta erabakitze-mailak ugaritzearen inguruan. Hainbat lekutan bazeuden jada tokiko borroekin koordinazioak, eta mugimenduarekin lotura gisa balio zuten. Beste leku batzuetan, Lurraren Altxamenduen batzordeek eremu politiko egokia osatu ahal izan dute ekintzarekiko eta osaketarekiko harreman berri bat ezarri eta bateratzeko. 2022ko neguan Rennesko batzordearen tokiko sorkuntzan izandako esperientzia gogotsuak beste zenbait ekarri zituen. Baina, hain zuzen ere, desgitearen mehatxuak bultzatu zuen dozenaka tokiko batzorde azkar sortzea.²³⁶

Hipotesia: Zeharkakotasunaren bila

Kontzientzia iraultzailearen benetako lekua ez da, beraz, ez klasea bere berehalakotasunean, ezta alderdia ere, borroka baizik. Alderdia bizirik legoke borrokarako tresna den bitartean, baina instituzio bihurtu bezain pronto, helburua bitartekoengatik aldatzen du eta bere helburu propioa bilakatzen da.²³⁷

Rossana Rossanda

Zeharkakotasuna bi kale itsu gainditu nahi dituen dimentsioa da, bertikaltasun puruarena eta horizontaltasun soilarena; maila ezberdinen artean eta, batez ere, noranzko diferenteetan gehienezko komunikazioa gertatzen denean gauzatu ohi da.²³⁸

Félix Guattari

Autonomia politikoak borroken autoantolakuntzaren aldeko apustua egin du; gainbehera burokratikoaren kontra eta antolakunde politiko klasikoek indar subertsiboak beren interesen mesederako bideratzeko duten joeraren kontra. Egituraketa menderatzailearen saiakeren aurrean, langile kontseiluak, batzar burujabeak eta bat-bateko elkartzeen asaldura lehenetsi


236 Lurraren Altxamenduen egituraren eta bere funtzionamenduaren bilakaeraren historia zehatzerako, irakurri *Ossature, enveloppe charnelle et actes des Soulèvements de la terre* liburuxka.







237 «Masses, spontanéité, parti : entretien avec Jean-Paul Sartre», *Il Manifesto*, 1969 (<https://acta.zone/jean-paul-sartre-masses-spontaneite-parti/#easy-footnote-bottom-1-3529>).

238 Félix Guattari, *Psychanalyse et transversalité*, La Découverte, 2003.

du, lantoki, unibertsitate edo auzo mailan. Hala ere, botere ha-
 remanekiko eta haren abusuekiko arretak jarduteko gaitasun
 kolektiboaren egituraketa eta mendekotasuna nahasteko joera
 du. Horizontalaren edo bertikalaren, formalaren edo informa-
 laren, espontaneoaren edo antolatuaren arteko aurkakotasun
 baztertzaillek geldiarazi zezaketen egungo ordena desegiteko
 beharrezko bitartekoen gogoeta estrategikoa.

**LURRAREN ALTXAMENDUEN
 EKINTZA BATEN KOORDINAZIOA**



- | | | | |
|---|-------------------------------|---|-----------------------|
|  | BATZORDEA |  | OINARRI MATERIALAK |
|  | BATZORDE ARTEKOAK |  | TOKIKO BORROKA |
|  | ERREPRETSIOAREN AURKAKO SAREA |  | EZPAL BEREKO DINAMIKA |
|  | TOKIKO BATZORDEA |  | KOMUNIKABIDEA |

XX. mendeko erresistentzia mugimendu asko sarearen eta jendetzaren, ordezkartzarik eta liderrik gabeko horizontaltasunaren eta deszentralizazioaren paradigmen inguruan eratu dira, «boterea hartu gabe mundua aldatzeko»²³⁹ nahiarekin. Dinamika horiek martxan ikusi ditugu «plaza mugimenduetan» edo 2019ko udazkeneko aldebereko altxamendu batzuetan,²⁴⁰ eta osaketa sozialean eta aldarrikapenetan ezberdinak ziren arren, bat zetozen iraultzei forma ematen saiatzean, eta, horretarako, egitura sakabanatuetan eta maiz, aurretik ez zeuden antolakundeetan sostengatzen ziren. Oldarraldi horietako asko errepresio basati batez zapaldu zituzten. Baina, Txiletik Libanora, mugimendu horiek ere beren hipotesiak eta galderak transmititu zizkiguten, altxamenduetatik haratago, autoantolakuntza moduetan eragitekoko eta horiek mantentzeko nola egituratu jakiteko.

Mugimendu zapatistek edo kurduak beren aldetik, modu oso ezberdinetan, autoantolakuntza eskariak mantentzea lortu dute lurralde zabaletan. Horrexegatik, borroka horiek modu indartsuan nagusitu dira gaur egungo iruditeria iraultzailean. Hala eta guztiz ere, zenbaitetan lehengoratzeko osatugabe bat jasan dute. Kontakizun askok ez dute kontuan hartzen instantzia zentralizatzaileen eginkizuna, bereziki Chiapasen, eta batzarrak erabat gailentzea eta erabakietan guztiek berdin parte hartzea iradokitzen dute. Mugimendu zapatista ordea, bi ardatz bereizezinen inguruan antolatzen da: autonomia zapatistaren pixkanakako finkatzearekin lankidetzan, horizontaltasun modu oso egituratuak hedatzea, eta «gobernu onaren»²⁴¹ kontseiluak, baina baita ziur aski bertikala den ardatz estrategiko eta militar bat mantentzea ere, hots, EZLN. Hark «obedituz gobernatzen» badu ere, zenbait konturen inguruan agintzen du. Gai da aurkarien erasoan aurrean erreakzionatzeko, nazioarteko babes mobilizatze eta eraso-faseak eta negoziazio-gaitasunak uztartzeko. PYD-PKKren

239 John Holloway, *Change the World Without Taking Power: The Meaning of Revolution Today*, Pluto Press, 2002.

240 2019ko udazkenean matxinada mugimendu masiboak gertatu ziren aldi berean Txilen, Libanon, Iraken eta Ekuadorren. Eztanda herrikoi horiek agerian utzi zituzten, berriz ere, beste leku batzuetan, Haitin, Hong Kongen eta Aljerian esaterako, hainbat hilabetez martxan egon diren mugimenduak.

241 Urte horren amaieran gelditu egin ziren zapatisten autonomia eraikitze prozesu berri bati ekiteko.

norabide federalistak, are komunalistak ere,²⁴² eta demokrazia zuzenaren formak bultzatzeak ez dute zalantzan jarri egitura antolatzaile paraleloa eta bere marko eta buruzagiekin lotuta egotea, gehienbat Kurdistango eta Siriako gerra ireki eta multipolarren testuinguruan. Baliteke mugimendu horiei denboran zehar lurralde zabalak mantentzea ahalbidetu diena —sekulako indar armatuek eta interes geopolitiko garrantzitsuek zapaldu gabe— forma horiek batera existitzea izatea.

Mugimendu horiek idealizatu beharrean serioski aztertuak izatea merezi dute.²⁴³ Gure borroka politikoetarako dinamika paradoxiko horietatik ikasgai garrantzitsuak atera ditzakegula uste dugu. Kontua ez da mugimendu horiek beren kontraesanengatik gutxiestea ezta gure erronkak berberak direla sinestea. Ezin dugu kurduak edo zapatistek jasaten duten presio militar maila armarik erabiltzen ez duten mendebaldeko esperientzietara ekarri. Baina hemen edo edonon, finkatutako botereak modu iraunkorrean asaldatzen dituzten saiakera politikoek erasoak jasaten dituzte, premiazko erabakiak hartu behar dituzte eta mugimenduaren existentzia baldintzatzen duten egiturak babestu behar dituzte. Horizontaltasuna eta bertikaltasuna antolatzea, halaber, arazo zail baten erantzunak bilatzea da: nola lortu beharrezko eraginkortasuna eta erreakzio gaitasuna autoantolakuntza herrikoia eragintzeko gaitasunak handitu eta denboran iraun dezaten haiek kentzen dizkigutenen aurrean?

Eginkizunak asumitu, botere figurak zapuztu

Gure aldetik, gure proiektu politiko bereziaren beharrak identifikatzen ahalegindu gara: aribideko borrokei indar material eta estruktural fidagarriarekin laguntzea, zirrara sorrazten duten ekintzak egitea, harritzeko gai izatea, garaiz erreakzionatzea, ederki komunikatzea, zenbait eskaerari erantzutea eta beste indar antolatu batzuekin elkarri eragitea... Hortik hainbat aukera estruktural ondorioztatu ditugu horizontaltasunaren eta bertikaltasunaren arteko tentsio eremu honetan, funtzioei,

242 Besteak beste, Murray Bookchin pentsalari anarkistaren irakurketek inspiratuta, mugimendu kurduko liderrek lurralde-antolaketa eraldatzea proposatu zuten, boterea deszentralizatzeke.

243 Hanane al-Jouri, «Pièges et principes de l'horizontalité», a. a.

mugimenduen maila desberdinei, antolaketa eremuei eta erabakitze-prozesuei dagokienez.

Horizontaltasuna boterearen bertikaltasunaren aurka dago, ez haren normalizazioaren aurka. Aldiz, identifika daitezkeen formak, funtzioak eta prozedurak egoteak erantzukizunen banaketa erraztu dezake eta antolakunde barruan boterea fosiltzen saihesten lagundu dezake. Halaber, Jo Freeman aktibistak teorizatu zuen mugimendu feministatik, eta jada 1970eko hamarkadatik, talde informalen barnean, «egiturarik ezaren tiraniaren»²⁴⁴ arriskuaren inguruan. Talde horietan itxurazko horizontaltasuna eta erabakien irizpideen opakutasuna egoteak zekarren zenbaitek erabakiak monopolizatzea, besteekiko hobeto kokatuta baitzeuden denbora edo kapital soziokultural aldetik, esaterako.

Starhawk²⁴⁵ idazle feministak, bestalde, talentu bereziak eta «lidergo emantzipatzailea» deitzen diona hautematearen alde egiten du, hura zapaldu edo ikusezin bihurtu beharrean. Gehiago nabarmentzen da pertsona batek jendaurrean hitz egiteko edo komunikatu bat idazteko duen gaitasuna, beste norbaitek gatazkak konpontzeko, ekimen bat diskrezioz bultzatzeko edo taldearen behar materialak asetzen direla zaintzeko duen gaitasuna baino. Gonbidatzen gaitu bereiztera batzuen eta besteen boterearen barruan askatasunez eskatzen edo sufritzen dena, eta ikustera taldeek botere horietan sostengatu beharra dutela antolatzeko. Arrakasta izateko, zeregin batzuek —grafikoak, juridikoak eta logistikoak— haiek amaierara arte gauzatzeko konpromisoa hartzen duten pertsonak epe luzera beren ardura hartzea eskatzen dute. Horren harira, txandaketa nahitaez ezartzen ez duten espezializazio eta pasio moduetan sinesten dugu. Beste zeregin batzuk, hitzartze publikoak esaterako, transmisio exijentzia berezi batekin joan behar dira. Borroka mediatikoan gure ekintzei aurpegiak eta ahotsak jartzeko beharrean sinesten dugunez, Lurraren Altxamenduek zenbait pertsona nabarmentzeko aukera baliatzen dute. Hala ere, ez dugu rol horiek aldagaitzak izatea nahi. Behin edo beste, ondorioak ordaindu behar izan ditugu. Gainera, ekintzei buruz publikoki hitz egiten dutenak ekintza

244 Jo Freeman, «The Tyranny of Structureless» (<https://www.jofreeman.com/>).

245 Starhawk, *The Empowerment Manual*, New Society Publishers, 2011.

horiek tokian bertan ere bizi dituztenak izatearen printzipioari jarraitzen diogu, eta horrela ez bada, ez dezatela hitz egin.

Ahalegintzen gara zereginen bat-bateko banaketari aurka egiten, diskriminazio inkontzienteak —genero, arraza, adin edo kondizio sozialari loturikoak— ezabatzen, eta rolen atzean dauden ezaugarri psikologikoez eta baldintza sozioekonomikoez jabetzen. Horrek guztiak zurruntasunaren aurka babestu nahi gaitu, eta ezin da bereizi ekintzen prestakuntzetan parte hartu nahi duten pertsonen trebakuntzari behar beste denbora eskaintzearekin. Zuzenean praktikoak diren kontuen inguruan kultura komun bat partekatzeak, gero harrigarriagoak izango diren ekintzetan pentsatzea ahalbidetzen diguten loturak ehuntzen ditu.

Mugimenduaren zirkulu zentrokideak

Altxamenduen eremua ez da eguneroko bizitza komunitate, eremu, lurralde jakin batean antolatzearena. Ez da bat-bateko masa mugimendu sozial batena ere ez. Agintearekin etengabe tentsioan dagoen esku-hartze politikoko antolakunde batena da, eta, helburu nagusia, konpromiso maila aldakorretan modu masiboan irigarria izatea da.

Altxamenduen moduko esperientzia bat hainbat mailatan hedatzen da, eta maila horiek ez dute derrigor mugimenduko antolakuntza eremuetan eragina izateko modu berdina izan beharrik. Egun batean manifestazio batera etorriko diren eta gero urrutitik babestuko gaituzten ehunka milaka pertsona daude. Parte-hartze puntual horiek ordezkari kolektiboak eta indar harremanak aldatzen laguntzen dute. Batzuek ekintza guztietan parte hartzen dute, pertsona ezagunak bihurtzen dira eta gero eta gehiago inpliketzen dira mugimenduan. Batzordeen, batzarren eta komiteen mailan, gure borroka-komunitatea eratzen duen hori dago: topaketetan zehar elkartzeko joan diren kideak, egunerokoan mugimendua bizi arazten dute eta gobernuaren erasoei elkarrekin tinko eusten diete.

Ekintzak martxan jartzeko eta egitura materialak, politikoak edo komunikatiboak pixkanaka eraikitzeko, antolaketa eremu iraunkorrak behar dira. Altxamenduen barruan onartzen dugu koordinazio eremu egituratu baten beharra, hainbat batzorde lotuko dituen, bultzadak emango dituen eta batzarren artean mugimenduaren jarraitutasuna bermatuko duena. Bai-

na eremu horiek ezingo lirateke existitu babes batzuk egongo ez balira, eta ezin da mesfidatiegia izan «nukleo gogor» batekiko mendekotasun handiegiaz. Koordinazio talde txikiegi batek errepresio jomuga erraza izateko eta errepresio horrek suntsitua izateko arriskua izango luke, beste entitate motor batzuk beren lekua erraz hartzeko ezintasunarekin. Beraz, oso inplikaturako pertsonen esku boterea pilotzeak ere galarazi egin dezake mugimendu batek erabaki onak —batez ere epe luzera— hartzeko beharrezkoa den urruneko ikuspuntuaren zati bat. Horrez gain, burokraziaren gainbehera eta beste botere-abusu batzuk ere bul-tzatzen ditu logika horiei aurre egiten ez zaienean. Mugimendu baten bizitasuna, bereziki, zirkulu horien arteko elkarrekintza eta lekualdaketa posibleen mailaren arabera da.

Batzarren eginkizuna

Lurraren Altxamenduak batzar uneez markaturako sa-soiko «interludio»-en inguruan egituratzen dira, hitzaren bidez nolabaiteko boterea sortzen den modu kanonikoak. Batzar nagusia hizlarien eremua izan da luzaroan. Ahotsen eta korronteen polifoniara irekitako kultura politiko horizontal batentzat aldiz, enblematikoa da. Hala eta guztiz ere, batzar bat gutxitan izaten da emankorra pertsona kopuru jakin bat aulki berberetan elkar-tzearen magia hutsagatik. Batzarrek proposamenak probatzeko eta orientatzeko aukera ematen dute, gutxitan haiek burutze-ko. Proposamen horiek, orokorrean, topaketa luzeen eta talde txikiagoetako lanaren emaitza dira. Norberaren ikuspuntuak gehitzea saihesteko eta konpromiso hitzak eta ekintza kolekti-boak sustatzeko, erabaki dugu batzarretan parte hartzen duten pertsonen eskatzea esan beharrezkoa karguren bat duten espazio kolektiboetatik adierazteko.

Halere, ezin dugu ukatu konpromiso ezberdinek —sindi-katu bateko ordezkari nazionalarenak, baserri kolektibo batenak edo lagun talde batenak— ez dutela garrantzia bera. Ez daude maila gizatiar, espazial eta material berean. Mailak ordea, ez du inplikazio gradua aurreikusten. Konpromiso indibidual neurriga-be batzuek garrantzi handiagoa dute mobilizazioaren benetako kudeaketan, erakunde baten printzipio akordio batek baino, bere ospea besterik ez badu konprometitzen.

Batzarren berdintasunaren alderdiari buruz ilusiorik egin gabe eta beren ñabardurak ezkutatu gabe, oso konprometituta gaude haiekin, sentiaraztea ahalbidetzen duten bibrazio komunarekin, purrustadetarako, barre-algaretarako eta une solemneetarako eskaintzen dituzten aukerekin, mugimenduaren ehundurari buruz esaten dutenarekin. Batzarraren onespenerik gabe gure egutegi estrategikoa egitea aurreikusten ez badugu ere, batzarra erabakiak hartzeko prozesuaren etapa bat besterik ez da guretzat.

Erabakiaren etika

Lurraren Altxamenduen erabakiaren etika honela labur daiteke: erabakiak martxan jartzen dituztenei dagozkie. Boterea jarduten dutenena da. Esaterako, egutegi komunean ekintza bat ezartzeko azken erabakia, ezer baino lehen, lan karga eta ondorioak beren gain hartuko dituztenei dagokie, eta, ondoren, mugimenduaren batzordeari edo tokiko borroka koordinazioari. Hautu hori prebentzio batzuen ondorioa da. Gure konpromisoa ezin da izan sinadura huts bat. Ez zaigu bidezkoa iruditzen batzar batera joaten diren baina gerora erabakia gauzatzearen erantzukizun politiko eta logistikoa beren gain hartzen ez duten pertsonak edo taldeek erabaki horretan gehiegi eragin edo blokeatu ahal izatea. Irmoki uko egiten diogun bertikaltasun zentzu bat dago: kanpoko eta barruko errealitatea kontrolatzen duen botere menderatzailea. Koordinazio funtzioak egoera baten esperientzia partekatuan soilik oinarritu daitezke. Administrazio edo gobernu batetik ezberdintzen gaituena da; horietan agintzen dutenak ez baitira inoiz hartutako erabakiak exekutatzeko eta haien ondorioak jasaten dituztenak.

Arreta horrek antolakunde nazional bat bigarren alderdikeriara konprometitzen du: lurralde borroka bat babesten denean, erabakiaren lehentasuna tokiko koalizioak du. Lurraren Altxamenduen ekintza bat hautatzea elkarrekiko konpromisoaren prozesu bat da, erabakitzeko une mugatu bat baino gehiago. Erabaki hori borroka zehatz baten tokiko erronkak, topografikoak eta historikoak ulertzea ahalbidetzen duten topaketa batzuetatik sortzen da. Aldaketa eta garaipen formak izan litezkeenaren pertzepzio komuna lantzen du. Osaketa bereziko hedadura barne hartzen duen tokiko koordinazioan oinarritzen da. Ekintza

eraikitzearen prozesua batzordeen ekarpen logistiko, taktiko, mediatiko eta juridikoetan finkatzen da. Baina bide-erdian elkarrengandik urruntzen diren ikuspegiak agertzen badira, tokiko borrokei dagozkie, eta, beraz, haien ondorio zuzenenak jasango dituztenei, erabaki estrategikoak hartzea.

Printzipio horietan oinarrituta, gurekin bat egiteko deia zabaltzen dugu. Hala eta guztiz ere, mugimenduaren berezko aginduak eta prozedurak zehazteak beti dakar arriskua horiek lantzeari garrantzi neurrigabea emateko. Formalismoaren onuratan bezainbat sinesten dugu mugimendu barnean energia organiko, espontaneo eta kideasuneko a goela.

Masa ekintza zuzenaren paradoxa

Azken hiru urteotan, bilatu ditugu manifestazio soil baten ematen ez duen botere kolektiboaren sentimendua eragiten dituzten ekintzak burutzea, eta talde kide-tuetan gauzatutako gaueko ekintzek baino askoz jende gehiagok egin ditzaketenak. Masa ekintza zuzenak antolatzea Lurraren Altxamenduen praktikaren muina da.

Arazoaren koordenatuak modu sinplean zehazten dira: abzisa-ardatzean, jendetzaren mugimendu espontaneo; ordenatu-ardatzean, zorrotz kontrolatutako operazioa. Koordenatuak modu fraktalean deklinatzen dira Altxamenduen ekintza baten antolakuntza-maila guztietan: helburu estrategikoak definitzea, alde aurretik prestatzea, logistika, taktika, jarraipena, balantzea eta ondorioak... Horrela planteatuta, argi dago, gure ustez, arazoaren konponbideak ez direla oinarritzen bi ardatzetako baten edo bestearen alde egitean: alde batetik, inizatiba politikoa hartzeko premian sinesten dugu; bestetik, ez dugu agintaritz militarra lortzea amesten, eta badakigu Altxamenduen ekintzetan parte hartzen duten milaka pertsonak ez dutela beren burua soldadutzat. Lerro horizontal eta bertikalen konbinazio bat bilatu behar da beste behin, zeinak bidezidor egingarri ugari onartuko dituen.

Konponbide baten egokitasuna ebazteko, eta bide egingarritzat ulertzen duguna definitzeko, amaieratik hasi behar da. Masa ekintza zuzen baten helburua beti da bikoitza: gure arerioengan eragina izatea eta jarduteko gure gaitasun kolektiboa areagotzea. Hona hemen ekintza baten arrakasta ba-

loratzeko egoki deritzogun galdera sorta: ekintzak ahalbidetzen du zabalkunde edo ez du ematen hura berriz egiteko aukerarik? Isolatuago gaude, ala, aldiz, gure babes-oinarria zabaldu egin da? Erabaki taktikoek errepresio bolada bat ekarri dute edo hura saihestea ahalbidetu dute? Ekintzak jomuga ahultzea ahalbidetu du ala, aldiz, kontrako bandoa indartu du? Mobilizazioak parte-hartzaileen arteko konfiantza eta taldearen osaketa gaitasuna areagotu edo murriztu egin ditu? Mobilizazio egun baten amaieran poztasuna edo etsialdia da gailentzen den sentimendua?

Behin horizontaltasunaren eta bertikaltasunaren arteko tentsio-esparruan orientatzeko iparrorratz horretaz hornituta, ekintza baten prestakuntzarekin has gaitezke.

«Ur-biltegien koordinazioaren» esperientziari esker, bide posible bat eta haren mugak probatu ahal izan ditugu. Esperientzia hori kooptazio eremu heterogeneo,²⁴⁶ eta,aldi berean, handi samarra osatzean datza. Eremu horrek ekintzarako markoa ezartzen du. Hainbat hilabetetan lan egiten du arlo guztietan martxan jartzeko: jarraigoak gauzatzea, manifestariei harrera egitea, komunikazioa, jaiak eta eduki politikoa... Erregularatasunez parte hartzen duten antolakunde eta taldeek soilik eragin dezakete erabaki handi estrategiko eta taktikoetan. Horren barruan sartzen dira, halaber, oinarriko zereginenez arduratzen diren kolektiboak, hala nola logistikaz, jantokiaz edo osasun zainketaz. Gainerakoek urrutiagotik babestu dezakete mobilizazioa jakinaren gainean egonda. Talde bereziak eskatzen eta nahierara elkartzen dira zeregin espezifikoez arduratzeko: karriz sortzea eta musika akonpainamendua, manifestazioen babeserako dispositiboa, jarraigo barneko komunikazioa...

Teorian, mugagabea eta, benetan, oso mugatua den aukera-multzo batetik plan bat sortzeko, koordinazio taldeak kideen artean pazientziaz eraikitako automatismoak, nolabaiteko bateagarritasun-maila eta elkarrekiko konfiantza izan behar ditu.

Helburuak lortzeko, ekintza baten koordinazio taldeak opakutasunaren eta gardentasunaren artean bide egin behar du. Helburu material bat eragiteko eta arerioa ustekabean atzemateko, ekintza baten zenbait tresna, norabide eta jomuga sekretuan

246 Bertan barne hartzen dira Bassines Non Merci, Altxamenduak, Confédération paysanne, Intercantineak eta zainketara bideraturiko taldeak, kide sindikalista eta antifaxistak...

geratu behar dira maiz. Gure jarduteko gaitasun kolektiboa indartzeko, inizatiba-hartze informatuak ahalbidetzeko eta arrazoi etikoengatik, ekintza baten arriskuak, erronkak eta modalitateak ahalik eta gehien partekatu behar dira. Era horretan, malabarismoak egiten ditugu Poliziarekiko beharrezkoa den opakatasunaren eta parte-hartzaileekin eskatzen den gardentasunaren artean.

Behar bikoitz horrek ez du ezabatzen kolektibo antolatzailearen eta E eguneko deiari erantzuten dioten milaka pertsonen arteko asimetria. Hipokrita litzateke batzar orokor bat proposatzea manifestazioaren goizean bertan: prestakuntzan hartutako erabakiek ez dute, nolana ere, eszenatoki aldaketa handirik ahalbidetzen, eta alferrik da sinestea ehundaka parte-hartzaileen artean eta bilera bakarrean erabaki kolektibo argi bat hartuko dela. Are zailagoa da, noski, ekintzaren suan erabaki demokratikoak hartzeko instantziak irudikatzea.

Horrek ez du esan nahi egoera horrekin konformatuko garenik. Ez bertikaltasun printzipioari uko egiteagatik, zeina ez den beti indarkeriaren sinonimoa, baizik eta ez ditugulako koordinazio talde txiki ilustratuaren muga batzuk frogatu (batzuetan dramatikoki tranpan eror daitekeena), eta, batez ere, konturatu garelako mugimendu batek indarra, poza eta adimena galtzen dituela denok jokalaria izan gaitezen lan egiten ez bada.

Horretarako, gutxieneko informazio batzuk daude, eta ekintzak antolatzeko espazio orok manifestazioaren aurretik parte-hartzaileei helarazteko denbora hartu behar du: aurreko asteetako informazio-bileren edo egunean bertan informazio-linea baten bidez, mapak edo testuak eskuragarri jartzearen bidez, eta jarraigoen eta helburuen egituraren irudi egokia emango duten hitzartzeen bidez.

Horretaz gain, manifestazioa hasita dagoenean informazioa hedatzea ere bermatu behar da: azaltzea non gauden eta zergatik mugitzen diren talde txikiak hemen sokekin eta han aitzurrekin; adieraztea erreka zeharkatzeko, ereintza burutzeko edo ustekabean plataforma industrial bat abordatzeko moduak... Kolore ukitu masiboen banaketa, jarraigo osoan zehar megafonoen ordezkariak eta oihulariak ugaritzea, edo irrati pirata, zenbaitetan, zoritzarrez, ez dira nahikoa jarraigo osoan zehar

—edo batean baino gehiago— informazioa zuzenean eta maila berean zabaltzeko.

Gainera, oso jakitun gara «antolatzaile ezaren» posiziotik bizi izan dugulako, manifestazio baten indarra potentzialki gainezka egiteko duen izaeran dagoela. Gure estrategiek segurtasun-indarrak baino maltzurragoak izatea bilatzen badute ere, onartu beharra dago askotan *ustekabe*an hartzen diegula aurrea. Gas negar-eragilea eusten duen jendetza, dena hemen eta orain jokutzen delako sentimenduak magnetizatuta. Zelatan dagoen talde txiki bat dispositibo polizialaren arraildura batetik sartzea eta mundu guztia eramatea atzetik. Gainezkatze bat eragiten duena zeharkako auzia da, jendetzaren bat-batekotasunaren eta talde antolatuen inizatibaren arteko alkimia. Lurraren Altxamenduen manifestazioen arrakasta, gehienbat, jarraigoen barnean halako talde finkatuak egoteari zor zaio. Haien egoe-rarekiko erreakzio gaitasunak eta inizatiba deszentralizatuek aintzat har dezakegun beste antolaketa maila bat osatzen dute.

Palanka berri bat agertu da orain ekintzaren eta haren milaka parte-hartzaileen koordinazioaren muina antolatzeko. Mugimendua gaur egun hurrengo denboraldietako ekintzak prestatzeko gertu dauden 150 tokiko batzordek osatzen dute. Badakigu horretan jarriko duten energia oso baliotsua izango dela, baita informazioa transmititzeko eta zabaltzeko, konfiantzazko taldeak koordinatzeko eta *a posteriori* balantzea egiteko espazioak bermatzeko gaitasuna ere.

Sainte-Solineko ondoz ondoko bi ekintzek erakutsi digute «antolatzearen auzia» askoz modu urgenteagoan planteatzen dela funtzionatzen duen plan baten promesa betetzen ez denean. Hainbat ondorio atera daitezke.

Lehenik eta behin, erabaki taktikoak edozein direla ere, gertakari kontsekuenteen antolaketak eta jokoan jartze politikoak une batean edo bestean larritasuna, nekea, kolpe gogorrak eta tentsioak sortzen dituzte, eta prestatu beharra dago: argi dago ekintzaren aurretik, bitartean eta ondoren garrantzia handiagoa eskaini beharko diogula auzi legalari, medikoari eta psikologikoari. Gorabeherak, borroka komunitateen gainbehera posibleak eta subjektibotasunak errepresioaren, zaurien eta beheraldien ondorioak kolektiboki kudeatzearen esku daude.

Ezin da ongi eztabaidatu sekretuaz, plangintzaz edo birjabetzeaz premia horiek asumitzen ez badira.

Bigarrenik, kolektibo antolatzaile gisa eman zaigun konfiantzak bi aldiz konprometitzen gaitu: gure hutsegiteak eta akatsak onartzera, ondorioak lantzera eta konpontzera eta hurrengorako kontuan hartzera. Masa ekintza zuzenak egiteko, ezinbestekoa da mugimendu barnean konfiantza modu orokorragoan egotea. Denoi dagokigu hori kolektiboki zaintzea, horizontaltasunaren eta bertikaltasunaren arteko tentsioa lantzen jarraituz.

Baldintza horren arabera jarraituko dugu elkarrekin aurrera egiten, baita kolpe gogorrek jasaten ere, bidezidorretan zehar.

OSAKETAREN APUSTUA

Cram-Chabanekeo miraria

Goizeko hirurak dira, hogeit hamar pertsona gaude itxita duela zenbait ordu, Prin-Deyrançon-eko dantzaleku bateko trasteleku batean zaborren gainean eserita. Mobilizazio baten bezpera da eta beranduegi dirudi plan bat adosteko. Duela zenbait ordu, guztia trabatu egin da zentzu guztietan, bakoitzaren eragozpenak direla eta. Jomuga gisa genuen ur-biltegia —zeina obretan dagoen— sartzea ezinezkoa dirudien eremu gorri baten dago, eta askotariko oztopoek banantzen gaituzte. Are gehiago, benetan ez da batere desiragarria bertara sartzea FNSEAko nekazariez beteta baitago *milizia-barbakoa* aldarlean, eta Confédération paysannek kosta ahala kosta saihestu nahi du zelai beteko bataila fratrizida baten ikuskizuna eskaintzea. Kontua ez da manifestazio soil batekin konformatzea ere ez. Ikerketa zorrotz batek agerian uzten du ur-biltegi horrek berezitasunak dituela: justiziak kondemnatu egin zuen, baina, hala eta guztiz ere, prefekturak urez bete eta bere Estatu Nagusiko mapan ahaztu zuen. Jomuga berri hau logikoa da, baina oraindik ez gara putzutik atera. Confédération paysannek jomugatzat ponpa soilik edukitzera mugatu nahi du, ongi finkatutako desmuntatze kontrolatu eta mugatuaren tradizioan. Ezin dugu hitzeman jendetzak olana erasotzeko tentazioari eutsiko dionik. Aurpegia agerian dugula jardutea eskatzen du, eta epaiketa bere borrokaren etapa garrantzitsutzat du. Guk ezkutuan jarraitzeko eta justiziaren aurrean agertzea saihesteko intentzioa dugu. Gaueko *mikado* joko hori zeharo nahaspilatuta gera zitekeen. Baina elkarrekin burututako azken ekintzan sortu zen konfiantzak, Mauzé-sur-le-Mignoneko obren oroitzapen onek eta elkarrekin inguruak astintzen jarraitzeko gogoak ikuspegi komun baterako bidea eman dute *in extremis*.

Biharamunean, 3.000 pertsonen espero gabeko bide bat hartu dugunean, istiluen kontrako hesi batek eta jendarmeez jarraigo osoa blokeatu dute zubi azpian. Ez dio axola, zenbait harri eta talde maskaratu batzuek oztopoa saihesten laguntzen diote jendetzari. Jarraian, zapatak kendu ditugu erreka zeharkatzeko, bertan geratu ordez. Poliziak posizioa aldatu duen arte ibaian gora geldirik egondako traktoreak ziztu bizian iritsi dira,

musika psikodelikoko talde batek lagunduta, *crescendo* instrumental bete-betean, ur-biltegia babesten duen burdin sarearen alboan lanpetuta dauden manifestariak animatzeko. Jendarmeen lerroek, alde guztietatik inguraturik eta jazarririk, ospa egiten duten bitartean, lan-jantziak soinean eta aurpegia estalita duten langile batzuek eta Confédération paysanneko bozeramaileak —hark aurpegia agerian— trebeki desmuntatu dute ponpa bat. Jendetzak ur-biltegia estalgabetu du kuterrekin, eta suak piztu dituzte. Pirata-barku batek ohorezko itzulera hasi du garaipen festa batez lagunduta. *Shine bright like diamonds in the sky!*

Mirarizko gauza bat gertatu da, ezin izango zena sekula gertatu zenbait arrazoi gabe: adiskidetasun hasiberriek gaueko eztabaida eta suspertzeko gogo ahalbidetu gabe; lurraren, ur-biltegi bakoitzaren egoera juridikoaren eta tokiko bideen ezagutza ahalik eta zehatzik gabe; alferrikako konfrontazio bat saihestuz polizia-lerroak zeharkatzeko edo inguratze gaitasunik gabe; urteetako sentsibilizazioaren eta antolakundearekiko konfiantzaren ondoriozko jendetzaren konbikziorik gabe; ur-biltegi hori ados jartzeko jomuga bihurtu zuten helegite juridikorik gabe; jarraigoaren oinarri materiala eta sinbolikoa markatu duten traktorerik gabe prefeturak gogorrago kolpatzeko edo tropak erretiratzeko hautua egin zezakeen unean; eta kontu sinestezin epikoekiko zaletasunik eta *a priori* zoroena den ideiarekiko federik gabe: itsasontzi batekin ibili gara ur-biltegi txikitu baten ertzetan, mila bat polizia gure inguruan zain geneuzkan bitartean.

Osaketaren hipotesia

Osaketarekiko gustua xarmazko une horiei zor zaie batez ere, talde bakoitza, aldi berean, kolpatzen duenean besteen ekarpenaren ebidentziak, beren alteritatearen beharrak. Osaketa bilera horretatik sortzen den ibilbide aurreikusezina da, posible ez zela uste genuena eta elkartrukean gauzatzen dena. Ezusteko mota hau, gogor eusten badiogu eta beharrezko denbora eskaini, argi dago errepikatuko dela.

Rouenen antzeko alkimia bat gertatu zen asteburu berean haurrentzako ZAD bat, uhandreentzako urmael bat eta autobide batean adar-barrikadak eraiki zirenean. Edo halaber, A69ren ibilbidean, lau jarraigok arreta galarazi zutenean eta beste batzuei

hormigoi-zentral bat desarmatzea edo aldi berean etxalde bat okupatzea ahalbidetu zietenean. Hori gertatzen da ezer baino lehen uzten zaionean besteak garrantzitsuena —taldearen musikaltasuna baino— esku hartzeko modua dela konbentzitzen saiatzeari.

Deleuzeren hitzak erabiliz, osaketa «aniztasunetik bakarrik adierazten den batasun arraro hori» da. Ez da bateratze puntual baten azaleko elkartasuna, ezta berezitasunak eta kontraesanak ezabatzen dituen bloke bateko integrazio homogeneizatzailea ere.

Osaketak lehen begiratuan eskaintzen duen gauzarik baliotsuena identitate politiko zurrunik eta keinu erritualizatuak gainditzea da. Arbuia egiten ditu antagonismo sistematiakoak eta bitarrak, esaterako, «erradikalak» edo «herritarrak», ekintza erasotzaileak edo baketsuak izan beharko luketena definitzen dutenak. Izan ere, guretzat, arazoa, zalantzarik gabe, fetitxismo identitarioetatik eztabaida taktiko eta estrategikoa erauzte da, behar duten plastikotasuna itzultzeko. Batez ere, kategorizazio eta banaketa lana errepresioaren funtsa bera delako. Epe luze-
ra, Estatuarentzat arazoa ez da matxinadei, barrikada juridikoei edo manifestazio masibo batzuei bakoitza bere aldetik aurre egitea. Badaki haiei nola egokitu, haiek nola akitu edo neutralizatu, ondo antolatutako «militante legitimoen» eta isolatutako «ultra biolentoen» arteko aurkakotasunarekin jokatzu. Askoz zailagoa egiten zaio jardutea batzuk besteen alde daudenean nabarmenki, eta are zailagoa bakoitza nor den bereiztea lortzen ez duenean. 2022ko urriaren 27an, Sainte-Solinen, arreta ematen duena da ordezkari politikoek polizia-lerroei erasotzeari ekiten diotenean edo autonomoek *farandolak* osatuz laguntzen dietenean, bakoitzak beregandik espero den rola bakarrik betetzeari uzten dion une hori.

Osaketak dimentsio aniztasun batean erradikaltasuna zer den ulertzea dakar.

Fabrika bat era deigarrian inbaditzeko gaitasunean, zein urtero-urtero debekatutako eremu batean beren lursailak laboratzen dituzten adinekoen erabaki lasaiean. Osaketak eskatzen du arreta berezia jartzea beste taldeen kultura politikoan, haien sortze-mitoetan eta haien hizkeran, Larzacen historian zein

Comité d'action viticolerean,²⁴⁷ 1977ko maiatzeko matxinda-manifestazio grinatsuak Bologne-n zein 1995eko neguan sindikatuen greba handiak Frantzian. Begirune hori zintzoa izan behar da. Osaketak ez du eskatzen gainerakoak norbera bihurtzeko, Confédération paysannekoek aurpegia estalita jarduteko edo autonomoek ez ezer botatzeko. Baina bere abiapuntua da iritziak mugitu eta taldeak aldatu egin daitezkeela.

Bloke bakar bat ere ez da monolitikoa, eta barruko pitzadura-lerroak, batzuetan, markatuagoak izaten dira ustez kideak elkarrengandik bereizten dituztenak baino. Paradoxikoki, «osaketa» deritzogun hori kideen arteko elkarrekintzari esker eratzen da, hau da, kideak izateari eta ez zehazki osagaiak izateari esker, oinarrizko unitateen zentzu hertsian. Ildo horretan, mugimenduari eusten dioten loturak ez dira hitzarmenezko ezkontza huts bat, interesen kalkulu bat edo behar absolutu baten emaitza: bitartekarien, zubi-eraikitzaileen, transfugen eta itzultzaileen sare oso bat dago, eta hari esker eraikitzen eta zabaltzen da komuna dena.

Halere, osaketari datxezkion konbinazioak pozarren hartzeak ez du esan nahi egoeraren arabera edozeinekin aliatu daitekeenik. «Des bâtons dans les routes» mobilizazioaren bezperan, jakin genuenean Val-de-Reuil-eko alkateak —zeina Roueneko autobidearen saihebidetaren aurka egon arren LVMHko idazkari nagusia zen— prentsaurreko bateratuan agertu nahi zuela, gure arerioa zein den gogorarazi behar izan genuen. Beren baratzetan asfatorik nahi ez dutela esan arren, ez gara mahaian LVMHko zuzendariekin eseriko. Haien mahatsa hartuko dugu gure ardoa egiteko edo haien igerilekua hustuko dugu. Hainbat testuingurutan, antagonismoa bistan dago, baina batzuetan eztabaida sutuak piztuko ditu. Eta hori ona da, konpromiso politikoa ez baita libratzen arreta handiz hautatzearen premiatik.

Kideek eratzen dutena haien perimetroa batuta baino handiagoa da. Poituko errepideetara irteten den askotariko ibilgailuz osatutako konboi baten antzera, osaketa muntadurak keinu berezi bat ematen dion izaki bat da. Horri dagokionez, osaketa ez da aniztasun taktikoa, ez behintzat hitzordu bakoitzean aurrez

247 Marie Coumes, Laurent Cavalié, *N'i a pro! Un hommage aux luttes viticoles du Languedoc*, Les éditions du bout de la ville, 2023.

ezarritako keinuak elkarren ondoan jartzea. Gainera, testuinguruaren arabera, minorrean edo maiorrean jotzea dakar. Glaziar baten goialdean mugarri bihurtutako²⁴⁸ eta harrien azpian «degradatu» gabe lurperatutako hondeamakina baten antzera, osaketak tokiko indarren eta hura babesten duen taldearen arteko aukera-jokoa eta testuingurua zuhur ulertzeko abilezia du.

Osaketaren aukera ezin da ulertu aurrerapenaren zentzurik gabe. Gaur obra baten bazterrean elkartzeak ez du esan nahi bihar ez garenik bertan sartuko hankaz gora jartzeko. Baina irabazteko egin behar denaz batzuen eta besteen iritziak alde batera utzita, gehienetan jarraitu beharreko bide komun bat egon ohi da. Batzuetan, beharrezkoa izaten da zenbait palankaren mugak frogatzea, beharrezkoa izanez gero haratago joateko zilegi sentitzeko.

Ageriko jomuga baten aurrean gelditu gabe igarotzen den jendetzaren antzera, osaketa trabatu egiten da ekintza komuneko eremu bat azaleratzen uzten ez duenean. Era berean, erregulariki aurre egin behar die mugimenduaren zailtasunei, ekintza modu frogatu bat gainditzeko, zeina kide guztiak asetzeko gai den, baina erabat aurreikusgarria bihurtu den.

Aurre egiten dien kontraesanak alde batera utzita, osaketa bereizte ezaren etika da. «Martxoaren 25aren ondoren Sainte-Solinen gertatu zenak, guztien elkartasunak, geroztik epaiketa bakoitzean jendetza egoteak —akusatuak untxi arrosak, monje kanporatuak, aurpegia estalitako manifestariak, nekazariak edo aitona-amona naturalistak izan— erakusten du zatiketa-prozesu horrek jada ez duela funtzionatzen».²⁴⁹ 2023ko irailaren 8an, gobernua antolakunde sindikaletako bozeramaileekin sumindu zenean eta auzitegietara eraman zituenean, haserre nazionala eragiteko arriskupean, aditzera eman zuen jasanezina zaiola antolakunde horiek bere aginduen menpe egoteari utzi izana eta debekuei aurre egitea. Baina, era berean, eta, batez ere, manifestatzen direnengandik ez bereiztea zaio jasanezina. Hemen, osaketa aukeratzeak ez du esan nahi mundu guztiak ekintza-modalitate guztiekin ados egon behar duenik. Baina baieztatzen du garrantzitsuena elkarrekin egotea dela aurre egiten diogun

248 Ikus gorago, «Glaziarren atzerakada».

249 Irailaren 8ko epaiketako deklarazioa Niorteko epailearen aurrean, Sainte-Solinen manifestazio debekatu bat antolatzeagatik.

indarkeria jasanezinaren aurrean, hau da, Estatuaren eta babes-
ten dituen azpiegitura hilgarrien aurrean.

Osaketaren beharra areagotu egiten da proletalgoak mende bat baino gehiagoz gorpuztu duen subjektu iraultzailearen zatiketarekin. Alderdi komunistaren manifestua argitaratu ostean, haren oinordeko ugari animatuta sentitu ziren gizarte talde batek —langileek— gizarte baten gatazka gorpuzten zuelako eta bere buruaz ohartu besterik ez zuelako egin behar gizartea iraultzeko. Bere «menpeko» posizioa gorabehera, Manifestuko proletarioak bi dohain izugarri baten zituen horretarako: gehiengo zabala ordezkatzeko eta egunero guztientzat beharrezkoak ziren ondasunak ekoiztea. Baina proletarioak klase bateratu gisa duen ulerkera jada ez da batere agerikoa, eta subjektua nabarmen lausotu da. Azken bost hamarkadetako mugimenduek beste subjektu batzuen agerpena ikusi dute —gazteak, emakumeak, egoera prekarioan dauden pertsonak, langile auzoetako biztanleak, Hegoalde globaleko nekazariak—, eta horiek guztiak matxinaden eta gizarte aldaketa garrantzitsuen bultzatzaileak izan dira. Jaka Horiek gogorarazi dute edozein unetan sor daitezkeela altxamendu garrantzitsuak gizartearen sektore baztertuenetatik. Baina haietako inork ez zuen bere gain hartzeko asmorik lantokietako eta lantegietako jendetzak luzaroan bete izan duen rol historikoa. Izan ere, subjektu kolektibo baten sorrerarekiko fedea desagertu da; zeinak uztartuko dituen espero ziren eraldaketak gauzatzeko gai zen posizio jakin hori hartzea eta berarekin doan kontzientzia iraultzailea. Jada ez badago mundua bere erara birdiseinatzeaz arduratzen den giza-talde nahikoa koherenterik, aldaketa kontsekuente baten aurreko presioak joera du heterogeneoa bihurtzeko, entitate ezberdinetan sostengatzeko, zeinak gizarte maila ezberdinetatik datozen eta jarduteko interes ezberdinek mugiarazten dituzten. Erronka, beraz, harreman egokiak eratzean datza, gai egokiak aurkitzean baino gehiago. Osaketa egiaztapen horretatik abiatuta jarduteko erabakiari ematen zaion izena da, hura jasan beharrean.

Osaketarekiko antolamendua izugarri probatu da Notre-Dame-des-Landeseko borrokan zehar. Baso txikian, antolamendu hori saihetsezina zen borrokaren perimetroagatik eta helburuagatik. Biztanleak eta bertakoak, nekazariak, okupatzaileak eta hautetsiak babestu behar zuten lurretan zeuden

itxita. Indar horietako batek ere ezin zituen besteak baztertu. Espazio partekatuak mugatzen duen osaketa mota hau Lurraren Altxamenduak babesten dituzten tokiko konfigurazioetan aurki daiteke. Mugimenduaren dimentsio nazionalari dagokionez, askoz berariazkoagoa den erabaki batean oinarritzen dela dirudi. Bakoitza, halaber, deslotu eta bere eremura itzul liteke, berriz prestatu litzake lege-proiektuak, Laborantza Ganberarako hauteskundeak, ur-biltegi baten helegite bat edo pankarta indartu bat. Era berean, edonork utz lezake «lan-jantziekin eta buru-berokiekin doan taldea, zeina plan eroetara garamatzen eta mina hartzen amaitzen duen», edo «ekintza eremuak festibalak bihurtu nahi dituzten bertakoak» edo «inoiz partaide ez diren nekazariak».

Baina zeharkatzen ari garen sekuentzia historikoak osaketara garamatza. Lehenik eta behin, ekintza klimatikorik ezak ekintza zuzena legitimotzat hartzera bultzatzen ditu lotsatienak, eta ekintza zuzenaren jarraitzaile porrokatuak berriz, baliabide guztiez baliatzera eta beste edozein palanka, instituzionala barne, alde batera ez uztera. Bigarren, gizarte mugimenduen aurkako errepresio orokortuaren gorakadak mundu guztia alde berera bultzatzen du, poliziaren aurka. Gobernuak indarrez inposatzeko duen grinak, gizarte eremuko ohiko moderazio zubiak zapalduz, eremu politiko klasikoa erradikalizatzen du etengabe. Eskuin muturrak areagotu nahi dituen zatiketen aurrean, garaiak bando komun bat eta lehenasunezko antagonismoak zer izango liratekeen birdefinitzera premiatzen gaitu. Programa iraultzaile baten eduki zehatzari buruzko erabaki zalantzatiaren partearekin, baina baita bere helburuen elkartzeko argitasunarekin ere, Lurraren Altxamenduen hipotesi estruktural eta estrategikoak osaketaren eremua indartzera bultzatzen du.

ZORITXARRAREN AURKA IRAUTEA ETA ERALDATZEA

Zortzi hilabete kontradesegetik – zatiak

Sainte-Solineko manifestazioaren biharamunean, Estatuaren indarkeriak bete-betean jo zuen mugimendua. Gatazka maila areagotzeak bere jopuntuan jarri zuen. Martxoaren 27an, artean bi pertsona hiltzorian eta beste ehundaka pertsona beren zauriak sendatzen ari ziren bitartean, Gérald Darmaninek honakoa iragarri zuen Frantziako Asanblea Nazionalean: «Enpresen inbasio ugari, segurtasun indarren aurkako abusu larriak, hainbat ondasunen suntsiketa, zauritutako ehundaka jendarme eta polizia, altxamendurako deiak, hainbat, izatez; hortaz, Lurra- ren Altxamenduen desegitea erabaki dut eta hurrengo Ministro Kontseiluan proposatuko dut». Guk honakoa erantzun genion: «Eztabaidagai dagoen desegite bakarra gobernuarena da».

Biharamunean, dozenaka elkarretaratze gehiago egin ziren zaurituen alde Frantzia osoan, pentsioen erreformaren aurkako mugimendu bete-betean. Parisko udaletxearen aurrean bildutako milaka lagunak Marais auzoaren erdi-erdian barrikadak altxatzen hasi ziren.

Egun batzuk geroago larrialdiko bilera egin genuen. Sutsuki eztabaidatu genituen arriskuak, adierazpen publiko bat mantentzeko modua eta Ministro Kontseiluak desegiteko dekretua baliozkotu ondoren nola ihardetsi.

Suebakiak aurreikusi genituen eta berehala mar-txan jarri: batzordeak, nazioarteko antenak, komunikabide korresponstalen sarea eta deialdi eta komunikatu debekatuak argitaratzeko ispilu-webguneak sortzeko deialdia, denboraldiko ekintzak suspertzea, defentsa juridikorako aukerak aztertzea, eta komunikabideetan esku hartzea. Talde legala etengabeko lan asteetan murgildu zen. Polizia indarkeriari buruzko testigantzak bildu zituen, eta laguntza praktikoa, juridikoa eta finantzarioa bilatu zuen.

Parisko Lan Burtsa agurgarriaren soto batean, sindikatu eta antolakunde nazionalen ordezkariak beren babesa ziurtatu ziguten; pentsioen erreformaren bortxazko inposizioak erreta zeuden, beren tropen gainean granada-euri bat izan baitzen. Halako egoeretan, askotan ikusi ohi dugu finkatutako egitura politikoak «indarkeriaren» erantzuleztat jotzen direnengandik

urruntzen direla, eta bakarrik uzten dituztela kolpeen aurrean. Baina ados geunden jarduteko larritasunaren inguruan. Iraganeko mobilizazioek denbora eman ziguten konfiantzazko loturak egiteko eta aliantzen oinarriak —zirkunstantzialak baino gehiago— finkatzeko. Marjinazio saiakerak ez zuen funtzionatu kasu horretan.

Jendarmeriako komandante batek eta bere eskuadroiak Notre-Dame-des-Landeseko ZADean bilatu zituzten ministroak buruzagitzat jotako bi pertsona, desegite jakinarazpena emateko. Inteligentzia zerbitzuen ohar batek goresten zuen «Lurraren Altxamenduak mugimenduari lotzen zaizkion tokiko borrokei asmamena, antolamendu maila, eragiteko ahalmena, mobilizatzeko eta oihartzun nazionala eta mediatikoa emateko gaitasuna», eta «erantzun ekologista erradikalaren eragile nagusi» izatea egozten zion mugimenduari, hainbat antolakunde «erresistentzia zibiletik desobedientzia zibilera» pasarazteko gai dela adieraziz. Soziologia polizial aplikatuaren lan hau ez da bere interpretazio esparruetatik aldentzen. Pertsona eta kolektibo aktiboak nahitaez izan behar dira «talde buruzagi» txiki batek manipulatuak, eta talde hori kausa ekologistaz edo nekazaritzaren kausaz jabetzen da, indarkeria itsuaren egarria asetzeko.

Hiru egun eman genituen landako etxe batean sartuta abokatuekin, desegitea justifikatzen zuen txostenaren puntuz puntuko erantzuna idazten. Apirilaren 8an, iragarritako desegitearen bezperan, Aubervillierseko sarreran dagoen Gare des mines musika eta arte espazioan, eszenatokira igo ziren Collège de Franceko irakasle emeritu bat, Jaka Hori mutilatuak, Indigènes de la République alderdikoak, hainbat kontinentetako nekazariak, zientzia-fikzioaren egile bat, IPCCko ordezkarri bat eta agroindustriari jazartzen zuen alga berdeen espezialista bat, eta honakoa adierazi zuten: «Gu gara altxamenduak». Pertsona horietako batzuk mugimenduko ahots publikoak bihurtzeko prestatu ziren, baldin eta gureak debekatzen baziren.

Zerbaitek prozedura oztopatu zuen. Dekretuaren azterketa data Ministro Kontseilu batetik hurrengora atzeratzen zebilen Gobernuako kide argienek nekez aplikatu zitekeen desegite-erabakia eta mugimenduentzako publizitate estra iragarri zituzten. Hurrengo asteetan, Lurraren Altxamenduen mobilizazio nazional berriek milaka pertsona erakarri zituzten. Herrialdeko

komunikabide gehienak iskanbilaren zain zeuden. Tolosan edo Rouenen, jendetzak «guztiok gara ekoterroristak» aldarrikatu zuen, eta hormigoizko blokez edo adarrez egindako harresiak eraiki zituzten errepideetan. Altxamenduen logoa modu digitalean, margotuta, iltzatuta, itsatsita eta tatuatuta zabaldu zen. Egunero enteratzen ginen, izen oso apainduetako herrixketan, Lurraren Altxamenduen tokiko batzordeak bildu zirela lehen aldiz plaza publiko batean, aletegi baten babesean edo liburu-denda batean. Milaka pertsona eta dozenaka batzorde berehala desegiteko mehatxupearan dagoen mugimendu batera laster-laster elkartzen direnean, eta, era horretan, 80.000 euroko isunarekin eta hiru urteko espetxealdiarekin zigorgarria den atxikitze edo berreraikitze delitu bat egiten dutenean, haizea aldatzen ari denaren seinale da. Estigmatizazio-estrategiak hanka sartzen jarraitzen du, kliman adituak diren pertsona batzuek, zeinak gobernuak harro dioen entzuten dituela, baieztatzen dutenean arazoa gobernuak ura pozoitzen dutenekin duen konplizitatea dela, eta ez Sainte-Solineko manifestarien ekintzak.

Frantziako udaberriko hirugarren ekintzan, eta lehen ministro zentzudunak Barne Ministerioko bere kidearen oldarrak baretu zituela zirudienean, Nantes eskualdeko baratzezaintza industrialeko enpresa handienetako zuzendarien negutegian pestizidak zituzten landare-esperimentuak suntsitu izanak beste polemika bat piztu zuen. Biharamunean, FNSEAk, Estatuaren ezinbesteko aliatuak, bere tutoretzapeko ministroari agindu zion Altxamenduak berehala desegiteko, bestela «bere tropak askatuko zituela». Komunikabide «adeitsuek» lausengatu egin zuten. Bozeramaile bikote bat jaso zuten herrialdeko programarik ikusienean, eta etengabe errepikatu zituzten sabotajeen eta konfrontazioen irudiak. Bikoteak aurkezlea kritikatu zuen, Alpeetako luxuzko estazioetan elurra sortzeko erabiltzen diren ur-biltegiei babes interesatua emateagatik.

Desegite-dekretua baino bi egun lehenago eta Lafarge zementu-fabrika baten desarmatzeari lotutako atxiloketen lehen bolada baten ostean, hamabost pertsona gehiago atxilotu zituzten, eta horietako bi dekretu horretan izendatuta zeuden. Ordu txikitan esnatu zituzten gizon armatu eta kaputxadunek, eta 72 orduz atxiki zituen Levallois-Perret-eko bunkerreko laugarren

sotoan Terrorismoaren Aurkako Zuzendariordeak.²⁵⁰ «Ekologismoan bide berriak bilatzeko» esan zien zuzendariorde hark, eta azaldu zien herrialdeko enpresa toxikoenei eragindako kalte materialak «muturreko indarkeria» kategorian sartzen zirela. Hainbat hilabetetako zelataren, jazarpenen eta entzuketan emaitza erakutsi zieten, baita telefonoetan software espioia instalatu izana ere. Parisen, Ministro Kontseiluan dekretua iragarri eta ordu gutxira, Greta Thunbergek —Suedian prebentziozko atxilotzetik atera berri—, elkartasun jarraitzaile talde bat alboan zuela, honakoa adierazi zuen: «Nonahi berriz hazten dena ezin da desegin» eta orain eutsi egin behar zaiola. Beste behin ere, elkarretaratzeak egin ziren herrialde osoan dekretuaren aplikazioari aurre egiteko, herrialdeko bazter auzoak eta hiriguneak haserrez lehertu baino lehen, Poliziak Nahel hil ondoren.

Mugimenduko hainbat batzordetako eta lurraldetako ki-deak berriz ere bildu ginen aletegi batean, gertatu zitzaigunaren larritasuna ebaluatu nahian. Zer neurri hartu behar genituen galdetzen genuen geure artean desegin ostean antolatzen jarraitzeko eta klandestinitatera pasatu gabe geure burua babesteko. Larzaceko goi-lautadan eta gonbidatu ohi gaituzten udako beste elkarretaratze askotan, mugimendua desegitea eragin zuten keinuak errepikatzeke deia egin genuen. Dozenaka erakundek eta milaka pertsonak borondatezko esku-hartzailatzat jotzen dute beren burua dekretuaren aurka protesta egiteko, eta Estatu Kontseiluaren zerbitzuek gainezka egiten dute. Abuztu bete-betean, izapideak gelditzeko kautelazko eteteari buruz egindako premiazko bistan, Barne Ministerioko ordezkariak iragarri zuen Lurraren Altxamenduak erakundeari elkartzeko 160.000 sinatzaileekin bat egiten zuen edonor «*de facto* inteligentzia zerbitzuen jomugan» jarriko zela. Sabotaje larriak eragiteko dugu joera kalifikatzeko, Deux-Sèvreseko Laborantza Ganberaren azpian lurrikara bat errebindikatzen duen fantasiatzeko komunikatu batean oinarritzen zen. Beauvau-ko mandatariak, halaber, bereizketa arazo txiki bat erakutsi zuen, erabateko umore faltaz gain, eta Estatu Kontseiluko aretoa barrez lehertzea lortu zuen. Egun horretan bildutako hiru epaileek mugimenduaren desegi-

250 *Reportage au 4e sous-sol de la Sous-direction antiterroriste eta Affaire Lafarge – solidarité devant le tribunal et déclaration à la juge*, liburuxkak Lurraren Altxamenduen webgunean eskuragarri frantsesez.

tea bertan behera uztea erabaki zuten, eta gobernuaren aurkako lehen iraina burutu zuten. Berri ona zazpi egunez eta ehundaka kilometroekin ospatu genuen, ur-biltegi handien aurkako uraren konboiaren 700 txirringuluariekin.

Debekatua izanez gero, bilerak Suitzan edo Belgikan egitea imajinatu ondoren, mugimendua Côte d'Or-eko baserri batean bildu zen dozenaka batzorde berrirekin, eta ekintza berriak prestatzeko lanari ekin zion. Urriaren 21ean, desegiteari buruz behin betiko erabakia hartu behar zuen Estatu Kontseiluaren bilkura baino astebete lehenago, A69aren aurkako sei jarraigoetako batek ke zutabe handiak eragin zituen Tarn-eko zeruan zementu-fabrika bateko hormigoi-makinetatik; beste jarraigo bat, aldiz, ZAD iragankor bat egiten ausartu zen. Kasu gehienetan gainerakoek jarraitu ohi duten Estatu Kontseiluko hizlari publikoak desegitearen aldeko iritzia eman zuen audientziaren aurrean. Iritzi hori «probokazio» kontzeptua gogortzean oinarritu zuen, eta horrek mugimendu sozial eta sindikal osoa mehatxatzen zuen. Desegiteak ia ziurra zirudien.

Erabakiaren egunerako, desegitearen erantzunak besterik ez genituen prestatu. Dekretua baliogabetzearen berria euforia oihuekin jaso genuen, eta xanpaina irekiz ospatu genuen Estatu Kontseiluaren parean. Barrikada politiko zehatz bat sei hilabetez eraikitzen egon izana saritzen zuen; haren atzean zegoen sinetsita geundela azken erabakia edozein izanda ere jarraitzea posible izango zela. Estatu Kontseiluak —instantzia judizial eta politikoak— indar harremana aitortu zuen bere erara. Gobernuaren errepresio sutsuaren aurrean erabat ez etsitzea erabaki zuen, baina, aldi berean, separatismoaren aurkako legearen gogortzea berretsi zuen, eta, ondorioz, GALE Lyon eta inguruetako talde antifaxista eta Arrazakeriaren eta Islamofobiaren Aurkako Koordinazioa desegin zituen. Bagenekien ez gintuztela bakean utziko, baina une horretan egin genien iraina agerikoa zen eta oso ondo sentiarazi gintuen. Sare sozialetan zehar bideo bat zebilen: Darmanin-Koiotea, beti bezala, Altxamenduak-Hankarina²⁵¹ desegiten saiatzen ari da, baina bere suziriekin desintegratuta amaitzen du. Benetako Darmanin, aitzitik, kameretatik literalki

251 [l.o.] *Koiotea eta Hankarina* Warner ekoizetxearen marrazki bizidun telesailari egiten dio erreferentzia.

ihes egiten saiatu zen BFM Frantziako telebista kateko kazetari batek zuzenean erantzuteko eskatu zionean.

Hemen jarraitzen dugu eta duela sei hilabete baino askoz gehiago gara.

Hipotesia: irautea eta handitzea

Epe luzera, borroka antolakundeen eragina oreka zail baten mende dago: alde batetik, indar harremana are gehiago bultzatzea, eta, bestetik, antolakunde horien forma edo babesten duten mugimenduaren existentzia gordetzea. Antolakunde horiek hiru oztopo nagusiri egin behar diete aurre: errepresio bidezko zapalketari, barne gatazken ondoriozko inplasioari eta espazio politiko instituzionalaren xurgapen bidezko neutralizazioari.

2023ko udaberriko sekuentziak Lurraren Altxamenduen egitura bera ere probatu zuen, zentzu guztietan. Gure kontraerasoak aurrekaririk gabeko ikusgaitasuna eman bazigun ere, larrialdi intentsiboko erregimen batean murgildu gintuen eta arrisku ugari aurre egin behar izan genion: gehiegizko pertsonifikazioari, osaketa heterogeneoegiari, nahi ez genituen deformazioei, eta gure mezua borroka mediatikoan desegiteari.

Larrialdi erregimenak erabakiak askoz azkarrago eta ondorio handiagoekin hartzea dakar. Mugimenduaren bizirau-penean ondorioak dituzten kontuetan eragiten du. Inoiz baino aginduzkoagoa denean erasoaren mailan egotea eta etengabe erabakiak hartzea, handitu egiten da horizontaltasun dinamiken eta erabakigune operatibo baten beharraren arteko desadostasuna. Larrialdiari aurre egiteko beharra harengatik moldatzen ez uztekoa bezain handia da. Mehatxuaren gorakadak geure baitan ixtera eraman gintzakeen, baina, guztiaren gaintetik, mugimenduaren oinarri herrikoia zabaldu zen unea izan zen. Errepresioari aurre egiten jarraituz, baina, batez ere, jauzi kualitatibo horrek eskaintzen dituen modu eta aliantza berriei esker ari da gaur egun Lurraren Altxamenduak berrantolatzen.

Ez utzi espetxeratzten

Azkenean, desegitea ezerezean geratu zenez, gobernuak areagotu egin behar izan zituen bere ahalegin legalak, politikoak eta polizialak, guri kalte egiteko. Alde batetik, Sainte-Solineko,

Grand Péril Expresseko edo Bouc-Bel-Airreko erantzunak kikiltzeko moduko errepresio operazio aski ikusgarriak eginez, eta, era horretan, kosta ahala kosta saihestuz, biztanleek beren ingurunea hondatzen duten azpiegiturak geldiaraztea. Beste aldetik, alor guztietako zelata eta fitzaketa areagotuz, besteak beste, Terrorismoaren Aurkako Zuzendariordezaren baliabide neurrigabeekin.²⁵²

Akatsa litzateke gure aurkarien baliabideak eta ankerkeria gutxiestea, 2023. urteko gertaeren euforiarekin txoratzea. Hala ere, kontua da beren errepresio-makineria ez dela inoiz ahal-guztiduna. Zuzentzen dutenak kontingentzien eta kontraesanen menpe daude, eta, ondorioz, erregulartasunez egiten dituzte akatsak; akats horiek haien kontra erabiltzen jakin behar da.

Altxamenduen bozeramaileen aurka, baina baita hainbat arduradun sindikalen aurka ere, epaiketak abiarazteko erabakiak fronte batu bat finkatzea ekarri zuen, ur-biltegien aurkako manifestazioen antolaketa zapuzteko. Bouc-Bel-Air kasuagatik dozenaka pertsona inputatzeak beste hainbeste ekintza antolatzea ekarri zuen. Lafarge jomugan jarri zuen berriz ere helburu enblematiko gisa, justu enpresa oharkabean pasatzen saiatzen ari zenean Sirian egindako krimenak ezkutatzeko.

Aho zabalik besterik ezin gara gelditu boterea erabiltzeak ahalbidetzen duen gezurraren erabilera desinhibituaurrean. Hala, Barne ministro batek esan dezake inoiz existitu ez den ZAD bat deuseztatu duela. Prefeta batek uste du baiezta-tu dezakeela «suntsipen handiko armen garraioak»²⁵³ burutzen ditugula manifestatzeko debeku-ordenantzak justifikatzeko. Zorionez, prozesua jarraitzaileen aurka bihurtu ohi da. Horrela, «ekoterrorista» izendapena harro egoteko arrazoi bihurtu da, eta mundu guztiak barre egiten du Garona Garaiko prefetak komunikatu batean azaltzean, urriko A69ren aurkako manifestazioan, «profil erradikaleko gutxienez 2.500 pertsona bereizi zirela 2.400 pertsonako jarraiotik bidegabekeriak egiteko».²⁵⁴

252 *Affaire "Lafarge". Les moyens d'enquête utilisés et quelques attentions à en tirer*, liburuxka Lurraren Altxamenduen webgunean eskuragarri frantsesez.

253 Baieztapen horiek La Clusaz-en edo Saint-Colombanen, 2022ko udaberrian, Lurraren Altxamenduen manifestatzea debekatzen zuten aginduetako «kontuan hartuzkoetan» agertu ziren.

254 «La manifestation a réuni 2400 personnes dans le cortège déclaré, moins qu'en avril 2023. 2500 individus violents se sont détachés du cortège déclaré pour commettre

Duela urtebetetik, auzitegiek baldintzapeko espetze zigorak ezartzen dituzte, eta batzuetan, espetxealdi zehaztuko zigorrak, ur-biltegien aurkako ekintzak antolatzeagatik edo horietan parte hartzeagatik. Era berean, ugaritu egin dira A69aren aurkako erresistentziaren kontrako jazarpen judizialak. Lege berriek manifestazioak ito nahi dituzte.²⁵⁵ Fiskaltzek «desobedientzia zibilaren arrakastatxoa»²⁵⁶ amaitzeko agindua jaso dute, eta epaileek sarri aplikatzen dituzte beren gomendioak; adibidez, lurraldean sartzeko debekuak xedatuz hainbat urtez.²⁵⁷ Helburua da adiskidetasunak haustea, defendatzen ditugun lurraldeekiko loturak moztea eta gure harremanen sendotasuna frogatzea. Nork bere burua defendatzeak erasotzen jarraitzea esan nahi bada, kontua ez da istant batez ere alde batera uztea elkartasun kutzak eta auzitegien pareko elkarretaratzeak, defentsa juridikoa eta lagunarteko keinuak, akusatuen omenezko jaiak eta espetxeen pareko su artifizialak. Haiekin are gogorra goa den justizia arrazista eta klasista bati aurre egiten dioten mugimenduekiko elkartasuna indartzeko aukera ere bada.

Batzordeen etorrera

Gure esperientziatik —Susa haraneko jende uholde heterogeneoak, Notre-Dame-des-Landeseko baso txikiak edo Jaka Horien manifestazioak—, askok sinesten dugu guztiaren gaitetik, borroka masibo eta herrikoien izaera guztiz beharrezko eta desiragarrian. Ez da soilik zenbakien kontua, eguneroko bizitzan sustraitzearena, zeharkakotasun sozialarena eta geografikoarena, ezagutzak ugaritzearena, informazio iturriena eta ekintza-palankena ere bada.

Maila-jauzi batek maizegi bere etorrera eragozten duena gaititzea dakar: berdinketaren beldurra edo, alderantziz,

des exactions» Garona Garaiko prefeturaren komunikatua, 2023ko urriak 8.

255 Sainte-Solineko manifestazioaren ostean, ikerketa-batzorde parlamentario bat sortu zen «egondako biolentzia gauzatu zuten taldeak egituraketa, finantzaketa, bitartekoak eta ekintza-modalitateak» ikertzeko. Hainbat lege proposamen ekarri ditu.

256 Irailaren 7an, ikerketa-batzordearen aurrean, Éric Dupond-Moretti Justizia ministroak «gogaituta» dagoela adierazi zuen «desobedientzia zibilaren arrakastatxoa»-ren aurrean.

257 Niorteko ur-biltegien aurkako manifestazioen ostean egindako epaiketetan, epaileek ia sistematikoki ezarri zituzten Deux-Sèvreseko departamenduan hiru urtez agertzeko debeku-zigorrak, bai parte-hartze hutsagatik, bai mobilizazioen ustezko antolaketaagatik.

gehiegizko heterogeneotasunaren, burokratizazioaren edo kaka-foniaren beldurra. Altxamenduen 150 tokiko batzorde sortzeak lehen baino askoz ere antolakunde masiboagoa eta lurraldeka finkatuagoa eratzeko bidea ireki zuen. Batzorde horiek hilabete gutxitan sendotu ziren, tokiko borrokei eta trebakuntzari emandako laguntzari esker: informazio buletin bat eta komunikabideak, eskualdeko topaketak, mobilizazio nazionaletara joateko koordinazio eremuak eta ekintza kanpaina deszentralizatuak.

Batzorde asko babes eta erronka keinu gisa eratu baziren ere, haietako gehienak ez ziren hor geratu. Tokian-tokian erantzuten diote konpromiso eta osaketa mota zehatz bat bilatzeari. Hormigoiaren munduaren aurkako kanpainak erakutsi zuen haietako asko zenbateraino zeuden prest konpromiso irmoa hartzeko.

Lurraren Altxamenduek bultzatutako tokiko mobilizazioen ugalketa autonomora irekitzea erabaki dugu, mobilizazio horiek lurraren eta uraren defentsarako blokeoei, okupazioei eta desarmatzeei buruzkoak badira.²⁵⁸ Ez da kontraesankorra sasoi-ko batzarrak egitearekin; haietan mugimendu osoaren historia komun baten haria ehuntzen duten Frantziako bateratze ekintzak eztabaidatzen dira.

Ekintza autonomia hori antolakundearen geruzen arteko gehiegizko mendekotasunaren arriskuen aurkako babesa ere bada. Batzordeek zeharkakotasunaren gure praktika berritzera gonbidatzen gaituzte. Altxamenduen ekintza nazionalen presataketak ez dago hain instantzia zentralizatuen mende. Ekintza masiboetan taldean parte hartzea batzordeetatik antola daiteke. Batzorde horiek sakontzen dute honako hauen kohesioan: estrategia partekatuaren elaborazioan, Frantziako babes-egituraren lanketan eta mugimenduaren tokiko gorpuzte bakoitzaren berezitasunean.



Estatu Kontseiluak desagitea behin betiko baliogabetzeak eta hormigoiaren aurkako ekintza-jardunaldiek amaiera eman

258 «Les comités passent à l'action», Lurraren Altxamenduen webgunean eskuragarri frantsesez.

zioten mugimenduaren lehen faseari. Liburu hau jarraipena-
rekiko lotura gisa idatzi dugu. Azken lerroak milaka traktore
herrialdeko errepideak geldiaraztera irteten ari ziren bitartean
idatzi genituen, administrazioa, hipermerkatuak eta plataforma
logistikoak jomugatzat zituztelarik. Blokeo batzuetan parte har-
tzeak eta nekazarien amorru lehergarri, masibo eta beharrezko
bezain paradoxiko honekin bat egiteak gure usteak astindu ditu.
Arerioa eta laguna aldi berean, nekazarien altxamendu baten
aukerak suspertu ditu. Agerian utzi du agroindustriatik zetorren
aparatu sindikalaren gainezkatzeko partziala.

Horrez gain, liburu hau idatzi zen biodibertsitate uhar-
tetxo batera Île-de-Franceko inperio logistikoa aurreratzearen
aurka, Clermont-Ferrand hiri goialdean herrialdeko ur-biltegirik
handiena eraikitzearen aurka, Montagne Noire-eko asfaltatze-
aren aurka eta Akitaniako Ziron ibar preziatuaren babeserako
prestatzen ari ziren ekintzak borborka zeudela...


Gure azken batzarretan aurkeztutako proposamenen
kopuruak eta haien heldutasunak nabarmentzen dute hiru
urtetan bi aldeek ikasitakoaren hedadura. Antolakundearen
aurrerapenaren erradiografia moduko bat ematen dute. Infor-
mazioa eskaintzen dute kanpamentuak muntatzeko, jarraigoak
antolatzeko, haiek elikatzeko eta babesteko tresnak transmiti-
tzeari buruz.

Osaketari irekitako koordinazio eremuen eta ekintza zu-
zenaren moduan pentsatzeko eskuratu dugun ohitura islatzen
dute. Ezin dira kopiatu eta itsatsi. Ez dago Lurraren Altxamen-
duen mobilizazio estandarrik; dela hamabost lagun une egokian
lehorreratu behar direnean, dela glaziar baten gainean, dela
Olinpiar Jokoen bezperan astebetetz berriz ere Deux-Sèvresko
lurretan ezarri behar denean. Mugimenduaren hasierako as-
moek eta jauzi kualitatiboak eskatzen duten mailan aritzeak
etengabeko berrikuntza taktikoa eskatzen du.

Irudipen batean, zenbait neurri eztabaidagarri porrot egi-
tear daudenean, neurri horien aldekoek amore emateko gogo
gutxiago dutela dirudi. Hain zuzen ere, ur-biltegien proiektu
gehienak bertan behera utz litezkeenean sentitzen dute beharra
frogatzeko oraindik beste hiru egiteko gai direla. Hain zuzen ere,
duela 40 urteko autobide zahar gutziatsu multzo bat behin be-
tiko baztertu litezkeenean, buru-belarri egiten dute lan gutxienez

A69ko obrak amaitzeko. Eta zehazki une horretan eutsi behar zaio. Gure borrokek erakusten dutena da Estatuaren arrazoiak eta interes industrialekiko eta finantzarioekiko duen mende-kotasunak, zenbateraino egiten dioten entzungor herriaren erabakitasantzari. Era berean, erregulariki erakusten dute, atalase bat gainditu ondoren, egoerak kolpetik eman dezakeela bira gure alde.

EKINTZA BATEN
ERAGINA NEURTZEA



LURRIKARAK

Uste dut beren botereari buruzko zalantzazko
pentsamenduek —beldurrak, ezbaiak, ikarak, dudak
eta anbigutasunak eragina duten pentsamendu dardaratiek— soilik
jasotzen dituztela hobeto gertatzen ari diren aldaketak.

Édouard Glissant

Hiru urte. Historia labur eta mamitsua. Benetako hasiera bat. Lehen astinduak. Lurrikarak haitzen hausturak bat-batean energia askatzea eragiten duenean gertatzen dira. Haustura bat gertatzen da, gehienetan, aurretik dagoen faila batean barrena, eta uhin sismikoak hedatzen dira. Geofisika lurrikaren jatorria eta dinamika ulertzen hasi bada ere, Lurraren Altxamenduena misterio bat da oraindik.

Inteligentzia zerbitzuen sismografoaren orratza erotu egiten da gure borroken uhina epizentrorik gabe hedatzen den heinean. Gure mugimendu gaztearekin zer gertatuko den aurreikusteko ez dago eredu iragarlerik. Asko jota, hiru bilakaera antzeman daitezke lehen astindu horiek lurrikara bihurtzeko:

Lehena mugimendu antolatuarena da, zeinak Frantzia osoan zehar bere sarea josten duen. Sare bat honako elementuez osatuta: tokiko batzordeak, ikerketa eta ekintza taldeak, lotura-puntuak eta gero eta entzule gehiago dituzten komunikabideak, erakundeen eta enpresen barnean dauden satorrak, formakuntzak eta eztabaida teorikoak, gordeleku diskretuak eta fatxada kalerantz duten lokalak, herri-batzarrak eta kideetasuna duten

inguru kooptatuak, erresistentziako kideak eta herriko etxeak,²⁵⁹ balia bide material eta finantzarioak, borroka-guneak eta erretagoardia-baseak, hedadura handiko mobilizazioen asteburuak eta ustekabeko agerpenak. Horrelako mugimendu antolatu baten benetakoa erresistentzia sare bihurtzea du helburu, hau da, ekintza zuzenaren bidez hondamendiaren eta desjabetzearen oinarri materialak ahultzen dituen erakunde egituratu bat, aldi berean, herritarren babes zabala duena. Hauteskunde programa bati edo identitate politiko bati atxikitzean baino, horrelako sare bat emozio kolektibo batean eta azterketa estrategiko komun batean oinarritzen da. Egoera taktiko baten aurrean ekintzaren hautua irudikatzen du eta keinuen espektro zabala barne hartzen du: eguneroko elkartasun adierazpen txikienetatik hasi eta desarmatze operazio koordinatu ikusgarrieneraino. Askotari-ko antolakunde multiformeen sare baten forma hartzen du. Bere lantokitik makien iruditeria eta informazioaren ihes diskretua antolatzen du. Erresistentzia sare bat dagoeneko garena eta, aldi berean, askoz modu kontsekuentegoan izan nahi duguna da.

Bigarren bilakaera lurraldeena da; haiek defendatzeko hainbesteko borroka-dentsitatea izango lukete, ezen pixkanaka gobernaezinak bihurtuko liratekeen. Imajina dezagun muga administratiboak arbuatuko lituzkeen lurralde bat, zaintzen ez dutenentzat menderaezin bihurtuko litzatekeena, planifikatzaileen proiektuetatik ihes egingo lukeena, biztanleen praktikek eta etorkizunek molda dezaten. Borroka garaileak eta arbuio irmoak autonomia politiko eta material bat eraikitzearekin eratuko liratekeen lurraldea. Pixkanaka-pixkanaka, bere erabakien eskariei, gatazkak sortu eta konpontzeko tresnei, elkartasun-organoei, zainketarako eta harrerarako lekuei irmotasuna emango lieken lurraldea, eta, era horretan, Komunaren posibilitatea zirriborratuko lukeena. Lurralde bat, hamar lurralde, ehun lurralde...

Hirugarren bilakaera esku-hartzeko indarrarena da; nazio mailako mugimenduak —herrialdea eremu sozialean erregularki astintzen dutenen modukoak— gertatzen direnean esku

259 [I.o.] Herriko etxeak kasu honetan ez du udaletxe esan nahi, *maisons du peuple* terminoa adierazi nahi du. *Langileen etxe* ere deitu ohi zaie eta izenak dioen moduan langileentzako zenbait jardueretarako erabiltzen diren eraikinak dira. Haien artean legoke mugimendu barnean lotura sozialak indartzeko balio duen oro, hala nola, bilerak, eztabaidak, hitzaldiak, kontzertuak eta erakusketak.

hartzeko gai den indarra. Jaka Horien edo Europako nekazarien matxinaden antzera, probableagoa da mugimendu horiek klima aldaketara gaizki egokitzearen erreakzio gisa sortzea, hondamendiaren beraren aurkako erreakzio gisa baino. Gobernuak neurri ekologiko antisozialen alde jartzen diren bitartean, badirudi horrelako matxinadak errepikatu egingo direla etorkizunean. Ondorioz, beren egutegira mugatu beharrean, Lurraren Altxamenduak inizatiba indar bat bihurtu beharko lirateke. Herrialde osoan zehar manifestazio handiak eta blokeoak gertatzen diren segida horietan, gure misioa lurra okupatzea da, presentzia ziurtatzea, posizioei eustea.

Bertan egotea eta, batez ere, eskuin muturrari eremua libre ez uztea. Horrelako uneetan, kale hartzeak, grebak, okupazioak, blokeoak eta desarmatzeak antolatzen lagun dezakegu. Egoeraren agintea hartu nahi dugu bultzatzeko norabide batean ez dena ez industriei ordez pobreei ordainaraztea erabaki duen Estatuaren ekologiarena, ez hondamendia antolatzen duen politika neoliberalarena, ezta termometroaren merkurioa bezain azkar igotzen den molde zaharreko faxismoarena ere.

Hiru ildo nagusi horiek —erresistentzia sarea, lurralde gobernaezinak, mugimenduetako esku-hartzea— bereizita zirriborratzen dira, errealitatearen entusiasmoan hobeto nahasteko elkarren artean. Ildo horiek beste batzuk ezkutatzen dituzte, aurretik sumatu ezin direnak, eta, zalantzarik gabe, ezustean harrapatuko gaituzte. Argi dagoen gauza bakarra da berriz elkartuko garela. Lurraren Altxamenduen hurrengo ekintzetan elkartuko gara. Tokiko batzordeetan eta gure inguruko lurraldearen borroketan elkartuko gara. Haien ur-biltegiak eta autobideak eragozteko elkartuko gara, industriaguneari eta hormigoi-industriari aurre egiteko. Ekiteko, blokeatzeko, desarmatzeko eta okupatzeko elkartuko gara. Gure esku dagoen guztia, eta are gehiago egingo dugu lurra eta ura defendatu eta berreskuratzeko.

Krepuskuluko distiran, gaua badatorren edo egun berri bat argitzen ari den jakin gabe, eboluzioaren teoria guztiek gauaren etorrera iragartzen duten bitartean, barruan daramagun txinpartatxo batek, isilean eta egoskor, egunsenti berri bat iragartzen jarraitzen du.

Martin Buber



KRONOLOGIA

1. denboraldia

2021eko martxoak 21 – *Vaïteseko lorategia defendatu egiten da.* Besançonen, ekoauzo baten proiektuaren ondorioz, Vaïtes auzoko bizilagunek laboratutako hiri baratzeen eta hezeguneen 34 hektarea arriskuan zeuden: erantzun moduan, ehunka pertsona zuzenean mehatxupearan zeuden lursail berriak laboratzera joan ziren. Ibilbide naturalistek lorategi horietako eta inguruetako habitat eta espezie guztiak azpimarratzen zituzten.

2021eko apirilak 10-11 – *Prévalayeko belardietan futbolearen eta baratzezaintzan.* Prefetaren debekua eta euri-jasak egon arren, jarraigo alai batek hiria zeharkatu zuen eta Prévalayen, borroka berriz hornitzeko beharrezkoa dena erein zuen, Rennesko estadioa handitzeko gordeta zuten eremuan. Asteburua futbol txapelketa herrikoi batekin amaitu zen.

2021eko maiatzak 22-24 – *Sumendi-muinoen aldeko borroka asteburua.* Loira Garaiko laborantza lurretan eta hezeguneetan noranzko bakoitzeko bi erreiko errepidea eraikitzeko Laurent Wauquiez-ek antolatu zuen proiektuaren aurka, baratze bat eta txabola bat eraiki zituzten ibilbidean, eta topografoen hesolak erauzi zituzten zuzien argitan gaueko martxa batean. Sumendi-muinoen aldeko borroka —hala du izena— ekiloreak, zekalea eta patatak erein zituen ostean desjabetutako nekazarien lurretan. Borroka hark duela gutxi artalde bat erosi zuen ibilbidean bazka zezan, obrara bisitak eta miaketak egiteko, eta inguruko herrietako biztanleekin loturak ezartzeko.

2021eko ekainak 19-21 – *Saint-Colomban harrobien handitzearen aurka.* Jarraigo bat Lafargeko harrobi bat inbaditzen

saiatu zen, hura handitzeak baratzezaintzako lurak mehatxatzen baitzituena, eta, bitartean, nekazarien berrogei bat traktorek harrobi bereko hondarrez hornitutako baratzezaintza industrialeko plataforma bat blokeatu zuten. Asteburua kontzertuekin eta pankarta ugariarekin amaitu zen.

2021eko ekainak 29-30 – *Grand Péril Express*. Goizeko ordu txikitik, 500 pertsona agertu ziren Gennevillierseko portuan, hau da, Paris Handiko hormigoi ekoizpen plataforma nagusian. Hiru hormigoi-zentral eta zementu-fabrika bat okupatu zituzten biharamunera arte eta aste ugariarako neutralizatu. Lurraren Altxamenduek burututako lehen desarmatze ekintza kolektiboa da.

2. denboraldia

2021eko irailak 22 – *Manifest-akzioa ur-biltegi handien aurka*. FNSEaren biltzar erdian, 400 pertsona eta 30 ahari Loirako traktore konboi bati atxiki ziren eta Mauzé-sur-le-Mignoneko ur-biltegi handi baten obrak hartu zituzten. Lanak eten zituzten eta hondeamakina bat desarmatu.

2021eko urriak 9-10 – *Île-de-Franceko lur emankorren aldeko martxak Parisen*. Île-de-Franceko Gonesse, Grignon, Saclay edo Val-Bréon udalerrietatik hasi ziren martxak Paris erdian elkartu ziren borroka komuna dela azpimarratzeko. Aubervillierseko lorategietako JADetik igaro ziren martxak, eta bertatik kanporatua izan zen arren, hormigoitzearen aurkako borroka irabazi zuen azkenean, igerileku olinpiko baten proiektua zela eta.

2021eko azaroak 6 – *Ur-biltegia hartzea*. Manifestazioak prefeturak mugatutako eremu debekatua inguratu zuen eta polizia-lerroak zeharkatu zituen Cram-Chabaneko ur-biltegi illegalera iristeko. Kuterrek haren olana urratu zuten eta elikatzen zuen ponpa desmuntatu munduko rock talderik onenak pirata-barku batetik jendetza dantzan jartzen zuen bitartean.

2022ko urtarrilak 29 – *Errentari baino mahastizain*. Lurren metaketaren aurka, Jurako nekazariari batu ginen abandonatuta zeuden mahastien bi hektarea sastrakaz garbitzeko, ABJ higiezi-
nen talde batek lursailak metatu eta lugorritan utzita baitzituena. Helburua: mahastiak ezartzea lurak espekulazioaren menpe utzi beharrean.

2022ko martxoak 5 – Bye-bye Bayer, ciao Monsanto. Bezperan segalari boluntarioak fabrika agrokimiko batean ustekabeen sartu ondoren, lan-jantzi zuriz jantzitako ehunka pertsona «Villefranche-sur-Saôneko Seveso» gisa sailkatutako ekoizpen-lantegiaren ingurura iritsi ziren, eta itxiera behartu zuten. Egun horretan bertan geroago, milaka lagun manifestatu ziren multinazionalak Lyonen duen egoitzaren inguruan.

3. denboraldia

2022ko martxoak 25-27 – *Marais Bretoneko udaberria ur-biltegi handien kontra*. 6.000 pertsona elkartu ziren eztabaidaz eta lantegiez betetako asteburu baterako. Larunbateko manifestazioan zehar, etorkizuneko ur-biltegi bat beteko zuen hoditeria kolektiboki desarmatu zuten.

2022ko apirilak 2 – *Barazkiak, ez asfaltoa*. Vaîtesera itzuliz: etxebizitza sozialen oinetan, hormigoiz bete zezaketen lursail batean, manifestazioak baratzezain bat jarri zuen, barazkiak auzoko biztanleei AMAP pirata baten bidez banatzeko. Frantziako lehen baratze herrikoien inguruko jardunaldiak egin ziren lekua ere bada.

2022ko maiatzak 14-15 – *Charivari²⁶⁰ handia* Pertuiseko ZAPen (Pataten eremua). ZAPak hilabete batzuk zeramatzan etxeak eta lurrak okupatzen 86 hektarea lur defendatzeko merkataritzagunearen proiektu baten aurrean. Asteburu eguzkitsu horretan, inauterietakoa zirudien jarraigo batek hiria zeharkatu zuen, eta Roger Pellenc bertako baroi eta artifizializazio horren enpresari onuradunaren makinak alaiki desarmatu ziren.

2022ko ekainak 25-26 – *Gailurren orroa*. Lehenagoko udazkenean basoko lanak lehen aldiz blokeatu ostean, txangozaleen eta manifestarien jarraigo batek herriko lau ur-biltegi-tako bat setiatu zuen. Bezperan, ustekabeko gaueko ekintzek MGM higiezin agentzia taldea seinalatu zuten proiektuaren arduradun izateagatik. Mobilizazio horren ondoren, iraila amaieran, bigarren «Cluzad» bat ezarri zen, mehatxatutako basoan, eta obren hasiera berriro blokeatzea lortu zuen. Urtebete geroago, bertan behera utzi zuten elur artifizialeko kanoiak elikatu behar zituen muinoko urtegiaren proiektua.

260 [I.o.] Inauteri zaratatsu, aldarrikatzaile eta jai-giroak dira.

2022ko uztailak 3 – Atsedetik ez harrobientzat. 1.500 pertsona eta 50 traktore elkartu ziren hondar-harrobiaren parean. Baratzezaintza industrialaren soberakinetakoko barazki ustel tona ugari bota ziren harrobi aurrealdera. Jarraigoak ondoren, Redour ibaiko ura Vineten mesedetan —eskualdeko baratzezain industrial handiena— lapurtzen zuen uhate ilegal bat deuseztatu zuen.

2022ko abuztuak 28 – *Bernarden etxaldean mahats-bilketa basatia*. 200 pertsona baino gehiagok mahasti ilara batzuk bildu zituen Bernard Arnault mila milioidunaren LVMH inperioak erositako lursail batean, eta ehunka litro mahats zuku atera zituzten.

4. denboraldia

2022ko irailak 22 – *Saint-Colombaneko sorrera*. Goizean goiz Lafarge harrobian sartu ziren, eta egun osoan zehar blokeatu zuten, Christophe Béchu Trantsizio Ekologikoko ministroa Nantecera joan zela eta.

2022ko urriak 29-30 – *Ur-biltegi gehiagorik ez!* Kanpamentu bat ezarri zen ureztatzaile ohi baten lurretan Sainte-Solineko obretatik kilometro batzuetara. 8.000 pertsona elkartu ziren prefetaren debekuak gorabehera. Hiru jarraigo koloretsu dispositibo polizialaren aurka jaurti eta zeharkatzea lortu zuten, ur-biltegirantz aurrera egitea eragozten saiatzen ari ziren lerroak banan-banan gaindituz.

5. denboraldia

2023ko martxoak 25-26 – *Sainte-Solinera itzultzea*. Aldi honetan, 30.000 pertsona inguru eta 50 traktore baino gehiago elkartu ziren. Hiru jarraigo abiatu ziren obrara berriro, eta Confédération paysannek errenkada luze bat landatu zuen berriz. Behin hara iritsita, ur-biltegiaren inguruan lubakituta zeuden milaka jendarmek manifestariak izutzeko agindua bete zuten, jendetzari inoiz ez bezalako granada zaparrada handia botaz. Ur-biltegiaren sarearen zati bat desarmatu zen itzulerako bidean.

2023ko apirilak 22-23 – *A69rako errepide irteera*. Gérald Darmaninek Lurraren Altxamenduak desegiteko mehatxua egin eta egun batzuetara, La voie est libre kolektiboaren inguruko koalizio batek mobilizazio handi bat antolatu zuen, eta 8.000 pertsona

baino gehiago bildu ziren Castres eta Tolosa arteko A69 autobidearen proiektuaren aurka. Azkenean, jarraigoak autobidea hormigoizko blokeekin blokeatu zuen, goitibeheren moteltasun-lasterketa handi bat sustatu aurretik.

2023ko maiatzak 5-8 – Des bâtons dans les routes: basoaren deia asfaltoaren aurrean. Rouenetik gertu, A133-A134 autobidearen proiektuak mehatxatutako 516 hektarea babesteko, Naturalistes des terresek gidatutako lau jarraigok basoa berrarmatu zuten berriro: haiek moztea eragozteko zuhaitzetan iltzeak eta muxarrentzako habiak jarri zituzten eta urmael bat egin zuten hura zulatuz. Biharamunean, egurrezko jolasak ezarri zituzten basoan, haurrentzako ZAD bat sortuz, eta, bitartean, ehunka pertsonak alboko autobidera joan eta zirkulazioa blokeatu zuten.

2023ko ekainak 11 – Saint-Colombanetik Nanteserako hondar konboia. Ehunka bizikletaz, autoz eta traktore batzuez osatutako jarraigoak Loira hegoaldean hondar ale baten ibilbidea egin zuen. Mugeta eta labore esperimentalak artobeltz ekologikoaren ereintzaz ordezkatu zituzten, eta ureztatze-sistema desmuntatu zuten. BHR hormigoi-zentralaren ur hornidura ere moztu zuten. Mobilizazioak bat egin zuen Nantesko egungo CHU unibertsitate ospitalea lekuz aldatzearen erabakia hormigoi gose-egarrizkoa eta zentzugabea zela zioen manifestazioarekin, eta proiektuaren sustatzailearen Nantes Métropole eraikin baten sarrerako atea lurrez eta lastoz bete zuten.

2023ko ekainak 17-18 – Lyon-Turinen aurkako manifestazioa. Lurraren Altxamenduak mugimenduak bat egin zuen Italiako No TAV mugimendu mitikoarekin, eta mobilizazio handi bat antolatu zuten, zeina segurtasun-indarrak erreprimitzen saiatu ziren. Jarraigoaren zati batek polizia-lerroa saihestea lortu zuen alboko autobidea blokeatzeko, giza kate izugarri solidario eta erabakigarri bati esker, autobidea bereizten zuen uholdea zeharkatuz.

2023ko abuztuak 18-27 – Uraren konboia. 700 txirindulariko konboi irmo bat eta traktore-multzo bat Sainte-Solinetik Parisera iritsi ziren zortzi egunetan. Bidean, agroindustriak eragindako hondamendiak egiaztatu zituzten, eta atsedendialdiak egin herritarren abegikortasunak eta berotasunak markatutako herri-etapetan. Orléanseko Uraren Agentzian geldialdi bat egin ostean (ur-biltegi handien finantzatzailea da), Parisetik bizikle-

taz eta oinez zihoan manifa basati handi batek amaiera eman zion ibilaldiari.

6. denboraldia

2023ko urriak 7-14 – *Giroseko glaziarraren lanak blokeatzea.* Glaziarrean teleferikoaren hirugarren atal bateko lanak hasten ziren bitartean, alpinista talde txiki bat 3.400 metroko altitudetan kokatu zen lanak blokeatzeko, elurrak erreleboa egin arte.

2023ko urriak 21-22 – *A69an zalaparta asfaltoan.* 10.000 pertsona sei jarraigotan banatu ziren, eta bakoitzak bere erara eraso egin zion autobidearen proiektuari. Traktoreak eta bizikletak Castredera bidean manifestatzen ziren bitartean, mila pertsonak hormigoi-zentral bat desarmatu zuten, beste talde batek ibilaldi naturalista bat egin zuen, eta beste batzuek armadura bat eraiki eta «Cremzad» inauguratu zuten autobidearen bideak erasandako eraikuntzetan. Biharamunean, zientzialariak proiektuaren zentzugabekeria salatzen ari ziren mahai-inguru baten erdian, ZADa hustu zuten bortxaz.

2023ko abenduak 9-12 – *Lafargerren eta hormigoiaren munduaren aurkako ekintza jardunaldiak.* Bouc-Bel-Airren, Lafarge zementu-fabrika desarmatzearen urteurrenean, Lurraren Altxamenduen tokiko batzordeek, besteak beste, hormigoizko 56 kokapen hartu zituzten jomugatzat deszentralizatutako ekintzen bidez, elkarretaratze publikoetatik hasi eta gaueko desarmatzeetara arte, lantegietako burdin hesietan pankartak jartzetik igaroz.

LURRAREN ALTAMENDUAK MUGIMENDUAREN GAUR EGUNGO EGITURA

Hauxe da Lurraren Altxamenduen egungo egitura: —*Interludioak*. Sei hilez behin egiten diren batzarrak dira eta bertan parte hartzen dute Frantziako ekintzen egutegia prestatzen duten tokiko batzordeek, komisioek, tokiko borrokek eta mugimenduarekin konprometitutako antolakundeek. —*Lehendik zegoen edo eratzen ari den batzordeen multzoa*: komunikazioa, formakuntza, lege kontuak, ikerketa, nazioarteko harremanak, antolakunde politikoekiko harremanak, kontabilitatea, idazkari-tza... Sei hilean behingo bilerez gain, batzordeak mugimenduaren baliabide estruktural iraunkorrak dira. —*Mota askotako ekintza (iraunkor edo puntualen) koordinazioak* tokiko koalizioek (Bassines, Lyon-Turin, Saint-Colomban, A69...) eta tokiko koalizioekin konprometitutako pertsonak osatzen dituzte. —*150 tokiko batzorderen sarea*, haietako batzuk Suizan edo Belgikan. Jarraipen batzorde batek laguntzen ditu eta erregulariki elkartzen dira eskualdeko batzordeetan. Tokiko ekintzak modu autonomoan burutu ditzakete, baldin eta helburuen gaia, ekintza moduak eta osaketari eskainitako arreta bat datozen Lurraren Altxamenduekin. —*Tokiko eta nazioko taldeak eta antolakundeak* beren burua mugimenduaren kideztat dute eta estuki laguntzen diote. Beren gai nagusi gisa ekologismoa, lurraren jabetza edo nekazarien borrokak ez zituzten soldatapeko langileen sindikatuak eta talde antifaxistak modu erregularragoan batu ziren mugimendura. —*Batzordeen arteko koordinazio eremua*. Mugimenduko erakundeen arteko lotura eta batzarren arteko erabakien jarraipena ahalbidetzen du. Haren helburuak honakoak dira: ekintzen koordinazioa bermatzea, denboraldiko komunikazioaren ildo

nagusien eta hartu beharreko erabaki estrategikoen iritziak trukatzea, batzarren antolaketa hastea, eta larritasuna duten egoerei erantzutea. Lurralde-lotura desberdinak dituzten dozenaka pertsonak osatzen dute; hurrenez hurren, batzorde batean edo bestean parte hartzen dute, eta hainbat talde politikotatik datoz. —*Formakuntza uneak*. Ekintza bakoitzaren antolaketari lotuta daude, eta helburua komunikazioaren, ekintzaren lan-ketaren, laguntza legalaren eta abarren inguruan gaitasunak transmititzea da, baita tokiko koalizioek autonomia irabaztea ere. —*Leku, baserri eta eremu okupatu multzoa*, mugimenduaren lagun diren espazio gisa erreibindikatzeko direnak. —*Zainketa gune aliatua*. Riots Fight Sexism dinamika, Festivities Fight Sexism-en antzekoa, tokiko ur-biltegien mobilizazioak eta eraso sexistak eta sexualak prebenitzeko eta horiei erantzuteko beste ekimen batzuk antolatzearekin lotuta eratu da, desgaitasunen edo laguntza psikologikoaren arloan lan egiten duten kolektiboekin zainketa gune bat osatu aurretik. Mediku taldeak koordinatu egiten dira mobilizazio bakoitzean bertan egoteko. —*Ezpal bereko dinamikak, konplizeak eta, aldi berean, lotuak eta autonomoak*. Intercantine de l'Ouesten kasua da, duela hilabete batzuetatik, ur-biltegien aurkako mobilizazioetan partaideak elikatzeaz arduratzen da, nahiko ahalmen esponenzialarekin, eta Frantziako beste kantina batzuk ere inspiratu ditu. Naturalistes des terresen kasua da, herrialde osoan zehar efemeropteroen, goroldioaren, kakalardoen, igaraben eta beste mirotz urdinen mila lagun baino gehiago biltzen dituzte. 2023ko udazkenean, Lafargeren eta hormigoiaire munduaren aurkako jardunaldien oihartzun gisa, Bâtisseurs des terres agertu zen. —*Informazioaren zabalpen, harrera, eztabaida eta transmisio espazioak*: debekatuz gero, mugimenduaren berri emateko konpromisoa hartu duten hedabide libreak, webgunea, sare sozialak, toki publikoak. —*Baliabide material multzoa*: geurea edo kontakturen bati eska diezaioketuna kanpamentuak, auto-ilarak, manifestazioak, eta abar abiarazteko. —*Lurraren Altxamenduen aletegiak*, beste era batera esanda, elikadura elkarren artean partekatzeke eta hornitzeko sareak, Rennesko Hornidura Sarearen deia ondoen sortzen ari direnak. —160.000 pertsonako oinarria horiek guztiek auzitegian deklaratu baitzuten mugimenduaren parte zirela: «Lurraren Altxamenduak gara».

